


LESBIANAK, LEGEZ ETA BIDEZ

*Begiratu bat: EAEko gizarte baliabideei dagokienez,
emakume lesbianek dituzten aukerak eta erabilerak*



Inmaculada Mujika Flores (Koord.)

Elena Olaortua González

Josune Ortiz Atienza

Amparo Villar Sáenz

Itzulpena: **Miryan Irastorza San Vicente**

Zuzenketa: **Josune Ortiz Atienza**

2013ko EMAKUNDE BEKA

Egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen kolektiboan, eta bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzerakoan, eta segurtasunean.

AURKIBIDEA

HITZAURREA	5
ESPARRU TEORIKOA	
BALIABIDEAK ONGIZATE GIZARTEAN	9
GENEROEI ETA SEXUALITATEEI BURUZKO OHARRAK	10
Genero heteroarautuaren eta bitarraren sistema	
Aldaketarako bazterketak eta erronkak: sexu eta genero aniztasuna	
AUKERAK BIDERKATUZ	15
EMAKUME LESBIANAK	19
Sexuaren eta identitatearen artean	
Lesbiana: hitzaren erabilera balio estrategikoari dagokionez	
IKUSGARritasun SOZIALA	21
Ikusgarritasunik gabe ez da posible lesbianismoa erabat bizitzea	
Eremu publikoko ikusgarritasun eza	
Sexualitatea plazerez bizitzea, ikusgarritasunaren hasiera puntua	
Lesbiana etiketari buruzko eztabaida	
Lesbiana ez izendatzea: ikusgarritasunerako ondorioak	
Lesbianen ikusezintasuna gizarte osoaren arazoa da	
BIDEGURUTZEEN METODOLOGIA ANALISI TRESNA MODUAN	26
METODOLOGIA	
METODOLOGIAREN DISEINUA	34
IKERKETA LANAREN ALDIAK	35
DATUAK ETA INFORMAZIOA BILDU	36
SOLASALDI TALDEEN ETA ELKARRIZKETEN GARAPENA	37
GIZARTE BALIABIDEEN IKERKETA	
ARLO JURIDIKOKO BALIABIDEEN AZTERKETA	
SARRERA	41
ESKUBIDEEN ERABILERA	42
BERDINTASUNAREN DEBATEA	46
INDARKERIA EMAKUMEEN ARTEKO HARREMANETAN	50
BALIABIDE JURIDIKOAK ETA TRANS EMAKUMEAK	57
GIZA ESKUBIDEAK ETA ASILO-ESKUBIDEA	61
OSASUN ARLOKO BALIABIDEEN AZTERKETA	
SARRERA	64
IKUSGARritasuna OSASUN SISTEMAN	65
BISITA GINEKOLOGIKOA	66
AMATASUNA: LAGUNTZA BIDEZKO UGALKETA OZTOPOZ JOSITA DAGO	72
ONGIZATEA ETA OSASUN MENTALA	76

ETORKINA IZATEA	79
MODULU PSIKOSOZIALAK	81
GURUTZETAKO OSPITALEKO GENERO UNITATEKO ARTAPENA	82

ARLO EKONOMIKOKO BALIABIDEEN AZTERKETA

SARRERA	93
EKONOMIA BALIABIDEEN ERABILERA KRISI GARAIAN	94
BARNERATZE ETA BAZTERTZE SENTIMENDUA	97
LAGUNTZAK JASOTZEN DITUZTENENGANAKO ESTIGMA SOZIALA	101

HEZKUNTZA ARLOKO BALIABIDEEN AZTERKETA

SARRERA	109
EMAKUME NAGUSIAK ETA EUREN HEZIKETA FRANCOREN GARAIAN	110
GAURKO HEZKUNTZA SISTEMA	111
IRAKASLE LESBIANAK	114
BULLYINGA IKASGELETAN	119
SEXU ETA FAMILIA ANIZTASUNA IKASGELETAN DAGO	121
UNIBERTSITATEA	125

LAN ARLOKO BALIABIDEEN ANALISIA

SARRERA	130
HETEROSEXISMOA LANEAN	131
LANEKO ARERIASUNA LANTZEKO ESTRATEGIAK	132
ESKUBIDEAK LANEAN GAUZATZEA: AMESKERIA?	134
EREMU EZBERDINAK: ADMINISTRAZIO PUBLIKOA- ENPRESA PRIBATUA	135
IZAERA SOZIALEKO ENPRESEN KASU BEREZIA	137
HEZKUNTZAN LAN EGITEN DUTEN LESBIANAK	139
BIZITZA PRIBATUA – BIZITZA PUBLIKOA	140
EMAKUME LESBIANEN INGURUKO STEREOTIPOAK	142
TRANS PERTSONEN EGUNEROKOA LANEAN	142

ARLO SOZIOKULTURALEKO BALIABIDEEN AZTERKETA

SARRERA	146
LESBIANEN SOZIALIZAZIOA	147
BALIABIDE SOZIOKULTURALAK ERABILTZEKO MODUA	150
AISIALDI ESKAINTZA	154
ASOZIAZIONISMO ETA EKINTZA POLITIKO FEMINISTA EDOTA LESBIKOA	158
ARTAPENERAKO LGTB ZERBITZUAK	160
BESTE ELKARTE MOTA BATZUK	163
ALDERDI POLITIKOAK	165
SINDIKATUAK	166
ERLIJIOZALETASUNA	167

ZEHARKAKO ALDAGAIEN AZTERKETA

IKUSGARRITASUNA

SARRERA	170
IKUSGARRITASUNA ETA ONARPENA	171
HERRIA ALA HIRIA	175
IKUSGARRITASUNARI BEGIRAKO JARRERA SOZIALAK	177
ERANTZUKIZUNA ETA IKUSGARRITASUN PUBLIKOA	180
ESTEREOTIPO LESBIKOA ETA HORREN TENTSIO SAIHESTEZINAK	185

SEGURTASUNA

SEXU ETA GENERO ANIZTASUNAREN IKUSPEGITIK, "DEBEKATUTAKO HIRIAREN MAPEI"	190
EGINDAKO EKARPENA	

ONDORIOAK

ONDORIO OROKORRAK	201
EREMU JURIDIKOKO ONDORIOAK	205
OSASUN EREMUKO ONDORIOAK	207
EREMU EKONOMIKOKO ONDORIOAK	210
HEZKUNTZA EREMUKO ONDORIOAK	211
LAN EREMUKO ONDORIOAK	213
EREMU SOZIOKULTURALEKO ONDORIOAK	214

HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK

HOBEEKUNTZA PROPOSAMEN ETA GOMENDIO OROKORRAK	218
EREMU JURIDIKOKO HOBETZEKO PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK	220
OSASUN EREMUA HOBETZEKO PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK	221
EREMU EKONOMIKOKO HOBETZEKO PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK	223
HEZKUNTZA EREMUA HOBETZEKO PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK	224
LAN EREMUA HOBETZEKO PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK	225
EREMU SOZIOKULTURALEKO HOBETZEKO PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK	226

AZKEN HITZAK Empar Pineda	228
----------------------------------	-----

BIBLIOGRAFIA Y WEBGRAFIA	230
---------------------------------	-----

ERANSKINAK

I. Eranskina Elkarriketatutako emakumeen koadroa	237
II. Eranskina Solasaldi taldeetarako eta elkarriketatarako gidoia	241
III. Eranskina Zeharkako gaien gidoia	243
IV. Eranskina Baliabideen zerrenda	244
V. Eranskina Datu-fitxa	246

HITZAURREA

Emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko ikerlanak sustatzen dituen

Emakunderen beka baten emaitza duzue esku artean. Arriskuan dauden edota askotariko bereizkeria jasaten duten emakumeei dagokienez, berauen premien azterketan eta premiei erantzuteko ekintzetan aurrera egiteko beharra jasotzen du aipatu beka-deialdiak.

Ildo beretik, 2013ko otsailean Emakunden aurkeztu genuen egitasmoan zera adierazi genuen: lesbianak “askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakume” gisa aurkeztu genituen, eta egoera zaurgarriagoei aurre egiteaz gain, gaitzespen sozial latzagoa ere pairatu behar dute transexualak, etorriberriak, gazteak, desgaituak edota zaharrak diren emakume lesbianek.

Emakume lesbianek pairatzen duten diskriminazio soziala eta mota guztietako baliabide sozialak ezagutzeko eta erabiltzeko diskriminazioek eragindako ondorioak aztertzeke asmoa genuen. Emakume lesbianentzat arriskutsuak diren lekuak eta egoerak ezagutu nahi genituen, askotariko bereizkeriarekin lotutako alderdiei so eginez. Hauxe izan genuen ardatz eta asmoen gidari. Izan ere, 20 urte baino gehiago daramatzagu Lesbiana, Gay, Trans eta Bisexualekin lanean (hemendik aurrera LGTB hitza erabiliko dugu), laguntza, sozializazio, heziketa eta sensibilizaziorako euskarriak eta baliabideak gizarte osoari eskaintzen, beraz, populazio-talde honi buruz dugun ezagutza sakona izan dugu oinarri.

Jakin badakigu gizonen homosexualitateaz baino gutxiago ikertu dela lesbianismoaz. Lesbianen agerikotasun sozial eskasagoak –esparru teorikoan luzeago arituko gara agerikotasunaren gainean- eta emakumeen sexualitatea baztertzeak izan dute zerikusirik prozesu horretan. Kontu hauek guztiek hein handi batean jokaleku tamalgarria irudikatzen dute.

Baina aldi berean itxaropentsu agertzeko moduko egoera ere badugu: legeetan eman diren aurrerapausoak, transexual, lesbiana eta homosexualen mugimendu sozialak azken 25 urteotan egin dituen ahaleginen eta borroken ondorio dira. Legeen bilakaerari jarraiki, pertsona guztien arteko berdintasun formala eta legala lortu dugu, sexu-orientazioa eta genero-identitatea edozein dela ere. Bilakaera horren adierazle gisa, 2005. urtean ezkontzaren arloan Kode Zibila moldatu izana eta 2007. urteko Legea, horri esker, sexuaren eta izenaren aipamena aldatu egin baitaiteke (14/2006 Legean ere, Lagunduriko Ugalketari buruzkoan, aldaketak ekarri ditu lege honek).

Gaur egun onarpen soziala omen dugu zereginik zailena. Portaera sexuala egintza soziala da eta horren arabera gizartean jokatzeko era moldatzen dugu. Baliabide sozialen erabilera aztertzea izan da gure ikerlanaren helburua, egiturazko krisialdi garai honetan askotan baliatzen ditugulako. Eta egitura sozialen adierazle eta antolatzaile diren heinean, baliabideen erabilera pertsonala eta kolektiboa aztertzeari ekin diogu.

Egitasmoaren hastapenetan, honako hipotesiak proposatu genituen:

- ✿ Zalantza: emakume lesbianek, baliabide sozial, komunitario eta ekonomikoak gutxiago erabiltzen dituzte gainerakoek baino.
- ✿ Zalantza: lesbianismoarekin batera, beste hainbat faktorek (transexualitateak, adinak, migrazioak edo desgaitasunak) baliabide soziokultural eta ekonomikoen erabilera eskasagoa bultzatzen dute.
- ✿ Zalantza: emakume lesbianeiei zuzendutako politika publikoek, berariazko diskriminazio-egoera gainditzeko lagundu eta baliabideetan parte-hartzea handitzea ekarriko lukete.

Abiapuntutzat honako galdera hauek hautatu genituen:

- ✿ Badirudi gaur egun dena dugula aldeko maila sozialean, baina, ba al dute lesbianek oztoporik baliabide sozialetan aukera-berdintasunean parte hartzeko, gainerakoekin alderatuta? Zeintzuk eta nolakoak dira oztopo horiek, lesbianak sozializatzen diren instituzioei erreparatuta?
- ✿ Lesbianen egoera pertsonalak ba al du eraginik baliabide sozialen erabileran? Zeintzuk dira eraginak: amatasuna, familiarekin bizitzea, jabetzapeko etxebizitza izatea, bikotekidearekin elkarbizitzea, bakarrik bizitzea?
- ✿ Lesbiana izatea eta integrazio edota bazterkeria soziala eragiten duten beste hainbat aldagai batera aritzen al dira? Balizko aldagaiak: zaharra edo gaztea izatea, desgaitasun fisikoa edo psikikoa izatea, transexuala izatea, ekonomikoki mespretxatutakoaren artekoa izatea, etab.
- ✿ Kanpoko erreferentzia kolektiboak edukitzea garrantzitsua al da baliabide sozialetan parte hartzeko? Hala bada, zeintzuk dira lesbianen erreferente nagusiak?

Geuk ikerlariok ezagutu nahi genituen kontuak mahai gainean jarri ditugu, eta trukean hainbat erantzun eta beste hainbat galdera ere jaso egin ditugu, eta aurrerago horien gainean hausnartzen eta ikertzen jarraitu nahi genuke. Ikerlan honetan zehar emakumeek horrelako galderei, eta beste askori, erantzuna emango diete:

- ✿ Futbola gustuko dute? Ze kirol egiten dute?
- ✿ Zerbitzu ginekologikoetara jotzen dute?
- ✿ Hirietako ze gune dira arriskutsuak beraientzat?
- ✿ Zinemara joaten dira? Telebista-programetako edukiak gustuko al dituzte?
- ✿ Nola kudeatzen dute seme-alaben hazkuntza? Ezkontzen al dira?
- ✿ Ikasteko bekak ezagutzen dituzte? Eta baliabide ekonomiko ezberdinak?
- ✿ Nola kudeatzen dute lesbiana izatea familiaretan?

- Alderdi politikoetan edo sindikatuetan parte hartzen al dute? Eta bestelako elkarteetan?

Lehenago aipatu bezala, hausnarketa eta ikasketa prozesu honek pentsatzeko moduko gai eta hipotesi berriak sortu dizkigu. Hurrengo ikerlanetarako gordeko ditugu kontuok.


Haien denbora, eskarmentu gazi-gozaok, sentimenduak, pozak eta tristurak, usteak eta iritziak, intimitatea eta ezagutu dituzten baliabide sozialak hobetzeko proposamenak gurekin partekatu dituzte ikerketan parte hartu duten emakume guztiek.

Aldi berean, gogo handiarekin aritu dira eta horri esker, benetan erraza suertatu zaigu bai taldeak osatzea, bai elkarrizketak finkatzea, bai argibideak eskatzea, bai zalantzazko gaietan sakontzea. Horretaz gain, emakume lesbianen kolektibo osoarekiko jarrera arduratsua sumatu dugu parte hartzaile guztiengan, ikerlanean parte hartzeko nahia eta gogoia adierazteaz gain, modu agerikoan egiteko prest agertu baitira, benetako izen-abizenak erabilita ere. Esan beharra dugu lesbiana guztien bizi-kalitatea hobetze aldera bai maila profesionalean bai pertsonalean dihardugun lesbiana gisa, gogo partekatu honek asebetetzen gaituela.

Alor honetan dugun eskarmentu pertsonal eta profesionalean erronka berri bati ekitea ekarri digu ikerlanak. Emakume ezberdinekin guneak eta esperientziak partekatuta eta lesbiana anitzen errealitatea gertutik ezagututa, aberatsago egin gara maila pertsonalean zein profesionalean. Hartara, bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkiegu ikerlari-taldearekin batera aritu diren emakume guzti-guztiei, ezin eskuzabalagoak eta zintzoagoak izan baitira. Haien laguntza adoreturik gabe ezinezkoa izango zitzaigun ikerlanik egitea.

Ikerlanean zehar parte-hartzaileen iritzi eta ekarpenen bidez osatutako esperientzia-korapiloak, bakoitzaren baliabideak erabiltzeko modu ezberdinen bidez garatutakoak, askatzen eta argitzen saiatu gara. Ahots hauek guztiak maitekiro entzutea eskatuko dizuegu, maitasuna ezinbesteko osagaia baita emakume anitz hauek ondo aditzeko.

ESPARRU TEORIKOA



Kerketa honekin, lesbienekiko dagoen gizarte estigma ikertu nahi dugu. Alor ezberdinetan izaten du eragina estigmatizazio horrek, hezkuntzan, lanean, osasunean, gizartean, kulturean eta legeetan besteak beste.

“Gure mehatxurik handiena krisiak eragin dezakeen baloreen iraultzea da. Inoiz eztabaidatu gabeko gaiak zalantzan jarri daitezke eta sistemak berak oinarritzko ezaugarritzat dituenak zalantzan jar ditzake zulumurruak direla-eta.” Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako sailburuorde Iñigo Pomboren hitzok, gizarteak egun bizi duen ardura islatzen dute.

Krisi garaian gaude. Krisia ez da ekonomikoa soilik, ideologikoa ere bada, eta mailaz, Europako txiroenak bizi zuten ongizate maila zabaltzen ari da. Pertsonak eta haien beharrianak garrantziarik gabeak direla dirudite diru-gose irizpideei jarraiki baliabideak eta gizarte zerbitzuak murrizten diren garaian. M-22 duintasunaren martxaren manifestuaren arabera, “indarrean dauden politikek eskubideak eta gizarteko gehien txirotzea dute oinarri. Zilegi ez diren zorrak ordaintzea oinarri duten politikak banketxeen eta gobernu ezberdinen espekulazioaren ondorio dira.”

Pertsonen beharrian nagusiei erantzuteko gizarteak eskura jartzen dituen baliabideak aztertzen baditugu, ez dugu uste hauek boluntariotzaren edo karitatearen ondorio izan behar dutenik. Baliabideek gizartearen ongizateari eta gizabanako guztien bizi-kalitateari lagundu behar diote.

Ongizatea, pertsonen eta taldeen beharrianak asetzeko hartzen diren neurriak direla ulertu behar dugu. Ongizateak botere publikoak zein eragile pribatuak biltzen dituen gizarte ekintza biltzen du (Barroso eta Castro, 2010).

Fernando Fantovak (Fantova, 2008) egiten duen moduan, guk ere pentsatzen dugu mota guztietako gizarte baliabideak: “giza eskubideak gauzatzeko tresna dira, pertsona guztiei dagozkien eta, batez ere, ahulagoak diren horiei”. Baliabideak gizarte eskubideen parte dira, giza-eskubideen bigarren belaunaldiaren parte dira, hau da, etxebizitzarekin, mediku arretarekin, hezkuntzarekin edo bizitzako arrisku anitzen aurrean bizirautea bermatuko duten seguruekin zerikusia dutenak. Hauen artean dependentzia edo zahartzaroa, gaixotasuna, lana galtzea, lan istripuak... aipa genitzake.

Gizarte eskubideak, gizarte politika eta politika ekonomiaren oinarri moduan biltzen dira Espainiako konstituzioaren III. Kapituluaren Bertan, besteak beste, osasunaren, etxebizitzaren eta hezkuntzaren babesa aipatzen dira. Horrekin batera, gizarte arretaren eskumena arautzen duen 12/2008 legea ere aipatu behar da. Gobernuak eskubide hauek bermatu behar dituzte eta ziurtatzeko, bideratuko dituzten gizarte politikak ezarri behar dituzte, baita beharrezko baliabideak ere.

Fantovaren ustez, gizarte eskubideak gauzatzeak zerbitzu izaera du, eta horrek bereizten ditu eskubide zibil eta politikoengandik. Horrela bada, gizarte eskubide bat gauzatzeak, pertsonen baliabide edo zerbitzu bat gozatzea esan nahi du. Aipatzen den beste alderdi interesgarri batek dio erabilera norbanakoarena bada ere, pertsonen beharrei erantzuteak taldeari eragiten diola, gizarteari, eta horregatik ezin dira zerbitzuak edo baliabideak merkatuaren esku utzi.

Gizarte eskubideek daukaten erreferentziazko balioetako bat berdintasuna da, eta, aukeretan eta tratu berdintasunean oinarritzen dira, ez diskriminazioan eta parekotasunean. Hori dela eta, edozein motatako gizarte zerbitzuak erabiltzean lesbianen ikusgarritasunaren garrantziari buruz galdetzen zaigunean, erantzuna bakarra izan daiteke: definizioz, parekideak eta anitzak izan behar dira zerbitzu hauek, hau da, pertsona guztientzako zerbitzuak. Gizarte baliabideak, diren motakoak direla ere, ezin dira heteronormatiboak izan, ez sexistak, ez arrazistak, ezta klasistak ere.

Giza eskubideak, gure ustez, eskubide unibertsalak dira eta ez lirateke talde kalteberen arazo soil moduan ulertu behar. Arrazoiaketa honek ez du ukatzen une eta egoera berezietan baliabideek talde jakin batzuen alde egin behar ez dutenik, LGTB izenarekin ezagun den taldearen alde adibidez, pertsona batzuek haien eskubideak gauzatzea baztertu egiten baita oraindik ere. Gizarte zerbitzuak pertsona guztientzat eskuragarri daudenez, ez dira haiek izango onuradun bakarrak, gizarte osoa baizik.

Gizarte eskubideak eskubide solidario moduan ere definitzen ditugu (Barroso eta Castro, 2010). Horrek estu elkartzen ditu norbanakoaren eta taldearen kontzientzia, pertsona guztiek gainerakoen ongizaterako konpromisoa hartzen baitute.

GENEROEI ETA SEXUALITATEEI BURUZKO OHARRAK

Gayle Rubinen (Vance, 1989) “Trafico de mujeres” eragin handiko artikuluan sexu/genero sistemaren kontzeptua zehaztu zen. Bertan dioenez, sexu/genero sistema adostasun multzoa da, biologiak erabakitako sexualitatea gizarte jardueraren produktu bilakatzen duen adostasun multzoa.

Ordutik, sexua biologiaren kontua delako eta generoa eraikitakoa eta ikasitakoa delako hausnarketa ideia zabalduta eta garrantzitsua izan da. Horrela bada, gizonak zein emakumeak jaiotzako ezaugarri biologikoen arabera eraiki izan dira, femenino edo maskulino.

Generoak, sexu batekiko identifikazioa izateaz gain, beste sexuarekiko desira ere eskatzen du. Hori dela eta, genero arauaren sistema hiru dimentsioetan oinarrituta dago, Gerard Coll-Planasek (Coll-Planas, 2013) hausnartu zuen moduan. Sexu-genero ereduaren arabera ondokoa ulertu behar dugu:

- ✿ Sexuari dagokionez: guztiok jaiotzen gara emakume gorputzarekin (XX) edo gizon gorputzarekin (XY).
- ✿ Generoari dagokionez: Biologiak emandako sexua izango da gure generoa erabakiko duena. Hori dela eta, emakume gorputzarekin jaiotzen denak emakume sentitu eta emakumeen moduan jokatu behar duela uste izaten dugu. Gizonezkoen kasuan, gizonezko gorputzarekin jaiotzen denak gizon moduan sentitu eta jokatu behar du.

- Desirari dagokionez: Sexu betetasuna emakumetasuna eta gizontasuna konbinatuz lortu behar da. Ondorioz, emakumeek gizonenganako erakarpina sentitu behar dute eta gizonak emakumeenganakoa. Horrela bada, sexu praktikek generoa indartzen dute eta sexuaren garapenaren helburu bilakatzen da heterosexualitatea.

Pertsona askok ezarritako arauarekin hausturak badituzte ere eta beste batzuek aipatu sexu eredu arautua jarraitzen ez badute ere, “bi sexu, bi genero eta orientazio bakarra” da arautua dagoena eta gure gizarteko hegemoniko bakarra.

Genero heteroarautuaren eta bitarraren sistema

Sexista, heteroarautu eta bitar izateak ezaugarritzen du eredu hau. Sinismen zabaldia da emakume edo gizon eta heterosexual jaiotzen garela berez. Naturak, geneen eta hormonon bidez eragin eta horrelakoak egiten gaitu, eta portaera ez arautuak dituzten personak bazterrean uzten ditu (tartean daude gayak, lesbianak eta trans pertsonak¹).

Dolores Julianoren (Juliano, 2004) hitzak aintzat hartuz, baztertzeak marginatzearen aldean duen zentzia azpimarratu nahi dugu, gizarte bereizketaren bi modu ezberdin baitira. Pertsona marginatua, inguruko tokian bada ere, gizarte sistemaren barnean dago. Gizarteak ez ditu marginatuak baztertzen, arreta politikak garatzen ditu haientzat, alboratu egiten ditu, baina guztiaren gainetik, onartu egiten ditu. Gizarte bazterketak urruntze handiagoa eragiten du. Banaketa zeremoniak izaten ditu: gartzelaratzeko epaiketa edo gaixotasun mentala erabakitzen duen diagnostikoa.

Heteronormatibitatea Michael Warnerren kontzeptua da eta ondokoari egiten dio erreferentzia: “Gure kulturen sexualitatea normaldu, erregulatu eta arautzen duten botere harremanak dira; horrela, idealizatutako harreman heterosexualak erakundetzen dira eta gizakiaren izaerarekin berarekin parekatzen dira.”

Heteronormatibitatea gure gizartearen ondoen mugiarazten duen sexu eredua da, alor legalean, ekonomikoan, kulturean, lan alorrean eta abarretan. Zentzu honetan, heterosexualak izan daitezkeen pertsonen presioa eragiten dieten gizarte arauak ez dira soilik homofobiaren ondorio izaten, arrazakeria, klasismoa eta sexismoa ere izaten dute sorburu.

Gizarte desberdintasunak eta bereizkeriak gure gorputzak eta haien prozesuak hautatzeko aukerekin harremana duen dimentsioa du, gure desirarekin eta haiek garatzeko aukerekin lotuta. Horrela sortzen dira talde batzuek besteekiko dituzten onura ekonomikoak, politikoak, gizarteak, familiarekoak, taldekoak edo legalak. Onura hauek pertsonen erabakitze ahalmena ematen ez zaienean ematen dira, sexu-afektuzko harremanetan norekin egon nahi duten erabakitzen uzten ez zaienean, bere sentzitzen duten generoa hautatu ezin dutenean, nahi duten pertsonarekin nola eta noiz egon erabakitzerik ez dutenean, eta abarretan.

¹ Trans pertsonak: transexualak, transgeneroak eta trabestiak.

Bitartasuna pertsonak bi maila ezberdin eta osagarriren arabera murriztea da, horrela, sexuari dagokionez emakumezkoa eta gizonezkoa soilik onartzen dira, eta generoari dagokionez gizonak eta emakumeak soilik.

Aldaketarako bazterketak eta erronkak: sexu eta genero aniztasuna

Genero sistema honetako arauak pertsona asko baztertzen dituzte, hauek ez datozelako sexuekin, generoekin eta araututako desirekin bat. Talde honetan biltzen diren guztiek, gure ustez, aldaketarako erronka asko proposatzen dizkiote araututako genero sistemari.

Aldaketarako erronkak zeintzuk diren ikusteko eta eredia aztertu eta kritikatu ahal izateko helburuarekin, bereziki interesgarri deritzogu intersex pertsonak, trans pertsonak, homosexualak eta lesbianak baztertutako pertsonen talde horren parte zergatik ote diren ulertzea (Coll-Planas, 2013).

INTERSEX pertsonak

Gutxi gorabehera 2000 pertsonetatik 1 intersex jaiotzen da. Klinefelter sindromea, Turner sindromea edo androgenoei sentiberatasun eza dira sexuarteotasunaren kasurik ohikoenak.

Intersex pertsonak existitzeak berak, maila biologikoan maskulinoa eta femeninoa banatzeko modua hain egokia ez dela erakusten du, egungo bi aukerak ez baitira nahikoa. Sexu anitzak daude. Anne Fausto-Sterlingek (Fausto-Sterling, 1993) dioten moduan: “biologiari erreparatuta sexua continuuma dela baieztatu dezakegu, continuum zabala eta malgua, gizonezko/emakumezko kategorien murrizteetatik haratago doana.”.

Gure sailkapenaren zurruntasunak intersex gorputzak ezatsegin edo izugarritzat ditu eta hori da arazoa. Ondorioz, sistema medikuarentzat jaioberritan ebakuntza egitea da konponbidea; horrela, sailkapenak baimendutako bi sexueta batera moldatu eta genero argia ezarriko diogu pertsonari. Mundu anglosaxoiko intersex pertsonen elkarteek ebakuntza hauek salatu izan dituzte (EAEn oraindik ere ez dago horrelako elkarerik).

Cheryl Chase (Chase, 2005) ekintzaile intersexak jaioberri intersexualen generoa izango dena erabakitzeko irizpidea oroitarazten digu: zakila “nahikoa” handia dutenei gizonezko generoa ematen diete eta gainerakoei kendu egiten diete, emakumezko eginez. Ebakitzea, Afrikako hainbat kulturetako klitoriaren ablazioarekin alderatu daitekeen praktika baten bidez egiten da, kliterektomiaren bidez.

Horrela bada, intersex direnen gorputzek gatazkatsu bilakatzen dute sexu esleipena, eta genero sistema aldatzeko erronkak proposatzen dituzte, tartean:

- ✿ Sexu kategoriak zabaltzen ditu errealitatearekin bat datorren sailkapena ezartzeko, emakumezko edo gizonezko kategoriak ezartzen dituen sailkapenetatik haratagoko sailkapena lortzeko.
- ✿ Genitalitatearen arabera erabakitzen diren genero izendapenak zabaltzen ditu (femeninoa/emakume, maskulinoa/gizon). Egun egiten diren bi izendapenak ez dira nahikoa.

TRANS pertsonak

Trans hitza kontzeptu orokorra da, jaiotzean sexu-organoen arabera erabakitako genero horrekin beren burua islatuta sentitzen ez duten horiek guztiak biltzen dituen kontzeptua. Hitzaren barnean bereizten ditugu, batetik, gizon eta emakume transexualak, generoa berregokitzen dutenak, eta, bestetik, transgenero moduan ezagutzen diren pertsonak, gizon edo emakume izaera batekin bat egiten ez dutenak edo genero izaera baten edo bestearen artean dabiltzanak.

Trans pertsonak egoteak ondokoa erakusten du:

- ✿ Badago jendea jaiotzean egokitutako generoarekin bere burua islatuta ikusten ez duena eta horrek, sexu-organoen arabera antolatutako genero sistema beti egokia ez dela erakusten du.
- ✿ Pertsonok eraikitzen dugun genero identitatea eta gure jaiotzetiko gorputza independenteak dira. Kasurako, gogora dezagun gaur eguneko legediak² alua duten gizonak eta zakila duten emakumeak onartzen dituela.

Trans pertsonak araututako generoa iraultzen dute haien generoarekin bat ez datorren izaera baitute (Coll-Planas, 2010). Arazoa gure genero sistemaren zurruntasuna da, gizonezko gorputza duten gizonak eta emakumezko gorputza duten emakumeak bakarrik onartzen baitira. Horrela bada, jaiotzean jasotako gorputzarekin identifikatuta sentitzen ez direnak gaixo mental bilakatzen ditu. Trans pertsonen medikuntzak eskaintzen dien bide edo konponbide bakarra genero berregokitzapena da, osasun sistema publikoaren genero identitate unitateetan egiten den berregokitze prozesua. Genero berregokitzea ez da askatasunez hartzen den erabakia izaten beti, askotan, gizartearen agindua izaten da trans pertsona askorentzat, gizartearen arauak eta medikuntzaren definizioaren arabera bide horri baino ezin baitiote jarraitu.

² 3/2007 Legea, martxoaren 15ekoa, pertsonen sexuari buruzko erregistro-aipamenaren zuzenketa arautzen duena, eta 4/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

Coll-Planasentzat (Coll-Planas, 2010) transexualizatzeko prozesua genero inderkariaren adibide argia da jokaerak normaltzen dituelako, organoak kendu, sexu/generoaren ez elkarrekikotasuna patologizatu, eta abar. Leku eta norabide askotatik bideratzen da indarkeria hori: inguru sozialak talde ez arautuak presionatzen ditu egokitu daitezen, gizarte sexistan genero ezaguna izatea derrigorrezkoa denez identitate zehatza adieraztea nahitaezko moduan bizi du pertsonak, trans komunitateak sexu berregokitzearen alde egiten ez dutenak baztertzen ditu, Estatuak proposamen patologizatzaileak onartzen ditu legeetan, eta abar.

Trans pertsonak egoteak aldaketarako hainbat erronka eskatzen dizkio gure sistemari:

- ✿ Egun generoaren inguruan indarrean dauden tarte estu eta zurrunetatik haratago pentsatu eta genero continuuma badagoela kontuan hartu behar dugu; generoa bizitzeko eta sentitzeko modu asko daudela onartu, gizon edo emakume bakarrik sentitzetik haratago.
- ✿ Sexuen (naturalizat hartutakoen) eta generoen (kulturalizat hartutakoen) artean egiten dugun lotura hain argia ez dela onartu behar dugu, eta generoa eraikuntza kulturala bada, sexua ere berdintsu dela onartu. Saldiviak (Saldivia, 2009) dioen moduan, badaiteke kanpoko gorpuzkera eta genitalitate hutsa emakume gisa edo gizon gisa ezagutzen dugun hori zer den azaltzeko nahikoa ez izatea.

Pertsona LESBIANAK ETA GAYAK

Azken hamarkadetako lege eta gizarte aurrerapenak persona lesbianen eta gayen onarpen zabala ahalbidetu dute. Baina bide luzea daukagu oraindik jorratzeko, ezin esan baitezakegu heterosexismoa desagerturik dagoenik: badago ikaragarri sufritzen duen jendea desira homoerotikoak azaltzeagatik, lesbianek eta gayek beldurra diote oraindik haien maitasuna jendaurrean agertzeari, guraso askok, oraindik ere, erantzun ezkorra izaten dute haien seme-alaba nerabeen homosexualitatearen edo lesbianismoaren berri izaten dutenean, edo salbuespenezkoak izaten jarraitzen dute komunikabideetako mezu ez heterosexistek.

ILGAren (International Gay and Lesbian Association) urteroko txostenen arabera, lesbianek eta gayek munduan zehar bizi duten egoera oso ezberdina da; leku batzuetan eskubide guztien jabe dira haien sexu aukera edozein dela ere, baina beste batzuetan heriotzera zigortuak edo modu askotara bortxatuak edo behartuak izan daitezke.

Pertsona ez heterosexualek genero sistemari erakutsi diote sexu garapenaren betetasuna ez dela bakarrik heterosexualitatearen bitartez lortzen. Era berean, zalantzan jartzen dute sexualitatearen helburua ugalketa den, baita generoen arteko osagarritasuna ere.

Pertsona ez heterosexualekiko fobiak genero ezberdintasunarekin lotuta dagoen sarea osatzen du. Sexismoak bizirik dirauen bitartean, sexu aniztasunarekiko gorrotoak eta fobiak iraungo du.

Gayak eta lesbianak egoteak aldaketarako hainbat erronka proposatzen dizkio gure genero sistemari:

- ✿ Elkarrekiko harremanetan gizonen eta emakumeen rol ezberdinekiko haustura.
- ✿ Gizon eta emakumeen arteko sexu mailako osagarritasun eza.

AUKERAK BIDERKATUZ

Genero portaera edo sexualitate ez arautua duten pertsonak gure genero sistema heteroarautua eta bitarra birpentsatu eta eraldatzera garamatza. Cristina Garaizabalek (Garaizabal, 2003) dioen moduan, sexu eta genero aniztasuna ezpatologizatu behar dugu, dikotomiekin eta sailkapen hertsiekin hautsi. Gizontasun eta emakumetasunaren artean continuuma dago, ikusgarri bilakatu behar den heterosexualitate eta homosexualitatearen artean, sexu eta genero izaera anitzak proposatzen dizkigu horrek eta bizitza sozial eta pertsonaleko bizipen ezberdinak bildu eta ikusgarri bilakatu behar dira.

Izateko, gozatzeko eta maitatzeko moduak era askean onartzeko aukera ematea oinarritzkoa da, baita bere izaera iraultzailea ere. Genero sistema zabaldu behar dela uste dugu, anitzagoa, aberatsagoa eta konplexuagoa bilakatu, gizartea osatzen dugu pertsonon konplexutasuna onartuko dituen genero sistema.

Egungo sistema antolatuta dagoen moduak ez die soilik emakumeei eta baztertuako taldeei kalte egiten, haien arauen menpe bizi garen guztiok mugatzen gaitu. Gerard Coll-Planasentzat (Coll-Planas, 2010) sexualitate eta genero alorrak berrantolatzea nahitaezkoa da ar/eme, gizon/emakume, heterosexual/homosexual bezalako binomioak gaingitu ahal izateko.

Emakumeen eta gizonen eguneroko bizipen konplexuak eta haien artean eraikitzen dituzten harremanak ezin dira erabat azaldu generoaren inguruan dauden teoria askok bereizten dituzten bi sexu/bi genero paradigmaren barnean; horrelakoak, gehienetan, sexuaren ikuspen esentzialistetan eta naturalistetan ainguratuta egoten dira. “Agenda feministan sexu/genero anitzeko pertsonen izaera sexualarekin lotutako gaiak sartzen hasteko moduetako bat sexua kulturaren aurrekoa ez dela uste izatea da, generoa bera ez den moduan, biak ala biak emaitza kulturalak baitira.” (Saldivia, 2009).

Urte askotan sexismoa zalantzan jartzen aritu garen moduan, sexua/generoa-binarismoa ere zalantzan jartzen hasi beharko ginatekeela uste dugu. Horrek sexu ikusgarritasuna eta genero izaera anitzetan pentsatzeko aukera emango liguke. Gizakiaren errealitate konplexuarekin bat datorren zerbait litzateke.

Azken batean, sexua/generoa bikotean atzera egitea litzateke, eta horrek, ondokoa behar luke Laura Saldiviaren ustez: “gizarteko adostasun esplizitu eta inplizitu/ez kontzienteak berrikusi askoren adostasuna/oinarri praktikoa alor askotan ikusteko. Hure bizitzetako eta gure

gizarteko alor asko berrikusi behar ditugu, ze kolore edo arropa dagokion sexu/genero bakoitzari, ze ilara osatu eskolan edo hauteskunde mahaian, ze komun publiko erabili, zein den nire sexu orientazioa indarrean dagoen binarismo/sexu orientazioarekin nire burua definitua ikusten ez badut... eta muturrean leudeke kirurgiak eta identitate aldaketa bitartasun horretan haien gorputza eta burua sailkatu ezin dutenentzat. Horretarako, pertsonen haien izaera sexuala aukera multzo batean identifikatu eta garatzeko gizarte eta lege baldintzak sortu beharko lirateke.”


Hausnarketa hauek ez dute deusezten zapalkuntza patriarkalaren eta androzentrismoaren aurkako borrokan jarraitu behar dugula uste izatea. Coll-Planasek (Coll-Planas, 2010) dioen moduan, generoa pertsonen artean hierarkiak ezartzen dituen elementuetako bat dela ulertzen dugu, integrazio eta bazterketa posizioetan banatuz, haien bizitzak babestuz edo heriotzera gerturatuz, subjektu arduratsu edo fidagarri ez direla erabakiz, haien iritziek ez dutelako gehiegi inporta, haien bizitzek gutxiago balio dutelako.

Badakigu erronka handia daukagula aurretik: sexua/generoa bikoari egindako kritika praktikan jarri behar dugu, emakumeek, lesbianek eta transek eta oro har, bikote heteronormatiboaren arauan sartzen ez diren guztiek oraindik ere bizi dituzten diskriminazioak ezkutatu gabe beti ere.

Gaur egun sexuen eta generoen inguruan dagoen ikusmoldea gaitutako duen esparru teorikoa behar dugu, urteetan zehar praktikan eta diskurtsoan hainbesterako balio izan digunarekin hautsi gabe. Ikusmolde berriak mendekotasuna eta marginazioa eragiten duten zapalkuntza eta diskriminazio sistema konplexuak ulertzen lagundu behar digu, baita inguruan daukagun giza unibertsoaren aniztasuna ikusgarri egiten ere.

Pentsamendu bitarraren eraikuntza hautsiko duen begirada posible da historiko eta egiturazko bereizkerien aurkako jarrera eta borroka barneratzen dituen marko batean. Sexu/generoari buruzko begirada berriek proposamenak eta aliantzak erakitzeko aukera ugari eta sortzaileak ahalbidetzen dituzte, eta bertan pertsona gehiagok hartu ahal izango dute parte, norbanakoaren eta taldearen emantzipazioan erreferente berriak adierazteko gogoia duten pertsonak.

GENERO SISTEMA HIRU ALORREZ OSATUA DAGO:




Fitxaren egilea: I. Mujika

Iturria: G. Coll-Planas: *Dibujando el género*

Irudiak: Marta G. Rodrigo

Baztertutakoak



Fitxaren egilea: I. Mujika

Iturria: G. Coll-Planas: *Dibujando el género*

Irudiak: Marta G. Rodrigo

EMAKUME LESBIANAK

Sexuaren eta identitatearen artean

Olga Viñualesek (Viñuales, 2006) azaltzen duen moduan, “ez dago lesbiana idealik edo “benetakorik” ez dagoelako izaera homosexuala bizitzeko modu bakarra. Batzuentzat erabaki biologikoa da. Besteentzat, XX. mende amaieran lesbiana izatea gozagarria da, harremanen inguruko ikuspegi personal eta psikologiko bat, beste batzuk bezala, zoriontsu izateko aukera ematen duen ikuspegi bat. Beste batzuentzat, lesbianismoa posizionamendu politikoa da”.

Olga Viñualesen iruzkinak ondoko galderak sorrarazten dizkigu: Zer da lesbiana bat? Nortzuk gara lesbianak? Medikuntza mundutik emandako definizioetatik eta kaleko adierazpenetatik haratago bagoaz, galdera hauei erantzutea erraza ez dela onartu behar dugu. “Lesbianismoak ez dauka mundu mailan onartutako definizio edo deskribapenik. Batzuek portaera bat dela uste dute. Beste batzuek emozio harremantzat daukate lesbianismoa. Batzuek aukera bat dela diote eta datua dela besteek.” (Falco, 1991).

Lesbianismoa definitzen duten elementuak eztabaida iturri izan dira eta badira oraindik ere. Angie Simonisen (Simonis, 2003) arabera, lesbiana definiziorik nahi ez duen subjektua da.

Beatriz Gimenok (Gimeno, 2006) lesbianismoari buruzko hainbat definizio feminista eskaintzen dizkigu eta emakumeek beraiek ulertzen dutena ulertzeko baliagarri izan daitezke. Beatriz Gimenok emandako definizio guztien artean bi azpimarratuko ditugu, kontrajarriak diren bi, lesbianismoaren inguruko bi teoriko handik adierazitakoak:

- ✿ Pat Califiak (Califia, 1998) lesbianismoaren osagai sexuala azpimarratzen du: “Lesbianismoaren izaera sexualaren zapalkuntzari gogorregi erantzun diogula uste dut. Ez gara feminista amorratu hutsak. Gure gorputzak eta gure maitaleenak ukitu, biluztu eta aztertu nahi ditugun emakumeak gara.”
- ✿ Eta beste aldean, Adrienne Richek (Rich, 1985), emozioen alderdia azpimarratzen du: “Lesbiana izaera moduan definitzen dugunaren inguruan sakontzean eta zabaltzean, continuum lesbianoa marraztean, begirada femeninoaren arabeko erotismoarekin topo egiten dugu; gorputzeko atal zehatz batera eta gorputzera soilik murriztutakoa ez den zerbait; energia zehaztugabea izateaz gain, poza partekatzeko ere bada, bai poz fisikoa, bai emozionala edo psikikoa ere eta baita gure lana partekatzeko ere”.

Gutako asko Pat Califiaren eta Adrienne Richen jarreraren artean kokatuko genuke gure burua lesbiana izatea zer den ulertzean. Aukera ugari daudela uste dugu, emakumeek azaltzen dituzten aukera ugari eta, berriro ere, beste emakumeekiko erakarpena izateak esanahi ezberdinak ditu protagonista diren emakumeentzat. Sexu irizpidean gehiegi oinarritutako definizioak emakume asko utziko lituzke aldean, haiek ez baitute praktikatzen duten sexu lesbianoan oinarritzen haien lesbianismoa. Gauza bera gertatuko litzateke lotura emozionala

edo intelektuala izan balu oinarri definizioak, sexu jarduera dela eta identifikazioa lortzen duten lesbianak geldituko lirakeelako kanpoan kasu horretan.

Argi dago lesbianismoa definitzea ez dela lan erraza. Ezin liteke bestela izan, kategoriak zein murrizak diren jakinda, eta, gainera, oso zaila izaten baita partaide diren pertsonen beraiek haien buruei buruz dioten horretara erabat egokitzea. Lesbianismoaren definizio murriztaileak emakumeen arteko maitasunaren bizipenen aniztasuna ukatuko luke.

“Medikuntza zientziak identitatearekin inolako harremanik gabeko sexu praktika moduan definitu izan du lesbianismoa” (Momoitio, 2013). Andrea Momoitiok lesbianismoaren eztabaidan interesgarria den alderdia plazaratzen digu, okerra iruditzen baitzaigu lesbianak beste emakumeen aldean duten sexu kantitatearen arabera definitzea. Hori horrela izanik, guk ere bat egiten beste batzuek duten zalantzarekin, hau da, gure kulturen lesbianak bereizteko sexu bereko jendearekin sexu harremanak dituzten emakumeak izatea ezaugarri nagusia ote den. Olga Viñualesek (Viñuales, 2006) lesbianismoa sexu-portaera hutsa baino gehiago dela dio, lesbianek badituztelako beste zenbait gauza komunean: “ibilbide moral berdina, ikasketa edo gizarteratze bide igualtsuak eta desio duten gorputzarekiko kontzeptualizazio berdina.”

Lesbiana: hitzaren erabilera balio estrategikoari dagokionez

Andrea Momoitiok (Momoitio, 2013) diotenarekin ados, lesbianismoa bizitzeko modu ugari daude, lesbianak adina modu. Askok idatzi da lesbiana izatea zer den erantzun nahian, lesbiana bat nolakoa den edo ez den, baina argi dirudien bakarra izaera heterogeneoa, aldakorra eta oso pertsonala dela dirudi. “Lesbianei” buruz hitz egiten dugunean zertan ari garen definitzea gizarte eztabaidaren objektu da, izan da eta etorkizunean ere izango da. “Lesbiana” hitza konplexutasun handikoa da, esanahia kulturala da eta aldakorra historian zehar, aldakorra, zabala eta adostasunik gabea emakumeen euren artean. Autore honek dioenez adostasun handia lortzen da “lesbiana” hitza etiketa moduan erabiltzen dela esatean, askotan anitza den bizipenaren etiketa, hain zehazgabea non zehaztea zaila den, eta hala ere, erabilera estrategikoa duen oraindik.

Aurreko guztia ikusita, ikerketa honetan lesbiana hitza bere adiera osoan onartuko dugu, hau da, lesbianak haien interes emozionalak, psikologikoak, sozialak eta sexualak beste emakume batzuegana bideratzen dituzten emakumeak direla onartuko dugu, jendaurrean egoera hori azaldu ez badute ere. Gainera, beste emakume batzuegana zuzendutako interes horiek haien artean lotuta egon behar ez dutela ulertzen dugu, eta ez dutela zertan emakume guztiengan indar berdinez agertu. Adiera honetan bizipen lesbiano baten barnean daudenak sartzen ditugu, lesbiana izaera onartzen ez badute ere eta haien buruari lesbiana deitzen ez badiote ere.

“Lesbiana” hitza etiketa soziala dela uste dugu, eta ez ditu bere barnean biltzen beste emakumeenganako erakarpena sentitu izan duten emakume guztiak, izan denbora osoan zein tarteka. Teorikoki, horrela ulertzea zailtasuna eta erronka dira. Izan ere, emakumea izatea zer

den aztertzen dugunean, do lesbiana izatea zer den, ez ditugu medikuntzak, psikologiak edo sexologiak emandako definizioak oinarri, eta ez dugu helburu parte-hartzaile guztiek definizio bera ematea. Pertsona bakoitzak nahi duen etiketa aukeratzen duela ulertzen dugu, eta ikerketa honetan parte hartu dutenek emakume eta lesbiana etiketak beretzat dituzte, beti ere gerturatzeko modu ugari dituzten etiketak direla gogoratuz.

Lesbiana hitzaren erabilera estrategikoarekin lotuta, lehentasun sexuala, joera sexuala eta desira sexuala hitzak ere antzeko esanahiarekin erabiliko dira. Hala bada, berdin erabiliko dira bata ala bestea.

IKUSGARritasun SOZIALA

Ikusgarritasunik gabe ez da posible lesbianismoa erabat bizitzea

Lesbianen ikusgarritasunean dagoen eskasia izan da lan honetarako arrazoietakoa bat, eta lanaren helburuetako bat ikusezintasuna eragiten duten arrazoiak ezagutzea da, baita lesbianengan bereziki eta gizartearengan orokorrean ikusezintasunak dituen ondorioak azaltzea ere.

“Isiltasunaren arrazoiak bakoitzaren beldurrekin lotuta daude, gutxiesteari, zentsurari, kritikari edo onarpenari, erronkari, suntsidurari lotuta dagoen beldurra. Gainera, guztiaren gainetik, dugun ikusgarritasunik gabe, benetan bizitzea ez dela posible uste dut.” Audre Lorden (Lorde, 2003) hitz hauek xehetasun handiz azaltzen dute lesbianen ikusgarritasunaren azken esanahia, zeina derrigorrezkoa baita lesbianismoa erabat bizi ahal izateko.

Lesbianen ikusgarritasuna agerikoa izatearen ekintza da eta garrantzizkoa da ekintza horren atzean ezkutatzen den norbanakoen eta taldeen ahalegin handiagatik. Pertsona homosexuali orokorrean eta lesbiane bereziki gizartean boterea eta eragina izatea ukatu izan zaie sistematikoki. Heteronormatibitatea faktore nagusia da eta mezuak barneratzeko bidean mekanismo anitzekin eragin diezaioke sexuallitateari eta ikusezintasunari edo modu negatiboa duen ikusgarritasunari (Gimeno, 2006). Berak dioenez, mekanismo horiek guztiak ezinbestekoak dira eta lesbianak esparru sozialetatik urruntzen dituzte, haien estatusa eta autoestimua kaltetzearekin batera.

Ikusgarritasunak zerikusi handia dauka lesbianen ahalduentzearekin³ gure gizartean. Zentzu honetan, ikusgarritasuna bi dimentsioko prozesu moduan ulertzen dugu, norbanakoarena bat eta kolektiboa bestea:

³ Pertsonen ahalduentzeko estrategiaren bidez, haien gaitasunak, konfiantza, ikuspuntua eta gizatalde-protagonismoa indartu eta bizi dituzten bazterketa egoeretan aldaketa positiboak bultzatzen dituzte. *Empoderamiento*. Murguialday, Pérez de Armiño eta Eizagirre. <http://dicc.hegoa.efaber.net>

- ✿ Norbanakoaren ikusgarritasunak prozesua eragiten die emakumeei: emakume lesbianek beren beharrei erantzuteko gaitasunarekin eta konfiantzarekin ikusten du dute beren burua, gizartearen aurrean beste emakume batzuekiko desioak dituzten emakume moduan azaltzeko, haien harremanen izaera adosteko eta harremanean eragiteko gaitasunarekin.

Horrela ikusita, norbanakoaren prozesu konplexua da ikusgarritasuna, lesbianismoa aurkitzearekin hasi, norberaren burua onartzearekin jarraitu eta agerrarazteko ekintzarekin amaitzen den prozesua.

- ✿ Ikusgarritasun kolektiboa lesbianek gizarte talde moduan bizi dituzten egoeretan aldaketa baikorrak egiteko protagonismoa handitzea da. Horrela, lesbianek haien eskubide eta interesen kargu hartzen dute eta eragin handiagoa lortzeko asmoz beste lesbianen eskubide eta interesekin bat egiten dute. Ikusgarritasunak gizartearekin eta politikarekin zerikusi handia duen esanahia hartzen du.

Okorrean, ez da erraza ikusgarri egitea ikusgarritasunak esanahi sozial handia duelako eta testuinguru sexistetan eta aurriritzietarako joera dutenetan egiten delako.

Eremu publikoko ikusgarritasun eza

EAEko homosexualitatearen argazkiak parekotasun eza erakusten digu gizonen eta emakumeen agerpen publikoari dagokionez, lesbianen gizarte ikusgarritasunean gabezia handia ikusten baita. Ez daude praktikan, eremu publikoan lesbiana direla onartzen duten emakumeak, eta lesbianismoak ez dauka gizonezkoen homosexualitateak egun duen pertsona ezagunen aniztasuna. Ondorioz, homosexualitatearen gizarte agerpena maskulinoa da batez ere. Inmaculada Mujikaren (Mujika, 2007) arabera oso posible da euskal lesbianak fikzioan errealitatean baino hobe ordezkaturata egotea, telebista kateetan agertzen diren pertsonaia lesbianen bitartez hain zuzen ere (Hospital Central, Aquí no hay quien viva, Siete Vidas, The L Word, etab.).

Lesbianak eremu pribatuan publikoan baina ikusgariagoak dira, horrela bada, zabalagoa da ikusgarritasun hori familian eta lagun taldean eta ez, ordea, lan edo enpresa munduan, auzoan, kalean, komunikabideetan edo politikan.

Lesbianen ikusgarritasun eza bereziki azpimarragarria da eremu publikoan, eta horrek lesbianismoaren lemazain izateko emakumerik ez egotea eragiten du. Arrazoiak, beste batzuren artean, lesbianen beraien ikuskera da, eremu intimo eta pribatukotzat hartzen baitute lesbianismoa. Ikusgarritasuna ez da ahalduz iturri izaten ari lesbianen artean ez baitirudi guztiak indartzeko bilgune denik. Eremu publiko eta politiko urriak izateak talde ahalduz eza egiaztatzen dutela argi dirudi.

Luisa Etxenik (Etxenike, 2008) aipatzen duen bidetik, argia dirudi lesbianismoaren gizarte ordezkartaz ari garenean ez garela gauza gehiegiri buruz hizketan ari, edo are okerrago, argia da ez garela ia ezerri buruz ari. Lesbianismoaren gizarte ordezkartaren eraikuntzak miniaturazko neurriak ditu gure herrialdean oraindik ere, eskalatutako maketa baten itxura.

Ikusgarritasuna komunikabideetatik, erreferente historikoetatik eta eremu publikoetatik, sexualitatearen gizarte onarpenetik, botere politikotik eta abarretatik elikatzen da eta elementu hauek guztiak defizitarioak dira emakumeentzat. Ikusgarritasun defizitak, ikerketan zehar azalduko den moduan, eragin zuzena dauka baliabide ezberdinen erabileran.

Sexualitatea plazerez bizitzea, ikusgarritasunaren hasiera puntua

Sexualitatea kontzeptu konplexua da eta plazeraz eta zoriontasunaz hitz egitea eskatzen badu ere, ezin diogu erasoei eta zapalkuntzei buruz hitz egiteari utzi. Gure kultura androzentrikoak sexualitatea eta bera bizitzeko gaitasuna ukatzen die emakumeei, eta ondorioz, haien sexu sentrazioak eta bizipenak gutxietsiak izaten dira. Argitalpen eta ikerketa ezberdinek informazio handia sortu duen arren, oraindik ere asko dira haien sexualitatearen alderdi asko ezagutzen ez dituzten emakumeak eta tabu ugari mantentzen dira oraindik. Tabu horiek sexua emakumeentzat bigarren mailakoa den ideia indartzen dute, ez baita garrantzitsua plazerez bizitzea. Egoera honek kaltea eragiten die emakumeei eta haien ikusgarritasuna zaildu egiten du.

Gay dena dibertigarria eta gamurosoa delako ideia gizarte eredu baten ondorio izan da, gizonezkoen sexu desioak eta sentimenduak bizi eta agertzea ezagunagoa delako ereduaren ondorioa. Horrek gizonezko homosexualen ikusgarritasuna bultzatzen du sexu izaera garatzea azkartzen baitie. Sexualitatearen gizarte onarpen hori ez da lesbianengana heldu eta, ondorioz, zailagoa da ikusgarritasuna haientzat. Begoña Pérez Sanchok ondorio argia ateratzen du bere lanean (Pérez Sancho, 2006), gizonek lehenago eta maizago agertzen dute haien homosexualitatea haien inguruan.

Lesbianen ikusgarritasuna bultzatzeko egokia litzateke emakumeen sexu desioari buruz gehiago hitz egitea eta haien sexualitatea era baikorragoan bizitzea bultzatzea. Beharrezkoa da lesbianek inguruko onarpen “politikoki zuzen” horretatik haratago, haien desio sexualak indartuta sentitzea.

Lesbiana etiketari buruzko eztabaida

Azaldu dugun moduan, lesbiana hitzak errealitate anitz, konplexu eta aldakorrera gerturatzen gaitu, baina emakume guztiek, etiketa bera daramaten arren, ez dute berdin ulertzen haien bizipen homosexualen esanahia. Ez dago lesbiana izateko modu bakarra, ez eta hala

identifikatzeko modu bakarra ere. Emakume batzuk baino ezin dira lesbiana izenarekin ehuneko ehunean identifikatu, nahiz eta urteak eraman beste emakume batekin sexu eta maitasun harremana izaten.

Ikusgarritasuna ekintza publikoa da eta gainerakoek lesbiana izatearekiko duten irudipenaren aurrean agertzea ezinbestekoa da. Zentzu horretan, etiketatzea eta ikusgarritasuna sustantzia berekoak dira eta beti egongo da aldea haien burua ikusgarri egiten duten emakumeentzat haien lesbianismoak duen esanahiaren eta lesbiana hitzak gizartean duen etiketaren artean. Beatriz Gimenoarentzat (Gimeno, 2006), lesbianak direna direla ere, zalantzarik ez dago irudikatuak direla. Eta irudikapenek garrantzia dute bizipenak alde batera utzita eraikitzen direlako. Lesbianismoaren inguruan gizarteak duen irudia ez da lesbianek haien inguruan dutenarekin bat etortzen. Ikusgarritasunak garrantzia handia dauka, emakumeek haien lesbianismoa agertzeko haren gabezia oztopo handia izaten delako maiz.

Erreparo jarrera izatea lesbiana etiketarekin izendatua izan nahi ez izatea erabat zilegi da eta pertsona moduan sexuaren inguruan eratzen diren sexu identitatearekiko dugun askatasunaren parte da. Are gehiago, ikusgarri egiteko bidean etiketarik eduki ez izana edo etiketa baten atzetik joan ez izana lagungarria izan da emakume askorentzat. Baina norbanako modura lortzen diren abantailak galdu egiten dira lesbianen bizipenen zailtasunak aztertzen direnean, adiera faltak edo ez atxikitzeak arazoak sortzen baititu errealitatea gizartean islatu eta zilegitu nahi denean.

Lesbiana ez izendatzea: ikusgarritasunerako ondorioak

Lesbiana izendapenarekin identifikatuta ez sentitzeak oztopoak jartzen dizkio ikusgarritasunari. Arrazoiak hainbat dira (Mujika, 2007):

- ✿ Taldea identifikatzeko oinarria galdu daiteke, oraindik ere diskriminazioaren aurka egiteko eta eskari sozialak egiteko erabat beharrezkoa-
- ✿ Banakako ikusezintasunean babesten dira eta aurreiritziz betetako errealitate sexistaren eraldaketari oztopoak jartzen dizkiote.
- ✿ Gizarte erreferentzia baikorrak eraikitzea galerazten da eta horrek ez die laguntzen ezkutuan dauden lesbianeiei edo bere burua agerrarazten hasi direnei.

Lesbianen ikusezintasuna gizarte osoaren arazoa da

Lesbianen ikusezintasunari buruz hitz egitea topikoa da honezkero, lesbiana izatearen definizioarekin batera doan zerbait da. Mugimendu lesbianoa sortu zenetik gai izarra izan da

eta oraindik ere halaxe da. Beatriz Gimenoentzat (Gimeno, 2002) lesbianen ikusezintasuna delako errealitatea da, axioma baten moduan lan egiten du eta berez azaltzen ditu lesbiana batek bizi ditzakeen egoera gehienak.

Baina egia esan berez onartutako errealitatea baino gehiago da. Lesbianen ikusezintasunak kezkutzen gaitu, asko kezkatu ere, irudipena dugulako ez dela emakume lesbianen agerpen publikoa gizartearen onarpenak gora egiten duen hein berean gora egin. Ikerketa honen abiapuntuan ez dago lesbianen ikusgarritasuna pribatua delako edo edozein emakumek beste emakume batzuekin sexu praktikak edo harremanak izateko aukeratzen duen intimitate maila pribatua delako ustea.

Lesbianen ikusezintasunarekin haustea ez dugu uste haien ardura bakarrik denik. Heteronormatibitateak ezarritako sexu ereduak gaingiditzeko gizarte osoaren laguntza eta konpromisoa behar da.

BIDEGURUTZEEN METODOLOGIA ANALISI TRESNA MODUAN

Bidegurutzeen metodologia aukeratu dugu analisirako tresna ikerketa honetan. Bidegurutzeen analisiaren bitartez pertsonak jasaten dituzten ahulezia egoera ezberdinak batukari gisa aztertu beharrean, aritmetika oso baten modura ulertzen dira.

Bidegurutzeen metodologiak pertsonak kategoria edo identitate bakarrekoak ez garela esan nahi du, hau da, kontrakotzat ditugun adiera bietako bakarra, ez gara emakume edo gizonak soilik, ez migrariak edo bertakoak, langileak edo pribilegiatuak, helduak edo gazteak. Egia esan, identitate sorta batek osatzen gaitu eta harremanduta daude haien artean: generoa, etnia, maila edo sexu orientazioarekin batera badira beste hainbat, eta pertsonon bizipenek ere hori guztia eraikitzen laguntzen dute. Kategoria hauek, naturalak edo biologikoak ez ezik, gizarte eraikuntzaren lekuko ere badira, baldintza geopolitiko eta kulturalen ondorio, eta hauen arabera mundua antolatzeke erabakiak hartu behar izan ditugu (Platero, 2012).

Bidegurutzeen ikuspuntuak ulertzen du zapalkuntzaren ardatz ezberdinak elkarri lotuta daudela. Gerard Coll-Planasekin (Coll-Planas, 2012) ados gaude zapalkuntza lerroek elkarrekiko duten dependentzia azpimarratu eta pertsonen, ikuspuntu konplexuz, zapaltzaile eta zapaldu egoerak batera bizi dituztela dioenean. Coll-Planasek ikuspuntu hierarkikoa saihesten du dimentsio bakarraren nagusitasunaren gainetik. Zapalkuntzak gehitu egiten direlako logika gaingiditzen du, emakume lesbianen ohiko sailkapenean gertatzen den moduan, diskriminazio bikoitza: generoagatiko diskriminazioa eta sexu orientazioagatiko diskriminazioa.

Bidegurutzeen ikuspegi soziologikoak gizarte zein kultura mailan eraikitako diskriminazio maila ezberdinak proposatu eta aztertzen ditu. Horiek maila anitzetan eragiten dute aldi berean, gizarte ezberdintasun sistematikoa eraginez.

Era berean, gizartean errotutako zapalkuntza eredu klasikoak (generoa –sexismoa-, arrazakeria/etnizitatea, gizarte maila, erlijioa -diskriminazio erlijiosoa-, sexu orientazioa -lesbofobia-, edo desgaitasuna) modu independentean aritzen ez direla dio; kontrakoa esan beharko genuke, zapalkuntza mota horiek elkarrekin dute harremana eta diskriminazio era anitz sortzen dituen sistema eratzen da.

Generoa, maila, etnia, adina, desgaitasuna, sexu identitatea ala orientazioa eta beste hainbat kategoria sozial azpimarratzen dituen ikuspegi teorikoa da, eraikiak baitira eta elkarrekiko harremana baitute. Begirada konplexua da eta hainbat estrategia egiaztatzen laguntzen du: botere estrategiak, naturaldutako gizarte arauak eta aktibismoak edo politika publikoek eragindako eta ez bilatutako ondorioak.

Begirada honek ikerketa honetan parte hartu duten emakumeen errealitate zehatzak ulertzen lagunduko digu. Hauek izango dira aldagaiak: adina, migrazioa, desgaitasuna/aniztasun funtzionala eta transexualitatea.

Heldua izatea

Gure gizartean zahartzaroa eta botere, autoritate edo ospe handiagoa izatea ez doaz eskutik; gaitasun eta trebezia galerarekin lotzen baita zahartzaroa. Nahiz eta denbora luzeagoz bizi garen egun, eta paradoxa dirudien arren, zahar egiteak politikan, gizartean eta kulturen eragin txikiagoa izatea eragiten du, baita eskasia ekonomikoa ere.

Era berean, zahartzaroak sexualitatea galtzea esan nahi du, sexua pertsona gazteen, indartsuen eta ugalketarako prest daudenen ondarea delako ustea zabaldua baitago. Seme-alabak izateko gaitasuna galtzen dutenean, emakume helduei ideia horrek gizon helduei baino gehiago eragiten die. Emakume lesbianen bazterketa muturrekoa bilakatu daiteke zahartu ahala. Era berean, gizarte eta lege aldaketak ez dituzte bereak balira bezala bizi, ez eta eskubideen gauzatzea ere haien sexu orientazioa edozein dela ere. Bazterrean kokatzen dira, berandu delako edo horrezkero goza ezin ditzaketela pentsatzen dutelako agian.

Emakume lesbiana helduek haien haurtzaroa eta gaztaroaren zati handiena frankismo garaian eman zuten, ezberdintasuna legezko egin zuen eta emakumeak gizarteko eremu guztietan bigarren mailara zigortu zituen erregimen politikoan. Eremu publikoa debekatu zieten eta etxeko eremu pribatura eta seme-alaben eta senarraren zaintze lanetara bideratu zituzten. Ezkontza eta familiaren bitartez nagusiki lesbianak zapaldu zituen erregimen politikoa izan zen. Askoren ezkondu izaerak ez die beste emakume lesbiana batzuk ezagutu eta haiekin harremanak izaten utzi. Gaur egun, asko eta asko ez dira gazteentzat pentsatutako sozializatzeko lesbianoaren eremuetara egokitzen, giroko tabernetan antolatzen diren emakume lesbianentzako jai topaketetan adibidez, edo Lesbiana, Gay, Trans eta Bisexualen elkarteek (LGTB aurrerantzean) antolatzen dituzten jaietan, sare sozialetan, eta abarretan.

Gazte izatea

Gizartean baloratzen bada ere, gazte izatea ez da erraza. 15 eta 24 urte arteko gazteen egunerokoak eztabaida pizten du eta trabaz beterik dago, bai norbanakoaren emantzipazioan bai independentzia ekonomikoan bai gizarte integrazioan.

Ikerketa askok diotenez, gazteek gainerako biztanleek baino gizarte eskubide gutxiago dituzte. Lan mundura sartzeko arazoak, prekarietatea eta aldi baterako lanak, etxebizitza propioa izateko arazoak, etxetik berandu irtetea edo sarri bizi dituzten emozio gatazka depresiboak gazteen egunerokoaren parte dira, are gehiago azken urteotan bizi dugun ekonomia-krisia kontuan hartuta.

Emakume gazteen egoeran era berezian azpimarratu behar da arazo gehiago izaten dituztela formalki eskaintzen zaizkien eskubideak bere egiteko orduan. Enpresetako aukeraketetan kutunkeria eta sexismoa izaten dira, baita politikaren, hezkuntzaren eta norberaren garapenaren eremuan ere. Alderdi horiek biziki larritzen dira ezaugarri pertsonal zehatzak daudenean, hala nola, desgaitasuna, lesbianismoa, jatorri kultural ezberdina, eta abar.

“EAEko nerabeak. Hurbilketa ahalduntzetik abiatuta” (Emakunde, 2009) Emakunderen lanak gure autonomia erkidegoko gazteen artean oraindik ere jarduera homosexual batzuk ezkutatuak eta ezinikusiak direla adierazten du. Bertan azaltzen denez, presentego dago mutilen artean (%4k onartu du sexu bereko pertsonekin harremanak dituztela) neska nerabeen artean baino (%1 eskasak baino ez du sexu bereko pertsonarekin harremana).

Gazteen sexualitatea gizarteko gainerako gako heterosexistekin mugitzen da. Gazteen erreferente nagusia bikote/familia heterosexuala da, eta ez dira sexu-afektuzko aniztasuna nagusi den errealitatean bizi. Nerabezaroaren hasieratik desio eta sexu heterosexuala ez den guztiarekiko gaitzespena barneratzen dute.

Ondorioz, lesbiana gazte askok zailtasun psikologiko asko izaten dituzte, normalean orientazio lesbikoa gizarteratzearekin eta gizarte aurreiritziekin lotutako arazoak. Emakume gazteek haien lesbianismoa eta horrekin lotuta dagoen maskulinitatea beldurrez eta larritasunez bizi izaten dute oraindik orain. Egoera horrelakoa izanik, bere burua bisexual izendatzea babes modu antzekoa izaten da, heterosexualitateak ematen duen normaltasuntik ihes egin gabe. Dirudienez, gazte askok horren beharra izaten dute oraindik ere.

Alderdi hau helduek gazteen desio lesbianoak eta homosexualak ez onartzeko daukaten jarrerarekin elkartzen da. Jarrera hori, Ana B. Gómezek (Gómez, 2004) dioenez haien sexu orientazioa erabakitzeo nahikoa helduak ez direla uste izatean egon daiteke oinarrituta, eta, ondorioz, heldutasuna lortzean heterosexualak ez diren desio guztiak desagertuko zaizkiela. Sexu desioaren jariora, Wiltonek (Wilton, 2005) dioten eran, emakumezkoei lotzen zaie gizonezkoei baino gehiago, eta neskek haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan beste neska batzuekin dituzten harremanak ukatu egiten dira fase “normalaren” parte balira bezala.

Lege eta gizarte ikuspuntutik, gaurko gazte lesbianek osatzen dute gizonen eta emakumeen arteko parekotasuna eta herritarren sexu orientazioa edozein dela ere berdintasunean bizi den lehen lesbiana belaunaldia. Ezaugarri honek haien lesbiana izaera markatuko du, haien etorkizuneko -sexu-afektuzko bizitzari buruzko erabakiak hartzeko moduan izango baitira: ezkondu edo ez, izatezko bikote edo beste zerbait izan adibidez. Aurreko lesbiana belaunaldiak hartu ezin izan zituzten erabakiak hartu ahal izango dituzte.

Eta garrantzitsuagoa dena, aldaketa hauek guztiek lesbianismoa ezagutu eta onartzeko prozesua azkartuko eta erraztuko die gazteei. Orain dela hogeitazazpi urte zalantza, lotsa, bakartze eta min handiko prozesua bizi behar izaten zuten lesbianek haien sexualitatea onartu aurretik baina orain, baliabide gehiago dituzte gazte lesbianek prozesu hori gauzatzeko eta lesbiana izateak haien nerabezaroa eta gaztaroa markatu ez diezaien, erraza ez bada ere.

Migrantea izatea

*Ikuspegi*ak datuen arabera, 73.746 ziren beste herrialde batzuetatik etorrira 2013 amaieran EAEn bizi ziren emakumeak. Kuantitatiboki, ez litzateke okerra pentsatzea haien arteko %6, hau da, haietako 4.500 inguru lesbianak izatea edo beste emakume batzuekiko erakarpina sentitzea. Gehienak jatorri latinokoak edo europearrekoak dira.

J. Ignacio Pichardok (Pichardo, 2003) aipatzen duen moduan, sexu aukera bera izan daiteke migratzeko erabakiaren oinarria eta, edozein kasutan, haien migrazio prozesuaren arrazoi nagusia ez dela uste duten lesbianentzat ere, garrantzizko motiboa izaten da. Sexu orientazio eta genero identitate kontuengatik erabakitako inmigrazioa, jatorrizko herrietan bizitzea ezinezko duten lesbianismoa eta transexualitatea askatasunez bizitzeko aukera izan daiteke eta, era berean, bizirik irteteko derrigorrezko aukera izan daiteke.

Haien desio homosexual eta transexualaren arabera bizitzeko presio handiei egin behar izaten diete aurre emakume etorkin askok, ez bakarrik gizarteak edo erlijioak ezarritako presioak, familiarteko presioei ere egin behar izaten diete aurre, eta horiek izaten dira sarri beren burua onartzeko eta nahi duten moduan bizitzeko zailtasunak eta trabak eragiten dizkietenak. Hala ere eta borroka pertsonal sakona izan ondoren, gehienek nahi dutena izan eta nahi bezala bizitzeko beharrezko baliabideak lortzen dituztela ikusi dugu, modu irekian edo bizitza bikoitza aukeratuta (Mujika, 2011).

Askotan, etorkinen arazoei, lan eta lege prekarietatea, familiaren eta gizartearen sostengu eza eta gizarte bazterketa besteak beste, haien sexu orientazioari dagozkienak gehitu behar zaizkie. Emakume etorkin askok haien lesbianismoa jatorrizko herrietan bezala ezkutatu behar izaten dute.

Legearen ikuspegitik aldeko legedia izatea (horien adibide dira ezkontza homosexuala, sexu bereko bikoteen adopzio aukera, transexualitateari buruzko legeak) erabakigarria izan daiteke pertsona etorkinek EAEra etortzeko erabakia hartzeko uneen, jatorriko herrietan aukera izan

ez eta haien sexualitateak merezi dituen eskubideak EAEn era askean bizitzeko berme handiagoa izateko.

Bertakotuta dauden LGTB etorkinak bertako LGTB herritarren baldintza ia berdina lor ditzakete, espainiar herritartasuna duten pertsonen eskubide zibil eta sozialak Espainian bizi diren guztientzat baliagarri baitira, herritartasuna izan ala ez. Jatorrizko herrian baldintza horiek onartzea jatorrizko herriaren legediaren arabera izango da. Hau da, bi emakume peruarrek Espainian ezkontzeko aukera izango dute baina ezkontza hori Perun onartuko da berton LGTB pertsonen ezkontzeko eskubidea aitortua badute.

Legez bertakotuta dauden pertsona transexualak Gurutzetako Genero-Unitatean artatu ditzakete espainiar nazionalitatea duten transexualak bezala. Horrela, ziurtatuta daukate haien aldaketa prozesuetako medikuntza eta psikiatria lana (arreta psikiatrikoa, hormonatzea eta sexu berregokitzea).

Legez bertakotu diren emakume askok, hemen ongizate pertsonal handiagoa lortu izana onartu dute. Haien sexu orientazioa eta genero identitatea era askeagoan bizitzeko aukerarekin du harreman zuzena ongizate horrek. Ongizate handiago hori, migratzeko arrazoi nagusia ez izan arren, balio handiko alderdia da eta emakume etorkin asko EAEn geratzeko arrazoi izaten da, nahiz eta egoera ekonomikoa larria izan eta haien jatorrizko herrialdeetan lan aukera handiagoak izan ditzatekeela jakin. Legezko egoera lortzeko baldintzak gero eta murriztaileagoak izan arren, horixe da emakume askoren borroka.

LGBTB errefuxiatuak espainiar estatuak modu eraginkorrean babesteko muga asko daude oraindik ere, bai administrazioak sortzen dituen mugak baita muga judizialak ere. Orokorrean babes eskariak ukatzeko politika orokorra bada ere, ukatze kopuruak gora egiten du (CEAR, 2009) babesa eskatzeko arrazoiak genero arrazoengatiko jazarpena dela argudiatzen denean.

Funtzio-anitza izatea

Aniztasun funtzionala adiera alternatiboa da eta 2005eko urtarrilean proposatu zuen Bizitza Independentearen Foroak⁴. Helburua bestelako gutxiespen-hitzak ordezkatzea izan zen, “ezintasun” edo “minusbaliotasun” bezalako hitzak. Terminologia ezkorra erabiltzen ez duen biderako aldaketa da proposatzen duena, aniztasun funtzionala birgaitzeko asmorik gabea.

Gizartean presente dagoen fenomeno edo ezaugarri moduan uler genezake aniztasun funtzionala, definizioz, gizarteko partaide guztiei berdina eragiten diena. Hau da, gizartea osatzen duten pertsonen gaitasun edo funtzionalitate ezberdinak izaten dituzte eta horregatik sortzen da aniztasun funtzionala, aniztasun kulturala, sexuala, belaunaldi artekoa eta abarrekoak dauden era berean.

⁴ http://www.foroindaiindependiente.org/el_modelo_de_la_diversidad

Bizitza Independenteko Forokoen ustez, aniztasun funtzionalak ez du gaixotasunarekin, urritasunarekin, paralisiarekin edo atzerapenarekin zerikusirik. Hitz horiek guztiak medikuntzaren ereduak aniztasun funtzionala ikusteko tradizioz izan duen moduaren ondorio dira. Ikuspegi horren arabera ezberdina da pertsona hori, biologikoki ez perfektua eta normalitateak ezarritako patroia berrezartzeko birgaitu eta “konpondu” egin behar dena. Inoiz existitu ez diren patroiak dira horiek, eta etorkizunean, medikuntzaren aurrerapenak direla eta, aukera gutxi daude existitu daitezen.

Ikerketa honetan zehar desgaitasun hitza modu estrategikoan erabili dugu, desgaitasun fisikoa edo psikikoa duten pertsona guztiak bildu baititugu bertan. Uneoro hartu beharko da kontuan gure irizpide teorikoak aniztasun funtzionala kontzeptuaren barnean daudela.

Buruko gaitzak eta homosexualitatea, lesbianismoa eta transexualitatea lotu izan dira historikoki. Aurreiritzi sakona egon da harreman horren atzean, arautik ateratzen den horretatik kanpo sexua edo generoa bizitzeko moduak aurreiritzi askorekin epaitu baitira. Horrela bada, buruko gaitza izan edo ez, homosexual, lesbiana edo transexual guztiak buruko gaixo moduan ikusi izan dituzte luzaroan.

Munduko Osasun Erakundeak 1991n kendu zituen buruko gaitzen zerrendatik homosexualitatea eta lesbianismoa. Ez da berdina transexualitatearen errealitatea, oraindik ere aipatzen baitu DSM-V sailkapenak genero disforia moduan eta CIE-10⁵ sailkapenak genero identitatearen nahasmendu gisa. Buruko gaixotasuna duten emakume lesbianek zailtasun asko izaten dituzte sexu bereko emakumeenganako desioak eta erakarpenak onar ditzaten edo haien transexualitatea onar dezaten.

Sexualitatea gaia tabu da, gai ikusezina desgaitasunaz ari garenean. Desgaitasuna duten pertsonak arazo nahikoa dutela uste izaten da, sexuarekin interesatu aurretik baitaude, ustez, arazo horiek guztiak. Desgaitasunen kontua lantzen denean, maiz ahazten dira sexuarekin, desioarekin, fantasiekin eta abarrekin lotutako sentimenduak. Sexualitatea ugalkortasunarekin eta amatasunarekin lotu ohi da eta alde batean gelditzen dira eredu nagusi edo heteronormatibo horietatik kanpo dauden identitateak.

Trans izatea

Transexualitateari buruz dauden iritziek harreman handia daukate genero identitatearekin eta sexu zaletasunarekin. Sexu jarduera egokia heterosexualitatea dela suposatzen da; ondorioz, emakume transexualek gizonekiko erakarpena izan behar dute eta alderantzizkoa gertatu behar da gizon transexualen kasuan.

Berriro ere, trans pertsonen errealitatea kontraesanean dago pentsamolde honekin, egoera ezberdin asko baitaude sexu orientazioari dagokionez. Trans pertsona heterosexualak,

⁵ DSM eta CIE buruko gaitzen nazioarteko sailkapenak dira.

lesbianak eta homosexualak daude. Egiaitan, trans emakumeen artean asko lesbianak direla azpimarratu dezakegu. Norma Mejía (Mejía, 2006), gai honi dagokionez ondokoa dio: aniztasun handia dago trans pertsonen sexu orientazioari dagokionez, eta ikerketa batzuen arabera, ugariagoak dira trans pertsona bisexual edo homosexualak, heterosexualak baino.

Gaur gun ez DSM-V ez CIE-10 zerrendek ez dute heterosexualitatea ezartzen irizpide moduan transexualitatea diagnostikatzeko. Hala ere, aurretik aipatu ditugun ideia tradizionalen indarrak eta inplizituki azalerazten den ezjakintasunak heterosexualitatea diagnostikorako elementu bilakatzen dute, J. Antonio Nietok (Nieto, 2002) dioskun moduan, “oinarri sakonenetik heterosexualitatea ulertzen da sexu harreman natural bakar moduan. Ondorioz, ulertezina da norbaitek generoa berrizendatzea gero sexu bereko pertsona batekin egoteko.”

Nahiz eta legeetan aurrerapenak izan diren eta transexualitateari buruzko informazioa asko handitu den azken urte hauetan, oraindik ere kontu arraro moduan ikusten dela izan behar dugu kontuan, eta, horrela, emakume transexualen egoera pertsonala, familiakoa, gizartekoa, lan edo hezkuntza egoera hobeto ulertuko dugu.

Emakume transexual askorentzat, haien lesbianismoa gehitu beharreko prozesu estigmatizatzailea da, haien transexualitateari gehitu beharreko beste prozesu bat. Ez da erraza izaten beste emakume lesbianekin gizarteratzea. Zailtasun horiek emakume lesbiana ez transexualekin dago lotuta, emakume horiek ez baitituzte ulertzen emakume lesbiana transexualak. Lesbianek eta gizarteak oro har, emakume izatearen esanahiaren inguruan duten iritziaren ondorio da hau.

Aurretik aipatu dugun moduan, emakume egiten gaituena biologiak emandako gorputza dela uste izaten da. Lesbiana transexualek erronka handia dira kontzeptualizazio horretan, betidanik emakumezko gorputza izan ez duten emakumeak baitira. Hortxe sortzen dira lesbiana transexualen eta lesbiana ez transexualen arteko sorpresak eta desenkontruak, eta dagokien sexu organua ez dutenez, gutxietsi egiten dute haien burua biologikoki haien burua emakumetzat duten lesbianen aurrean.

METODOLOGIA



METODOLOGIAREN DISEINUA

Arrazoi ugari eraman gaituzte ikerketa kualitatiboa aukeratzera lan tresna: metodo induktiboan oinarritzen delako eta berau aproposagoa delako ikerketan aztertutako jendartearen errealitatea ulertzeko (ikus esparru teorikoa), lesbianismoa osotasuntzat dauka eta era intuitiboan dauka eragina datuen gainean. Gainera, bere dimentsio sinbolikoa interpretatzen laguntzen du, lesbiana izateak eta bere egitura dinamikoak osatzen duen errealitate anitza identifikatzen du, derrigor alde batera utzi behar (ez) diren teoriak eta hipotesiak sorrarazten ditu, eta ikerketako parte-hartzaileekin elkarreragin aipagarria ditu ezaugarri, parte-hartzaileari begiratzen baitio.

Ikuspuntu parte-hartzailea proposatu dugu, hein handi batean ezkutuan dagoen herritar talde bat ikertzeko gerturatze metodologiko oso interesgarria dela baiteritzogu. Sektore ezkutua da lesbianena, gizarte estigmatizazio prozesuek eragiten dioten sektorea. Era berean, prozesu parte-hartzaileak balioa eta konfiantza ematen dizkie datuei, subjektu aktibo moduan onartzen baititu gure ikerketako objektu diren horiek.

Bestalde, gure ikuspuntua bidegurutzeen metodologia ere izan dela aipatu behar dugu. Kontzeptu baliagarria izan da oso zenbait arazori eta bazterketari aurre egiteko, identitateak elkarren osagarri direla kontuan hartu gabe lan egiten denean gertatzen denari aurre egiteko. Lehenengo eta behin, bidegurutzeen fenomenoak lantzeko tresnak garatu ez direla esan nahi dugu, hau da, ez dago bidegurutzeen metodologia lantzeko teoria enpirikorik. Horrela bada, ikuspuntu hau hautatu izanak jarrerarekin du zerikusia guretzat, hierarkiarik, etiketarik, alde zuzeneko posizionamendurik eta aurreiritzirik gabe ekin ahal izan diogu lanari ikertzaileok.

Aurretik esan dugun moduan, badakigu ze zaila den estigmatizaturik dagoen populazioengana heltzea, ikusezinak baitira horiek. Zentzu horretan, behaketa parte-hartzailea oinarritzeko da ikerketan eta ikertzaileak ikertutako munduarekiko duten konpromisoa oso garrantzitsua izan da. Parte-hartze horri esker, bestela iristea ezinezko litzatekeen emakume lesbiana askorengana heldu ahal izan gara. Emakume parte-hartzaileen artean sortu den konfiantza eta konplizitatea errealitate honekin lotuta egon dira zuzenean.

IKERKETA LANAREN ALDIAK

Ikerketa lana 2013ko uztailan hasi zen eta 2014ko maiatzan bukatu.

1. aldia: Materialak prestatu

- ✿ Ikerketa taldea antolatu eta lanak banatu.
- ✿ Bibliografia berrikusi: lehen mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako iturriak aztertu.
- ✿ Marko teorikoa prestatu: erreferentzia izango den markoa eratu, laneko emaitzak ulertzeko baliagarri izango baitira.
- ✿ Solasaldi taldeak eta elkarrizketa sakonak:
 - Diagnosirako tresnak diseinatu eta informazioa bildu: taldeentzako gidoiak eta sakoneko elkarrizketetarako galdetegi erdi itxiak prestatu.
 - Taldeetarako informatzaileak identifikatu eta elkarrizketatuko ditugun emakumeen lagina aukeratu.
 - Informatzaileekin harremanetan jarri.
 - Informatzaileekin adostuta, taldeetarako eta elkarrizketetarako datak eta ordutegiak proposatu.

2. aldia: Landa-lana

- ✿ Taldeetako solasaldiak eta norbanakoekin sakoneko elkarrizketak egin eta grabatu.
- ✿ Taldeetan zein elkarrizketetan sortutako informazioa transkribatu eta irauli.

3. aldia: Emaitzen analisia eta transferentzia

- ✿ Lortutako informazioa analizatu eta egiaztatu.
- ✿ Hasierako hipotesia oinarri hartuta lortutako emaitzak egiaztatu. Hipotesi berriak, ondorioak eta iradokizunak sortu.
- ✿ Erabilitako metodologia baloratu.
- ✿ Azken lana idatzi.

DATUAK ETA INFORMAZIOA BILDU

Informazio iturri nagusiak solasaldi taldeak eta sakoneko elkarrizketak izan dira. Horretarako, multzo ezberdinetan banatutako gidoi egituratuak erabili ditugu. Multzoak erabakitzeko, eta mota guztietako gizarte baliabideak sakon aztertu ondoren (ikus IV. ERANSKINA), gaikako sei alorren arabera banatu ditugu baliabideak, garrantzia bereko sei alor:

- ✿ Eremu juridikoko baliabideak.
- ✿ Osasun eremuko baliabideak.
- ✿ Eremu ekonomikoko baliabideak.
- ✿ Hezkuntza eremuko baliabideak.
- ✿ Lan eremuko baliabideak.
- ✿ Eremu soziokulturaleko baliabideak.

Beste alde batetik, zeharkako bi gai erabaki ditugu gai guztietarako, eta solasaldi eta elkarrizketa guztietan izan ditugu kontuan:

- ✿ Ikusgarritasuna.
- ✿ Segurtasuna.

Hainbat izan dira dokumentazio euskarri moduan erabili ditugun tresnak:

- ✿ Datu-fitxak (ikus V. ERANSKINA).
- ✿ Solasaldietarako eta elkarrizketetarako gidoiak (ikus II. ERANSKINA). Zehaztutako alor bakoitzean zeharkako bi gai sartu ditugu (ikus III. ERANSKINA).
- ✿ Oharren koadernoak.
- ✿ Grabaketak.
- ✿ Argazkiak.

Solasaldiak hasi aurretik, emakume bakoitzak datuen fitxa anonimoa bete du geroko balorazioak egin ahal izateko, norbanakoaren errealitatea eta gizartearekin lotutako balorazioak egin ahal izateko ondoren.

Elkarrizketatutako emakumeen profil biografikoak elkarrizketatuen koadroan (ikus I. ERANSKINA) aurkeztu ditugu, eta eranskina ikerketaren irakurketan zehar begiratzea aholkatzen dugu. Garrantzia handiko konfidentzialtasun eta segurtasun datuak kontuan hartu ditugu, haien lasbianismoa sekretuan mantentzen duten emakumeen kasuan batez ere. Elkarrizketatutako emakumeentzat izengoitiak erabili ditugu eta identifikatze ezaugarriak gutxienera murriztu ditugu. I. ERANSKINean gezurretazko izena eta oinarrizko ezaugarri biografikoak idatzi ditugu, adierazi dituzten jarrerak ulertzen laguntzeko nahikoa izan daitezkeenak bakarrik bilduz.

Hala ere, gu ere harritu gintuen zerbait agertu beharrean gaude, parte-hartzaile gehienek ez baitute arazorik izan ikerketan benetako datuak agertzeko. Poz handia eman digu agerrarazteko arazorik ez dutela ikusteak, orain urte batzuk pentsaezina zirudien egoera errealitate baita orain. Emakumeen laginean dagoen adin, formazio, ideologia, egoera soziofamiliar eta ekonomiko, identitate, gaitasun eta jatorri anitzak kontuan hartuta, badirudi historian zehar izan den lesbianen ikusezintasunean zerbait aldatzen egon daitekeela.

Ikerketarako gai ziren galdera ezberdinak nolabaiteko ordenean sartzeko erabili dira gidoiak. Solasaldiek ondorengo gaiak izan dituzte: autonomia, norbanakoaren independentzia eta erabakitze gaitasuna, osasuna, maitasun eta sexu harreman eta portaerak, beharrak eta interesak, formazioa eta trebakuntza, aisialdiko baliabideak eta zaletasunak, lanerako sarrera, lan baldintzak eta lan egoerak, lan uzteak, txirotasun egoerak edo gizarte bazterketa antzematea, gizarte, ekonomia, osasun, hezkuntza, lan, lege, segurtasun eta etxebizitza zerbitzuen baliabideen ezagutza, eta abar.

SOLASALDI TALDEEN ETA ELKARRIZKETEN GARAPENA

Ahal izan den neurrian, aukeratutako emakumeen lagina anitza eta-ausaz aukeratutakoa izan da (ikus I. ERANSKINA). Lagineko informatzaileengana heltzeko iturriak ondoko bideetatik lortu ditugu:

- ✿ Euskal Autonomia Erkidegoko LGTB elkarteetara joaten diren emakumeak.
- ✿ Ikerlarien ezagunak eta harreman pertsonalak.
- ✿ Komunikazioak: e-mezuak kontaktuei eta bazkideei.
- ✿ Desgaitasun, migrazio, sexu aniztasun eta osasun mentalaren alorrean lanean ari diren elkarte eta erakunde ezberdinen bitartez lortutako kontaktuak.

Taldeetan parte hartu duten edo elkarrizketatu ditugun emakumeak aukeratzeko erabili ditugun irizpideak ondokoak izan dira:

- ✿ Aldagi nagusiak: adina (gaztea ala nagusia izan), traxsexualitatea, inmigrazioa (jatorrizko herrialdea), aniztasun funtzionala.

- Beste aldagai batzuk: bizilekua (herria edo hiria), ikasketa maila, egoera legala, amatasuna, lan egoera, lesbianismoarekiko ikusgarritasun maila, gizarte eta ekonomia estatusa, LGTB elkarteetan edota elkarte feministetan duten parte-hartzea, sentimendu erlijiosorik duten, zaletasun motak.

Aukeratutako emakumeen lagina ahal bezain anitza eta ausazkoa izan da. Lagina ez da inondik inora emakume lesbianen “lesbiana tipo” moduan hartu behar. Haien istorioen eta bizipenen arabera hautatu ditugu eta gurekin partekatu dituzten informazio baliotsuak ordainezinak dira.

Solasaldi taldeetan 20 emakumek hartu dute parte eta honela osatu dira:

- Helduen eta gazteen solasaldi taldea: bi emakume lesbiana heldu eta bi emakume lesbiana gazte.
- Aniztasun funtzionaleko solasaldi taldea: desgaitasun fisikoa duten bi emakume lesbiana eta desgaitasun psikikoa duten bi emakume lesbiana.
- Transexualen eta migrarien solasaldi taldea: bi emakume lesbiana transexual eta migrari diren bi emakume lesbiana.
- Egiaztatze solasaldi 1.taldea: emakume lesbiana transexual bat, emakume lesbiana gazte bat, desgaitasun psikikoa duen emakume lesbiana bat eta emakume lesbiana migraria.
- Egiaztatze solasaldi 2.taldea: gainerako parte-hartzaileak biltzen dituzten ezaugarriak biltzen ez duten lau emakume lesbiana.

Taldeakako elkarrizketak garatzen ari ginen garai berean beste 5 emakume lesbiana sakonki elkarrizketatu ditugu haien bizitzetako kontakizunak biltzeko. Elkarrizketak biografikoak izan dira eta emakume lesbianen bizipenak eta haien inguruneak ezagutzea izan dute helburu.

Elkarrizketa hauetan errealitate eta bizipen ezberdinen deskribapen zabala biltzen saiatu gara, baliabide publiko eta pribatuak erabili dituzten lagunen kontakizun baikorrak zein ezkorrak, izan eremu ekonomikoan edo juridikoan, lan, kultura, hezkuntza, osasun, gizarte parte-hartze edo aisialdiaren eremuan. Ikusgarritasunarekiko eta segurtasunarekiko dituzten ikuspegiak ere islatu nahi izan ditugu. Hori dela eta, aipatu baliabideetan lesbianatzat agerrarazi diren eta seguru sentitu ote diren ere galdetu diegu.

Elkarrizketatzaile gisa kontuan hartu ditugun jarrerak::

- Ager zitezkeen arazoak hautemateko sentibera izan.
- Elkarrizketatuen interesak ulertu.

- ✿ Aurreiritzirik ez izatea.
- ✿ Erantzunak pentsatzeko denbora eman eta komunikazioa mantenduko duten iruzkinak egin.

Solasaldi taldeetako zein elkarrizketetako grabaketa guztiak osorik traskribatu dira eta ikerlariek haien analisirako baliatu dituzte.

Ondoren, eta bildutako datuen aurre-azterterketa eginda, hainbat alderdi zehazteko elkarrizketa batzuk burutu ditugu. Hauek izan dira elkarrizketa horietan parte hartu duten lagunak:

- ✿ ERRESPETUZeko presidentea (Transexualen defentsa eta integraziorako euskal elkarte).
- ✿ ALDARTE elkarteko presidentea eta bigarren hezkuntzako irakaslea.
- ✿ SEHASKAko (Ama eta aita homosexualen elkarte) partehartzaile bat (emakumea).
- ✿ Deustu-San Inazioko modulu psikosozialeko ginekologo eta psikologoa.

Bai solasaldiak bai elkarrizketa sakonak ALDARTE arreta zentroan egin dira batez ere, hainbat elkarrizketaturi elkarrizketak haien etxeetan egitea egokiagoa litzatekeela baloratu badugu ere.

Giro eroso eta lasaia izan dugu lagun uneoro. Horrek, talde bakoitzeko koordinatzaileek zein parte-hartzaileek proposatzen zituzten gaiak gustura aletzeko aukera eman digu.

GIZARTE BALIABIDEEN IKERKETA



ARLO JURIDIKOKO BALIABIDEEN AZTERKETA

SARRERA

Kode Zibilaren erreformarekin sortutako Lesbianentzako eta Gayentzako Berdintasun Manifestuaren arabera, guztiok gara berdinak legearen aurrean. Gizarte demokratikoaren oinarritzko bermea da hori, eta horregatik da onartezina eskubideei izkin egitea. Eskubide berdintasunak maila berean kokatzen ditu gizarteko pertsona guztiak, eta horrekin batera, segurtasun juridikoa ematen die. Baita euren bizi kalitatean eta euren familienetan zuzenean eragiten duen babesa ere.

Alabaina, egun begien bistakoa iruditzen zaigun hori ez da beti horrela izan. Urte askoan, pertsona lesbianeiei, gayeiei, transexualei eta bisexualei (LGTB) eskubideak urratu dizkie homosexualitatearen, lesbianismoaren eta transexualitatearen gaineko aurreiritzietan oinarritutako sistemak.

Azken urteotan, aurrerapenak eta konkistak gertatu dira lege mailan, eta gure ikerketan parte hartu duten emakumeek euren segurtasunerako eta ongizaterako erabili dituzte baliabide juridiko anitz horiek. Emakume lesbianengan modu zuzenean duten eraginagatik, eta azalpen honetan erreferentzia egingo zaielako, hurrengoak nabarmendu ditugu (maila autonomikoan eta europarrean gai honen inguruko askoz ere arau eta lege gehiago daudela ahaztu gabe):

- ✿ 3/2005 legea, uztailaren 1ekoa, Kode Zibila moldatu duena ezkontzeko eskubideari dagokionez, eta bi pertsonen arteko ezkontza baimentzen duena euren sexua gorabehera (ezkontza homosexuala deitutakoa).
- ✿ 3/2007 legea, martxoaren 15ekoa, pertsonen sexuaren inguruko erregistroko datuen zuzenketa arautzen duena, sexuz eta izenez aldatzeko balio duena, eta, gainera, 14/2006 legea aldatzen duena, Laguntza bidezko Ugalketari buruzkoa berau (emakumezkoen arteko ezkontzetako adingabeak zuzenean erregistratzea uzten duena, ama ez-biologikoak adopzio prozesu judizialik egin beharrik gabe, bi emakumezkoen amatasun legala jasoz).

Hala ere, askotan, fikziozko berdintasuna baino ez da izaten; ikusiko dugun bezala, emakume lesbianeek euren eskubideak erabiltzeko eragozpen eta oztopo asko daudelako. Emakumeen beraien bizipenetatik eta ideologiatik sortzen diren kanpo eta barne oztopo asko.

Zenbaitetan, trataera bereizia jasotzen dute euren eskubideak erabiltzen dituztenean; emakumez osatutako bikoteen baitako indarkeria dagonean, adibidez. Eragile eta instituzioek, auzitegiek, udaletxeek eta abarrek horrelako prozesuetan lesbianak modu bereizian tratatzeko arrazoiak aztertuko ditugu.

Beste zenbaitetan, aurretiaz esan dezakegu homofobiak, lesbofobiak eta transfobiak, hau da, LGTB pertsonenganako aurreiritziek eta estereotipoek, emakumeei euren eskubideak erabiltzea eragozten dietela: euren burua agerraraztearen beldurraren ondorio zuzena izaten da eskubide zehatz batzuei uko egitea. Ondorioz, oso garesti ateratzen zaie urteetan borrokatutako baliabide juridiko batzuk ezin erabili izatea.

ESKUBIDEEN ERABILERA

“Eskerrak ematen ditut mahai atonduan iritsi nintzelako ni hona”

Candela oso kontziente da LGTB kolektiboarentzako eskubideen aitorpenerako borrokan ahalegin izugarria egin behar izan dutela. Borroka horri esker, ondorengo belaunaldiak eskubide berberetz berdintasunez gozatu ahal izan(g)o dute: *“Urte hauetan guztietan, bizitza osoan militatzen diharduten emakumeek lortu dituzte eskubide guztiak, Kode Zibilaren erreforma (ezkontza), adopzioa... eta sufritu denarekin, argi dago horretaz baliatuko naizela”*.

Baden errealitatea arautzea eta babestea da kontua, “Ezkontza homosexualerako eskubide konstituzioanala Espainian” artikulua dioen moduan (Martín Sánchez, 2008)⁶, “Gaurko gizartean, modu egonkorrean elkarbizi diren sexu bereko bikoteak daude; gastuak elkarbanatzen dituzte, ondasunak, bizi asmo komuna dute eta ~~are~~ seme-alabak ere badauzkate. Haien bizimodua edozein senar-emazterena bezalakoa da, haiek [pertsona homosexualak] eskubide horretaz baliatzeko aukerarik izan ez dutela salbu, eta haien izatezko egoera arautzeko betebeharrean dago Zuzenbidea”.

Eskubide horiek ezagutzen dituzten emakume lesbianentzat, euren eta osatu dituzten familien bizi kalitatea eta lasaitasuna hobetzeko bitartekoa izaten da baliabide juridikoen erabilera. *“Lasaitasun izugarria da, eskerrak ematen ditut eta pribilegiatu sentitzen naiz”* dio Candelak, ezkontzeko aukera izateak bere familiari eta beste emakume batzuek osatutako beste familiei ekarri dienaren harira.

“Seme-alabak genituelako genuen hain argi”

Nekane oso argi adierazi du: *“Kontratu zibil hori sinatu izanak baino ez zaitu beste edozein hiritarren baldintza berberetan jartzen juridikoki; bestela, babesgabe zaude umeen aurrean. Horregatik izan ginen lehenengotarikoak. Berak adopzio prozesua eginga izanagatik ere, bere eskubide juridikoak ez zeuden nireen maila berean; ama biologikoa ni nintzen eta. Horregatik genuen hain argi”*.

⁶ <file:///J:/BECA/marco%20jur%C3%ADdico%20Espa%C3%B1a.pdf>

Ezkontzaren eta 13/2007 legearen onarpenak, esan dugun bezala, Laguntza bidezko Ugalketaren Legea moldatu zuenak, hala nola antzeko beste lege batzuen onarpenak ere, familia homoparentalen aitorpena eta babesak ekarri zuten. Baita bi emakumez osatutako familietan bizi ziren adingabeena ere.

Ordura arte, emakumeek osatutako bikoteek bizi asmo komunean seme-alabak edukitzea erabakitzen zutenean, ama biologikoa baino ez zen hala aitortzen. Horrek ama ez-biologikoaren babesgabetasuna ekartzen zuen (pertsona urruntzat jotzen zenez, ez baitzuen haurrenganako inolako eskubiderik bikotearen haustura edota ama biologikoaren heriotza gertatuz gero); baina baita haurrena ere, legeaz aitortutako amari zer bait gertatuz gero, beste amak ez baitzuen haienganako inolako eskubiderik izaten.

“Ez zituen paperak onartu”

Hasieran, eta ezkontzaren legea onartu aurretik, 2003ko Izatezko Bikoteen Euskadiko Legeak ama ez-biologikoei adoptatzea baimendu zuen, eta ALDARTE elkarteak adopzio horietarako tramiteen inguruko aholkuak eman zituen. Hala ere, eta gaiaren beritasuna zela eta, egoera guztiz diskriminatzaileak gertatu ziren. Candelak honakoa kontatu digu: *“Oraindik Kode Zibilaren erreformarik ez zenean, bikotekideak haurra adopta zezan paperak eraman genituen, izan ere, izatezko bikoteetan besteak adopta zezakeen, eta ez zituen tramiterako paperak onartu, hierarkikoki izatezko bikoteen legea baino nagusiagoa omen den Kode Zibilari heldu zitzaizkion.”*

Ikertzaileek 2000. urtearen hasieran ezagutu genituen egoera berdinean trataera diskriminatzaileak gertatu ziren hainbat kasu: Bilboko Epaitegiek adopzio eskaerak onartzen zituzten baina beste epaitegi batzuek ez, Candelaren kasuan bezala. Ondorioz, segurtasunik gabeko egoera juridikoa sortu zen, eta babesgabetasun sententzia eragin zuen euren familien babes juridikoa eskuratzera bide juridikora jotzen zuten emakumeengan.

Familia homoparentalen babesak Ezkontzaren Legearekin indartu zen, estatuko emakume lesbiana guztienganako babesak zabaldu baitzuen. Hala ere, ama ez-biologikoei, oraindik ere, prozesu judizial baten bitartez adoptatu behar izaten zituzten haurrak; 2007an, aldaketa oso garrantzitsua gertatu zen arte. Aldaketa horrekin, emakume lesbiana ezkonduen euren seme-alaben seme-alabatasuna erabaki ahal izan zuten, haurrak Erregistro Zibilean inskribatuz. Horrela, bi emakumeak, horren efektu guztiekin, amatzat aitortu zitezkeen.

Candelak honela deskribatu du: *“Adopta daiteke, ez dago ama biologikoaren eta ez-biologikoaren arteko bereizketarik; ezkonduz gero, familia liburuan bi amak agertzen dira. Senar-emazteen artean bezala, haurrek bi ama dauzkate. Babestuta daude, segurtasun juridikoa daukagu; ni ez baldin banago edo nire emaztea ez baldin badago, berdinean duelako. Biotako edozein da ama edo aita bezalakoa, bion abizenekin.”*

“Absurdu juridikoaren metaforarik bada, nire hiru familia-liburuak dira”

Legezko aitortpen horrek edo emakume lesbianek ezkontzeko aukera izateak eta, ondorioz, adoptatu ahal izateak; baita, erreforma legalaren ondorioz, ezkontza barruan jaiotako adingabeak adopzioarako prozesu judizialik egin beharrik gabe inskribatu ahal izateak ere, diskriminatzailatzat eta are sinestezintzat jo daitezkeen egoeren amaiera ekarri zuten. Nekanerren tramitazio administratiboaren bidaldiak balio dezala adibide gisa:

“Haurrak 2003an jaio ziren eta legea 2005ekoa da. Berak [bikotekideak] prozesu kafkiar batean adoptatu behar izan zituen, hain modu absurduan, ez prokuradoreak ez epaileak ez zuten hori gerta zitekeenik uste. Familia liburu absurduz gain, ez dut bestelako oztoporik jarri zigutenik gogoratzen. Lehen familia liburua 2003an eman ziguten, haurrak jaiotakoan. Urratuz josita zegoen, ez zuten tipexik ere erabiltzen, aita eta ama jartzen zuelako, eta legeak aitarena exijitzen zuen. Ezkondu eta gero, bigarren familia liburua eman zidaten. Bikotekidearekin agertzen naiz bertan, baina umeez orain ez daukate inolako zerikusirik, ni batekin ezkontzea eta ni ama izatea bi kontu ezberdin direlako. Kakotxen arteko zoramen hura hirugarren familia liburuarekin konpondu zen, eta bertan gu eta gure seme-alabak gaude.”

“Ea ze Erregistro Zibil egokitzen zaidan”

2007tik gertatzen dena da, Erregistro Zibilek ez dutela inskribatzeko baldintzen inguruko irizpide bateraturik bi emakumek osatutako ezkontza batean jaiotako adingabeak inskribatzeko orduan. 14/2006 Laguntza bidezko Ugalketa Legea 3/2007 Legeak moldatu zuen, eta azken horrek adopzio prozesurik gabeko inskripzioa baimentzen du, ama ez-biologikoa ama legala izan dadin hasieratik, bere ondorio guztiekin.

Lege hori onartu eta sei urte beranduago ere, adingabeak inskribatzeko eskubide horretaz baliatzen doazen emakumeei oztopo ugari jartzen zaizkiela ikusten jarraitzen dugu ALDARTE elkarteko aholkularitza juridikoaren zerbitzuan. Oraindik ere, Erregistro askok ez dute lege hori ezagutzen, gaizki informatzen dute edota zuzenean ukatzen dituzte inskripzioak. Irizpide ezberdinak daukate legea ezartzeko orduan, eta Erregistroaren esku egoten da berau ezagutu eta egoki ezartzea. Diskriminazio argiaren eta trataera bereiziaren seinale da hori. Arartekoak⁷ berak txostena egin zuen gai horren gainean (4/2010 Gomendioa, abenduaren 23koa). Bertan, familia homoparentalei eta sexu bereko bikote zein senar-emazteei jartzen zaizkien oztopo administratiboaren abolizioa eskatzen du.

Goian esandakoa zehatz-mehatz deskribatzen duen esperientzia bat ezagutzen du Mirenek: *“2008an, nire bi lagun, bikote direnak, Erreterian ezkondu dira. Bertara joan dira erregistratzera eta justiziak ezetz esan die, ama biologikoa baino ez, eta besteak adoptatu egin*

⁷ http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/2_20843.pdf

behar duela, ezkontuta egonda ere. Lau hilabete igaro ondoren lortu zuten. Justiziak zioen automatikoki ez inskribatzeko barne araua zutela, Zapateroren legea gorabehera.”

Orientazioagatiko diskriminazio kasu argi baten aurrean ez ote gauden galdetu beharko genioke geure buruari. Horrekin batera, justiziaren ageriko funtzionamendu oker baten aurrean ez al gauden ere galdetu beharko genuke. Izan ere, hertsitu egin dituzte beharrezkoa ez den tramite bat egitera, euren semea inskribatzea baimentzen dien eskubidea jasotzen duen legea nahita saihestu dutenean. Berdina izango zatekeen bi emakume izan ez balira? Zergatik gertatzen da Justizia Administrazioaren funtzionamendu anormal hori?

“Berdintasunaren ilusio faltsua da”

Berdintasun legalak maila guztietako parekidetasuna dakarrela uste da, eta ondorioz, ez dagoela zer gehiago borrokatu. Alabaina, berdintasun legal hori egoteak ez du esan nahi emakumeek dagozkien eskubideak erabiltzen eta gauzatzen dituztenik. Halaxe bizi du Alaznek: *“Berdintasunaren ilusio faltsua da. Patriarkatua mekanismo perfektua da, bestela ez ginateke hemen egongo. Hauxe da duzuen, eskubide zehatz batzuk, irekitze zehatz bat; dagoeneko, ondo dago guztia, orain guztiok zarete berdinak. Gurasoek esaten didate ‘baina zergatik duzu hemendik hara lesbianen kontu hori zabaltzeko beharra, guztia ondo baldin badago?’ Ez, ez dago ondo”.*

Argi dago ez dagoela ondo, euren eskubideak erabiltzera ausartzen ez diren emakumeak baldin badaude. Izan ere, eskubideon erabilerak euren burua agerrarazten die, eta ikusgarritasun horrek ondorio ezkorrak ekar dakizkieke. Horregatik egiten diete euren eskubideei uko.

Jonek elkarrizketa taldeetako mintzaldian adierazi zuen ziur dagoela bere lantokian lesbiana dela esango balu, kalera botako zuketela. Ondorioz, ez du bere burua agerraraziko duen eta ondorio ezkorrak ekar dakizkiokeen eskubiderik erabiltzeko asmorik: *“Une honetantxe, eta nagoen lanean egonda, ez dut izatezko bikote egin eta egun libreak eskatzeko inolako asmorik. Aurreko lanean eskatuko nituzkeen, baina oraingoan, ez.”*

Emakume asko euren eskubideak erabiltzeko ezgai sentitzen dira, ekar dezakeen guztiagatik: etxean esatea, edota lanean; ikusgarri egitea, publiko egitea. Askok nahiago izaten dute euren burua jendaurrean agertu baino, babes eta segurtasun juridiko handiagoari uko egin. Edo, bestela, eskubide bat erabiliz gero, ez dituzte horrek dakartzan abantailak eskatzen. Adibidez, sekretupean ezkondu eta gero, ez dituzte ezkontzeagatik lanean dagozkien egun libreak eskatzen.

Bere aldetik, Bertak esan du *“alfergura handia ematen diolako”* ez dela ezkondu, baina oso argi du eskubide hori ez erabiltzeak ondorioak dakartzala: *“Alfergura handia ematen digu, eta alaba bat dudanez, nola egin pentsatu behar da, ekonomiaren gorabeherak, ondasunen banaketa, herentzia, are eta alfergura handiagoa... Badakit ez dudala ondo egiten, urteetako erlazio egonkorra delako, forma pixka bat eman beharko litzaiokeen erlazio egonkorra”.*

Gaineratu den beste elementu bat ezkontzak itsatsita daraman osagai soziala da, baina norbaitek baliabide zehatz bat erabili nahi badu, hainbat modutan egin dezake: *“Jende guztiarekin bazkari bat egin behar da, nor gonbidatzen dugun eta ez dakit zer, horrek ere alfergura handia ematen digu.”* Bi pertsonak ezin al dezakete ospakizun sozialik gabeko ezkontzarik egin?

BERDINTASUNAREN DEBATEA

“Zuri ere gainontzekoei bezala gertatzea nahi baduzu, gainontzekoek bezala egin behar duzu”

Egia da berdintasunak eskubide eta betebeharrak maila berean jartzen dituela pertsona guztiak.

Nupcialidad de parejas del mismo sexo: Igualdad legal sin igualdad social [Sexu berekoen ezkontza: berdintasun sozialik gabeko berdintasun legala] ikerketaren arabera (Paredero, 2013), lege moldaketa hori lortu eta gero, bai eta LGTB mugimenduak bandera eta helburua moldatu ostean ere, elementu sinbolikoek egunerokotasunera egin zuten jauzi, eta gai legalek eskubide horren erabilerrara. Hala ere, eta pentsatzea logikoa denez, legeak sexu berekoen arteko ezkontza baimentzeak ez dakar lesbianen, gayen eta bisexualen ezkontzarako sarbidea, praktikan, bikote heterosexualena bezalakoa izatea. Agerikoa da heterosexualen eta homo/bisexualen ezkontzarako joeren artean ezberdintasunak egongo direla.

Berdintasun legalaren aldeko borroka, hots, LGTB pertsonen eskubideen aitortzearen aldekoa, urte askotakoa izan da. Horietatik onurarik atera ezin izan duten pertsona asko daude, baina baita, behin eskubideak lortuta ere, horiek erabiltzeko mesfidati daudenak ere. Edota horiek ekar dakizkiekeen onurei uko egiten dietenak. Orain aztertuko ditugun hainbat jarrerak eragin dute hori guztia.

“Gauza normalak aldarrikatzeko modu bakarra ezkontzea al da? Zoratzekoa iruditzen zait”

Debate sozial eta juridiko handi baten ostean etorri zen sexu bereko bi pertsona ezkondu ahal izatea. Debate horren erdigunean, ezkontzaren kontzeptua bera zegoen. Sektore batzuk ez zeuden eskubide berberak aitortzearen aurka, baina loturari ezkontza deitu gabe. Beraz, pertsona homosexualen ezkontzea galarazi nahi zitzairen.

Ikerketan parte hartu duten emakume batzuk, gaur egun ere, ezkontza kontzeptuarekiko eta ezkontzearekiko mesfidati daude.

Nati, bere kokagune ideologikoa dela eta, ezkontzeko eskubidearen erabileraren aurka dago: *“Ez dut ezkondu nahi, konbikzioz, 68koa naiz eta... Aldarrikatzen dudana da espainiarra izateagatik (nahi ez dudana arren) ditudala zenbait eskubide, eta ez ezkondu egoteagatik.”*

Irakurketa ezkor eta baldintzatua da; izan ere, ia eskubiderik izan ez zuen belaunaldi batekoa da Nati. Diskurtso ideologiko horren atzean, ez da gai ikusteko ezkontzeko ahalmena edukitzea erabateko berdintasun legalaren emaitza dela. Lege horrek maila berean kokatzen ditu pertsonak; bere ondorio guztiekin, eskubide hori erabiltzea erabaki duten ala ez gorabehera.

Dena dela, aurrerapen legal horiek egonda ere, emakume askok ez dituzte eskubide horien erabilerak dakartzan ongizate eta segurtasuna lortzeko bitartekotzat hartzen aurrerapen horiek.

Natik azpimarratzen du: *“Herentzien gaia iraingarria da. Dirua baldin baduzu, eta maite duzun pertsonari ezin baldin badiozu utzi, izugarria da... Ez nago ezkontzaren aurka, baina... kontu bat kontu bat da, eta bestea beste bat. Ez zaidana bidezkoa iruditzen da pertsona batekin hogeitaz bizi izan baldin bazara, eta zerbait utzi nahi badiozu, ezin izatea basatia iruditzen zait. Eta soluzio bakarra ezkontza izatea ez zait bidezkoa iruditzen.”*

Horixe da, ordea, gaurko errealitatea, eskubideen sistema, berdintasun legala. Zenbait eskubidek, hala nola alarguntasunak, adopzioak, komunean dituzten haurrak Erregistro Zibilean bi amen izenean inskribatu ahal izateak eta abarrek, aurretiko legeko baldintza dute ezkontza. Aitortu beharra dugu ez ezkontzeko aukera edukitzea ezkondu ahal izateak dakarrela. Eskubiderik gabe, ez dago aukerarik.

Bikotekidea gaixotzeagatiko egunen baimenen inguruan galdetzean, honelaxe erantzun du Natik: *“Gauza horietarako bai, baina ez du zertan ezkontza izan. Izan ere, ezkontzarena hain iruditzen zait atzerakoia... amaginarrebengana joaten zara bazkaltzera... lazgarria iruditzen zait. Gustatuko litzaidake Nati izateagatik ematea niri bizitzeko zerbait, eta ez alarguna izateagatik.”*

Alabaina, Nati ez dago bakarrik. Izan ere, hainbat eskubide edukitzeko zenbait baldintza bete behar izatearen kontra egoteak LGTB mugimenduaren eta ildo bereko planteamendu batzuen aldarrikapenekin egiten du bat. Pertsona guztiei eskubide indibidualak aitortzea eskatzen eta aldarrikatzen dute.

“Ez dut sartu nahi beti gutxietsi nauen sisteman”

Cecilia Nati bezain mesfidati dago: *“Ez dut ezkontzan sinesten, beste modu batean egin genezake. Zure izenean jartzen dut, nirean jartzen duzu... Zeure kontuak ziurtatzeko aukera ere baduzu: ez gara ezkonduko, izatezko bikote egingo gara, herentzian utzi, donazioak egin...”*

Oso argi ikus daiteke arestian komentatu duguna. Emakume lesbianen eskubide eza agerikoa zen urteetan bizi izan da Cecilia. Parekidetasun legala lortu da, eta hala ere, berarentzat ez da erabili ala ez aukeratu dezakeen beste baliabide bat; inposizioa baizik. Amore ematea bezala da berarentzat, eta ez dago prest. Ceciliari, gure lanean ezagutu ditugun beste emakume batzuei bezala, garai berrietara egokitzea eta horien alde ona ikustea kostatzen zaio; baita aurrerapen horiek eskaintzen dizkieten aukerak ikustea ere. Bere esaldi honek oso ondo laburbildu du ikuspegi hori: *“Eta orain, haiek nahi dutena egingo dut? Ezta pentsatu ere. Baina, agian, zuek orain ahal duzue, baina guri bizitzea egokitu zaigunarekin...”*

Bitxia da nola jarraitzen duen Ceciliak emakume lesbianek inolako eskubiderik ez zuten garaian iltzatuta, eta nola ez duen bere burua eskubide horiek erabil ditzakeen emakumetzat hartzen. Etsi egin duela ematen du, eta gazteengana jotzen duela aurrerapen legal horiek balia ditzaten. Baina beste garai batean eskubiderik gabe bizi izan ziren emakume lesbiana nagusiek ezin ditzakete, orain, beste edozeinek bezala erabil eskubideok, ala?

Dena dela, belaunaldi bereko beste emakume batzuek, Matxalenek kasu, baliabide juridiko horiek balioztatu dituzte euren bizi egoeran; ezkontza kontzeptuaren zama ideologikoa gorabehera. Horrela, Matxalenek, bikotekidearen gaixotasuna zela eta, babes juridiko handiagoa edukitzeko proposatu zion ezkontzea, eta ez bere uste osoz: *“Nik esan nion, goazen ezkontzera. Hainbat aldiz proposatu nion, baina ez zuen nahi izan. Nik aho txikiz esaten nion, ‘orain ezkon gaitezke eta’, baina ez zitzaidan pertsonalki interesatzen.”*

“Baliabide horietara iristeko tramite batzuetatik igaro behar da”

Aztertu berri dugun ikuspegia zenbait lesbiana nagusiren adinak eta bizipenak baldintzatu dutela ikusi dugu, eta eskubideen konkista hurbiletik ezagutu ez eta zama emozional ezkorrik ez duten lesbiana gazteek aintzat hartu beharreko kontutzat jotzen dutela lege aurrerapena. Mónica honelaxe dio: *“Gainontzekoei bezala gertatzea nahi baduzu, gainontzekoek bezala egin behar duzu. Senar-emazte heterosexualek X egin badute ekonomikoki, senar-emazte homosexualek X egin beharko dute.”*

Bi ikuspegi arteko adin ezberdintasuna izan daiteke ezkontza bezalako eskubidea hain modu ezberdinean jasotzeko arrazoia. Hala ere, guztiz kontrakoa ere gerta zitekeen; hau da, urteetan oinarritzko eskubiderik gabe bizi izandako lesbiana nagusiak izatea lehenak eskubide horiek erabiltzen, behin aukera hori edukita. Ikusi dugun bezala, ordea, gure ikerketan parte hartu duten emakumeen kasuan ez da horrela izan.

Ikerketan parte hartu duten beste emakume batzuek, Nekane kasu, ezkontzeak dakarrenaren inguruko jarrera praktikagoa dute: *“Ezkontzea Kode Zibila markotzat duen kontratu bat sinatzea da. Kontratu zibil hori sinatzea da juridikoki beste edozein hiritarren baldintza berberetan jartzen zaituena.”* Nekane adierazi duen bezala, legezko baliabide horren izatearen arrazoia berau erabiltzen dutenei eskubide zehatz batzuk aitortzean datza.

Bilbon eta bikotekidearekin hainbat urtez bizi eta gero, berak azaldutako arrazoiengatik erabaki du Marisak ezkontzea: *“Ofizial bihurtzeko eta gauzak modu legalean eta argi uzteko ezkondu gara, guztiek bezalaxe, etxea, hipoteka... dauzkagulako.”*

Baliabideen erabilera: zergatik ezkontzen dira ala ez dira ezkontzen emakume lesbianak?

Aztertu ditugunez gain, emakume lesbianak ezkontzeko arrazoi gehiago azalduko ditugu; are zergatik ez diren baliabide hori erabiltzera ausartzen.

Puntu honetan, geure egingo dugu arestian aipatutako *Nupcialidad de parejas del mismo sexo: Igualdad legal sin igualdad social* [Sexu berekoen ezkontza: berdintasun sozialik gabeko berdintasun legala] ikerketa abiatu duen hipotesia: “gure oinarri teorikoak bere ezaugarri sinbolikoak dituen fenomenotzat jotzen du ezkontza homo/bisexuala. Egun dirauten estigmari eta homo/bifobiari lotutako sinboloak, hain zuzen ere. Tradizionalki errituzko instituziotzat hartutako ezkontza heterosexualean ez bezala, zeina helduarorako pausotzat, familiaren sagaratzetzat eta nerabezaroaren gainditzetzat jotzen den, sexu bereko bikoteen ezkontzak bestelako sinbolismoak eta ondorioak dauzka. Sexu berekoen bikoteentzat, orientazio sexualaren ikusgarritasunerako ariketa da ezkontza; lantokian, familian, lagunartean, gizartean gauzatuko den ikusgarritasuna. Behin ezkondua, zaila da instituzio publiko zein pribatuei egoera zibila ezkutatzea. Horregatik, bikote hauengan, ezkotzarako pausoa emateko ezinbesteko baldintza izango da, askotan, homo/bifobiaren aurreko ikusgarritasuna gainditzeko gaitasuna edukitzea.”

Era berean, badira aldarrikapenezko arrazoiengatik ezkondu diren emakumeak ere, Miren bezala: *“Jainkoa bera ere enteratzeko ezkondu nintzen ni, udaletxeko erregistro zentraletik sartu behar zenez...”*.

Lehen aipatu dugun bezala, beste emakume batzuek euren familiei segurtasun juridikoa emateko erabakitzen dute ezkontzea. Kontuan izan behar dugu familien ikusgarritasuna agerikoagoa dela, ia ezinezkoa delako familia gunearen osaketa armairuan mantentzea. Seme-alabak dituzten bikoteek ezkontzaren baliabidea erabiltzeko joera handiagoa dute, ez dutelako ikusgarritasunerako horrenbesteko arazorik izaten, eta kontu praktiko gisa bizi dutelako.

INDARKERIA EMAKUMEEN ARTEKO HARREMANETAN

“Bera gizona balitz, ez litzateke hemen egongo, eta zuek kendu diozuen garrantzi hori izango luke”

Mónicaren esperientziari dagokion esaldiak ezin hobeto laburbiltzen du gure gizarteak genero barneko indarkeriarekiko duen ikusmoldea. Genero barneko indarkeria (hemendik aurrera GBI) sexu berekoen arteko erlazio afektibo eta sexualetan hainbat modutara gertatzen den indarkeriari esaten zaio. Boterearen erabilpena egoten da, besteaz gehiegi baliotzen denaren helburua bere biktima menderatzea eta kontrolatzea izanik. Gizonek emakumeengana bideratzen duten indarkerian bezala.

GBIk ez du alarmerik sortzen, ez eta garrantzi sozialik edukitzen ere, berau inguratzen duten egoerak bereziak izaten direlako. Horrek arazoaren benetako handitasuna ikustea galarazten du eta, ondorioz, baita arlo juridikoek zein laguntza zerbitzuek egoki erantzutea ere. Sarritan, ez da sufritzen ari den emakumea babesten. Salatzeraz arren, prozesuan esku hartu duten agente batzuen erantzun ezegokia jaso du Mónica, aferari duen garrantzia ematen ez zaiola garbiro erakutsiz: *“Epaitegian goiz osoa igaro ondoren, goizeko 09:00etatik deklaratzeko ordua 14:30ean iritsi zitzaigun arte, pasillotxo batean ezkutatzen ibili nintzen elkar ez ikusteko. Epaitegiko aretora sartu nintzenean (emakumeen kontrako indarkeriakotik guardiakora pasatu gintuzten) hasi ginen deklaratzeko, bera mahaiaren punta batean, niganetik metro eta erdira... kontuan izanda han geundela nik urruntze agindua eskatu nuelako. Nire abokatuak ez ziola zuzen irizten esan zuen eta epaileak erantzun: ‘Epaiketa laburra izango da, ez du garrantzi handirik’”.*

Alegia, biolentzia gizon batek erabili izan balu, ez litzateke Mónica eta bere bikotekidea gela berean deklaratzeko egotea baimenduko. Izan ere, salatutako pertsonaren presentzia hutsa koakzio inplizitua da, biktimari deklaratzeko orduan libre sentitzea eragotziko diona. Berariaz sortutako Emakumeen Gaietako Indarkeriaren Epaitegietan, oso kontuz ibiltzen dira eta abenduaren 28ko 1/2004 Legearen ezarpenean, hau da, Generoko Indarkeriaren kontrako Babes Osorako Neurriak ezartzen dituen Legearen ezarpenean, hain zuzen ere, biktima babesteko jardura protokoloa dago: biktima erasotzailearengandik urrun egongo da areto batean, harremanik egoteko inolako aukerarik izan gabe, lasai egon dadin. Baita pertsona salatuaren edota erasotzailearen presentziaren bitarteko koakzio zein larderia posibleengandik urrun egon dadin ere.

Kasu horrek, ordea, oso argi islatzen du “bigarren mailako” indarkeriatzat jotzen dela honako hau. Batetik, epaitegiko tramiteak egiteko moduagatik; baina, bestetik, eta bereziki, salatutako pertsona Mónicaaren deklarazioaren aurrean egotea baimentzeaz bat, “ez du garrantzi handirik” adierazi zuen epailearen adierazpenagatik.

Zergatik da bigarren mailako indarkeria?

Genero barneko indarkeria azpiko maila batean kokatzeko hainbat arrazoi daude⁸:

- ✿ Aurreiritzien iraunkortasunak eragindako harreman lesbiano eta homosexualen diskriminazio soziala. Aurreiritzi horiek indarkeria salaketak zein adierazpen zehatzak gutxiestea eragiten dute.
- ✿ Lesbianek eraikitako harremanen inguruko mitoak egotea; GBI egoteko aukera bera galarazten duten mito faltsuen existentzia, alegia. Harreman homo-lesbikoei datzekien ustezko berdintasunarena bezala, edota emakumeak mendeko eta esaneko hartzen dituen ikusmoldearena bezala. Mito faltsu horien arabera, harreman lesbianoetan ezin daiteke tratatu txarrik egon.

Maite Mateosen hitzetan⁹: *“Bi emakumeren arteko maitasuna ia idilikoa balitz bezala aurkezten da; harreman afektibo-sexualaren eredu ideala balitz bezala, zeinetan, gizon zapaltzailerik gabe, ezin daitekeen botere-mendekotasun harremanik sortu.”*

Ondorioz, GBI ez dago 1/2004 Generoko Indarkeriaren kontrako Babes Osorako Neurrien Legean jasota. Izan ere, biolentzia gizonek emakumeen gainean ezartzen dutela dioen pentsamendu tradizio historikoaren arabera sortuta dago. Lege horrek ikuspegi heterosexual batez behatzen du generoko indarkeria. Harreman afektiboen eta sexualen eremuan gertatzen diren tratatu txarrak eta indarkeria kasuak harreman heterosexualen errealitatetik haratago doazela ahazten du; baita bi emakumek osatutako familietan eta bikoteetan biolentzia fisiko zein psikologikoaren benetako egoerak egoten direla ere. Trataera horrek diskriminazio eta bereizkeria egoerak eragiten ditu, askotan, emakumeek baliabide legalak eta horien onurak erabiltzea eragotziz. Horien ordeztu, babesgabetasun eta zaurgarritasun handiagoko egoeretan kokatzen dituzten estrategia alternatiboak erabiltzen dituzte.

Generoko indarkeria, domestikoa, familia barnekoa: berdin dio nola deitzen diogun?

Egia da, prozedura penalean, GBIren biktimei eskaintzen zaien babesa eta generoko indarkeriaren emakume biktimei eskaintzen zaiena ez dela oso ezberdina izaten. Baina, aldi berean, izendapenak eta, ondorioz, indarkeria mota ezberdinei (generoko indarkeriari, indarkeria domestikoa...) ematen zaien trataera bereziak ondorioak izaten ditu emakume lesbianengan. Horregatik, bizitzen ari diren egoeraren larritasuna ez dela aintzat hartzen hautematen dute askotan, eta ez daudela lesbianak ez diren emakumeak bezain babestuta: *“Nik uste nuen judizialki aurkeztu nuen salaketa generoko indarkeria moduan egiten nuela, baina gure kasua ez zen generoko indarkeriatzat edo bikote barruko indarkeriatzat hartzen;*

⁸ <http://www.aldate.org/comun/imagenes/documentos/BUENOSTRATOS.pdf>

⁹ <http://www.aldate.org/comun/imagenes/documentos/violencia%20intragenero.pdf>

domestikotzat baizik. Nire izeba edo lehengusina balitz bezala”, dio Mónica, berak sufritutako egoera garrantzi txikiagokotzat jo delako sentazioa adieraziz.

Alaznek uste du garrantzitsua dela errealitate hori agerraraztea, baina izendapenari dagokionez, bere jarrera ez da Mónicaarena bezalakoa: *“Uste dut baietz, hitz egin behar dela, indarkeria patriarkala izan daitekeelako, baina ez generokoa. Nik arazo bat izan nuen [emakume] bikotekide ohiarekin, eta salaketa jartzekotan, indarkeria domestikoa litzatekeela esan zidaten. Domestikoarena ere ez zait gustatzen, baina ados nago generoko indarkeria ez deitzearekin.”*

Mugimendu feministak zalantzan jarri izan du genero barneko indarkeria izendapena generoko indarkeriaren barruko izatea eta, ondorioz, baita Generoko Indarkeriaren Lege Osoan lekua izatea ere. Beatriz Gimeno honelaxe arrazoitu du (Gimeno, 2013)¹⁰: “[Kontu horrek] neomaxismoak familia barruan gertatzen den biolentzia mota ororekin egin nahi duen erabilpenarekin du zerikusia. Erabilera horren bitartez, generoko indarkeriaren kontrako borroka patriarkatuan iltzatutako indarkeria sistemiko partikularizat jotzea gutxien eta lausotzen delako. Guztia indarkeria baldin bada, eta, batez ere, guztia indarkeria mota bera baldin bada, ez dago indarkeria matxistaren aurkako borrokarako neurri zehatzik ezarri beharrik.”

Ikertzaile talde honek ulertu duena da emakumeen harremanetan biolentzia egon daitekeela onartzeak ez dakarrela, inola ere, indarkeria matxista erazteko neurriak eta sustraiak txikitzea; baita matxismoaren kontrako borroka ezin duela beste aldera begiratu indarkeria emakumeen artean gertatzen denean ere. Indarkeria horri generoko indarkeria deitu nahi ez izateak eta, ondorioz, 1/2004 legean ez sartzeak, errealitate hori ezkututzen du. Horrekin batera, baliabideetarako eta babes neurrietarako ateak ixtea ekar dezake, eta sexu berekoen arteko harremanak bigarren mailakotzat hartzea ere bai.

“Garrantzitsua artatzea da”

Mirenek gogoeta egin du: *“Generoko indarkeria deitzea, edo familiakoa, zenbaitetan izan dugun debatea da-eta; indarkeriazko erlazioak edo indarkeriazko dinamikak direla medio, biktima egoeran dauden emakumeek baliabideetarako sarbidea edukitzea da kontua.”*

Badirudi bigarren mailako kontua dela bi emakumeren artean gertatzen den indarkeriaren izendapena. Garrantzitsua artatzea dela dioen ideia faltsuarekin, txikitu egiten da kontu hori. Baina gero, benetan al dira trataerak eta baliabideak generoko indarkeria deituko balute bezalakoa? Zeren arabera izango da baliabide ekonomikoetarako edo laguntza zerbitzu etarako sarbidea edukitzea ala ez edukitzea? Agian, administrazio, udaletxe edo funtzionario zehatz baten jarrera onaren arabera, ala?

¹⁰ www.pikaramagazine.com/2013/04/violencia-que-no-es-de-genero/#comment-39516

Dagoeneko, ikusi dugu Mónica-ren kasuan jasotako trataera ez zela izan gizon batek emakume baten gainean ezarritako biolentzia izan balitz bezalakoa. Beraz, esan dezakegu ematen duena baino garrantzitsuagoa dela izendapena.

1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, Generoko Indarkeriaren kontrako Babes Osorako Neurriei buruzkoak, emakumeen babeserako jasotzen eta arautzen dituen neurriak ezberdinak dira. Lege horrentzat, GBI egoerak errealitate ikusezinak dira eta, ondorioz, ez ditu babesten. A priori, GBIko biktimek ez dute hainbat organismok eta instituziok eskainitako eta lege horrek araututako babes neurrietarako sarbiderik: babes etxera joateko aukera, etxea eta lana aldatzekoa, lan utzialdia egitekoa funtzio publikoan lan egiten denean, laguntza ekonomikoak jasotzekoa, lan sustatzea, atzeritartasun egoerakoak, eta abar. Alegia, emakume horiek ez dituztela gizon batek gauzatutako generoko biolentziaren biktima diren emakumeei babesteko ematen zaizkien neurriak jasotzen.

Alabaina, esperientziak diosku baliabide horietako zenbait baietz, zenbait baliabide beste emakume batzuek eragindako biolentziaren biktima diren emakumeei aplikatzen zaizkiela. Beraz, zergatik ez sartu GBIa Lege Osoan? Zergatik ez onartu biolentzia horren existentzia? Zergatik ez aplikatu berdintasun printzipioa indarkeria horren patroiak antzekoak direnean (kontrola, botere gehiegikeria, xantaia...)?

Maite Mateosek baieztatzen duenaren arabera (Mateos, 2004), “herritarren eskubideen erabileratik, administrazio publikoak babesgabetasun aldarri orori erantzuteko derrigortasuna dauka. Biolentziaren biktima diren emakume lesbianek dauden giza baliabide guztietarako sarbiderako eskubidea dute”. Geure buruari egin diogun galdera honako hau da: egun, eskubide hori erabil dezakete?

Generoko indarkeriaren biktimentzat ezarritako baliabide eta mekanismo batzuk aztertuko ditugu:

Segurtasun taldeak: Ertzaintza, Polizia Nazionalea

Bikotekidea salatzeko eman behar izan zituen pausoak azaldu ditu Mónica-k: *“Lehenengo, Polizia Nazionaleara jo nuen, ez nekielako non jarri behar nuen salaketa, eta gero Ertzaintzara jo nuen, hara eraman nindutelako. Ertzaintzan, artatu nindutenek generoko biolentziaren gunearekin komunikatu ninduten. Gune honek berehala deitu zion ofiziozko abokatuari eta inongo arazorik gabe kudeatu zuten guztia, izugarri lagunduz, oinarritzko errenta behar al nuen, gizarteratze-errenta...”*

Ertzaintzak berak galdetu zion ea baliabide ekonomikorik behar al zuen, baina bere kasuan, ez zuen Udaletxeko gizarte-laguntzaile batek artatu, emakume batek gizon bat salatzen duenean bezala.

“Dena dela, behin epaiketa amaituta, Ertzaintzatik deitu zidaten berriro, generoko indarkeriaren Unitatetik. Bikotekidea salatu duen emakume gisa galdeketa egiteko deitu zidaten, eta han bai, bikote heterosexual bat tratatuko luketen bezala tratatu ninduten. Eskura zeuzkaten neurri guztiak eskaini zizkidaten, areago, gaur oraindik ere, epaitegikoek urruntze agindua tramitatu gabe jarraitzen dute; Ertzaintzan, ordea, nire etxe inguruan errondak egiten ari zirela esan zidaten, beste edozein emakumerekin bezala.”

Ikus dezakegun moduan, Mónica bikote ohiarengandik sufritu duen indarkeria ez dute 1/2004 Legean sartu, ez delako generoko indarkeriatzat jo. Hala ere, legean jasotako mekanismoak eta baliabideak aktibatu egin dira. Judizialki, disfuntzio argiak azalarazi dira, bere urruntze agindua ez tramitatu izanagatik, adibidez. Tratu txar emailea gizona izan balitz gertatuko ez zatekeena, seguruenik. Sistemaren kontraesanen aurrean gaude berriz ere, eta horren emaitza izan da artatze bereizi eta defizitarioa eman izana; baina, batez ere, babes egokia jaso ezin izan duen emakumearen sentsazio estugarria eragin izana. Kontuan hartu behar dugu salaketa jartzeko urratsa ematea ez dela batere erraza izaten, eta biktimak ez duela tramiteen mekanika ezagutzen.

Alaznek esperientzia baikorra izan zuen jasotako informazio eta trataerarekin: *“Egia hauxe da: galdetzera joan nintzela eta ez zirela inondik inora harritu; oso ondo artatu ninduten poliziaren epaitegian.”*

Udal zerbitzuak: “Kasua berdin tratatuko genuke”

Ikerketa honen garapenean, EAEko herri bateko udalak emakume lesbianek sufritutako indarkeriari heltzeko modua ezagutu dugu.

Administrazio publikoko langile batek emakumeen arteko biolentzia kasuetan nola jokatzeko den azaldu du: *“Etorriko balira, berdin-berdin tramitatuko genuke kasua, eta Bizigunera egingo genuke desbideratzea, Arartekoarekin hitz egingo genuke, Emakundeko norbaitekin, existitzen dela jakin dezaten. Edozein modutan ere, garrantzitsuena artatzea da. Prozesuan dauden emakume transexualak ere artatzen ditugu, oraindik berrizendapenik ez dutenak. Uste dut eginkizun horretarako proaktiboa den norbait egotearen araberakoa ere badela hori. Sexu aniztasunean izugarri proaktiboak izan diren zuzendariak ezagutzen ditut.”*

“Gertatzen dena da ez direla joaten, urte askoan lau lesbiana artatuko genituen”

Administrazio publikoan lan egiten dutenen prestasuna eta jarrera ona nabarmendu nahi ditugu, baina biolentziaren biktima diren emakumeentzako babes baliabideen erabilerak berbera izan behar du erasotzailea gizona zein emakumea izan. Ezin da erakundeko edo

administrazioko langileen proaktibitatearen araberakoa izan, aldagai horrek emakume lesbianek baliabide horiek ez erabiltzea eragin dezakeelako. Besteak beste, ez daudelako eurentzat pentsatuta. Beraz, biolentzia mota honen izendapenaren kontua ez da hain hutsala.

Kontua da, baliabideak emakume lesbianen eskura jartzen diren arren, “ez direla joaten”. Geure buruari galdetu beharko genioke zergatik ez duten baliabide hori erabiltzen: egoki iragartzen da? Emakume lesbianentzako udal zerbitzuetako iragarkietan GBla sartzen al dute? Baldin eta zerbitzuetara emakumeak berak jotzen badu baino ez dira jartzen martxan baliabide horiek? Bada artapen prebentiborik?

Erantzuna Mirenek eman digu: *“Uste dut administrazio publikoak baliabideen eta zerbitzuen inguruan egiten dituen proposamenak heteronormatiboak direla. Horrek eramaten gaitu emakume lesbianok hor ez gaudela pentsatzera. Horregatik, agertzen garenean, ez dugu geure burua ikusten. Generoko biolentziari buruzko eskuorri batean ez duzu zeure burua ikusten; heteronormatibitateak diseinatuta dagoenez, heteroentzako dela pentsatzen duzulako.”*

Baliabideak haientzat pentsatuta eta zuzenduta ez egoteaz gain, hainbat arrazoi erantsi daude emakume lesbianek ez ditzaten euren bikoteetan gertatutako biolentzia egoerak salatu. Aurkeztuko ditugun bi arrazoi argi bereiz ditzakegu: lesbianen beraien biktima izatearen pertzepzio falta eta ikusgarritasun gabezia.

“Oso zaila da indarkeria dela onartzea”

Askotan, emakume lesbianak beraiek izaten dira, LGTB eta feminista mugimendua bera, GBla “intentsitate txikiagokotzat” hautematen dutenak, eta ez diote duen balioa ematen.

Azalpenetako bat lesbianek euren burua biktimatzat aitortzeko duten kontzientzia falta da. Biolentzia azaleratzeko elementuak identifikatzen ez dituztenez, biktima bera ez da kontziente izaten bikotekideak eragindako tratu txar egoeran dagoenik. Horrek bere egoera gainditzen lagunduko lioketen neurriak hartzea eragozten dio eta, antzeko modura, tratu txar eragileak ez du bere burua horrelaxe identifikatzen. Hortaz, erabiltzen dituzten konponketa estrategiak ez dira, seguruenik, gizon batek emakume baten gainean ezarritako biolentzia kasu batean erabiliko liratekeenak. Arantxak oso argi du hori: *“Oso zaila da legearengana jotzea, are gehiago emakume feminista bat salatzeko bada. Eta konturatzea izugarri pasatu dela, eta testuinguru patriarkalekoa bezalakoxea dela indarkeria jarrera hori.”*

Arantxak laguntza zerbitzuetan egiten du lan, eta emakumeek osatutako bikoteetan gertatzen diren biolentzia egoera batzuen berri eman digu: *“Hamar urte daramatzat lanean eta hiru kasu artatu ditut nik, baina hirurok egin dugu lan, ez dudalako batere gustuko “justizia” deiturikora jotzea; edo, bestela, zuengana bidali ditut, kasuak landuko zirela ziurtatzen zenidaten bakarrak zinetelako.”*

Zergatik ez da bide legaletaraz jotzen, indarkeria horri amaiera emateko, indarkeria bi emakumeren artekoa denean? Zergatik agertzen dira emakumeak beraiek mesfidati? Arrazoietakoa bat izan daiteke ez dutela trataera berdina jasoko dutenik uste, eta gatazkak konpontzeko beste mota bateko estratergiei ekiten dietela:

- ✿ Arantxak honakoa argitu digu: *“Lehen kasua hiru lankideok landu genuen eta nahiko gogorra izan zen, izan ere, heziketa patriarkalak uzten duen guztia bertan geratzen da. Gogorra izan zen, eta nahiko bortitza, baina elkar errespetatzera hel zitezten erabakia hartu genuen.”*
- ✿ Alaznek zalantzan jarri ditu emakume lesbianek biolentzia kasuak konpontzeko erabiltzen dituzten estratergia alternatiboak, indarkeria egoera modu zuzenean bizi izan zuen arren. Eta jakitun izanda bi emakume direlako ekiten dutela horrelaxe. Honela azaldu digu: *“Erantzun hori bera, akordioetara iristearena... gizona eta emakumea izan balira edukiko zenuketen? Nire lagun feministekin komentatu dut. Nire bikotekide ohia gizona izan balitz, iskanbila ikaragarria sortuko genukeen; emakumeen artean, berriz, akordioekin gabiltza... Bakean uztea nahi dudala! Ez dudala berarekin akordiorik egin nahi! Eta haiek [gizonak] salatu...”*

Emakumeak jakitun dira badela joko bikoitz bat eta aplikatu egiten dela, Alazneren hitzetatik ondoriozta daitekeen bezala: *“Emakume feminista da-eta, e? Gizona balitz, garbi baino garbiago egongo litzateke, salaketa berehala eta listo!”* Gainera, haiek beraiek txikiagotzen dute larritasuna, ohiko bideak eta baliabideak erabiltzeari uko eginez, eta bigarren eta hirugarren aukerak emanaz. Horixe da askotan errealitatea, administrazioen eta instituzioen indarkeria matxistaren kontrako kanpainetan behin eta berriz errepikatzen denean, behin gertatzea salatzeko nahikoa dela. Hala ere, badirudi lehenengoan salatzeko gomendioa, behin gertatuta seguruenik errepikatu egingo delako, emakume lesbianengana ez dela berdin iristen. Baliteke izatea euren burua emakume biktimatzat ez hartzeagatik edo ez sentitzeagatik.

Arantxak agerian ipini du: *“Behintzat, lagunak zirelako, feministak zirelako, militanteak zirelako... gertatu zen hurbilpena. Baina kasu horietan nik ez dut uste bata bestea baino gutxiago... Ez, berdin-berdin indarkeria zen.”*

Lege aldaketaren alde egin daiteke Lege Osoan indarkeria mota guztiak sar ditzaten; legezko izapide luzeak beharko lituzkeen kontua berau. Dena dela, lan egin behar da emakumeen eskutik indarkeria sufritu duten emakume lesbianek gizonen eskutik jaso duten emakumeek bezalako artapen bera jasoko dutela senti dezaten. Baita baliabide guztiak ezagut ditzaten ere, eta haietarako sarbidea eduki dezaten. Bestetik, sentsibilizazio politikak abiarazi behar dira, emakume biktimek euren burua halaxe ikusi eta babes legala bila dezaten.

Ikusgarritasuna

Emakume lesbiana batek bere bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik jasotzen badu indarkeria, eta egoera horri amaiera eman nahi badio, erabaki horren lehenengo ondorioetako bat ikusgarri egitea izango da. Gertaera hori izan daiteke aurrera jarraitzea oztopatuko diona, eta konponbiderako beste estrategia batzuetara bideratuko duena; izan ere, ziurrago izango du horrela bere orientazioa ez dela ikusgarri egingo.

Pentsa dezagun bere lesbianismoa publiko egin ez duen emakume batengan. Bere senitartekoez ez dakite, ez bere auzoan ez eta lantokian ere, eta ez dauka bere burua agerrarazteko indarrik. Ez emakume lesbiana ez indarkeriaren biktima gisa.

Kontuan izan behar dugu sexu berekoen arteko harremanetan osagai bereizgarriak daudela. Adibidez, bestearen orientazioa agerrarazteko mehatxua xantairako erabil dezake erasotzaileak. Horrela, erasotzaileak erasotua bide ofizialetara jotzea saihestuko du, ez baitu bere burua publikoki agerrarazi nahi izango, eta uko egingo dio bere eskubideak erabiltzeari.

BALIABIDE JURIDIKOAK ETA TRANS EMAKUMEAK

2007/3 Legea, martxoaren 15ekoa, pertsonen sexuaren aipamenaren erregistroko zuzenketa erregulatzen duena, sexuaren eta izenaren aipamena aldatzea baimentzen duena, aurrerapen handia izan zen. Izan ere, sexuaren aipamenaren erregistroko zuzenketarako aukera ekarri zuen eta, ondorioz, baita izenarena ere. Hala ere, eskubide horren erabilerarako galdatzen dituen baldintzek berdintasun printzipioa urratzen dute.

Transexualitatea despatologizatzeko kanpaina internazionalako elkarteek salatu egin dute Erregistroan izena aldatu ahal izateko diagnostiko psikiatrikoa eskatzea: “Testuinguru juridiko-araue-maileetan patologizaziora jotzeko dagoen joerak kezkatzen gaitu asko, diagnostikoa ezinbesteko baldintza bihurtzen baita eskubideen erabilera egin ahal izateko. Diagnostiko hori eskatzeak eta berau ezartzera bideratutako eskakizunek pertsona transexualen eskubidedun subjektu estatusa txikiagotzen eta urratzen dute”¹¹.

Ildo berean, Amnistia Internazionalaren “The state decides who I am, the lack of recognition for transgender people in Europe”¹² [Estatuak erabakitzen du nor naizen; pertsona transgeneroen aitortpen eza Europan] txostenean, pasa den otsailaren 4an argitaratutakoan, kontinentean pertsona transgeneroek euren genero aldaketaren legeko aitortpena eskuratzeko gaingitu beharreko oztopoak salatzen dira. Amnistia Internazionalak Espainiako

¹¹ <http://www.canalsolidario.org/noticia/por-fin-nuevo-paso-para-la-despatologizacion-de-la-transexualidad/32401>

¹² <https://www.es.amnesty.org/noticias/noticias/articulo/las-personas-transgenero-sufren-discriminacion-y-trato-inhumano-y-degradante/>

genero identitateari buruzko legedia (3/2007 Legea) aurrerapena izan dela onartu du, baina uste du erregistro aldaketa eskuratzeko pertsona transexualei eskatzen zaizkien hiru baldintzak (adin nagusikoa izatea, bi urtez tratamendu hormonalean egotea eta psikologo kliniko batek “genero disforia” diagnostikatzea) ezeztatu egin behar direla.

Legeak aitortutako eskubideak eta pertsona transexualek egiten duten horien erabilpena ez dira errespetatzen; izan ere, esku hartzen duten agenteek ez dute legea egoki aplikatzen. Are gehiago, diskriminazio egoera argiak gertatzen dira. Horrelaxe gertatu zitzaion Kattalini, Euskadin lege horri heldu zion lehenengo emakumetako bat izan zenari: *“Nortasun agiria egitera joan nintzenean, Uhagoneko komisaldegiko nagusiarekin borrokatu behar izan nintzen. Basaurira joan nintzen jaiotza agiria ateratzera, eta hala ere ez zuen arrazoitzen; komisarioarekin hitz egin behar izan nuen. Arazoa izan zen dokumentazio guztia eduki arren (aldaketa egin ahal izateko psikiatra batek sinatutako endokrinoaren papera eta jaiotza agiria), eragozpenak jarri zizkidatela: honek ezin du horrela izan, Basaurira itzuli behar duzu.”*

Legea eta egin beharreko tramiteak ez ezagutzeak pertsona erabiltzaileei eragiten die zuzenean; zerbitzu ezegokia ematen diete eta beharrezkoak ez diren tramiteak egitera behartzen dituzte. Galdetu beharko genuke ea LGTB pertsonen eragiten ez dieten egoeretan ere gertatzen al den, lehenxeago Erregistro Zibilei buruz egin dugun bezala.

Tramitea egin ahal izateko bi urteko itxaronaldia

Sexuaren zuzenketarako eta, ondorioz, izenaren aipamenaren zuzenketarako ere, bi urteko tratamendua egiaztatzea eskatzen du legeak. Baldintza horrek oztopo handia dakarkio pertsona transexualen egunerokotasunari, izan ere, ezin diote dokumentazioaren aldaketari legalki ekin aldaketa prozesuan daudela. Hainbat lekutatik ari dira baldintza hori zalantzan jartzen. Arartekoak berak, “Pertsona transexualen eta transgeneroen egoera Euskadin” 2009ko txostenean¹³, honelaxe dio: “Egindako kontsulten ostean, argi geratu da ez dagoela bi urte hauen beharrezko argudiatzen duen mediku iritzirik, ez eta irizpide zientifikorik ere. Hain juxtu ere, hormonazioak hilabete batzuen buruan izaten ditu ageriko emaitzak eta ondorioz, tratamendu horretan dauden eta izena aldatu nahi duten pertsonen luzeegia egiten zaie bi urteko itxaronaldia.”

EAEn, 14/2012 Legeak, ekainaren 28koak, genero identitateagatiko diskriminazioaren kontrakoak, eta pertsona transexualen aitorpena egiten duenak, egoera hori arindu du. Behin-behineko dokumentazioa emateko aukera arautu du, dokumentazio administratibo egoki baten bitartez, genero berregokitze prozesuak iraun bitartean. Hala ere, ez da arauzko gauzatzerik egin eta ALDARTEn, behin-behineko dokumentazio hori ukatu zaien trans emakume zenbaiten kasuak ezagutu ditugu.

¹³ <http://www.felgtb.org/temas/transexualidad/documentacion/i/1277/240/la-situacion-de-las-personas-transgenero-y-transexuales-en-euskadi>

Bi urte horietan, emakume horiek funtzionarioen borondate onaren bizkar egoten dira, euren bizi kalitatea hobetzeko zain. Bi urte horietan, beraz, bai lan egoera, bai osasun egoera bai giza egoera babesgabe geratzen zaizkie. Horrelaxe gertatu zitzaion Naiari: *“Festetan diru zorroa galdu nuenean, argazki berria egiteko aprobetxatu nuen, ez dadin beti kristoren nahaspila egon NANA ematen dudak bakoitzean. Artatu ninduenak ea izena noiz aldatuko nuen galdetu zidan, esperientzia zuen eta; prest zegoen eta esperientzia zuen horrelako gauzetan. Hain zuzen, ‘izena aldatu nahi duzu?’ esan zidan. Itxaroteko esan nion, oraindik txostenak falta zitzaizkidala. Argazki berria egiteko esan nion.”*

Arartekoaren txosten aipatuan jartzen duen bezala: *“Azken finean, izena eta sexua legalki aldatuta edukitzea giltzarri da pertsona hauen bizitzetan. Alderdi fisikoak, legalak eta sentimenduak bat egiten dutela, baina batez ere, eguneroko bizitzarako oztopoa ezabatu dutela esan nahi du horrek: enplegurako, bidaiatzeko, medikuarengana joateko, kreditu txartela erabiltzeko...”. Naiak honelaxe jarraitu du: “Kreditu txartela ateratzen duzun bakoitzean, NANA atara behar duzu. Askotan begira geratzen zaizkizu, eta esan ‘NANA ikus dezaket?’. Azkenean, NANarekin ere nahaspilatsua zen, baina jainkoari esker, hor ere argazkia aldatzea lortu nuen.”*

Ze izen aukeratuko dut?

Izenaren aukeraketa kontu garrantzitsuenetarikoa da legea aplikatzeko orduan, izena identitatearen parte delako; baita pertsona bere bizitzako alderdi guztietan identifikatuko duena ere. Hala eta guztiz ere, 2007ko Legeak ezarri zuen izena modu ez nahasgarrian egokitu behar zaiola sexu berriari, eta horrek arazo asko ekar diezazkieke emakume transexualei.

Lege hori indarrean jarri arte, Erregistro Zibileko Araudiak izena aldatzea baimentzen zuen; bai emakume bai gizon izena jarrita, sexuaren aipamenean aldaketarik egin gabe. Aukera hori urte askoan erabili izan dute pertsona transexualek izen anbigua aukeratu ahal izateko. Horrela, euren NANarekin bat egiten ez zuen itxura fisikoa edukitzeak zekartzan ondorioak txikiagotzea lortzen zuten, egunerokotasuna erraztuz.

Zergatikoen azalpenean, 2007ko Legeak ondorengoa adierazi zuen: *“Legegilearen erantzuna behar duen errealitate soziala da hau, sexuaren eta izenaren erregistroko hasierako egokitzeak aldatu ahal izan daitezen, eta hasieran inskribitu zituzten sexuarekin bat ez datorren genero identitatea duten pertsonen duintasuna eta izaeraren garapen askea berma dadin.”*

Hala ere, pertsona transexualen eskubideen babeserako aurrerapena omen den lege horren gauzatze arautuak ez du izen anbiguorik erabiltzea uzten, sexuetako batekin modu ez nahasgarrian bat egitea exijitzen baitu. Aldaketa ezkorra da hori urteetan izen bat erabili eta berarekin familian, lagunartean, lanean, osasun etxean edo beste edozein espaziotan identifikatu den pertsonarentzat. Lege horri heldu eta gero, berriz ere izena aldatu beharko du, horrek dakarren guztiarekin.

Naiak honelaxe adierazi du puntu hau. Bere kasuan, oraindik 2007ko Legeari heltzeko tramiteak hasi ez dituela, izen anbiguo bat hartzea erabaki du, emakumeentzat zein gizonentzat balio duena. Baina honako galdera hau egin beharko genuke: Naiak, urteetan bere bizitzako arlo guztietan Naia izenarekin bizi izan denak, 2007ko Legeari heltzen dionean, izena aldatu beharko du modu ez nahasgarrian femeninoa den bat aukeratzeko? Ze ondorio izango ditu horrek bere bizitzan? Badirudi, pertsona transexualen bizitza erraztu beharrean, juxtu kontrakoa lortuko duen baldintza baten aurrean gaudela. Naiak dioten bezala: *“Nire kabuz izena aldatzera joango banintz, generoaren laukia kontuan hartu gabe, hain zuzen ere horregatik hartu nuen genero neutroa zuen izen bat, horrenbeste traba jar ez ziezazkidaten. Kontuan hartuta nire bezeroa EB dela eta EBko beste herrialde batera joatea proposatu didatela, ez nuen arazorik nahi, baina izen aldaketarako araudian atal madarikatu bat dago, horrek amorrarazi egiten nau, zuzenean generoa asmatzea ahalbidetzen ez duten izenak jartzea ez uzteak, hor jartzen duen bezala, pixka bat nazkantea da”*.

Binarismoaren zama oso presente dago pertsona batek izena, zeinarekin bere burua izendatuko eta identifikatuko duen, aukeratzeko orduan. Ikerketa honetan, zenbait administrazio orain arte hala gizonentzat nola emakumeentzat erabiltzen ziren izenen erabilera mugatzen ari direla jakin dugu. Horrela, orain sexu femeninorako ala sexu maskulinorako baino ez dute balio, eta ez bietarako.

14/2012 Legea “da benetan ondo datorkidana”

Juliak gogoeta egin du: *“Benetan autentikoak izateko gai bagina, ez gara-eta, eta gauzak argi eta garbi esan ahal izango bagenitu, lege honek arautzen duena eta horren ondorioak edo inplikazioak, ba interesgarria irudituko litzaidake, gainera, benetan ondo datorkidana delako.”* Ekainaren 28ko 14/2012 Legeak eskaintzen dituen baliabideez eta aukerez ari da.

Alabaina, bere familia egoerak eta pertsonalak baliabide legal horri heltzea galarazten diote, nahiz eta jakitun den berarentzat baliabide ezin egokiagoa dela. Berriro ere, ikusgarritasun falta emakume lesbianentzako oztopo handienetako bat dela ikus dezakegu. Juliak bezala, beste emakume lesbiana askok uko egiten baitiete aitortu dizkieten eskubideei.

GIZA ESKUBIDEAK ETA ASILO-ESKUBIDEA

“Zeure eskubideen alde borrokatzera ateratzen zara kalera”

Bere segurtasuna dela eta, ez ditugu sakonki aztertuko Fatimak bizitakoak; baina esan esango dugu bere herrialdeko agente publikoek oinarritzko eskubideak urratu zizkiotela behin eta berriz, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren urraketa gauzatuz.

Giza Eskubideen urraketa etengabeen ondorioetako bat bere hitzetatik ondoriozta daitekeen trauma ondoko shocka da. Bere herrialdetik irtenda ere, gaur oraindik, gainetik kendu ezin duen harri pisutsua sentitzen du: *“Nahi izanez gero, galde egiozu nire neskalagunari, badaki amesgaiztoak dauzkadala. Jo egiten nautela pentsatzen dut, oinak odoletan nituela gogoratzen dut eta ezin dut ahaztu”.*

Bera oso jakitun da bizi izan duena giza eskubideen urraketa garbia izan dela, bere segurtasunagatik herria uztera behartu zuena. Segurtasun formal batez ari gara; hemen, berez, salbu dagoelako. Baina beldurrezko egoerak eta izualdiak bizitzen jarraitzen du, han bizitakoaren ondorioz: *“Oso beldur naiz. Oso aspalditik ari naiz beldur hau arrastaka eramaten, eta ez da kentzeko erraza. Uste dut horregatik daukadala daukadan guztia, urte askoan nabilelako hori arrastaka eramaten. Nik, orain arte, bizi egiten dut, tortura, zulo batean nago... ahaztu ezin ditudan gauzak.”*

Fátima jakitun da bere oinarritzko eskubideen urraketek ekarritako trauma eta blokeo emozionala gainditzeko laguntza behar duela. Egoera hartatik ihes egin ahal izateak haize berria ekarri dio bere bizitzari, lesbiana eta emakume gisa garatzea ahalbidetu dion haize berria: *“Orain, hemen nagoela, azkenik hau alda dezakedala uste dut, buruan daukadana. Larritasun zaku asko daramatzat bizkar gainean eta burua erdi galduta daukat. Gehiago landu behar dudala uste dut, ni neu izatera itzultzeko eta zerotik hasteko, hona iritsi nintzenetik bizi berri bat hastea bezala izan delako, berriz jaio izan banintz bezala.”*

Hala ere, askatasun hori edukitzeaz gain, biktima egin duten giza eskubideen urraketak salatzeke beldur da, eta argi du hau ez dela unea. Berarenganako eta bere familiarenganako errepresalien beldur da, familia jatorrizko herrialdean bizi da eta. Horrek galarazten dio justiziara jotzea: *“Ez da momentua, gauza politikoengatik da, familiagatik, ni hemen salbu nagoelako eta, nahi ez badut, ez naiz itzuliko. Baina ez dakit zer gerta dakioken nire familiari. Niretzat garrantzitsuena gurasoak dira, eta hiltzen direnean, agian, beste gauza batzuk arriskatuko ditut. Agian, hitz egingo dut.”*

Hain da handia beldurra, elkarriketan ere ez dela seguru sentitu. Elkarriketan bertan, bere bizitzako pasarte honetaz ari zela, etengabe aritu da anonimotasuna bermatzeko eskatzen.

Hala eta guztiz ere, Fátimak bere buruari utzi dio itxaropenezko mezu baikor hau; ahalduntze eta autoafirmazio mezua: bere herrialdean modu basatian kendu zioten askatasunak, gaur

goza dezakeenak, egunen batean, duintasuna eskuratzeko asmoz justiziara jotzen lagunduko dio: *“Ez da erraza eta ez naiz askatasun pixka batekin konformatzen. Egunen batean, guztia salatuko dut.”*

“Jendea beldur izateak mugatu egiten du asilo-eskubidearen eskaera”

“Beldurrik gabe bizi: Asilo-Eskubidea” (CEAR, 2013) argitalpenaren arabera, eta asiloaren nazioarteko babesaren ikuspuntutik, jazarpena giza eskubideen urraketa larri, sistematiko eta etengabea da. Diskriminazioa edo aldekoa ez den tratua jasotzea jazarpenaren baliokide izan daiteke, eta nazioarteko babesa eska daiteke.

Euren identitatea edo orientazioa araei egokitzen ez zaienean, emakume eta arautik kanpoko pertsonak diskriminazioa eta jazarpena jasaten dituzte, euren sexualitatearen kontrolaren bitartez bereziki. Gehienetan, homosexualitatea heriotza zigorrarekin kondenatzen den herrietakoak izateagatik.

Asilo-Eskubidea diskriminazio motaren bat jasaten duten pertsonen babeserako legezko baliabide juridikoa da. LGTB pertsonen kasuan, berau erabiltzeko, ezartzeko zein onartzeko arazo asko egon ohi da, eskaera egin duen pertsonari estatutua emateko ardura duten agintariek eragiten dituztenak.

Honelaxe deskribatu du Alaznek: *“Jendea gay edo transexuala dela deklaratzeko beldur izateak asilo-eskubidea eskatzea mugatzen du. Izan ere, orientazio, transexualitate... kontuengatik etortzen dira beste herrialdeetatik. Horrek mugatu egiten du zerbitzu juridikoen eskubideetako baten eskaera.”*

Esan beharra dago Asilo-Legearen azken erreformetan, gogoan izan dutela sexu orientazioaren eta genero identitatearen kontua asilo eskaerarako arrazoi izatea.

Aldaketa hori lesbianen, gayen, transen eta bisexualen mugimenduaren (LGTB) borrokaren emaitza izan da. Herrialde askotan, homosexualitatea eta lesbianismoa heriotza zigorrarekin kondenatzen dira, eta euren orientazioagatik eta genero identitateagatik jazartzen dituzte pertsona lesbianak eta transexualak. Izan ere, nahiz eta Hego Afrikan sexu berekoen arteko ezkontza baimenduta egon, emakume lesbianak bortxatu egiten dituzte, zigor modura.

Arestian aipatutako argitalpenaren ildoan (CEAR 2013), Solange, Anali, Karen edo Nicole azken urteetan asilo-eskubidea ukatu zaien emakume lesbianak dira. Euren jatorrizko herrialdeetan gertatzen diren giza eskubideen urraketa larriek LGTB pertsona askok gure herrialdean babesa eskatzea eragiten dute. 2009ko Asilo-Legeak esplizituki onartzen du LGTB pertsonen errefuxiatu izaera. Lege hori aurrerapena da sexu orientazioagatik eta genero identitateagatik jazarpenaren aitorpen formalean, baina arrazoi horiek, beraiek bakarrik, nazioarteko asiloaren aitorpenerako nahikoa ez direla esaten du legeak. Horrela, kontzeptu juridiko zehaztugabe baten menpera baldintzatzen du aitorpena: jatorrizko herrialdean nagusi

diren baldintzetara, alegia. Baldintzatzaile hori oztopo gaindiezina da horrelako jazarpen batetik ihesi estatu espainiarrera iristea lortzen duten pertsonentzat.

“CEAR-Euskadi. Generoagatiko pertsekuzioa eta asilo-eskubidea: testuinguru globaletik tokiko konpromisora” (2009) ikerketaren ondorio nagusiekin bat eginez, oraindik ere, oztopo asko daude bide administratibo eta judizialetan; estatu espainiarrak LGTB pertsonak egokiro babestea galarazten duten oztopo asko. Oro har, asilo-eskubidea sistematikoki ukatzeko politikarik bada, generoagatiko jazarpenagatik egiten direnean eskaera horiek, ezezkoen eta ez onartzeen kopuruak gora egiten du.

OSASUN ARLOKO BALIABIDEEN AZTERKETA

SARRERA

Gure ustez, ongizate fisiko, mental eta sozialaren egoera integrala da osasuna, ez dena gaixotasun gabezia bezala bakarrik ulertu behar, Munduko Osasun Erakundeak baieztatzen duen bezala¹⁴. Era berean, emakume lesbianen osasun eskubidea emakumeen osasun eta ongizate eskubidearen barruan kokatzen dela uste dugu.

Ikerketan zehar, parte hartu duten emakumeek, behar dituztenean, mota guztietako osasun baliabideak erabiltzen dituztela ikusi dugu, eta gehiago jotzen dutela osasun publikora pribatura baino. Emakume nagusiak dira baliabide pribatu gehien erabiltzen dituztenak; mediku aseguruak edo medikuntza alternatiboak, adibidez.

Oro har, ikerketako emakumeak ez daude osasungintzan ikusgarri; ginekologian eta amatasunarekin lotutakoetan bai, ordea. Ikusgarritasun gabeziak, gehienetan, heterosexualitate ustekizunarekin eta emakumeen arteko sexu harremanen ikusmolde mugatuarekin du zerikusia. Lesbianen sexu praktika ez ikusarazteak dakartzan ondorioak azalduko ditugu; hala nola, emakumeen osasunerako garrantzitsuak diren prebentzio frogak ez egitea eragin dezaketelako. Era berean, emakume lesbianek euren burua “arriskurik gabeko emakumetzat” jotzeko arrazoiak azalduko ditugu, sexu bidezko gaitzez (SBGez) eta GIB-HIESaz ari garelarik.

Amatasun lesbianoaren gaiaz ere arituko gara; baita emakume lesbiana gehienek intseminazio artifiziai klinika pribatuetan egiteko arrazoiez ere.

Azkenik, Gurutzetako Ospitaleko Genero Unitatearen funtzionamenduari buruzko gogoeta egingo dugu; parte hartu duten emakumeek nabarmendutako alderdiez bereziki: erabiltzen den paradigma patologizatzaileaz eta Bititza Errealaren froga egiten duen talde profesionalak oinarri duen emakume estereotipatuaren kontzeptuaz.

IKUSGARRITASUNA OSASUN SISTEMAN

Heterosexualitate ustekizunak esan nahi du pertsona bat heterosexuala dela kontrakoa erakutsi arte. Sinesmen hori gizarteko eremu guztietara dago zabalduta eta eragin berezia du osasun arloan, izan ere, beharrezkoa izan daiteke pertsona guztien sexu praktika ezagutzea artapen hobea egiteko.

¹⁴ MOEren web-orria: www.who.int

Ikerketa honetan parte hartu duten emakumeek egindako erabilera ustekizun horretatik abiatzen da. Garai batean obulu emaile izandako Mónica honela esan digu: *“Pribatuan egon nintzen aldi bakarrean, obuluak emateko izan zen. Azkerketa ginekologikoa egin zidaten, eta 25-30 orrialdeko galdetegia bete nuen. Sexualki aktiboa al zaren galdetzen dizute, baiezkoa erantzun nuenean, berehala galdetu zidaten ea antisorgailurik erabiltzen nuen. Ezetz esan nionean, ‘ikaslea zara eta! Zergatik?’ zioen aurpegiarekin begiratu zidan. Emakume batekin bi urte eta erdi neramatzala esan nionean, ‘A! Oso ondo’ erantzun zuen.”*

Kasu horretan, Mónica azaldu du bete beharreko formulario eta galdetegiaren ere ez zela heterosexuala ez izateko aukera aztertzen.

Nabarmenezkoa da Mónica ez dela gaizki tratatua sentitu bere lesbianismoa aipatu izan duenean, ikerketa honetako beste emakume batzuk bezala. Arazoa, lesbianak direla lasai asko dioten emakumeak topatu arte, osasungintzako profesionalek heterosexuala ez den beste aukerarik kontuan ez hartzea da.

Beste puntu bat osasun-langileen eta osasungintzako beste profesional batzuen deserosotasuna da. Candelak honela esan du: *“Nire neurologoak urteak behar izan ditu nire bikotekideari aurpegira begiratu ahal izateko”,* edota Ameliak kontatu digun ezustekoa: *“Lesbiar sexuaz galdetu nionean, eta nola egin zitekeen, sustoaren sustoaz bolia erori zitzaion; eta hori nire bikotekidea ezagutzen zuela!”*.

Landa lanean, hala taldeko nola banakako elkarriketetan, bada etengabe atera den galdera bat: zergatik esan behar da lesbiana zarela? Clarak honela adierazi digu: *“Kontua ez da haiek zure bizitza pribatuan sartzea. Anbulategira joaten bazara, ez duzu zertan ezer esan. Zerbait duzulako joan zara horra eta konpondu egin behar dute.”*

Zein puntura arte da garrantzitsua edo interesgarria emakume lesbianok gure sexualitatea osasun baliabideetan adieraztea? Adibidez, garrantzitsua al da traumatologian zure sexu orientazioa jakitea? Puntu horretan, zerbitzu publikoetako trataera berdintasunarekin zerikusia duen gogoeta planteatu dugu. Eta onartu beharra dugu zalantzazkoa dela berdintasunezko trataera; izan ere, osasun baliabideetako funtzionamendu heteronormatiboak deserosotasuna, mesfidantza eta bedurra eragin baitezake arau heterosexuala betetzen ez duten pertsonengan. Lorenarentzat, sinestezina da *“bizi garen mendearen bizita, medikuarengana joan eta medikuak aukera gehiago daudela ez pentsatzen jarraitzea.”* Emakume lesbiana askok zenbait osasun baliabide behar luketen maiztasunarekin ez erabiltzea eragin du arbuioari dioten beldurrak.

Gizartean, komunikabideetan, osasun instituzioetan, medikuntzan eta emakume lesbianen kolektiboan bertan, ezjakintasun handia dago emakume lesbianen osasunean gertatzen diren arazo eta bereizkerien gainean; osasun sexualarekin lotutakoetan bereziki.

Nahiz eta osasun-langileei lesbiar praktiken inguruan informatzea emakume bakoitzaren araberakoa den, eta bere testuinguruaren eta sentitzen duen erosotasunaren araberakoa, beharrezkoa da ezjakintasun horrekin amaitzea. Horretarako, ezinbestekoa da osasun inguruetako ikusezintasuna apurtzea.

Ruth McNair-ek (McNair, 2005) irizten dio bi arrazoi nagusik azaltzen dutela emakumeen kolektibo honen beharrezko osasun arloan ematen zaien erantzun eskasa: heterosexismoak eta ezjakintasunak. Egilearen arabera, mediku artapenarekiko atsekabea eta konfiantza eza eragiten dituzte bi arrazoi horiek. Lesbiana askok osasun artapen orokorra saihestuko lukete, erreakzio homofoboiei edota aurretiko esperientzia ezkorrei dieten beldurrak eraginda.

FELGTk (Lesbianen, Gayen eta Transexualen Estatu Federazioak) 2012ko martxoan egindako txostenak dioen bezala, beharrezkoa da emakume lesbianen osasunarekin zerikusia duten arazoak eta arriskuak ikertzea. Helburuak honakoak dira:

- ✿ Lesbianen osasuna zaintzeko eta osasun egoera hobetzeko ezaguera baliagarriak eskuratzea.
- ✿ Lesbianen osasun arriskuen inguruko sinesmenak baieztatzea eta ideia okerrak deuseztatzea.
- ✿ Lesbianak arriskuan dauden osasun arloak identifikatzea; edota emakume heterosexualek baino arrisku handiagoa duten edo eduki dezaketen osasun arloak identifikatzea.

BISITA GINEKOLOGIKOA

ILGAk egindako “La salud de las lesbianas y mujeres bisexuales” [Lesbianen eta emakume bisexualen osasuna] (ILGA, 2007) txostenaren arabera, hiru egoerarekin egiten dute topo emakume hauek bisita ginekologikoetan: 1) Ez dituzte osasun azterketak egiten, sinesmen faltsuengatik (ez da beharrezkoa) edota arbuioari beldurra izateagatik; 2) Osasun azterketa egitera joan, baina ez dute ezer aipatzen beste emakume batzuekin sexu harremanak edukitzeari buruz; 3) Lesbiar harremanak dauzkatela esan eta errealitate horren inguruko informaziorik gabeko profesionalekin egiten dute topo.

Ikerketa honetan parte hartu duten emakumeek goian deskribatutako egoerak bizi izan dituzte. Itxaso, Kattalin eta Julia transexualak dira eta ez dute mota horretako bisitarik egitea pentsatu ere egiten. Lorenak, Alaznek, Mónica eta Clarak euren lesbianismoa agerrarazi dute, eta zitologiak egitea ukatu zaie. Ceciliak eta Natic kontsulta ginekologikoetan euren praktika sexualen berri ez ematea erabaki dute. Ez da harritzekoa, lesbianen artean bisita ginekologikoa izatea arazo, zalantza, beldur eta kexa gehien eragiten dituen, osasun sistemaren erabiltzaile diren heinean.

Alazne kexu da: *“Osakidetzako ginekologoak galdetu dit ea sexu harremanak ditudan, baietz esan diot, emakumeekin ditudala, eta `nik esan nahi dudana da...` erantzun dit, nik `jarri baietz` esan diot, eta berak ezetz idatzi du, emakumeen artean harreman sexualik ez dagoela ulertzen duelako.”*

Lesbianok, askotan, Osakidetzako azterketa ginekologikoetan, antisorgailuei buruzko informazioa entzutera etsitzen dugu, eta heterosexualak garela bere gain hartzen duten hainbat kontu entzutera. Beraz, larrialdia ez bada, lesbiana asko mediku-tratamenduetatik urruntzen dira, eta, ondorioz, mamografiak eta umetoki lepoko minbizia garaiz hautemateko ohiko mediku azterketak euren bizitzetatik kanpo geratzen dira.

Ugalketaren afera edo “ama izango ez naizelako ez naiz ginekologoarengana joaten”

Bisita ginekologikoen kalitatean eragina duen faktoreetako bat hauek ugalketarekin duten lotura da; halaxe izaten da gizartearentzat oro har, baina medikuntzarentzat bereziki. Nekanek kontatu digu ginekologoarengana lehenbiziko aldiz joan zenean konturatu zela ikuspuntu oker horretaz; 34 urte zituela, haurdun geratzeko nahiak bideratu zuen bisitan.

Ugalketarako sexualitatea ginekologo askoren buruan dago, elkarrizketatutako emakume askoren kontakizunetan argi geratu den bezala. Bertak honakoa diosku bisitetako baten inguruan: *“Sexualitateari buruzko gauzak galdetu dizkizute, eta une zehatz batean, antisorgailuekin hasi dira. Erabiltzen ez ditudala esan diedanean, begira geratu zait, ‘zuk zer nahi duzu? Berrogei urterekin umeak eduki?’ esanez bezala. Ez, nire bikotekidea emakumea da.”*

Berta bere ginekologoak eragindako egoera deseroso horretatik grazia pixka batekin ateratzeko gai izan da. Beste batzuk, Candela kasu, ez dira hain gai: *“Oso gutxitan erabili izan dut kontsulta ginekologikoa, umeekin baino ez. Baina gogoan dut, unibertsitatean nengoela, arazo bat izan nuela eta ginekologo batengana jo nuela. Hainbat froga egin zizkidaten eta guztia ondo zegoela esan zidaten, ea gizonekin harremanak nituen galdetzen zidaten bitartean. Ezetz esan nien eta funtzionalki ondo nengoela erantzun zidaten, nire esku zegoela. Oso deprimituta nengoen, eta are deprimituago geratu nintzen.”* Candela nahastuta zegoen bere identitate lesbiana zela eta. Bakarrik eta gaizki sentitzen zen, eta bisita ginekologikoak bere bizitza sexual ezin txarragoagatik eta mutil-lagun faltagatik errudun sentitzea areagotu zuen.

Emakume lesbianengan eragin ditzakeen ondorio ezkorrez gain, ugalketarekin lotutako ikuspuntu heterosexual horrek beste osasun ondorio bat dakar. Nekanek argitu egin digu: *“Ez dizute zure osasun ginekologikoari eragin diezaioketen beste kontuez galdetzen; antisorgailuak erabiltzen dituzun ala ez baino ez dizute galde egiten.”* Osasun sexualaren beste nondik norakoen inguruan ez galdetzeak euren beharrezanez eta sexu praktikei egokitutako artapen ginekologikotik at uzten ditu.

Ikerketa honetan aztertutako gida, eskuorri eta txosten guztiek, zeintzuen erreferentzia adierazita dagoen, emakume lesbianak kontsulta ginekologikora erregulartasunez joaten ez direla baieztatzen dute.

Gehienak, bisita hori amatasun edo antisorgailuen erabilera kasuetan soilik dela garrantzitsua uste dutelako; beste batzuk, erreakzio lesbofobo baten beldur direlako; eta, zenbait, ez dituztelako “xehetasun pertsonalak” pertsona ezezagunekin partekatu nahi. Dokumentu guztien helburua emakume lesbianak azterketa ginekologiko hauen garrantziaz jabetzea da, gehien eragiten dieten minbizien prebentzioagatik batez ere: bularreko minbiziarenagatik eta umetoki lepoko minbiziarenagatik, hain zuzen ere.

Emakume transexuala

Arestian komentatu dugun asoziazio bera eginez, Kattalinek, bisita ginekologikoez galdetzean, haurdun gera ezin daitekeenez, beharrezko ez duela eta joaten ez dela adierazi digu. Nork egiten dizkio genitalen azterketak? Kattalinek bere genitalitate maskulinoetik abiatuta eraikitako bagina dauka, eta ebakuntza egin ziotenetik, bere zirujaua izan da baginaren egoera ikusteko azterketak egin dizkion bakarra. Baina ikuspuntu plastiko batetik, eta ez ginekologikotik.

Emakume transexualen genitalitatea, lesbianak izan ala ez, erronka handia da artapen ginekologikorako. Ez dago emakume transexualek artapen mota hori erabiltzen duten kopuruaren gaineko daturik. San Inaziko modulu psikosozialeko ginekologoak honakoa esan digu: “Emakume lesbianen taldearen barruan, sexu aldaketa egin dutenek edo egin nahi dutenek eta inoiz manipulazio genitalik izan ez dutenek prebentzio ginekologikorako frogak behar ez dituztela pentsatzeko joera handiagoa dute.”

Egin genion elkarrizketan, Errespetuz-eko¹⁵ presidenteak emakume transexualen azterketa ginekologikoen osasun planteamendurik ez dagoela adierazi zigun. Inork ez du gai horri buruz hitz egiten, ezta elkartean bertan ere. Gurutzetako ospitaleko Genero Unitatetik eta genitalen kirurgiatik pasatu diren emakumeak “erdi eginda” daudela gaineratu zuen, eta ebakuntza egin dieten Gurutzetako Unitateko zirujauarengana jotzen dutela.

Errespetuz-eko presidenteak berak ez daki emakume transexualek artapen ginekologikoa beharko luketen, ez eta kirurgiako kontsultan dutenarekin alderatuta oso ezberdina izango litzatekeen ere. Ondorengo gogoeta luzatu digu: “Bi edo hiru urtez azterketak zirujauak egin eta gero, beste zerbitzu batzuetara bideratu beharko gintuzkete, ezta?”

Bestalde, Kattalin oso aktiboa da sexualki, eta bere hitzen arabera, bagina “oso funtzionala” dauka. Ondorioz, bere osasun artapena normaldu asmoz, genero Unitatea utzi eta ginekologiara bideratu beharko luketela uste du.

¹⁵ Pertsona transexualak gizarteratzeko eta euren defentsarako Euskal Elkartea.

“Gizonekin sexu harremanik ez dudanez, ez dizkidate zitologiak egiten”

Lorenak, Alaznek, Mónica eta Nekane kontatu digute euren lesbiar harremanen ondorioz, ez dietela zitologiarik egin nahi izan. Ikerketan parte hartu duten beste emakume batzuei, ordea, egin diete. Mirenek froga horrekin arazorik izan ez duela kontatu digu: *“Nik ginekologoa eduki dut, eta zitologia egin nahi ez nuela esan nionean, ‘baina nola ezetz, emakume!’erantzun zidan.”*

Asaldagarria da umetoki lepoko minbizia detektatzeko eta berari aitzintzeko hain beharrezkoa den froga hori kontsulta ginekologikotik pasatzen diren emakume lesbiana guztiei ez egitea. Lorenaren kontakizuna kezkagarria da: *“Hainbat ginekologorengana jo dut, eta lesbiana naizela esatearen ala ez esatearen arabera egin didate froga. Azken ginekologoak, lesbiana naizela esan nionean, ezin zidala zitologiarik egingo esan zidan.”*

Kezkagarria da azterketa hori egiteko dagoen ustezko apetazko jarrera. Ginekologo batzuek emakume lesbianeiei froga hauek egin bitartean, beste batzuek ez dizkiete egiten. Honako galdera egiten diogu geure buruari: ba al dago froga horiek emakume lesbianeiei ez egiteko dioen barne-araurik osasungintzan?

San Inazioko modulu psikosozialeko ginekologoak, egin genion elkarrizketan, ez dagoela emakume lesbianeiei zitologiak ez egitea gomendatzen duen araurik esan zigun, baina zabaldua dagoela emakume lesbianek umetoki lepoko minbizia prebenitzeko zitologia behar ez dutela suposatzen duen sinesmena. Oso oker handia da hori, eta patologia zerbikalaren azpi-diagnostikoa eragiten du; paziente hauengan asko jotzen duen patologia izaki.

FELTGBren (FELTGB, 2012) txostenaren arabera, medikuen artean hain hedatuta dagoen sinesmen horrek lesbiar sexualitateari buruzko zenbait mito ditu oinarri, izan ere, ez da benetako sexualitatetzat jotzen, ustez, koitorik ez dagoelako. Arriskudun praktiken artean nagusia koitoa dela uste da, eta, ezjakintasunak eraginda, lesbianek koitorik praktikatzen ez dutela uste denez, ez dago emakume heterosexualek sufri ditzaketen patologiak harrapatzeko arriskurik. ILGAren (ILGA, 2007) txostenaren arabera, lesbianen artean ere oso zabaldua dago sexu harremanak emakumeekin dituzten emakumeek zitologiaren beharrik ez dutela suposatzen duen sinesmena; immuneak edota arrisku gutxikoak direla uste dute eta.

FELTGBk txostenean aurkeztutako datuak oso adierazgarriak dira:

- ✿ Euren burua lesbianatzat identifikatu zutenen %66k soilik jaso zuen zitologia zerbikalaren screening zuzena.
- ✿ %22k ez zituen kontrol egokiak egin eta %12k ez zuen inoiz testik egin.
- ✿ Lesbiana gazteenek screening programetan ez sartzeko aukera handiagoa zuten.
- ✿ Emakume lesbianen %22k zuen zitologia ez-normala, euren burua eskusiboki heterosexual izendatzen duten emakumeen antzera.

- ✿ Emakumeen %9ri esan zion osasun langile batek ez zela beharrezkoa zitologia egitea.
- ✿ Azterketa ginekologikoetara GPBren (giza papilomaren birusaren) screening-a egitera erregularitasunez gehien joan zirenak 40 urtetik gorakoak izan ziren. Emakume horiek euren aukera sexualez aritu ziren euren medikuekin, eta ez zuten okerreko informaziorik jaso azterketa programatuak egiteko beharrianen inguruan.

Laburbilduz, beharrezkoa da emakumeekin sexu harremanak dituzten emakumeak emakume guztiei gomendatutako azterketa ginekologikoak egiteaz kontzientziaztea, izan ere, emakumeekin sexu harremanak izatea ez da GPBren infekziorako eta umetoki lepoko minbizirako babes faktorea.

Sexu bidezko gaitzak (SBG) eta prebentzioa: “egiazki, zein arrisku daude?”

“Kondoia apurtu eta latexezko hesi gisa erabiltzea bizi izan dut; ez duzu oheratzen ari zaren emakumea ezagutzen. Eta egia izanda ere haurdun geratzeko arriskurik ez duzula, beste gauza batzuetara arriskatzeko zara.”

Emakumeen arteko sexuari dagokionez, Mónicaen hitzek ez-ohikoak are heroikoak dirudite. Emakume lesbianen artean, ohiko bisita ginekologikoez hitz egitea oso sarria ez bada, SBG-GIBari buruz aritzea are bakanagoa da.

Alaznek oso ondo laburbildu ditu Mónicaen elkarrizketa taldeko gogoetak: *“Benetan, zein arrisku daude? Jakin ere ez dakigu, ezta? GIBa emakumeen artean transmititzea ezinezkoa dela entzun dut, ez dela horrelako kasurik ezagutzen. Ez dakit egia ala gezurra den.”*

Alazneren zalantzak emakume lesbiana gehienek alor honekiko dituzten zalantzak dira. Izan ere, epidemiologiari eta SBG-GIBari buruzko ikerketetan, sarritan, emakumeen arteko sexu harremanak ikusezin bihurtzen dituzte, edota ez dira existitu ere egiten.

Osakidetza web orria aztertzean¹⁶, SBGei eta GIB-HIESari buruzko hainbat gidaliburu, eskuorri, gida eta informazio eskaintzen den atalera iritsi gara. Bertan, honakoa ikusi dugu:

- ✿ Ez dago dokumenturik emakumeen arteko sexu harremanetan GIB-HIESa kutsa ezin daitekeela baieztatzen duenik. Maiztasun erlatiboz errepikatzen da sexualki aktiboak diren pertsona guztiek (mota guztietako bikoteak ageri diren ilustrazio eta guzti) SBG bat harrapa dezaketela.
- ✿ SBG-GIBari buruzko informazioa gizonekin harremanak dituzten emakumei dago sistematikoki zuzenduta. Emakumeen arteko sexu harremanetan gehien praktikatutako daitezkeen arriskudun sexu praktikak ez dira aipatu ere egiten (aluen arteko igurzketak, hatzamarrekin edo ukabilarekin edo jostailu erotikoekin egindako sarketa...).

¹⁶ <http://www.osakidetza.euskadi.net>

Ikusezintasun horrek eragiten du emakume lesbianek euren burua “arriskuan dagoen emakumearekin” ez identifikatzea, edota oso zaila izatea eurentzat egokia den informazioa aurkitzea. Baita, sexu harremanak dituztenean, erabaki prebentiboak hartzean okerrak egitea ere.

Ruth McNair-en arabera (McNair, 2005), emakumeekin erlazioak dituzten emakumeei buruzko ikerketa klinikoek erakusten dute emakume hauek, bizitzan zehar, SBG bat harrapatzeko %10aren eta %20aren arteko aukera dutela, erlazio heterosexualak dituzten emakumeen antzera.

Dirudienez, GIB-HIESari buruzko hainbat ikerteketek baieztatzen dute, arrisku faktore bakarra emakumeekin edukitako sexua izanda, ez dagoela emakume infektaturik. Hala ere, FELTGBren txostenak (FELTGB, 2012) dioten bezala, emakumeen arteko transmisio kasu baieztaturik egon ez arren, emaitzek ez dute aukera hori baztertzen. Batez ere, kontuan hartzen badugu normalean ez dela edukitzen emakume batek beste emakume batekin sexu harremanik izan duen ala ez dioten informaziorik (bai medikuak emakumeari galdetu ez diolako bai azken horrek borondatez esan ez duelako).

FELTGBrentzat (FELTGB, 2012), ondorioa argia da: mito bat dago, emakumeekin sexu harremanak dituzten emakumeek, sexu harreman horiek izatean, GIBa harrapa ezin dezaketela dioena. GIBaren transmisioa ez-ohikoagoa da emakume horien artean, erlazio heterosexualan baino; hala ere, ezin daiteke baieztatu “arrisku eza” dagoenik, emakume lesbiana askok eta medikuek oro har uste duten bezala.

Gogoeta kezkagarri gehiago daude:

- ✿ Badirudi emakume lesbianak, kolektibo moduan hartuta, GIB-HIESaren transmisioaren arrisku taldeetatik at utzi direla, arriskudun kolektiboak badirela dioten irizpidea alderantziz ezarriz. Izugarri kritikatu den kontua da hori, eta osasun ikuspuntutik ez-gomendagarri balioztatua. Geure buruari galdetzen diogu ea lesbianak “arriskurik gabeko” kolektibotzat jotzen diren eta, ondorioz, GIB-HIESaren ikerketa epidemiologikoetan kontuan hartzen al dituzten ala ez.
- ✿ Emakume lesbianek, ez dutenez euren burua GIB-HIESa hartzeko arrisku egoeran dauden emakumetzat jotzen, ez dute uste gainerako SBGak harrapatzeko arriskuan daudenik. Horren ondorioz, orokorrean, ez dituzte prebentzio neurriak hartzen sexu harremanetan.

AMATASUNA: LAGUNTZA BIDEZKO UGALKETA OZTOPOZ JOSITA DAGO

Bakarrrik dauden emakumeak

Emakume lesbiana asko laguntza bidezko ugalketaren bitartez iristen dira amatasunera, baina prozesuan hainbat oztopo daudela adierazi dute.

Candela eta bere bikotekidea aitzindariak izan ziren metodo horren erabileran. Lehenengo, Osakidetza jo zuten, 2004an. Haien oroitzapenak oso ezkorrak dira: *“Intseminazio prozesua gaizki, oso gaizki. Nire bikotekidea ez zen existitzen, ez zioten hitzik ere egiten. Argi utzi nuen bikotekidearekin nindoala, baina bolantean ‘bakarrrik dagoen emakumea’ jartzen zuen.”*

Candelak ez zuen ezagutzen 14/2006 Legea¹⁷, maiatzaren 26koa, laguntza bidezko ugalketarako teknikei buruzkoa. Bertan, 6.1 artikuluan, teknika horren erabiltzailea libreki, jakitun eta berariaz bere onarpena eman duen 18 urtetik gorako edozein emakume izan daitekeela jasotzen da, bere egoera zibila eta sexu orientazioa gorabehera.

Legea modu diskriminatzailean ebakitzen da, ez dituelako lesbiar bikoteak aitortzen. 6.1 artikulua idazketa anbigua da emakume lesbianeiei osasun publikoan aplikatzeko orduan, izan ere, 1030/2006¹⁸ Errege Dekretuak, irailaren 15ekoak, Osasun Sistema Nazionaleko osasun zerbitzu publikoen zerrenda zehazten duenak, honakoa adierazten du: “laguntza bidezko ugalketa adieraziko da antzutasun diagnostikoa edo ezarritako adierazle klinikoa dagoenean.” Anbiguotasun horrek bide eman zuen erkidego batzuek, EAEk bezala, emakume lesbianak adierazle horren baitan kokatzera, eta, hortaz, intseminazio artifizialerako tratamendua ematera; beste erkidego batzuek egiten ez zuten bitartean.

2013an, Alderdi Popularraren gobernuak 14/2006 Legea aldatzeko erabakia publiko egin zuen. Aldaketa horren bidez, bakarrrik dauden emakumeei eta lesbiar bikoteei laguntza bidezko ugalketarako tratamenduak erabiltzea ukatuko zaie osasun publikoan, eta gizon batek eta emakume batek osatutako bikoteek soilik erabili ahal izango dituzte, ugalkortasun arazoak daudenean¹⁹. Erabaki diskriminatzaile horrek legearen anbiguotasuna ezabatu du; urteetan emakume lesbianeiei laguntza bidezko ugalketarako tratamenduak ematea ahalbidetu duen anbiguotasun horixe.

Nabarmendu nahi dugu Osakidetza ez direla neurri hori ezartzen ari. Jon Darponek, Euskadiko osasun aholkulariak, ziurtatu du Euskadik “orain arte” bezala mantenduko dituela ugalkortasun tratamenduak²⁰. Darponen iritziz, ezin daiteke tratamendu horietarako sarbidean inor diskriminatu bere sexu orioentazioagatik, izan ere, gaur egun, “familia aniztasuna erabat

¹⁷ <http://www.boe.es/boe/dias/2006/05/27/pdfs/A19947-19956.pdf>

¹⁸ <http://www.boe.es/boe/dias/2006/09/16/pdfs/A32650-32679.pdf>

¹⁹ El País, 2013ko uztailaren 18an.

²⁰ El País, 2013ko uztailaren 23an.

onartuta dago”; bere ustez, familia tradizionaletatik hasi eta sexu bereko pertsonek osatutakoetara zein familia gurasobakarretara iritsiz.

Hazi gabezia

Candelak bere intseminazioa Euskadiko Osasun Sistemaren egitea erabaki zuen, eta esperientzia nolakoa izan zen kontatu du: *“Intseminazio prozesua abiatu ahal izan genuen, baina intseminazioa egitea tokatu zenean, hazi ez zegoela esan ziguten ospitalean eta pribatura jo behar izan genuen. Ez zidaten inolako eragozpenik jarri egindako frogaren dokumentazioa eskatu nienean.”*

Candelari gertatutakoa nahiko sarria izan da zerbitzu publikoetan laguntza bidezko ugalketa egitea erabaki duten ama lesbianen historian. Osakidetzan, hazi falta baldintzatzailea izan da askotan, “bakarrik” dauden emakumeek intseminazio prozesua buka ez zezaten.

Hazi gabezia izan da, beste faktore batzuekin batera (adinaren irizpide zorrotza, bikotekidearen onarpen eza, trataera ez oso beroa...), ama lesbianek osasun pribatura jotzeko arrazoi nagusia. Nekane honakoa kontatu digu: *“Kontuak egin genituen, eta bi urte arteko itxaron zerrendak zeuden, baldintzatzaile pila bat... Azkenean, pribatuan egingo dugu, esan genuen; ordaindu bitartean, ez genuen inoiz arazorik izan.”*

Kostu ekonomikoa

Lesbiar bikoteak eta bakarrik dauden emakumeak laguntza bidezko ugalketaren sistema publikotik ateraraztean, osasun publikorako eskubide unibertsala urratzen da. Bestalde, zeharka, tratamendurako sarbidea eragozten zaie osasun pribatura jotzeko baliabiderik ez dutenei; bertan, batz bestea, 2.000 eta 8.000 euro artean ordaindu behar izaten baita tratamendua.

Baliabide ekonomikoak dituztenek bakarrik jo dezakete hain garestiak diren ugalkortasun kliniketara. Eskubidea izatetik, pribilegioa izatera igaro da laguntza bidezko ugalketa.

Lesbiana asko sare publikora jotzen saiatu ere ez direla egiten da errealitatea. Diziiplina honen %20 da sektore publikoa, SEFko (Sociedad Española de Fertilidad) José Antonio Castillak adierazi duen bezala. Eta baliteke, Osasun Ministerioak hartutako neurriaren ondoren, ehunekoa are baxuagoa izatea²¹.

²¹ El País, 2013ko uztailearen 23a.

Andrea Momoitiok bere artikuluan kontatu duenaren arabera²², Jonek eta Rosak intseminazio artifiziala egitea erabaki zuten, eta topatutako oztopo nagusinetako bat dirua izan zen. Ama izan nahi izatea diru kalkulu bihurtu zen, hasieratik zutelako oso argi hiru aldiz bakarrik saia zitezkeela. Zortea izan zuten, eta bigarren saiakeran geratu ziren haurdun.

Ama izan nahi duten lesbianak negozio aparta dira, aspalditik, ugalkortasun klinikentzat.

Amatasunaren aitortzarako baldintza juridikoen eskakizuna

Kostuak gutxitzeko asmoz, intseminazioa egin ahal izateko hazi banku alternatiboak ari dira sortzen. Áfricak horren inguruan hitz egin digu: *“Interneten, hazi eros daitekeen hazi banku bat dago, eta klinika pribatuan egitea baino askoz merkeagoa da. Orrian bertan, lesbianen kasua zailtzen ari dela jartzen du, erregistroan egiaztagiri bat eskatzen dutelako; bide hori erabilia, amek ez dutena.”*

Bi emakumek osatutako ezkontzetan jaiotako adin gutxikoak Erregistro Zibilean inskribatu ahal izateko, lege ezarritako baldintza da laguntza bidezko ugalketarako teknikak erabili izana (3/2007 Legea). Beraz, haurra bi amena dela inskribatzeko, Osakidetza zein edozein klinika pribatuk emandako egiaztageria eskatzen da, laguntza bidezko ugalketa erabili dela adierazten duena.

Baldintza horren exigentziarekin, emakume lesbianek amatasunera iristeko aukeratutako beste edozein modu, Osakidetza edo klinika pribatuetan egindako laguntza bidezko ugalketa ez den beste edozein modu, kanpo geratzen da. Kontu horrek amatasun prozesua medikalizatzen du, izan ere, bi emakume berdintasunez ama izan daitezen, osasun baldintza legalak bete behar dituzte. Baldintza hori oso diskriminatzailea da bikote heterosexualekin alderatuta, horiei ez baitaie inolako baldintzarik jartzen eduki duten haurra inskribatu ahal izateko.

Bakarrik erditzea

Nahiz eta lesbiar bikote askok intseminazioa klinika pribatuetan egitea erabakitzen duten, haurdunaldiaren jarraipena eta kontrola, bai eta erditzea bera, sare publikoan egiten dituzte.

2004an eduki zituzten haurrak Candelak eta bere bikotekideak; oraindik, osasun sare publikoak euren burua lesbianatzat aitortutako lesbiar bikote gutxi artatuak zituen garaian. Candelak eta bere bikotekideak trataera benetan diskriminatzailea jaso zuten. Horri buruz honakoa dio: *“Gau osoa behean, eboluzioan, pasatu nuen, erditzeko gelako eboluzio-gelan utzi ninduten, eta bikotekideari ez zioten sartzen utzi. Kanpoan igaro zuen gau osoa. Boxeak gainezka zeudela*

²² Momoitio, Andrea: *Maternidad lesbica: toda una carrera de obstáculos*, www.pikaramagazine.com

zioten, eta horregatik ezin zela sartu. Nire ondoan zegoen emakumea senarrarekin zegoela ikusten nuen, eta ni bakarrik nengoen. Bakarrik erditu nintzen.” Candelak eta bere bikotekideak duela hamar urte jaso zuten Osakidetzak eragindako trataera diskriminatzailea. Batetik, boxeen saturazioaren aurrean, ez zuten okupazio irizpide bera erabili eta, bestetik, Candela bakarrik erditu zen, bikotekidearen laguntzarik gabe. Gizon batek eta emakume batek osatutako bikoteekin aspalditik gertatzen ez dena.

Gaur egun gertatzen ari dena jakiteko, Sehaska LGTB gurasoen elkarteko partaide bat elkarrizketatu dugu. Horrelako egoerak jada ez direla hain modu esplizituan gertatzen kontatu digu, eta, haurdunaldian eta erditzean zehar, bi amak hartzen dituztela kontuan. Azken hamar urteetan egindako aurrerapena nabarmentzen dugu, eta Candelak eta bere bikotekideak bizitako egoerak jada ez direla gertatzen.

Obulategien estimulazioa

Ohikoena haurrak eduki nahi dituzten emakume homosexualek eta bakarrik dauden emakumeek antzutasun arazorik ez edukitzea da, eta euren obuluak egoera ezin hobean egotea. Behar duten bakarra, haurdun geratzeko espermatozoideak izaten dira. Hala ere, eta Nekane esan digun bezala: *“Haurdunaldia emankorra eta bideragarria izan dadin, ugalkortasun arazoak dituen emakume batek igaro beharreko protokolo berbera jarraitu behar duzu. Izugarria iruditzen zitzaidan froga hori derrigorrezkoa izatea, baina ezin izan nuen negoziatu.”*

Nekane obulategien estimulazioaz ari da, edo berak deskribatu duen moduan: “hormonak kokoteraino irentsi”. Ama lesbiana askok jasan behar izan dute derrigorrezko estimulazio hori, eragin dizkien ondorio eta minekin batera: obulategien tamaina handitzea, pelbiseko min arina, animoaren aldakortasuna, loditzea...

Kontua da haurdun geratzeko arazorik ez duten emakumeei estimulazio hori egiteak haurdunaldi anizkunak eragiten dituela, eta haurdunaldi horiek, batzuetan, enbrioietako baten abortu selektiboa egin behar izatea ekartzen dutela. Horrelako abortuak egin behar dituzten ama batzuentzat, ondorio etikoak oso larriak izaten dira.

Tratamendu hormonal eta gorputzaren antzutea

14/2012 Legeak, ekainaren 28koak, genero identitateagatiko ez-diskriminazioa eta Euskadiko pertsona transexualen aitorpena jasotzen dituen legeak, III. kapituluaren, pertsona transexualen osasun artapenari buruzkoan, ez ditu pertsona horien ugalketarako eskubideak aipatzen.

Itxasok ama izateko nahia kontatu du: *“Emakume batekin banago, lasai asko izan gintezke biok ama biologikoak. Etorkizunean, amatzat ikusten dut neure burua, beti izan da horrelaxe.”* Itxaso bere gorputzaren berregokitze prozesuan dago, desio dituen molde femeninoak izan ditzan. Generoaren berregokitze prozesu horrek espermatozoiderik ez sortzea eragiten duen hormonazio gogorra dakar. Bere endokrinoaren arabera, hormonazioa hasi eta sei hilabetera, antzutea gertatzen da. Itxasok ia urtebete darama hormonazioarekin, eta esan duen bezala: *“Nire kontzeptua zabala da. Badakit adopzioa badagoela, baina ama biologikoa izateko aukera edukitzea gustatuko litzaidake.”*

Gurutzetako ospitaleko Genero Unitateko zerbitzu zerrendan, ez dago etorkizunerako intseminazio artifizialak egiteko aukera planteatuta. Hormonazioa hasi aurretik, bere hazia izozteari buruz galdetu zuen Genero Unitatean. Sare pribatura jotzeko gomendatu zioten; baina ekarriko lukeen kostu ekonomiko handiagatik, ezinezko aukera izan zen Itxasorentzat.

ONGIZATEA ETA OSASUN MENTALA

Emakume lesbianen eta bisexualen osasunari buruzko ILGAren 2007ko txostenaren arabera, depresioa izateko aukera handiagoa dute emakume lesbianek eta bisexualak, euren bizitzari baliorik ematen ez dien mundu homofobiko eta heterosexista batean bizi direlako; batzuetan, gutxietsi ere egiten dituen. Askok ez dute barneratutako homofobia konpondu, eta ez dute euren sexualitatea euren parte den gauza ona dela onartu. Sexualitatea kondenatzen duen kultura batean haziak eta heziak izan direnez, zaila da mezu horiek atzean utzi eta haien bizitzetan inpaktu negatiboa izatea sahiestea. Euren sexualitatea bizitzeko, zenbait lesbianak elementu oso garrantzitsuak galdu behar izan dituzte: familia, lagunak, erlijioa, kultura, bizitzeko modua; hau da, amesten zuten etorkizunaren ideia.

Jennifer Quiles-ek (Quiles, 2002) aipatu moduan, oso gutxitan esaten zaie lesbianeiei beste emakume batzuk maite dituzten emakume zoragarriak direla, eta edozein gizakik bezala merezi dutela zoriontsuak izatea. Gutxitan esaten zaie, edo inoiz ez.

Inmaculada Mujikak (Mujika, 2007) dioenaren arabera, norberari buruzko erreferentzia baikorrak aurkitzea; hamarkadak iraun dituen ezkontza heterosexual baten ondoren banatzea; familiari aurre egitea, edota lagunarteari, edo lan inguruari, eta heterosexuala ez zarela adieraztea; ama ez-biologikoa izatearen erronka onartzea; lesbianismoa dela eta, herrialdetik ihes egin behar izatea eta harrera herrialdean asilo politikoaren aitortzea; beste kulturekiko aurreiritziak dituzten giro lesbikoetan etorkin moduan agertzea; desgaitasuna izanda, besteek zure lesbianismoa aitortzea lortzea, edota lesbiana eta transexual aldarrikatzea... emakume lesbianek egunero aurre egin beharreko erronkak dira. Euren bizitzetan, etengabeko tentsioa edukitzera daramatza horrek.

Parte hartu duten emakumeetako batzuek Osakidetza osasun mentaleko zerbitzuak erabili dituzte, eta euren esperientzetatik abiatuta esan daiteke zama ezkor batez hautematen dutela inguru hori.

Baita askok nahi ez duten kontu batekin lotu ere: ondoez psikologikoa tratatzeko bide bakarra pilulak izatearekin, alegia. Espek honakoa kontatu digu: *“Ohiko sendagilearengana joan nintzenean, psikiatrarengana bidali ninduen, eta egin zuen lehen gauza pilulak ematea izan zen, eta kitto. Nahi nuena psikologo batekin hitz egitea zela esan nion eta ezetz!, pilulak hartuta pasatuko zitzaidala.”* Arantxak adiskide baten kasua kontatu du: *“Bere medikuak osasun mentalera bidali zuen, pare bat pilula eman zizkieten, eta behar zuena atseden hartzea zela esan zioten. Bere identitate sexuala birpentsatzen ari zela esan zionean, ‘ez, zuk behar duzuna atseden hartzea da. Har itzazu pilula batzuk, egin ezazu lo eta hobeto sentituko zara’.”*

Emakume horien beharrianetarako, osasun mentaleko sare publikoaren erabilera ez da nahikoa izan. Izan ere, euren beharrianak genero eta sexu indentitateari buruzko zalantzez jositako barne gatazka baten konponketarekin daude lotuta, eta ez egoera fisiologiko zehatz batekin.

Gatazka psikikoak konpontzeko LGTB elkarteak aukeratzea

Buruko gatazkak lantzeko, Fátima, denboraldi batez, bere herriko elkarte bateko artapen psikologikoan egon zen, eta honakoa kontatu digu: *“Ez nintzen ondo sentitzen. Neskak ondo tratatzen ninduen, eta errespetuz, baina neure buruari esaten nion ‘denbora galtzen ari naiz eta zerbait gehiago nahi dut’, oso galduta jarraitzen nuen. Ez nuen lasaitasunik aurkitu, baina LGTB elkartean bai.”*

Beste emakume batzuek, Itxasok kasu, ordaindu beharreko zerbitzu psikologikora jotzen dute: *“Psikologo batengana joan nintzen, eta ez zitzaidan gustatu. Ez zegoen transexualitatean espezializatuta. Nik banekien zer nintzen, behar nuen bakarra hori kanporatu ahal izateko laguntza zen. Horrelako kasuak ezagutzen zituen pertsona edo elkarte bat behar nuen, gaia eta esatearen zailtasuna ezagutzen zituena.”*

LGBTB elkarteak, Euskal Herrian behintzat, ez dira osasun mentalean bakarrik aritzen diren entitateak. Haien artean, ALDARTE da LGTB kolektiboari zuzendutako artapen psikologiko espezializatua eskaintzen duen LGTB entitate bakarra. ALDARTEk baliabide hori eskaintzeko arrazoietakoa bat gay, lesbiana eta trans pertsona asko, erabili dituzten zerbitzu psikiatriko eta psikologiko publiko zein pribatuetan, euren indentitateetan ulertuta ez sentitu izana, edota gaizki tratatuta sentitu izana, edota euren burua agerraraztera ez ausartu izana da.

Estigmatizatutako kolektibo baten parte dira emakume lesbianak, euren buru gatazkak konpondu ahal izateko, sexualitate eta genero aniztasunarekiko estigma sozialak eragindako ondorio psikologikoak ezagutzen dituzten profesionalek zuzendutako zerbitzuak behar dituztenak.

Elkarteen baliabidea ez da nahikoa tortura eta tratu txarrak jasan dituen emakumearentzat

Munduan, emakume lesbiana askok sufritzen dituzte torturak eta tratu txarrak euren sexu aukerengatik, eta ondorio latzak uzten dizkie horrek euren bizitzetan. Sexu eta genero aniztasunean aditua den psikologo batekin has daitezke pairatutako minak gainditzen, Fátimari gertatzen ari zaion bezala. Hala ere, argi dago ez dela nahikoa: *“Ez litzaidake gustatuko, lasaitu ahal izateko, bizitza osoa pilulak hartzen egon behar izatea, baina honekin bizi naiz, amesgaiztoak dauzkat, pasatu nahi dut baina ezin dut, arrastaka daramat, jo egiten nautela pentsatzen dut, oinak odoletan nituela gogoratzen dut. Ezin dut ahaztu, ezin dut negarrik egin, egunen batean zama hori kentzea gustatuko litzaidake.”*

Fátimak, gaztea zela, bere sexualitatearekin lotutako torturak pairatu zituen, eta gaur oraindik ere, horiek utzitako trauma psikologiko sakona sufritzen du. LGTB elkartean jasotzen duen laguntza psikologikoa terapeutikoa da, baina ez da nahikoa. Garrantzitsua litzateke torturaren biktimen suspertzean eta lehengoratzean oinarritzen den baliabide espezializatuago batekin konbinatu ahal izatea.

Kontua da Fátimak uste duela horrelako artapen mota batera jotzeko, nondik datorren eta nork torturatu zuen kontatu beharko lukeela, eta torturaren uneak bergogoratu beharko lituzkeela. Jatorrizko herrialdearen, komunitatearen eta familiaren aurrean bere lesbianismoa agerrarazi beharko lukeela uste du, eta oraindik ez dago horretarako prest. Bizitza bikoitza darama, baina LGTB elkartean seguru sentitzen da, erlaxatuta, eta ikusgarritasun pixka bat baimentzen dio bere buruari.

Nabarmendu beharreko praktika onak

Parte hartu duten emakumeek osasun mentaleko sare publikoan bizi izandako esperientzia onak kontatu dituzte. Bi nabarmendu nahi ditugu:

Espek tratu txar psikologikoengatik jo zuen osasun mentalera. Honelaxe kontatu du bere esperientzia: *“Pilulak eman zizkidan, eta esan nion pilulekin ez nintzela hemendik irtengo, nik behar nuena hitz egitea zelako, eta ez zidaten ulertzen. Gizarte-laguntzailearengana joan nintzen eta esan zidan ‘ondo ulertuko zaituen elkarte batera deituko dut’ eta LGTB elkarte batera eraman ninduen, hobeto lagunduko zidatela esanez.”*

Osasun mentaleko osasun-etxeko gizarte-laguntzaile hura konturatu zen bazitekeela bere lesbianismoa onartu ez izana egotea Espe sufritzen ari zen kaos mental haren atzean. Esperen lesbianismoa gizarte-laguntzaileak hauteman zuen, Espek berak baino lehenago. LGTB baliabideak ezagutzen zituenez, ALDARTEra bideratu zuen.

Beste praktika ona Mirenek kontatu diguna da. Depresio sakona izan zuen, bere bikotekideak utzi izanarekin bat egin zuena. Psikiatrari egindako bisita kontatu digu: *“Pare bat saio egin nituen psikiatrarekin, eta berak esan zidan nuen depresioa ez zuela bikotekidearekin harremana uzteak eragin; argi zegoela.”* Mirenek zeukan depresioaren aurrean, osasun mentaleko profesional askok bere banaketa edota lesbianismoa nabarmenduko zuketean, Mireni bere gogo aldarteari buruzko azterketarako bestelako aukerarik eman gabe.

Osasun mentalaren arloan, ohikoa izaten da buru nahasmenduak bizipen homosexualekin eta transexualekin lotzea. Uztarketa hori erreala izan badaiteke ere, zaila dirudi benetan noiz den horrela eta noiz ez den bereiztea, ez dagoelako diagnostiko ona egiteko ez informaziorik ez objektibitatearik. Horrela, zerbitzu psikiatriko eta psikologiko publiko zein pribatuen LGTB bezeroek, askotan, euren buru nahasmenduaren eragilea euren sexualitatea dela jasotzen dute.

Azkenik, Bertaren esperientzia ona nabarmendu dugu. Duela urte batzuk diagnostikatu zioten buru nahasmendua, eta honela kontatu du: *“Sendagaiak hartzen daramatzadan lau urte hauetan, hamar psikiatra izan ditut, oraingoa ere oso jatorra da. Batzuetan, bikotekideak laguntzen nau bisitetara, eta, egun batean, ea elkarrekin bizi ginen galdetu zigun. Oso ondo ezagutzen du nire neska.”* Berta oso ondo sentitu izan da artatu duten psikiatrekin, eta oso positiboa da berarentzat [psikiatrekin] emakume batekin duen harremana ezagutzea.

ETORKINA IZATEA

Osasun sistemaren iraunkortasunerako presazko neurrien 16/2012 Errege Dekretuak²³, “dekretazoa” izenarekin ezagutzen denak, guztia aldatu zuen osasun laguntzan. Neurri gogorrenen artean, eta osasunaren unibertsalizazioaren kaltetan, egoera irregularrean dauden pertsona etorkinak osasun artapen normalizatutik atera zituen. Orain, larrialdietan, umeei eta haurdun dauden emakumeei baino ez diete zerbitzurik ematen.

Marisak bere kasuaz hitz egin du: *“Garai batean, ez nuen lan ofizialik eta ez nuen Osakidetzarako eskubiderik. Behin, asko gaixotu nintzen, eta mediku artapena bilatu behar izan nuen. Osakidetzan, ez zidaten txartela ematen, ikaslea nintzenez, nire aseguruia nuela uste zutelako. Gurutze Gorrira eta Munduko Medikuegana jo behar izan nuen, eta asko lagundu zidaten.”*

Marisak aipatu duen garaia “dekretazoa” baino lehenagokoa da, duela hamabost urtekoa. Egun, egoera erregularrean dago, Euskal Herriko emakume autoktono batekin dago ezkondata eta espainiar nazionalitatea eskuratu du. Zentzu horretan, Filo, Fátima edo Espe bezain lasai dago, egoera erregularrean daudelako eta osasun txartela edukitzeko eskubidea dutelako. Oro har, Osakidetzan ondo tratatu dituztela esan dute.

²³ https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2012-5403. Dekretu horrek berrelkartzeagatik bizilekua eskatu zuten familien kolektiboa osasunetik kanpo utzi zuen. Dekretua onartu eta gero eskuratu zuten.

Fátimaren esperientzia nabarmendu nahi dugu: *“Bikotekidearekin joan nintzen mediku bisita batera, eta ea senitartekoa nuen galdetu zidan. Ezetz esan nion, nire bikotekidea zela. Medikua harritu egin zen, ‘neskalaguna duen emakume musulmana?’ Oso ondo artatu ninduen eta pozik geratu zen emakume musulman baten ausardiarekin.”* Fátimak bere lesbianismoa agerrarazi zuen medikuaren kontsultan, eta oso erantzun positiboa jaso zuen osasun arloaren partetik. Bere ikusgarritasuna baloratu zuten eta integrazio sentimendua indartu zioten.

Badakigu, “dekretazoarekin”, etorkin guztiek ez dutela antzeko harrerarik edukiko.

Hainbat pertsona, elkarte eta mota askotariko entitate altxatu dira egoera irregularrean dauden etorkinei osasun eskubidea ukatzearen aurka. Gonzalo Fanjul-en esanetan²⁴: *“Aurrezte ekonomiko batek ere ez du konpentsatuko neurri horrek gure gizartea eta gure instituzio publikoak zitaltzeko modu hau. Ziurgabetasun eta zaurgarritasun infernu ari gara bihurtzen gure herrira lan egitera eta aurrera egitera etorri diren milaka gizonen, emakumeren eta umeren bizitzak. Gurekin bizi diren gizakiek, askotan gure etxe barruan bizi diren horiek, hirugarren mailako hiritartasuna nozitzen dute.”*

Ikerketa talde garen heinean, bat gatoz Munduko Medikuek elkartearen hitzekin: *“Osasuna eskubidea da eta ez dugu onartuko lurralde espainiar edota euskaldunean bizi den edozein pertsonari arrazoi administratiboengatik ukatzea osasun artapena”*²⁵.

2014ko urtarrilean, Giza Eskubideen Komite Europarrak, Europako Kontseiluari lotutakoak, txosten batean adierazi zuen egoera irregularrean dauden etorkinei osasun artapena ukatzea, 16/2012 Errege Dekretuan jasotzen dena, bateraezina dela Espainiak onartu zuen Nazioarteko Hitzarmenarekin²⁶.

MODULU PSIKOSOZIALAK

Landa lanean, Bilbon bizi diren emakumeek oso baliabide positibotzat jo zituzten modulu psikosozialak. Arantxak argi hitz egin du: *“Osasun arloan, moduluak nahiko zerbitzu onak iruditzen zaizkit, oso begirunetsuak bai medikuntza ginekologikoan bai osasun mentalean. Eta uste dut guk, emakumeok, lesbianak izan ala ez izan, eremu horiexetan sentitzen dugula segurtasunik handiena.”*

San Inazio-Bilboko modulu psikosozialeko psikologoarekin eduki genuen elkarrizketan, moduluak 70. eta 80. hamarkadetan sortu zirela esan zigun; oraindik emakumeentzako artapenik ez zenean, ez eta familia plangintzarako ez generoko biolentziaren emakume biktimen babeserako ere. Emakumeen inizatibaz sortu ziren, auzo mugimenduetan, instituzio publikoekin elkarlanean baina autogestioz. Araban eta Gipuzkoan ez dago antzeko ekimenik.

²⁴ Fanjul, Gonzalo. El País, 2012: <http://blogs.elpais.com/3500-millones/2012/04/los-riesgos-de-negar-la-sanidad-al-inmigrante-irregular.html>.

²⁵ <http://www.medicosdelmundo.org/derechoacurar/manifiesto/>

²⁶ <http://www.elmundo.es/salud/2014/01/29/52e90265ca4741bf208b4577.html>

San Inazioko psikologoak gaineratu du artapenean egon den ekarpen handienetakoa “eskaintzen dituzten zerbitzuek generoko ikuspuntu oso batetik ekitea” izan dela, eta “berdintasunerako oinarritzkoak diren kontuak normalizatzeko egindako lana” nabarmendu du: “adibidez, emakumeek euren gorputza kontrolatzea, harreman ereduaren gainean erabakitzea, emakumeen kontrako indarkeriarenganako intolerantziaren eta bereizkeriaren ikusgarritasunean ekitea... Zentro hauek izugarri lagundu dute antisorgailuen erabileran, aborturako eskubidean, baita tratatu txarrak daudenean babes legal eta soziala ematean ere. Eta berdintasunean.”

Honako gogoeta egin du, ikerketan parte hartu duten emakumeek moduluek eskaintzen dituzten zerbitzuak gailendu dituztela ikusita: *“Filosofia eta balio zehatzak dituen zerbitzua eskaintzen dugulako balioesten dute. Hona datorren pertsonari egokitzen zaion kontsulta hurbila da hau, eta ez alderantziz. Aurreiritzirik gabe, pertsonak epaitu gabeko hurbiltasuna gertatzen da, begirune eta malgutasun handia dago trataeran. Jendea ondo tratatzea ahalbidetzen digun artapen kopurua mantentzen saiatzen gara, jendea agurtzea eta begietara begiratzea asko eskertzen da.”*

Aipatzekoa da aitzindariak izan eta oraingo une zailetan ere bizirik iraun izana; izan ere, aldaketa sozialei egokitzen jakin dute, eta eskariarenganako sentsibiltatea eta hurbiltasuna erakutsi dituzte.

Moduluek auzoen eta instituzioen aitorpena dute, eta, 2012an, EMAKUNDEren Saria jaso zuten, berdintasunaren eta emakumeen alde egindako ibilbideagatik.

GURUTZETAKO OSPITALEKO GENERO UNITATEKO ARTAPENA

Transexualitate mediku normatiboa

Espanian 1983an despenalizatu ziren pertsona transexualentzako genitalen kirurgiak. Hasieran, klinika pribatuetan baino ez ziren egiten, eta horrek ez zuen mediku praxi egokia bermatzen. Gainera, kostu ekonomiko altuak oztopoak jartzen zizkien kirurgia hori egin nahi zuten pertsona transexualei.

Erregistroan pertsonen sexuaren aipamena zuzentzea arautu zuen martxoaren 15eko 3/2007 Legea onartu arte, pertsona transexualek ezin zezaketen NANean izena alda genitalen kirurgiarik egin gabe. Kontu horrek, ebakuntzaren kostu ekonomiko handiek eta hainbat faktore sozialek zaurgarritasun, diskriminazio eta indarkeria egoeran uzten zituzten pertsona transexualak; bai eskolan, bai lantokian, bai hainbat eremutan.

1999an Malagan sortu zen genero identitateko lehen Unitatea; ondoren, Bartzelonan, Madrilan, Asturiasen eta Tenerifen egin zituzten. Unitate horietan, psikiatrian, psikologian,

endokrinologian eta kirurgian adituak koordinatzen dira, pertsona transexualek jarraitu beharreko tratamenduen zeharkako jarraipena egiteko. Bertan, genero identitatearen nahasmendua diagnostikatzen da, hormonak agintzen dira eta ebakuntza kopuru zehatza egiten da urtean.

Generoa berregokitzeko prozesua osasun publikoak egin zezan urte luzez Euskal Herriko LGTB kolektiboak egindako aldarrikapenen ostean, 2009an estreinatu zuen Gurutzetako ospitaleak Genero Identitateko Unitatea. Euskal Herriko pertsona transexualen erreferentziazko zerbitzu bihurtu zen. Laguntzarako eremu hori diziplina anitzeko talde batek osatzen du, eta bertan psikiatra bat, psikologo bat, endokrino bat eta zirujau plastiko bat daude.

Gurutzetako Genero Unitatean, generoa berregokitzeko tratamenduen prozesuan sartzen dira pertsona transexualak. Lehenik, diagnostiko psikiatrikoa egiten zaie; jarraian, orokorrean bizitza osoa irauten duen hormonazioari ekiten diote eta, azkenik, genitalen kirurgia burutzen zaie. Tratamendu hirukoitza deitzen zaio prozesu osoari (Missé, 2005).

Zaloak eta Kattalinek generoa berregokitzeko tratamenduak eginda dauzkate; Malagan lehenengoak eta Bizkaian bigarrenak. Bestalde, Itxaso eta Naia prozesuaren une ezberdinetan daude orain. Gurutzetako genero identitateko Unitatean bizi izandako esperientzia subjektiboen berri eman digute.

Guztiek adierazi dute Gurutzetako Unitateak ekarri dien bizi kalitatearen hobekuntza. Kattalinek honelaxe adierazi du: *“Jaiotzetiko gorputzak zituen akatsak bideratzeko balio izan dit Unitateak, eta ez dut guztiz gaizki ikusten.”* Itxasorentzat, Unitatea: *“Nire zorientasunerako egin beharreko tramite hutsa. Alde txarra kritikatu izan badiot ere, aldaketa hau ahalbidetu didan osasun publikoa daukagu.”*

Transexualitatea buru nahasmendutzat hartzen dute

Psikiatriako Elkarte Amerikarrak (APA) 2013ko maiatzaren 22an argitaratu zuen Buru Nahasmenduen Estatistika Gidaliburua V (DSM-V)²⁷. DSM-Vk ezarritako arauetan oinarrituta, pertsona transexualek generoaren disforia diagnostikoa jasoko dute “egokitutako generoaren eta adierazitako generoaren esperientziaren arteko inkongruentzia markatua” erakusteko. 2013ko berrikuspenean, genero identitatearen nahasmendua desagertu egin da; pertsona transexualen estigma eta transexualitatearen despatologizazioa txikiagotzeko urrats garrantzitsua izaki.

Hala eta guztiz ere, Gaixotasunen Sailkapen Internazionalak (GSIk), Munduko Osasun Erakundeak argitaratutakoak, transexualitatea genero identitatearen nahasmendutzat jotzen jarraitzen du. Dena dela, homosexualitatearekin gertatu bezala, APAren erabakia kontuan hartzea eta genero identitatearen nahasmendua bere sailkapenetik kentzea espero dugu.

²⁷ <http://www.canalsolidario.org/noticia/por-fin-nuevo-paso-para-la-despatologizacion-de-la-transexualidad/32401>

Bien bitartean, gure gizarteko psikiatria eta mediku klasearen gehiengoarentzat, GSiren arabera jarduten baitu, transexualitateak buru nahasmendua izaten jarraituko du.

1979an Harry Benjamin International Gender Dysphoria Association-ek (egun, World Professional Association of Transgender Health denak) generoa berregokitzekeo tratamenduetarako protokolo ofiziala ezarri du, Standards of Care for Gender Identity Disorders deitutakoa (SOC)²⁸. Gurutzetako ospitalean erabilitako protokolo horrek generoa berregokitzekeo tratamenduak nolakoa izan behar duen zehazten du. Gaur, SOCen azken bertsioak jarraipen aldi bat zehazten du, medikuak, gainontzeko buru nahasmenduak baztertu ondoren, genero identitatearen nahasmendua dela ziurta dezan.

Azterketa psikiatrikoa: “Epaitu nazaten ez dut osasungintzara joko, epaitegira baizik”

Transexualitatea buru nahasmenduen artean sailkatzeak pertsona transexualek azterketa psikiatrikoa egin behar izatea dakar, tratamendu hormonal edota kirurgikoa egin dezaten.

“Pertsona hauek artatzea ebakuntza egitea baino askoz gehiago da” esan du Susana Ponce de León psikiatrak. Areago, kirurgia azken urratsa da. Lehenengoa, buru patologia dela baztertzeko egin beharreko diagnostiko psikiatrikoa da. “Transexualitatearen jatorri biologikoa defendatzen dut, baina horrek ez du galarazten, diagnostikoan ziurtasuna egon dadin, azterketa psikiatrikoa egitea. Sentitzen duen generoarekin bat datorren jarrera hainbat urtez izan duen pertsona heldu bat etortzen denean, ez da zalantzarik egoten.”²⁹

Gurutzetako Unitatean artatzen diren pertsonentzat, azterketa psikiatrikoa izaten da lehen urratsa. Azterketa bera ez dute hain zalantzan jartzen ikerketan parte hartu duten emakumeek, egiteko modua baizik. Kattalinek horri buruz esandakoa: *“Lehenengo, azterketa psikiatrikoa dago. Psikiatriak zehaztuko du gainontzeko tratamenduetarako sarbidea izango duzun ala ez. Ez da oso zuzena, baina horrela da”,* eta Zaloak hau azaldu du: *“Buru gaixotasuntzat jotzen duten ala ez gorabehera, asko sartzen dira zure bizitza pribatuan, gainontzeko jendearena bezain normala dela ikusteko”.*

Itxaso psikiatriatik hormonazio prozesura igaro da, eta honelaxe kontatu du: *“Oraintxe bertan, ondo nago. Hasieran kostatu egin zitzaidan, ez zitzaidalako psikiatriaren kontu hori gustatu. Askotan, gaixotasuntzat hartzen zuten eta janzkerari buruzko iritziak soberan zeuden. Epaitzen ari nindutela zirudien, eta beti pentsatu izan dut epaitu nazaten, ez dudala osasungintzara joko, epaitegira baizik, eta epaileak esan dezala, ‘zu bai, zu ez’. Hori izan da askotan nire pertzepzioa.”*

Bere egoera pertsonala dela eta, Naia da genero Unitatearekin okerren dagoena: *“Niri aurretiko urrats bat ezarri zidaten. Nuen antsietatea zela eta, egonkortasuna bilatu nahi zuten,*

²⁸ http://www.ascane.org/docs/15_Miguel_Misse2version.doc

²⁹ <http://www.elcorreo.com/vizcaya/v/20110213/pvasco-espana/nadie-opera-capricho-advierten-20110213.html>

eta egin zuten bakarra antidepresiboz jostea izan zen, hilabeteetan eta hilabeteetan. Orain, [pilulak] hartzen ari naizela esaten dut soilik. Sartu nintzen lehen egunetik, jende gazteagoarekin lan egitea gustatuko litzaiekeela pentsatzen nuen.”

Horiexek dira, azterketa psikiatrikoei dagokienez, debateetan eta elkarriketetan parte hartu duten emakumeen sentipen subjektiboak. Euren narrazioetatik ondoriozta daiteke buruko gaixoak balira bezala tratatzen dituztela sentitzen dutela, eta psikiatria epailatzat jotzen dutela; euren bizitzak eta egoerak kontrolatzen dituen iruditzat, eta erabakimen botere handia duena. Gainera, Naiak atsekabea sentitzen du, baina Gurutzetako ospitaleak ez du ikusten. Horrek azterketa psikiatrikoari egokitzea zailtzen dio.

Zein izan beharko litzateke azterketa psikiatrikoaren betekizuna?

Debate interesgarria ari da sortzen azterketa psikiatrikoak genero Unitateetan eduki beharko lukeen funtzioari buruz. Miquel Missé-ren (Missé, 2013) ideiak harturik, eta osasun mentaleko langileen rolari begiratuta, “benetako transexuala” diagnostikatzeko funtzioa baztertu beharko litzatekeela uste dugu. Hau da, ondorengo ezaugarriak nork dauzkan identifikatu beharra baztertu: umetatik, beste generoan bizitzeko gogoaren adierazpena, genitalitatea eta sexu harremanak arbuizatzea, sentitzen duen generoarekiko egokia den kanpo itxura edukitzea eta abar.

Gai horri begira, Missék gogorarazi digu mediku begiradak transexualitatearen gainean duen ondorio nagusia: “Transexuala izateko modu zuzen, onargarri eta legítimoaren eraikuntza; euren burua trans identifikatuta ere, aldeko diagnostikorik jasoko ez luketen pertsona asko kanpoan uzten dituen.”

Neuropsikiatriko Elkarte Espainiarreko (AEN) Giza Eskubideen alorreko Transexualitateari buruzko lan-taldearekin ados, “Osasun mentaleko langileen (psikiatren edo psikologo klinikoen) funtzioa patologia psikiatrikoak baztertzeko ebaluazioa egitea izan litekeela uste dugu. Horrela, tratamendu hormonal edota kirurgikoa eskatzen dutenen erabakitze ahalmenean eragina eduki lezaketen patologiak sahistuko lirateke”³⁰, zaintzarako ardura behar duten mediku prozeduretan egiten den bezala.

Estatu Espainiarreko Genero Identitateko zenbait Unitatetan egindako lanek erakutsi dute Unitateak kontsultatu dituztenek ez dutela biztanleek oro har baino oinarrizko nahasmendu psikiatriko gehiago edukitzen (Fernández, 2010). Areago, oso transexual gutxi jaso ohi dute buru nahasmendu diagnostikoa. Kontu horrek transexualitateari buruz eta transexualitateak buru nahasmenduarekin duen loturari buruz pentsatzera eramane beharko gintuzke.

³⁰ Osasun sistema nazionalen transexualitatea artatzeko protokoloari ekarpenak: [http://ascane.org/docs/ProtocoloAtencion Transexualidad Grupo de trabajoAEN.docx](http://ascane.org/docs/ProtocoloAtencion%20Transexualidad%20Grupo%20de%20trabajoAEN.docx)

Gainera, pertsona transexual batek patologia psikiatrikoa edukitzeak ez luke transexualitatea bera edota tratamendua baliogabetu beharko³¹. Kasu batzuetan salbu; adibidez, Osasun Sistema Nazionaleko transexualitatearen artapenerako protokoloan jasota dagoen bezala, “sintomatologia psikiatrikoa identitate delirioek laguntzen baldin badute”.

Osasun mentaleko langile profesionalek identitatearekin zalanza adierazten dutenen desio eta konbikzio pertsonal intimoa argitzen lagundu dezaketela uste dugu; izan ere, oso garrantzitsua da kontuan izatea generoa berregokitzeko prozesuan ager daitezkeen gatazkei aurre egiteak eragin dezakeen sufrimendua, laguntza behar izango dutelako.

Bizitza Errealaren froga diagnostiko elementuen artean

Ponce de Leónek arestian aipatutako hitzak berrartu ditugu: “Sentitzen duen generoarekin bat datorren jarrera hainbat urtez izan duen pertsona heldu bat etortzen denean, ez da zalantzarik egoten.”

Zer da sentitzen duen generoarekin bat datorren jarrera edukitzea? Horixe da Bizitza Errealaren froga erantzuten saiatzen dena (Gurutzetako Genero Unitatean froga hori egiten dute). Ikerketa honetan parte hartu duten emakumeek oso zalanztan jarri dute alderdi hori.

Benetan transexuala zarela dioen diagnostikoa lortzeko, bizitzaren kontakizun oso zehatza aurkeztu behar da, non sentitzen den generoarekin bat datorren moduan bizi zarela frogatu behar den. Horixe da Bizitza Errealaren froga, eta diagnostikoa egiten ari direnek benetan esan dutzun generoan bizi zaren ala ez egiaztatu arte irauten du.

Naiak honakoa dio Bizitza Errealaren bere frogari buruz: *“Izugarrizko obsesioa zuten ez nuelako nire itxura aldatzen!”*. Kattalinek femeninoago jantzi behar zuelako ideia hauteman zuen: *“Ez dizute argi esaten, baina zuri begira baleude bezala da.”* Itxasok bi psikiatren eskakizunen arteko ezberdintasuna ikusi zuen: *“Ordezkoak ‘prozesuarekin bat datorren arropa daramazu, femeninoago ikusten zaizulako’, baina besteak ‘ez, hau jantzi behar duzu’, erabateko aldaketa eskatzen zidan.”*

Parte hartu duten emakumeek kanpo itxura femeninoa edukitzera behartuta ikusi dute euren burua. Horretarako, aurpegia margotu behar izan dute, garbiki femeninoak diren arropak jantzi behar izan dituzte eta ile luzea utzi behar izan dute. ALDARTEn askotan ikusi ditugu, kanpo itxura femeninoari dagokionez, Gurutzetako Unitateko eskakizunek sorrarazitako antsietatea eta larritasuna. Askotan adierazi digute “ez dit sinesten” edo “horrela joaten banaiz, ez dit sinetsiko”.

³¹ Ikus Carlosen istorioa, ezkizofrenia diagnostikatu zioten gizon transexuala: www.aldarte.org

Itxasok neska janztera behartuta ikusi zuen bere burua, oso argi izan arren oso gorputz maskulinoa zuela: *“Mutila izan eta emakume sentitzean, nesken arropa eraman behar dut. Arropa hori gustatzen zaion lehenengoa naiz, jantzi egiten dut baina zuk ezartzen didazulako, eta aldaketa honen eginbeharra onartu behar dudalako, dudak gorputza dudala jakitun izanda.”*

Naiak ez zion itxura aldatzeari uko egin apeta hutsez, baizik eta bere familiarekin bizi zenez, diskrezioz zeramalako bere errealtate transexuala. Ezin zezakeen errealtate hori aldarrikatu ondorio ezkorrik eduki gabe. Ulertzekoa da Naiaren hitzek erakusten duten haserrea: *“Nirea gezurrezko kasutzat hartzeko zorian egon ziren, ez nuelako nire itxura aldatzen. Benetan nahi dutena hori da, zu mozerro osoarekin egotea, ez zaizkielako batere axola ez pentsatzen duzuna ez eta dituzun arazo pertsonal eta sozialak. Batez ere, mundu guztiari kontatzeko eskatzen zidaten, familiari, lagunei eta lankideei. Eraitza: etxetik bota ninduten, hilabete baino gehiago da familiarekin hitz egin ez dudala, ez nautela ikusi ere egin nahi. Eta Unitatean esan didate oso ondo ikusten nautela nire itxura asko aldatu dudalako. Etxetik alde egin nuen momentuan, margotu egiten nintzen; eta alde egin eta hilabetera, lehen irteerak egin nituen. Psikiatrak esan zidan ‘ongi da, orain sinesten dizut’.”*

Kattalinek, femeninoago jantzi beharrari dagokionez, alderdi eztabaidatu bat atera du: *“Nire ustez, oso tristea da Unitatetik igarotzen diren neska asko horrenbeste janztea, horrenbeste prestatzea, horrenbeste margotzea, atzean aurpegi beltza dutenean (bizarragatik). Arreta ekartzen dute, ez besterik. Eta gizartea nola dagoen ikusita, nondik zoazen arabera, arriskatu egiten zara.”*

Aurpegiko ilea ezabatzeko laser tratamenduak bi urte arte iraun dezake. Denbora askoan, emakume transexualek euren aurpegia feminizatzeke duten modu bakarra bizarra makillajearekin disimulatzea da; Kattalinen ustez, erasoan jomuga bihurtzeko kontua.

“Ez naizela Paris Hilton!”

Itxasok, bere aldetik, oso debate bitxia izan du psikiararekin bere dirua inbertitzeko moduz. Itxasok uste du armairua aldatzeko emakumezkoen arropa erostea oso garestia dela eta mundu guztiak ezin duela hori egin: *“Uste dut Bilbao Basketeko bazkidea nintzela aipatu niola eta ehun eta berrogeita bost euro ordaintzen nituela. Orduan, galdetu zidan ‘zer da garrantzitsuagoa, arropa erostea ala Bilbao Basket?’, eta nire arrazonamendua hauxe izan zen, ‘bai, hau oso garrantzitsua da, baina partidura joan eta nire arazoetatik ihes egitea ere oso garrantzitsua da, egunerokotasunean laguntzen didalako. Gastu honek ere izorratzen nau, ez naizela Paris Hilton! Beraz, pixkanaka-pixkanaka noa. Kontu hau aldatzen ari naiz, udaro eta udaberriro arropa erostea gustatzen zait, ahal dudalako, baina ezin duen jendea egongo da.”*

Testuinguru psikiatriko horretan, beste egoera batean egingo ez lituzkeen galderak egiten dizkio bere buruari Itxasok.

Gizonezkoen arropari uko egitea pentsatzen ari da, arropa horiek emakumea izateko egokiak ez direla esan ziotelako: *“Kontzertuetara joaten naizen guztietan, taldearen kamiseta bat erosten dut, mutilen arropa da eta gustatu egiten zaizkit. Beraz, ez dezatela esan, emakumea izan nahi badut, ezin ditzakedala erabil. Gainera, arropa batzuk nire bizitzako oroigarriak dira eta horiek edukitzen jarraitu nahi dut.”*

Psikiatriako pazienteak berak esan du generoa berregokitzeko prozesua ez dela berriz jaiotzea, eta generoa berregokitu aurreko oroitzapenak eta aurretiko bizitza ez direla zertan ahaztu.

Feminitatearen kanon zehatzak bete beharra: “Ondo da, orain sinesten dizut”

Parte hartu duten emakumeak kanpo itxura femeninoa edukitzera behartzeaz gain, itxura horrek emakume estereotipatu, lerraturiko eta heterosexista batekin erlazionatuta egon behar du. Emakumeen askapenaren diskurtsoa, maskulinitate berriena, berdintasunarena edota erreferente baikorren garrantziarena desagertu egiten da trans pertsonen tratamenduetan (Missé, 2013). Eskola publiko bateko irakasle batek ikasle [neska] bati emakumeak bezala janzteko eta makillatzeko esango balio, eskandalu izugarria sortuko litzateke.

Itxasok berak gogoeta interesgarriak egin ditu emakume izatea zerk sentiarazten dion adieraztean: *“Mutilen prakak janzten baditut, ez diot emakume sentitzeari uzten, emakume izaten jarraitzen dut, beraz, bigarren mailako gaia da, nire ustez, arroparena. Edo makillajearena, zergatik makillatu behar dute emakumeek? Gustu kontua da; emakumeak daude, transexualak ez direnak, mutilen arropa janzten dutenak eta alderantziz. Nahiko ergela iruditzen zait eskaria, eta sozialki modaz kanpo beharko lukeen estereotipoa da hori.”*

Emakume asko daude, Euskal Herrian batez ere, “mutilak bezala” janzten direnak, makillatzen ez direnak eta ile laburra daramatenak, eta ez zaie hain zalantzan jartzen euren genero identitatea; ez emakume transexualei bezainbat, behintzat. Itxasori, Naiari, Kattalini eta Zaloari “egunetik egunera irrealagoa den” (Missé, 2013) genero araztasuna eskatu zaie.

Urteak dira, generoa berregokitzeko tratamenduetan errepikatzen diren estereotipoak kritikatzeko direla. Urteak, pertsona askok eztabaidagai dugula psikiatria genero tradizionalaren gendarme bihurtu izana.

Gure iritziz, ez arropak ez kanpo itxurak ez lukete generoa identifikatu beharko; batez ere, genero femeninoan egotea eta izatea zer den zehazteko uste estereotipatuak erabiltzen badira. Eta horiek generoa identifikatzen baldin badute, irizpideek zabalagoak eta malguagoak izan beharko lukete, emakumeen eta horien errealitate anitzei egokitutakoak. Osasun sistema nazionalaren “Transexualitatearekiko artapen protokoloari ekarpenak” txostenaren arabera, “gaurko protokolo klinikoak praktika klinikoan ageri diren adierazpen eta genero identitate aniztasunarekin bat ez datorren sistema binario hegemonikoan daude oinarrituta.”

Onespen erabilgarria: “Hormonak ordain diezazkidaten...”

“Género binario y experiencia de las personas transexuales y transgénero” [Genero binarioa eta pertsona transexualen eta transgeneroen esperientzia] artikularen arabera, onespen erabilgarria honela deskribatzen da: pertsonak osasun langileengana hurbiltzeko modua; mediku prozesua hasteko behar duten buru nahasmenaren diagnostikoa lortzeko itxaropenarekin, kontsultara joatea eta haiekin elkarlanean aritzea onartzen dutenean.

Naiak argi deskribatu du onespen erabilgarria: *“Ez neukan neska janzteko batere gogorik, prest egon gabe; baina, azkenean, prozesua ahalik eta gehien azkartzeko egin nuen. Azkenean, gaizki pasatu dut, ez zegoelako zirkua egin eta ahoa irekita lehoi-hezleak burua barrura sartzeko modurik. Nik, hormonak ordain diezazkidaten... Ez ditut ikusi ere egin nahi, txostena eman diezadatela, eta alde egiten utz.”*

Naiak oso modu gordinean adierazi du ALDARTEn hainbeste aldiz entzun duguna. Transexualitate diagnostikoa nahi dute, benetan nahi duten hori lortu ahal izateko: kontrolatutako hormonazioa eta genitalen ebakuntzak, alegia. Gurutzetako Genero Unitatea, Estatu Espainiarreko gainerako Unitateak bezala, ibilbide hirukoitz bakarraren arabera dago egituratuta. Psikiatriatik hormonaziora igarotzen da, eta hormonaziotik kirurgiara. Ikerketa honetan parte hartu duten emakumeentzat bazterrean uzteko modukoa da azterketa psikiatrikoa, baina derrigorrez bete beharrekoa, besteetarako sarbidearen giltza baita.

Naia, Itxaso, Kattalin eta Zaloa endokrinoarengana edota kirurgiara igarotzean hasi dira Unitatean egiten ari diren generoa berregokitzeko prozesuari zentzua hartzen; tratamenduekin gusturago sentitzen hasi direnean. Ez direlako Genero Unitatera haiek direna entzutera joan, hori badakitelako jada; jaso beharreko osasun zerbitzua erabiltzera baizik.

Bada diagnostikoaren bitartez lor daitekeen beste konturik ere: erregistroan izena aldatzea; onespen erabilgarriari gaineratzen zaion kontua hori ere. Bloke juridikoan landuko dugu puntu hori.

Lesbiana izan eta Genero Unitatean esatea

Ezberdinak izan dira esperientziak, parte hartu duten emakumeek Gurutzetako Genero Unitatean euren lesbianismoa adierazi dutenean. Kattalinek, Zaloak eta Itxasok euren lesbianismoa agerrarazi zuten, Naiak ez du oraindik bere lesbianismoa aipatu. Euren psikiatren erantzunak denetarikoak izan dira.

Zaloak hau esan du: *“Genero Unitate askotan, erabateko ikusezintasuna dago. Nik egin nuenean, ez zegoen Gurutzetako Unitatea, eta Malagako Unitatetik igaro nintzen. Malagako*

Unitatera, Iruñeakora, Madrilekora eta Gurutzetakora bidali izan dut jendea. Transexualak eta lesbianak direla esatean, argi ez dutela eta ondo pentsatzeko esan dieten kasuak ikusi ditut.”

Itxasok, lesbiana zela esan zuenean, ez zuen kontrako inolako erantzunik jaso bere psikiatraren partetik: *“Lehenengo kontsultan esan nion psikiatrari emakumeak gustatzen zaizkidala, ez nuen inolako aldaketarik igarri bere trataeran. Orientazioak ez zuela transexualitatearekin inolako zerikusirik esan zidan, gauza bakoitza ezberdina dela. Normalean, emakume transexualak heterosexualak izaten direla ere komentatu zuen.”* Itxasok, gainera, bere susmoak azaldu dizkigu: *“Kontsultako lehenengo egunean esan zidan zalantzarik gabe transexuala nintzela, beraz, zergatik eduki ninduen urtebetez kontsultan? Lesbiana nintzela esan niolako izan zelako susmoa daukat.”*

Kattalinen esperientzia bestelakoa izan zen: *“Femeninoagoa al naiz minigona janzten badut, aurpegia margotzen badut edota takoiak janzten baditut? Ba, nirekin ez duzu asmatu, eta, gainera, gehiago izorratzeko, lesbiana naiz. Jarrera aldatu zuen eta medikuarekin eduki nuen hurrengo bisitan, ez zen hasi hau egin behar duzu, bestea egin behar duzu esanez.”* Badirudi Kattalini kanpo itxura femeninoagoa izateko eskaera murriztu ziotela, bere lesbianismoa aipatu zuenean.

Modu berezian argitu nahi dugu Itxasoren psikiatrak aukera sexualaren eta genero identitatearen artean anbiguotasunik gabe egin duen bereizketa. Gauza bera ez direla pentsatuta ere, bien artean erlazio handia dagoela uste dugu. Gerard Coll-Planas-en (Coll-Planas, 2010) planteamenduarekin bat gatoz: *“Ados gaude generoaren eta sexualitatearen arteko bereizketa analitikoa egiteko beharrarekin, baina argi utzita bai homosexualitatea bai transexualitatea bi ardatz analitiko horien arteko giltzarri diren fenomenoak direla.”*

Uste dugu ezin daitekeela sexualitateaz hitz egin generoaz hitz egin gabe; baita praktika sozialaren bi eremu horiek oso erlazio intimo eta estuan eraikitzen direla ere. Itxaso, Kattalin, Zaloa eta Naia euren aukera sexualarekin batera ari dira euren generoa eraikitzen, eta hori alboratu ezin daitekeen zerbait da.

Lotura handia dago eraikitzen ditugun identitate sexualen eta genero identitateen artean. ALDARTEN, askotan ikusten dugu gay eta lesbiana askok euren generoaz zalantza egiten dutela euren burua homosexualtzat hautematean, edota pertsona transek euren genero kokapena aukera sexuala definitzean argitzen dutela. Lotura horiek generoa berregokitzeko prozesuan aztertu beharko lirateke.

Errealitatea da transexual heterosexualak, lesbianak eta gayak daudela. Areago, lesbiana asko ezagutu dugu emakume transexualen artean. Norma Mejía (Mejía, 2006) egitate horretaz aritu da bere liburuan, eta ondokoa dio: *“Gero eta agerikoagoa da pertsona transen orientazio sexualean aniztasun handia dagoela, eta bada pertsona transak, bisexualak edo homosexualak heterosexualak baino gehiago direla dioten ikerketarik ere.”*

Kontu eztabaidagarria: Gurutzetako Genero Unitatean alta ematea

Kattalinen sentazioa da Gurutzetako Genero Unitatean ez dagoela oso argi noiz eman behar duten behin betiko alta. Honakoa esan du horren inguruan: *“Behin ibilbidea amaituta, guztia amaitu eta bizitzara itzultzen zarenean, alta eman beharko lizukete, ezta? Edo bizitza osoa jarraituko duzu transexuala izaten? Ez dut neure burua transexualtzat jotzen, emakumetzat baizik; beti egin izan dut horrela”*. Kattalinek duela bi urte amaitu zuen generoa berregokitzeko prozesua, eta medikuen artean ibili da ordutik. Bere ustez, Gurutzetako Genero Unitatean, inork ez daki noiz amaitzen den prozesua, kontu hori ez dago ondo kudeatuta.

Inoiz ematen al zaie alta Gurutzetako Genero Unitateko erabiltzaileei? Sortu zaigun galdera da hori, batez ere, Kattalinek gogorarazi digunean bizitza osoan joan beharko duela endokrinoarengana; bere gogoa hormonak hartzen jarraitzea eta osasun kontrol egokia edukitzea izaki.

Kattalini Gurutzetako Genero Unitateko endokrinoaren bitartez eskaintzen zaio kontrol hori. Oso deseroso sentiarazten du kontu horrek, izan ere, frogak egitera Osakidetzako beste instantzia batera bidaltzen dutenean, froga egiteko arrazoia genero identitatearen nahasmena dela jartzen du bolantean.

Kattalinek berak honakoa azaldu du Gurutzetako Genero Unitatera bidali zuen eskutitzean: *“Hormonak hartzen ditugunoi, urtebetez luza daitekeen errutinazko jarraipena egiten digute; ohikoena, sei hiletik behineko analitika soila egitea izan arren. Analitikarako bolantean (odola eta gernua), oso argi jartzen du ‘genero identitatearen nahasmena’. Beraz, Osakidetzan agiria eskatzen dizun edonork jakin dezake transexual deitzen zaion talde horretakoa zarela.”*

Inolako zalantzarik gabe, kontu interesgarria ekarri digu Kattalinek: pertsona transexualak gizartera itzultzea, genero Unitateko tratamendu hirukoitza amaitu dutenean. Efektu legal eta sozial guztietarako, Kattalin emakumea da. Betiko hartu behar al dute Kattalin transexualtzat Gurutzetako Genero Unitatean, hormonazioaren kontrolarekin jarrai dezan? Ala gainerako emakumeek erabiltzen duten Osakidetzako endokrinologia zerbitzura bideratu beharko lukete? Zalantza dugu pertsona transexualak berdintasun irizpideetan itzul daitezkeen gizartera, genero Unitateko “paziente” izaten jarraitzen badute betiko.

Gurutzetako Genero Unitateko dezentralizazioa?

Osasun publiko orokorrean, Osakidetzan barne, pertsona transexualak artatzea pentsatzen hasi zirenean, erreferentziazko Unitateetan zentralizatutako sistemaren alde egin zuten, tratamendu horiek Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu orokorren zerrendan sartu beharrean.

Euskadin, batez ere Bizkaitik kanpo bizi diren pertsona transexualek jarri dute zalantzan tratamendu zentralizatu hori; izan ere, ez dute ulertzen zergatik egin behar dituzten joan-etorri garesti horiek eta, askotan, goizerako zein egun osorako lan-baimenak eskatu, psikiatriara joan edo terapia hormonalak jaso ahal izateko. Kattalinek planteamendu dezentralizatu batean hasi zuen tratamendua, eta honakoa gogoratu du: *“Mundu guztiak nahi zuen Unitate bat, zentralizatutakoa, baina, hein batean, hobe da antzinakoa; leku ezberdinetan, dagokion espezialitatean artatzea.”*

Baliteke Kattalin beharrezkoa den debatea abiarazten egotea. Pertsona transexualen artapenerako bestelako paradigmak azaltzen lagunduko lukeen debatea da hori, egun aplikatzen diren planteamendu mediku-patologizatzaileetatik urrun leudekenak.

ARLO EKONOMIKOKO BALIABIDEEN AZTERKETA

SARRERA

Lanean, osasunean, migrazioan eta etxeko zein zaintzazko lanetan krisiak eragindako kolpea emakumeen bizi kalitateari ari zaio eragiten, ikerketa honetan irakurtzeko aukera izan dugun hainbat azterketek frogatu bezala.

Gaurko krisiak ezinegonaren eragin du, azken urteotako berdintasun sozialerako lorpenetan atzera egin delako sentzazioa zabaltzen baita. Dezelerazioa justizia eta berdintasun sozialerako neurriak ezabatzeko edo mugatzeko arrazoitzat erabil liteke. Oro har, Arartekoaren 2013ko urteroko txostenak baieztatu bezala (Ararteko, 2014), Euskadin ez dira murrizketak ezarri gizarte zerbitzuetan. Hala ere, pertsonen bizi kalitateari berdintsu eragin dioten bestelako neurriak ezarri dira; adibidez, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko beharrezkoa den erroldaren gutxieneko denbora luzatu da.

Pertsonen gainetik merkatua jartzen duen sistema bidegabe eta desorekatua dugu parez pare. Emakumeen gehiengoak badaki hori, oraindik ere herrien ekonomian islatzen ez den lana egitea egokitu baitzaigu. Amaia P. Orozcoren hitzetan (Orozco, 2012), “kapitalismo heteropatriarkalak merkaturaren bitartezko autoaskitasuna du helburu nagusi. Autoaskitasun hori irudikeria eskuraezin eta kaltegarria da, dependentziak eta euren zaintzaren kargu egiten diren subjektuak ezkutatzean oinarritzen den ilusio hutsa.”

Ez dago emakume lesbianen egoera ekonomikoaren gaineko estatistikarik; ezta baliabide ekonomikoak nola erabiltzen dituzten diotenik ere. Ikerketa honetan parte hartu duten emakumeen kontakizunetatik abiatuta, gainontzeko biztanleen arazo berberak dituztela esan dezakegu, eta euren lesbianismoak ez diela lobby ekonomikoki boteretsua osatzea eragin.

Beraz, emakume horiek baliabide ekonomikoaren kudeaketarako administrazioekin dauzkaten harremanez hitz egingo dugu, eta positiboak bezain defizitarioak izan direla ikusiko dugu, bai eta euren lesbianismoak erlazio horretan eragin txikia izan duela ere.

Azkenik, sistema heteronormatiboak ekonomia baliabideetan, instituzioetan eta emakume lesbianengan duen eragina aztertuko dugu.

EKONOMIA BALIABIDEEN ERABILERA KRISI GARAIAN

Ofizialki aitortutako desgaitasuna duten emakumeek euren abantailak onartu dituzte

lkerketan parte hartu duten emakumeetako batzuek desgaitasuna dute, fisikoa zein psikikoa, eta izaera iraunkorreko diru-laguntzak jasotzen dituzte. Egoera horrek, krisi garaiotan ere, eskertzen duten ekonomi egonkortasuna ematen die. Kopuru ekonomiko finkoa edukitzeak lasaiago bizitzea ahalbidetzen diela jakitun dira, eta positiboki baloratzen dute hori. Candelak honakoa esan du horri buruz: *“Orain, ematen didaten diruarekin, nire seme-alabez goza dezaket, lanean bezainbeste irabazten dut, eta zoragarria da hori; gutxienez, lasaiago bizi naiz.”*

Pentsa dezakegunaren kontrara, pentsio egonkor hori disfrutatzea ez zen hartzeko prozesu erraza izan, “desgaitasun” estatus ofiziala aurretiaz onartzea ekarri zuen eta. Jonek dioen bezala, berau eskuratzeko egin beharreko azterketak burutu arren, *“atsekabe handia sentitu nuen eman zidatenean”*. Ameliak eta Candelak ere antzeko sentipenak izan zituzten, onartzeko zaila den errealitatea egiaztatu zutelako; hau da, ofizialki, aniztasun funtzionala duten emakumeak direla.

“Desgaitasun” estatus ofizial horrek mota guztietako baliabideak erabiltzeko abantaila ekonomino handiagoak eskaintzen dizkie emakume horiei, aitortutako desgaitasuna ez dutenei baino. Ameliak kontatu dizkigu “desgaitasun txartelak” hezkuntza zerbitzuen erabileran eskaintzen dizkion abantailak: *“Desgaitasunaren kontuarekin, ez dituzu tasak ordaindu behar, unibertsitateko matrikulak, masterrak... UNEDeko master bat ari naiz egiten eta tasa txikiagoa ordaindu nuen.”* Candelak ere hainbat zentrotan ikasi du eta honakoa esan digu: *“Ni ere UNEDen matrikulatu nintzen, eta matrikula-tasa ez nuen ordaindu behar izan, eta hizkuntza eskolan ere ez.”*

Aisialdia eta kultura bezalako gizarte zerbitzuetan ere, abantaila ekonomikoak dauzkate. Candelak honakoa esan du: *“Museo batean pixka bat gutxiago ordaintzen duzunean, zein gozo! Eta umeekin Senda Vivara joaten garenean ere, prezio berezia egiten didate.”*

Zure aulkiaz galde egingo dizut

Gizarte honetako pertsona askorentzat ezezaguna den merkatua sortu du desgaitasunak. Candelak badaki egunen batean gurpildun aulkia behar izango duela, eta interesa adierazi du oraintxe bertan erabiltzen ari denari informazioa eskatuz, Ameliari, alegia. Candelaren eta Ameliaren arteko elkarriketa errepikatuko dugu, desgaitasunarekin lotutako produktuen

kontsumoa nola gertatzen den erakutsi digulako. Candela: *“Zure aulkiaz galde egingo dizut, egunen batean behar badut ere. Modelo hori gustatu zait”*, Amelia: *“Bai, Bartzelonan lantegi bat dago baina ez dakit bere izena, esango dizut. Nik paraplejia daukat, baina gauza guztietarako modeloak daude, esklerosia, dena”*, Candela: *“Motorra dirudi! Zoragarria da!”*, Amelia: *“Nik diot, behorra lotuko dut, kar kar kar.”*

Behar ez dituenaren ikuspuntutik, bitxia da benetan gurpildun aulkien modeloen gaineko iritzirik trukatuta hori. Medikuek begiradak, begirada asexualak edota “elbarritu gaixoa” diotenak, desgaitasunen bat dutenenganako begirada ohiko horrek, alegia, eurentzat erakargarria den merkatua irudikatzea eragozten du.

Gainera, iradokitzailea da Ameliaren azken barrea, bere gurpildun aulkiari buruzkoa. Plateroren arabera (Platero, 2013), Ameliaren umorea ahalduentzerako eta agentziarako tresna da. Horrek gainerako pertsonen eguneroko ñabardurak ulertzen ez dituen gehiengo normalizatuarekin harremana edukitzea laguntzen dio; baita biktima estereotipatuaren edota baztertuaren irudikapenetatik kanpo kokatzen ere.

Candelaren, Ameliaren eta Joneren hitzak oso atseginak dira guretzat. Emakume hauek sexualki aktiboak dira, bikotekideak dituzte eta pozik daude euren bizitzarekin. Eta, garrantzitsuena, sozialki zaurgarria den kolektiboaren parte izateak eskaintzen dizkien abantaila ekonomikoak ahalduentze pertsonalari begirako tresna gisa erabiltzen dituzte, euren autonomia eta independentzia indartzeko erabiltzen dituztelako baliabide horiek. Ikasten duten emakumeak dira, bidaiatu egiten dutenak, kulturen eta elkarteetan aktiboki parte hartzen dutenak, eta jakitun dira desgaitasunen bat edukitzeagatik aitortutako diru-laguntzei esker dela hori guztia posible.

Jarrera horrek ahalduentze kolektiboari ere laguntzen dio, giza-baliabideen helburuaren adibide argia baita: pertsonen bizi kalitatea hobetzea; duintasunez eta harrotasunez bizitzea ahalbidetuz, eta bizikidetzaz zein parte-hartze sozialaz gozatzea lortuz. Candelaz, Ameliar eta Jonez ezin dezakegu esan pertsona bakartiak direnik edo gizartetik isolatuta daudenik.

Bizi dugun krisi egoeraren oso jakitun gara, eta egunetik egunera pertsonen bizitzan aukerak murrizten dituzten austeritate politikak abian direla. Batez ere, kolektibo zaurgarrienak. Candela, Amelia eta Jone ez dira, beharbada, desgaitasuna dutenen kolektiboaren adibiderik onenak; krisiak oso gogor jo duen kolektiboa baita. Pertsona horiek, oro har, diru-laguntza prekarioak jasotzen dituzte, jasotzen dituztenean, noski. Hein handi batean, karitateari edota familiaren zaintzari esker asetzen dituzte euren beharrianak.

Alabaina, errealitate horrek ezin digu Candelaren, Ameliaren eta Joneren errealitateak ahazten utzi. Izan ere, oso argi dute euren egoera pertsonalak direla-eta eskura dituzten baliabideak erabili egin behar direla; eskaririk ez badago, kentzeko arriskua dagoelako. Ameliak oso argi azaldu du: *“Bai, bai, erabili egin behar dira; bestela, eskaririk ez dagoela esan eta kentzeko gai dira.”* Krisiaren mamua beti hor.

Bekak eta independentzia ekonomikoa

Mónica eta Clara ikasle munduarekin erlazionatutako baliabide ekonomikoak erabiltzen dituzten emakume gazteak dira: bekak. Ikasten eta formatzen jarrai dezaten, beharrezkoak dituzte beka horiek. Gainera, familia gunetik independente bizitzeko ere erabiltzen dituzte. Beketarako sarbidea zaila egiten ari zaiela komentatu dute Mónicak eta Clarak. Mónicak beka jaso ahal izateko exijentziak eta zailtasunak salatu ditu: *“Ama ezkondu egin da eta irizpide ekonomikoetatik kanpo gaude. Dirua irabaztea eskatzen dizute, justifikatutako 7.500 euro urtean, beka eskuratu ahal izateko. Hortaz, lan prekario baten diru-sarrerek ere ez dizute balio, kontraturik gabeko zerbitzari, irakasle partikularra... dagoena da. Ea independizatu ahal izateko kontratua egiten didaten eta berriz ematen didaten!”*

Azken bi urteetan, Mónicak, Clarak eta unibertsitatean ikasten duten pertsona gazte guztiek egin behar izan diete aurre titulazioen prezioen igoerari (bataz beste ia %20)³². Beraz, pertsona horientzat, gero eta garestiagoa da ikastea. Prezioek gora egiten dute eta bekek behera³³, eta horrek ez du laguntzen. Euskadin, 2013ko ikasturtean, %1,7 jaitsi ziren bekak, 2012ko ikasturtearekin alderatzen baditugu. Unibertsitate espainiarretako portzentaje baxuenetakoa da hori.

Unibertsitatea garestitu izana eta prekarietate zein behin-behinekotasun handiko lan-merkatura sartzeko zailtasuna oztopo dira pertsona gazte askok ikasten jarrai dezaten. Areago, gero eta pertsona gazte gehiagok uzten dituzte unibertsitateko ikasketak.

Beraz, praktika kontratua dauka Mónicak ikasten jarraitu ahal izateko: *“Berez, ordaintzen ez duten praktika kontratua daukat, baina dirutxo bat ematen digute. Bi urte daramatzat horrela lanean, eta horri esker jarraitzen dut Bilbon.”*

Askotariko bitartekoak erabiltzen dituzte matrikulak ordaintzeko. Mónica klinika pribatu batera joan zen obuluak ematera, jasoko zuen dirua GKE (Gobernuz Kanpoko Erakunde) bati emateko asmoz. Obuluak emanda jasoko zuen zenbatekoa ikusi zuenean, hainbeste harritu zen, GKEari emateko zuena ikasketak ordaintzeko erabili zuen. Honelaxe azaldu du: *“Banekien ordaindu egiten zutela, baina 200 edo 300 euro zirela uste nuen, eta GKE bati ematea pentsatu nuen. Iritsi eta 1.200 euro zirela esan zidatenean, ba agian matrikula ordainduko dut, eta horrelaxe ordaindu nuen.”*

Ikasketa beka baten faltan, batere ortodoxoa ez den obulu donazioa bezalako baliabidea erabiltzen amaitu zuen Mónicak unibertsitateko matrikula ordaindu ahal izateko.

³² El País: *La crisis consolida la pérdida de alumnos en las aulas universitarias*, 2014ko otsailaren 13an.

³³ Ikus El país-eko grafikoa: *Becarios en el sistema educativo*, 2013ko abenduaren 16an.

BARNERATZE ETA BAZTERTZE SENTIMENDUA

Heteronormatibitatearen eragina

Candela, Amelia eta Jone etxebizitzarako sarbideaz aritu ziren, beraiek baitziren administrazioak desgaitasuna dutenentzako etxeak gordetzen dituela zekitenak. Jonek honakoa esan du: *“Etxebiden desgaitua nintzela esan nuen. Izena eman eta inoiz ez nuen berririk izan, ez didate inoiz ezertarako deitu.”*

Joneren hitzetatik ondoriozta dezakegu edo ez dagoela desgaitasuna dutenentzako etxerik gordeta, edo gutxi direla eta irizpide zehatz batzuen arabera kudeatzen direla. Candelak argitu egin digu: *“Nik ere ez nuen inolako berririk izan haurdunaldiaren gaiarekin kontua mugitu genuen arte, eta bikiak zetoze la ikusi arte. Berrogei metroko apartamentu batean bizi ginen eta bi umerekin zaila zen hain leku txikian eroso egotea. Orduan, mugitu egin ginen eta berehala konpondu zen guztia.”*

Kontakizun horretan, familia edukitzea baliabide horretarako sarbidean garrantzitsua dela ikus daiteke. Candelarentzat, desgaitasuna eta familia dituenek, Jonerentzat baino errazagoa izan da etxebizitza lortzea, desgaitasuna bai baina familiarik ez duelako.

Krisi egoeran, konplexua da dauden baliabide gutxi horietarako sarbidean lehentasuna nork duen eztabaidatzea; batez ere, kolektibo zaurgarriez eta bazterketa sozial eta ekonomikorako arriskuan daudenez ari bagara. Askotan, baldintza gehiago nork bete lehiatu beharraren sentsazioa izaten dute biztanleek. Joneren eta Candelaren kasuan, seme-alabak dituenak etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago dituela ematen du.

Gertaera horrek ea administrazioak babes ofizialeko etxebizitzak emateko irizpide heteronormatiboak (hobe seme-alabak edukitzea) ezarri al dituen galdetzera eramaten gaitu, Candelaren eta Joneren artean erabakitzeke uneen bezala, adibidez. Eta ea Jone irizpide horien arabera baztertu al duten.

Iñigo Pomboren, Euskal Gobernuko Giza Politiken Sailburuordearen ametsetakoa instituzioetatik urrun gaude oraindik (Pombo, 2013): *“Gero eta helduagoa den sistema, pertsonen arazoan aurrean erantzunak sortzeko gai dena.”* Gutxienez, zaurgarritasun eta bazterketa egoeran dauden pertsona guztiek euren arazoetarako erantzunak edukitzea ziurtatu beharko lukete administrazioek. Gure ustez, Jonek ere, desgaitasun estatusa duenez zaurgarria denak, etxebizitzarako sarbidea eduki beharko luke.

Bereizketa horrek bazterketa sentsazioa eragin du Jonerengan, eta egoera pertsonal batzuei beste batzuei baino lehentasun handiagoa ematen zaiela uste du; baliabideetarako sarbidea apetzakoa dela. Honela adierazi du: *“Lankide batek komentatu zidan pertsona “normalei” ere ematen ari zaizkiela alokairuak, ez desgaituei ez ezer, hiru urte daramatzat eta ezer ez!”*

Pertsona “normalak” eta “desgaitasuna” dutenak

Jonek pertsona “normalen” eta “desgaitasuna” dutenen artean egin duen bereizketak frogatu du erabiltzen dugun hizkera etengabeko kontzeptu hierarkikoz josita dagoela. Are zaurgarritzat hartutako kolektiboetako emakumeen artean eta euren diskriminazioaren jakitun direnen artean. Ezabatzeko zailak diren egiturak dira horiek, eta pertsonen burmuinetan daude iltzatuta.

Lesbianen artean ere oso barneratuta daude hierarkiak, bai sexuala bai funtzio aniztasunari dagokiona ere; hau da, ontzat ala txartzat, normaltzat ala ez-normaltzat jotzen dugunaren ezarpena. Heterosexualitatearen ustekizuna lesbianok, gayek, transek eta bestelako disidentzia sexualak ere erreproduzitzen dugu.

Beharrezkoa da hierarkien apurketan aurrera egitea, baita adierazteko moduetan ere; izan ere, erabiltzen dugun hizkera pentsatzen dugunaren isla da. Adierazgarria da Brot Bord-ek (Solá eta Urko, 2013) esandakoa: “Erabat heteronormatibizatutako munduan bizirauten dugu. Heteronormatibitate sexista eta matxista suntsitzeko bidea eraikitzeak, beharrezkoak ditugu elkarrekin egoteko guneak. Guztiz aske, benetako askatasunean sozializatzeko espazioak.”

Norberaren bitartekoetatik bizi eta “sisteman ez sartu”

Natik eta Ceciliak baliabide ekonomikoak erabiltzeko bestelako filosofia erakutsi digute, ikerketan parte hartu duten gainontzeko emakumeekin alderatuz gero. Oro har, ez dute ez ikasketa bekarik ez diru-laguntza ekonomikorik eskatu. Natik esan duen bezala, “bere kasa” ibili izan dira beti. Gaur dauden laguntzarik gabe aurrera egiten ikasi zuen belaunaldi batekoak dira.

Natiren eta Ceciliaren jarrerak helduaroan egotearekin baino ez al duen zerikusia galdetu diogu geure buruari, eta ea emakume lesbiana gisa bizitzeko moduak ere harremanik al duen horretan; hau da, ea lesbiana izateak euren baliabideak eraikitza eta beste pertsonen mende ez egotera ohitu al dituen.

Natik kreditua duela esan du, mundu guztiak bezalaxe duela, baina Ceciliak ez du horrelakorik eta honelaxe azaldu du: *“Ez dut inoiz krediturik eduki, hau da, ez dut erosten; beti egin izan dut aurrera eskatu beharrik izan gabe. Hitza bera ez zait gustatzen, beti iruditzen izan zait tranpa hutsa, azkenean, nahiago dut aurreztu”*. Badirudi kontsumo gizarteak eta horrek dakartzan jarrera kontsumistek ez dutela lekurik Ceciliaren bizitzan. Berak, pertsona nagusi askok bezalaxe, bere buruari ezartzen dizkio austeritate neurriak eta gastu murrizketak.

Berrogeita hamarreko hamarkadara iristen diren emakume askori gertatzen zaien bezala, 53 urterekin bota zuten Cecilia lanetik. Langabeziari zegozkion bi urteak igaro ondoren, diru-

laguntza bat eskatu zuen. Honakoa esan du horri buruz: *“Bueno, dagoeneko ez daukat langabezirik ere; langabezia amaitutakoan, dirulaguntza bat izan nuen urtebetez. Baina kalte-ordaina eman zidatenean, dirutxo bat eman zidaten eta inbertituta neukan, eta interesak ikustean, oharra iritsi zitzairen eta kendu egin zidaten eta dirulaguntza itzularazi. Oso gaizki hartu nuen, dirulaguntza jasotzeko buruz behera jarri nintzen eta; poltsikoak ere erakutsi nizkien, neukana ikus zezaten. Inbertituta neukan diruaz hitz egin nien, kalera botatzeagatik eman zidaten dirua zela esan nien eta inbertitzeko asmoa nuela, eta horrek zerikusirik ez zuela esan zidaten. Zergatik eman zidaten orduan dirulaguntza? Eskutitza jaso nuenean, lagun abokatu batekin erreklamazioa egiten saiatu nintzen eta ezer ez. Dirulaguntzaren dirua itzuli eta guztia ahaztu nuen.”*

Instituzioekiko eszeptizismoa eta babesgabetasuna islatu da Ceciliaren kontakizunean. Elkarrizketa taldean egindako parte hartzean, zenbait aldiz esan du “ez duela sisteman sartu nahi ez delako berataz fida”. Gainera, bere arazoa dela uste du, ez dakielako nola mugitu: *“Oso ondo mugitzen den jendea dago, baina ni ez naiz horietakoa. Neuk ateratzen dut nire bizimodua, moldatzen naiz eta hor konpon egiten diet baliabide publikoei, gehiago behar duen jendea egongo da eta. Horrela, bat gutxiago.”*

Cecilia bere lanetik modu independente eta autonomoan bizitzera ohitutako emakumea da, kalera bota zuten arte. 61 urterekin, gero eta pertsona gehiagok osatzen duten kolektibo baten parte da. Klase ertaineko pertsonak izaten dira, goiz kaleratzen dituztenak, eta pertsona nagusirik nahi ez duen lan-merkatura sartzeko aukera gutxi izaten dute; areago emakumeak badira. Bere baliabideekin bizitzera ohituta egonik, Ceciliak ez du lekurik dirulaguntza sistema honetan; izan ere, betetzen ez dituen baldintza sozial eta ekonomikoak edukitzera behartzen dute; beharbada, duintasunagatik eta harrotasunagatik bete nahi ez dituen baldintzak. Egun, dirulaguntza ekonomikoetarako sarbiderako baldintzak askoz ere zorrotzagoak dira: ezertxo ere ez edukitzea exijitzen dute eta kanpoan uzten dituzte bizitza osoa lanean eman, eta berriz ere lan egitea ezinezkoa den adinean kaleratzen dituztenak. Ez dituzte inoiz dirulaguntzak eskatu, eta eskatzen dituztenean, ezetz esaten zaie. Baliteke horixe izatea sistemarekiko duen eszeptizismoaren jatorria.

Ceciliak ez du inolako diru-laguntzarik jasotzen. Bere austeritatearen, aurrezkien eta “bizimodua ateratzearen” konbinazioak ahalbidetzen dio bizitzea. Bere egoerak, beste hainbatena bezala, laguntza ekonomikoen sistemaren azterketa eragin beharko lukeela pentsatu dugu, “gainbeheran” dagoen eta “sistematik alde egitea” erabaki duen klase ertaineko sektore horri egokitu ahal izateko.

Dibortzioa

Berta oso gazte ezkondu zen, eta emakumeek erakartzen zutela argi zuelako dibortziatu zen. Hauxe esan digu: *“Dibortzioa biontzat izan zen gogorra, denbora askoko zerbait apurtzen duzulako eta oso ondo moldatzen ginelako. Ezkontzea oso erraza da, baina banatzea oso gogorra da ekonomikoki; ez dakit zenbat euroko funts hornidura dela, ez dakit zer*

dokumentazio ekarri behar duzula, ez dakit zer eskatu, ondasunen banaketa egiteko jabetza tituluen kostua... Familiak ondo hartu zuen, baina bakoitza bere aldetik joanda nola moldatuko ginen kezkatzen ninduen, bizi ahal izateko dirua iritsiko al zitzaigun."

Ekonomikoki ere konplexuak izaten dira dibortzioak eta, oro har, banatzen diren bi aldeak txirotzen ditu; bizikidetza unitate izatetik bi izatera igarotzen baitira. Dibortziatean, Bertak lan ordaindua zuen eta, beraz, dibortzioa gauzatzea eta bere orientazioarekin bat zetorren bikotekidearekin bizitza sexual eta afektiboa hastea lortu zuen.

Bertaren kasua ez da beste emakume askorena bezalakoa; askotan, senarrarekin edo senar ohiarekin bizikidetza unitatean preso jarraitu behar izaten dutelako emakume askok, baliabide ekonomikoen gabezia dela eta (Mujika, 2007). EMAKUNDEko web orrian, generoko indarkeriaren esparruari buruzko txosten eta ikerketa asko dago. Bertan, tratu txar egoeran dauden emakume askok egoera hori independentzia ekonomikorik ez izateagatik luzatzen dutela ikus dezakegu. Emakume lesbiana askoren egoera ekonomikoa antzekoa da, nagusiak direnean batez ere. Horrek ere eguneroko gatazkak konpontzea zailtzen du.

Baliabide ekonomikoak edukitzeak bikote elkarbizitza errazten du

Berta, gaur egun, bikotekidearekin bizi da, eta, zenbaitetan, alabarekin. Horrek tentsioak eragiten ditu: *"Nire alabak hogeitaz urte zituela sartu da nire bikotekidea bere bizitzan, eta gertatzen dena da oso kritikoa dela gazteria honek dituen gauzekin, eta horrek eztabaida asko sortzen ditu. Nire alaba beste leku batera joan dadin bizitzera (bestela, bien artean zoratuko nautelako), oraindik ere banketxeari ordaintzen ari natzaion etxe bat daukat, baina nirea da, dibortziatean nire zatia erosi niolako senar ohiari, eta berfinantzatu egin behar izan nuen, hau da, bigarren aldiz ari naiz ordaintzen."*

Bertak bikotekidearen eta alabaren arteko tentsioak amaitzea nahi du, eta alaba independiza dadin egin dezakeen guztia ari da egiten. Askok kostatu zaio etxea mantentzea, baina egoera erraztu du etxe horrek, bere alaba bertan biziko dela erabaki duelako.

Ikus daitekeen bezala, argi ditu bere sentimenduak; horrela, lehentasuna eman dio bikote bizitzari eta alaba independizatzeko soluzioak bilatu ditu. Bere indar pertsonalaz gain, bikotekidearen eta alabaren arteko gatazken irtenbiderako gakoa daukala hartu behar da kontuan: eguneroko gatazkak kudeatzea erraztu duten baliabide ekonomikoak dauzka.

LAGUNTZAK JASOTZEN DITUZTENENGANAKO ESTIGMA SOZIALA

Diskriminazio positiboa

Bizitzako une batean, Zaloak giza-zerbitzuetara jo zuen laguntza ekonomikoa eskatzera, eta lehenbiziko aldiz egin zen diskriminazio positiboa erabiltzeko aukeraren jakitun. Honelaxe kontatu digu: *“Eskatu nionean, gustatu ez zitzaidan egoera sortu zen, duela urte batzuk eskatu nuelako, eta kupo bat zegoean eta kanpoan geratzen ziren eskaera asko. Eskatu nuenean, udazkena zen. Hurbileko jendeak trans nintzela esanez eskatzeko aholkatu zidan, horrela beste kasu batzuen aurretik egon nintekeelako; nire ustez, larriagoak izan zitezkeen kasuak. Diskriminazio positibo horrek gatazka gogorra eragin zidan, baina, une hartan, hilabete batzuez konpondu zidan bizitza. Baina noski, ez dakit nire egoera ekonomikoa larriagoa ez ote zen, aldi berean, lana aurkitzeko zailtasuna gainera zitekeelako.”*

Eskari oldearen aurrean, maiz entzuten dira, aurrekontua amaitzeagatik eta ezarritako kupotik gora ematen jarrai ezin izateagatik, jada ematen ez diren laguntza ekonomikoei buruzko berriak.

Zaloari kontzientzia arazoa ekarri dio baliabide ekonomikoa erabiltzeko diskriminazio positiboak, krisi garaian jende askok behar duen zerbait dela uste duelako. Kontraesan handia da berarentzat transexualitatea aipatzea, bere eskaria beste pertsonen eskarien aurretik artatu dezaten.

Beste alde batetik, objektiboki, berea egoera zaurgarriagoa izan daitekeela ere pentsatu du; izan ere, emakume transexuala izanda eta dokumentazioa zein fisikoa bezalako kontuekin, zailagoa zaio lana aurkitzea.

Pertsona Transexualak eta Transegeneroak Euskadin (Ararteko, 2009) txostenaren arabera, ez da zuzena transexualena, oro har, langabe dagoen kolektiboa dela pentsatzea, edota ezkutuko ekonomian aritzen dela. Gertatzen dena da, pertsona horien aldaketa fisikoaren prozesuaren arabera, zailagoa izaten dela lana lortzea edota berau mantentzea. Alderdi horrek bazterketa sozialerako arriskuan jartzen ditu pertsona horiek, izan ere, euren itxura ez maskulinoa ez femeninoa ez denean eskatu behar izaten dute lana, edota kanpo itxurarekin bat ez datorren dokumentazioa dutenean. Aldi horretan bereziki jasaten dute pertsona transek lan diskriminazioa:

Instituzio publikoen jardueran genero ikuspuntua sartzen dela bermatzeko, ekintza positiboaren ideia alboratu dute politika publikoek, mainstreaming-ean (administrazio publikoko maila guztietan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioaren zeharkakotasunerako sustapenean) oinarritutako estrategiak ezartzeko. Interesgarria iruditu zaigu Zaloaren kasua, gutxitan ikusten delako Lesbianen, Gayen, Transen eta Bisexualen kolektiboari bazterketa sozialerako arriskuan dagoen kolektibo zaurgarriaren irizpidea ezarri zaiola.

Ekintza positiboaren neurriak puri-purian zeudenean, ez zen eztabaidatu LGTB kolektiboak horien parte izan behar al zuen ala ez. Oraingoan ere, ez da hausnartu genero eta sexu aniztasuna, mainstreaming-ean oinarritutako estrategietan, generoko ikuspuntuarekin batera sartu beharko litzatekeen ala ez. Ea debate hori instituzioetan eta elkarteetan egin beharko litzatekeen galdetu diogu geure buruari.

Praktika txarra administrazioarekiko harremanetan

Kattalinek, garai hartan bizitzen ari zen egoera ekonomiko prekarioagatik zegozkion laguntzak eskatzera Lanbidera joan zenean, funtzionarioari ordenagailuan agertu zitzaizkion datuak okerrak zirela ikusi zuen. Honelaxe kontatu digu gertatutakoa: *“Lehen mutila nintzela agertu zen, nire benetako eta legezko nortasun agiria erakutsi nuen, baina “mutil” esaten zidaten, emakumea naizela esan nien eta ‘a, barkatu, barkatu’ esan zidaten, eta “mutil” esaten jarraitu zuten. Beste batean, duela gutxi, Ogasunean, gauza bera gertatu zitzaidan, eta han zegoenak “jauna” esaten zidan.”*

Kattalin, legez emakumea dena, modu ezegokian tratatu zuten instituzio publikoetan. Kattalinen kasuak administrazioaren funtzionamendu eskasa jarri du agerian, balizko egoera diskriminatzailean jarri baitzuen emakume transexual bat. Martxoaren 15eko 3/2007 Legea ezarriko balitz, pertsonen sexuaren aipamenaren zuzenketa arautzen duena, ez litzateke horrelako gertaerarik egon beharko.

Harrigarria da Kattalin artatu zuen funtzionarioaren erantzun trakets eta aurreiritziduna. Izan ere, aurrean zuen pertsonaren ageriko ezaugarriak ikusita, nahaste informatikoaz konturatu beharko zukeen. Lege berriak onartu ondoren, langile publikoei euren berri ematen zaie. Zergatik ez dute kasu horretan ere gauza bera egin?

Pentsatzekoa da horrelako egoerak ez zaizkiola Kattalini bakarrik gertatu, eta pertsona trans batek baino gehiagok bizi izan dituela antzekoak. Egoera horiek amaitzeko xedez, beharrezkoa eta presazkoa iruditzen zaigu administrazioko maila guztietako datuak berregokitzea.

Elkarrengandik urruntzen diren bestelako esperientziak

Alaznek laguntza ekonomikoa eskatu behar izan zuen garai batez, eta honelaxe azaldu du bere esperientzia: *“Laguntza bat eduki nuen eta auzoko gizarte-langilearengana joan behar izaten nuen. Auzoan pertsona migratzaile asko bizi da. Nire neskalagunarekin joaten nintzen, eta ez genuen inolako arazorik eduki. Uste dut bizi ginen auzo motak zerikusia izan zuela horretan, eta artatu gintuzten pertsonen arabera izan zela. Oso pozik zeuden gurekin paper guztiak eramaten genituelako, lehenengoan ulertzen genielako; poz-pozik zeuden hizkuntza ulertzen ez*

zietenekin alderatzen gintuztelako eta jenio txarreko jartzen zirelako horrekin. Ez zuten ondo hartzen.”

Filo lanik gabe zegoen elkarriketa taldeetan parte hartu zuenean, eta honela esan zigun: *“Esperientzia txarra daukat errentarekin. Neskalagunak jasotzen zuen, baina kendu egin ziguten, alaba ikustera hegoaldera jaitsi zenean, laguntza sartzen zioten libretako diruarekin ordaindu zuelako bide-saria. Izugarri harritu ninduen, eta zergatia jakin nahi izan genuenez, galdetu egin genuen. Laguntza hori familiaren oinarritzko gastuetarako dela esan ziguten. Agiri guztiak eskatu zizkiguten, jaiotza agiriak, guzti-guztia. Izugarria iruditzen zait, alaba ikustera jaitsi ezin izatea oso kontuzko arrazoia iruditzen zaidalako. Kalte egin digu. Oso konplexua da, izan ere, ezin da Euskaditik atera.”*

Administrazioak oso ezberdin tratatu ditu bi emakume horiek: batak oso ondo tratatu dutela sentitzen du, baina besteak ez du ulertzen zergatik ez dion administrazioak DBEko dirua (Diru-sarrerak Bermatzeko Errentakoa) 600 kilometrora bizi den alaba ikusteko erabiltzen uzten. Gainera, epaitegiak zehaztutako bisita erregimena dauka.

Baliteke hainbat arrazoik eragin izana Alaznek eta bikotekideak laguntza kudeatzean jasotako trataera jator hura: zuriak dira, autoktonoak, gazteak, ikasketak dauzkate, euren burua agerrarazten dute eta ondo aurkezten dituzte eskatutako paperak.

Filok eta bikotekideak jasotakoa, ordea, baliteke konfiantza eza eragiten duen estereotipo batek azaltzea: ahal dutenean, sistemari iruzur egiten dieten emakume migranteak dira. Beraz, eta estereotipoa oinarri hartuta, jasaten ari diren egoerarekiko trataera gogor eta bihozgabea ezarri zaie. Filoren bikotekideak ez dauka bere DBEko oinarritzko gastuak zein diren eztabaidatzeko aukerarik. Bere ustez, alaba ikustera joatea oinarritzkoa da bere familiarentzat; administrazioarentzat, berriz, ez. Eta errenta ukatu dio gaizki erabili izanagatik.

Badakigu ez dituela ez instituzio berberak ez eta pertsona berberak artatu Filo eta Alazne, eta egoera ezberdinak azaldu dituztela, baina ezberdintasun hori gorabehera, ikusgarritasun lesbikoak Alaznek jasotako trataera baldintzatu ez duela interesatzen zaigu. Kontrara, beste faktore batzuek, eskatutako agiri guztiak eraman izanak eta instituzioen mekanika ezagutzeak, adibidez, kudeaketaren emaitza ona erraztu diote. Are gehiago; ikusgarritasun lesbikoak, kasu horretan, bere alde jokatu duela uste dugu.

Era berean, Filok eta bikotekideak jasotako trataera ez du ikusgarritasun lesbikoak baldintzatu; baina ez dugu uste euren alde jokatu duenik ere. Halere, atentzioa eman digute, egin beharreko gastuak direla eta, Filoren bikotekideak jasotzen duen DBEri ezarritako irizpide zorrotzek.

Arartekoaren instituzioak, 2013an kexarako arrazoi nagusienetakoa bizikidetza unitateen gastuak kontrolatzearekin lotuta dagoela ikusi zuen, DBEren titularra izateko baldintzen eta horrek dakartzan betebeharren gainean Lanbidek egindako interpretazioari buruzko azterketan (Ararteko, 2014). Kexa horiek DBEren eteteekin are iraungitzeekin dute lotura; “diru-laguntza oinarritzko beharrianetara ez bideratzeagatik” gertatuko etete eta iraungitzeekin, alegia.

18/2008 Legearen 19.1 artikulua arabera, diru-laguntza legez esleitutako xederako erabili al den egiaztatzeko, Lanbidek edozein datu eska dezakeela dioen araua dago. Halere, Arartekoak honakoa aipatu du: “Araudian, berriro ere, DBEn lekua izan dezaketen kontzeptuen eta zenbatekoen mugarritatze gabezia dagoela ari gara ikusten”, eta Lanbideri gomendatu dio mugak definitu behar dituela gastu kuantitatiboei eta kualitatiboei dagokienez. Era berean, jende erabiltzaileari alferrikako gastutzat zer ulertzen den adierazi behar zaiola azaldu du, eta jasotako diru-laguntzaren zein portzentaia xahutu dezakeen. Irizpide objektibo horiek pertsonen komunikatu behar zaizkiela gomendatu dio Lanbideri.

Gure iritziz, DBEk ezin ditzake berau jasotzen dituzten pertsonak kaltetu, guztiz kontrakoa baizik. Beraz, Filoren bikotekideak bere errenta xahutzeko oinarritzko familia kontuak zeintzuk ziren erabakitzeak aukera eduki beharko zutekeen, eta, batez ere, egin zitezakeen gastuen inguruko informazioa eduki.

2014ko martxoaren 12an, ESKren Bazterketa sozialaren kontrako Argilan plataformak argi salatu zuen gutxieneko diru-sarrerak ez dituztenek arrazoi horrexengatik, hots, diru-sarrerarik ez jasotzeagatik jasaten duten kriminalizazioa. Ildo berean, Lanbidek euren bizitzak ikuskatzen dituela salatu zuen, eta administrazioak epaiketa moralak egiten dizkietela, gutxieneko diru-sarrerarik ez edukitzeagatik borondaterik eta autonomiarik gabeko umeak balira bezala tratatzeaz bat.

Aratekoaren txostenaren arabera (Ararteko, 2014): “Ondo gobernatzeko, beharrezkoa da pertsonen informazio zehatza eta adierazgarria edukiko dutela bermatzea; baita eragiten dieten erabakietan berdintasunez eta modu esanguratsuan parte hartuko dutela ziurtatzea ere.”

“Duela hamabost urte, exotikoa ere izan zitekeen”

Marisa duela urte asko iritsi zen Euskadira, espainiar nazionalitatea dauka eta esan duen bezala, *“emakume batekin ezkondu da, Athletic-ekoa da eta Alderdikoa.”* Herrialde honetara iritsi zenean, pertsona migranteekiko jarrera leunagoa zuen gizartea topatu zuen, eta esperientzia ona izan zuen instituzioekin.

Marisa Euskadira iritsi zenean, duela hamabost urte, biztanleria migrantea 15.198koa zen³⁴, eta 72.537koa 2013an. Bere ustez, garai hartan, beste herrialde batzuetakoa izatea exotikoa ere izan zitekeen, zenbait ate zabalduta zituena.

Marisak erraztasun erlatibo batez bizitzea ahalbidetu zion oinarritzko errenta lortu zuen, gasturako horrenbeste baldintza zorrotz ez zituena. Hauxe da bere kontakizuna: *“Diru-laguntza eskatu nuenean, eman egin zidaten. Baina hilabete edo bi hile iraun zuela uste dut, berehala lana lortu eta laguntza utzi nuelako. Garai hartan, atzeritar batek gehiago ematen zuen*

³⁴ Ikuspegiak, <http://www.ikuspegi-inmigracion.net/es/estadisticas/estadisticas.php>

atentzioa, goxoagoa zela uste zen, azentu horrekin, gehiago irekitzen zizkizuten ateak. Hain zuzen, inkestak egiten etxez etxe ibili nintzenean, entzun egiten zidaten eta atea irekitzen, kasu handiagoa egiten zuten. Gaur, ez da hain berria, asko aldatu da.”

Ikuspegiren Barometroaren azken datuek³⁵ erakutsi dute: “2004an biztanleriaren %80k uste zuen zenbait lan eremutan lan egiteko biztanleria etorkina behar zela; eta 2013an, berriz, %35,4k uste du hori”. Beraz, ez da harritzekoa Marisak gaurko emakume migranteek baino aukera gehiago eduki izana lan eta gizarte integratziorako.

Ikuspuntu interesgarria dauka Marisak. Bere ustez, Euskadira iristen direnean, emakume migranteek ez dute baliabide guztien inguruko informaziorik edukitzen, eta DBEa baino ez dute ezagutzen, Lanbideren bitartez eskatzen delako. Pena da, bere ustez, gainerako baliabideak eta laguntza sozialerako benetako sarea ezagutzeko sakon zundatu behar izatea. Marisaren iritziz, baliabide ekonomikoak: *“beste herrialde batzuetatik etortzen direnek gehien bilatzen dituztenak izan arren, ez dira ezinbestekoenak.”*

“Bizitza pertsonala miatzen dute”

Laguntza ekonomikoetarako sarbidea edukitzeko, administrazioak pertsonen bizitza pribatuko datu asko biltzen ditu; familia eta bikote bizitzari buruzkoak, adibidez. Gehienetan, baliabide ekonomiko eskasak dituzten etorkinekin egiten du lan Arantxak, eta esan duen bezala, hainbat emakume lesbianak ez du kontu hori ulertzen. Honakoa esan digu horri buruz: *“Nik ez nuen baliabide ekonomikoetarako sarbiderik, baina adiskide lesbianak eta transak lagundu nituen nire lanagatik. Adiskide latinoamerikarrak ziren, eta ez zuten bertara joan nahi euren bikotekideaz informatu behar zutelako, eta ez zutelako nor zen esan nahi. Euren buruari galdetzen zioten ea zergatik eman behar zuten euren identitate sexualaren berri; ez zuten ulertzen zergatik arakatu behar zuten euren eremu intimoa laguntza bat emateko edota euren eskubideak legitimatzeko.”*

Eztabaidagarria da, gutxienez, Arantxak abiatu duen debatea. Alde batetik, Arantxaren adiskideek “eremu intimoko informazioa” deiturikoari eman beharreko esanahia eztabaidatu beharko litzateke. Bestetik, diru-laguntza ematea onar dezaten, administrazioak pertsonen bizitzan datuei buruz horrenbeste ikertzea zilegia ote den hausnartu beharko genuke. Arantxak berak eta Alaznek ekin diete hausnarketa horiei.

Arantxak honakoa komentatu du: *“Eskubidea, gaur, ez dago legitimatuta; eskubidea egon badagoelako, baina, praktikan, ez da betetzen. Ni oso gaizki sentituko nintzateke, diru bat jasotzeko daukadan eskubidea legitimatzeko elkarrizketan, nire intimitatea arakatu beharko balute; norekin eta nola bizi zaren.”*

³⁵ 2013ko barometroa, Ikuspegiak, http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/barometros/2013/bar_2013_eusOK.pdf

Eta Alaznek honakoa erantzun dio: *“DBEren kasuan, etxean pertsona bat baino gehiago bizi badira, eta kontratuan pertsona bat baino gehiago badaude, familia unitatetzat jotzen dute, eta galdetu egiten dute. Ez dut ulertzen zergatik mintzen zaren, ezta zergatik den arazoa `bai, nire neska-laguna da´ erantzutea.”*

Zaila da bietako bati arrazoa ez ematea. Arantxa eskubide baten erabilerarako eskatzen dituzten baldintzei buruz aritu da; bizi ahal izateko oinarrizkoa den diru-laguntza jasotzekoei buruz. Krisi testuinguruan, gero eta gehiago murrizten ari diren diru-laguntza da hori, gero eta pertsona gutxiagok jasotzen dutena.

Baldintza hori betetzeko, administrazioek DBE eskatzen duten pertsonekin bizi direnei buruzko guztia ikertzen dute, baita euren artean dagoen harreman afektiboa ere. Informazio horrek DBE ematea baldintzatzen du; izan ere, etxebizitzan lotura afektiboa duten bi pertsona bizi badira, eta, bien artean, bizitzeko nahikoa dela uste den diru kopurua irabazten badute hilero, ez zaio laguntzarik emango diru-laguntza eskatu duenari.

Arantxak, ikusgarri agertu den emakumea izaki (adiskideak ez bezala), ez du zalantzan jarri bizikidetzaren unitatearen harreman afektiboari buruzko informazioa ikertzea. Zalantzan jarri duena informazio hori DBE emateko ala ez emateko baldintza bihurtzea da.

Geure buruari galdetu diogu ea DBE jasotzeko eskubidea erabili ahal izateko bizikidetzaren unitateari buruzko informazioa eskatzea ez al den laguntza horren praktika murrizteko modua. Batez ere, Arantxaren adiskideei gertatu bezala, emakume batekin bizi direla esateari beldurra eta erresistentzia dagoenean.

Alaznek beste debate bati ekin dio, lesbianak mugitzen garen espazio guztietan ikusgarri agertzearena. Alaznek zalantzan jarri du lesbianismoa aipatu ere ezin daitekeen kontu hain intimoa izatea.

Alazneren antzera, ikertzaile talde honek ere aukera sexuala bizitza publikoaren zati dela uste du, beste hainbat alderdi ere badiren bezalaxe, eta ez dela sekretupean gorde beharreko zerbait. Puntu hori lan-baliabideen eta ikusgarritasunaren ataletan aski argudiatua egon arren, onartu beharra daukagu administrazioek baldintzak betetzen al diren egiaztatu beharko dutela, berdintasunaren irizpidea ezarriz. Gainerako kasuetan bezalaxe. Ezin daiteke lesbianismoa “bizitza pribatuko” kontutzat erabili laguntza bat jasotzerakoan abantaila bihurtu dadin.

“Aurkako espazioa”

Emakumeek aurkako espaziotzat dauzkate baliabide ekonomikoak, eta funtzionamendu eskasa dutela uste dute. Nekanek bere garai batez hitz egin digu, zeinetan lan-murrizketa eskatzearekin, langabezi-sorospena kudeatu zuen lanaldiaren beste erdirako: *“Langabezia-sorospenarekin eduki nuen esperientzia benetan lazgarria izan zen. Umeak jaio ziren, eta bikiak*

izatean, lanaldi erdia eskatu behar izan nuen. Eta lanaldiaren beste erdia langabezia-sorospenarekin osatzeko eskubidea nuenez, halaxe egin nuen. Nahiago dut dirurik ez eduki eta bakean utz nazaten, benetan, lazgarria izan zen! Ez dauka lesbiana izatearekin ala ez izatearekin zerikusirik, INEMek garai hartan zuen funtzionamendu ezin txarragoarekin baizik. Penagarria izan zen, bat-batean, lanak eskainiz hasi zitzaizkidan deika, errieta egiten zidaten, 'langabezia kenduko dizugu', ba kendu nahi duzue, ez nuen kobratu haiek jasan behar ez izateko. Zelako umiliazioa! Jendea tratatzeko nolako modua! Gaizkiletzat hartzen zaituzte."

Mirenek urte asko daramatza tokiko administrazioan lanean, eta, bere lanagatik, ondo ezagutzen ditu gizarte zerbitzuak, arlo ekonomikokoak bereziki. Bere iritzia eman digu: *"Orokorrean, baliabide ekonomikoak izaten dira desatseginenak, eta jendeak gaizkien tratatu dituztela sentitzen duen lekua."*

Bai Nekanek bai Mirenek nabarmendu dute trataera eskas hori ez duela lesbiana izateak eragin (gai honetan, Euskadiko gainerako biztanleriaren egoera berean gaude), izan ere, trataera ez adiskidetsua are intrusiozkoa jasotzearen sentsazioa agerian jartzen da zenbait eskubide erabiltzera eta laguntzaren bat eskatzera instituzioetara jotzen denean.

"Badator beste bat besteen lepotik jatera"

Seguruenik, esapide hori ez da oso berria. Gehiegitan entzuten dugu bizitzeko baliabide gutxi izan eta laguntza ekonomikoren bat eskatzera zerbitzu publikoetara jotzen duten emakumeei buruz aritzeko. Gurekin hitz egin duten emakumeek adierazi dute euren duintasuna ez dela onik ateratzen laguntzak eskatzera instituzio publikoetara jotzen dutenean.

Nekaneren antzera, Alaznek honakoa komentatu digu: *"Uste dut badela estigmatik, gizarte-laguntzailearekin hitz egitera joaten zaren bakoitzean, 'badator beste bat besteen lepotik jatera' pentsatuko balute bezala da. Baita jendearen artean ere, lagunartean komentatzen duzu: 'errenta kobratzen ari naiz', eta 'tira, beste bat'."*

Fátima emakume arabiarra da, eta ez zaio laguntzak eskatzea gustatzen. Euren aurka altxatzen da; izan ere, "bere kabuz ez baliatzearekin" edo "gizonen edo estatuaren mendeko izatearekin" lotzen du. Baliabide ekonomikoak irudi maskulinoaren beharizanarekin alderatuta aztertzen ditu, eta bere beharizan ekonomikoak estaltzeko gai den emakume independentetzat aldarrikatzen du bere burua. Hauxe da bere testigantza: *"Ez ditut laguntzak eskatu nahi, nire kabuz baliatu nahi dut eta nire izerdiaz lortutako diru hori nahi dut, ez inori eskatutakoa; ez estatuari ez inori. Ez naiz horrelako gauzeekin konformatzen. Ez ditut diru-laguntzak nahi, emakume "bene-benetakoa" eta ezkertiarra izan nahi dut, aurrera jarraitu nahi dut eta emakume guztiek helburu berbera eduki beharko luketela uste dut. Geure kabuz balia gaitzke eta ez dugu gizonik behar."*

Gainera, emakume honek uste du emakume guztiek egin beharko luketela gauza bera. Fátimarentzat, emakumea izatea gizon baten mende ez egotea da. Kontuan hartu behar dugu

bere kulturen ezinezkoa izan zaiola emakume askea izatea. Fátimak ez du diru publikorik nahi, eta gizartean zabaldua dagoen aurreiritzia apurtu du; jende migratzailea laguntzak kobratzera etortzen dela dioen aurreiritzia, alegia.

”Arduragabe hutsak gara”

Pertsona guztiak, pertsona izateagatik bakarrik, ezin kenduzko eskubide zenbaiten jabe direlako ideia, gaur, gizarte demokratikoek oro har onartzen duten ideia da, eta gure legedia oinarritzen duena. Iñigo Pombo Gizarte Politiken Sailburuordearen arabera (Pombo, 2013), Gizarte Zerbitzuen Legea lege ona da, gizarte zerbitzuak eskubide subjektiboetara igotzen dituelako. Hau da, biztanleek eskatu behar dizkiote estatuari eta ez dira karitate ekintzak, pertsonen eskubideak baizik.

Mirenen gogoetak oso adierazgarriak dira zenbait eskubide erabiltzeko baldintzak deskribatzeko orduan: *“Nire ustez, herritarren eskubideekin lan egiten dugunok ez dugu oso geure egin trataera arduratsua zer den, arduragabe hutsak gara. Eta noski, jendea eskatzera joaten da, eta, batez ere, bere burua egoera horretan inoiz ikusi ez duen jendea, horra jo behar duten klase ertaineko familia pila bat, eta gaizki tratatu dituztela sentitzen dute. Ez dugulako asko zaintzen nola tratatzen ditugun, nola ematen zaien informazioa. Dirua gurea dela ematen du, 300 euro ematen dizkiegula eta dirua artatzen ari den langilearen poltsikotik atera dela. Orduan, jendeak gaizki tratatzen ditugula sentitzen du, baina ez heteroa edo lesbiana izateagatik, baizik eta txirotasun egoeran edo zailtasun ekonomikoan egoteagatik.”*

Arartekoaren “Giza eskubideak politika publikoen oinarri, krisi ekonomikoaren garaietan” ikerketaren arabera: “Krisi garaietan batez ere, botere publikoak giza eskubideen irizpideen arabera gidatu beharko lirateke politika publikoak diseinatzeko orduan.”

Politika publiko horiek askatasuna eta berdintasuna bermatu beharko lituzkete. Horrekin batera, eskubideak dauzkaten herritarren ahalmena eta autonomia bermatu, eta eskubide horien erabilera trataera umiliagarriarik edo baztertzailerik gabekoak izango direla ziurtatu beharko lukete.

HEZKUNTZA ARLOKO BALIABIDEEN AZTERKETA

SARRERA

Atal honetan, parte hartu duten emakumeek hezkuntza baliabideez aipatutako alderdiak aztertuko dira.

“Erkidegoko ikastetxeetako ikasle ez-unibertsitarioen eskubideen eta betebeharren ezarpenerako gida”-ren arabera: “Ikasleek euren osotasun pertsonal eta morala errespetatua izateko esbubidea daukate, bai eta euren identitate eta duintasun pertsonala errespetatzeko ere, eta ezin zaie trataera iraingarrik zein umiliagarrik eman. Era berean, edozein eraso fisiko edo moralen aurka babesteko eskubidea dute.”

Erkidegoko ikastetxeetako ikasle ez-unibertsitarioen eskubideei eta betebeharrei dagokien esaldia azpimarratu nahi dugu. Eskubide hori hornitzea botere publikoei dagokiela uste dugu, eta, beste alderdi batzuen artean, hezkuntza instituzio ez-heteronormatiboak ziurtatu behar dituztela. Horrela lor daitekeelako normatiboak ez diren genero jarrerak dituzten ikasleen (gayen, lesbianen, transexualen, neskato maskulinoen, mutiko afeminiatuen eta abarren) izaeraren garapen positiboa errealitate bihurtzea.

Ikerketan parte hartu duten emakumeek gehien nabarmendu dituzten alderdiak, erabilitako hezkuntza baliabideen ingurukoak, bi izan dira. Batetik, zapaldu dituzten hezkuntza eremuetan lortu duten ikusgarritasun maila eta, bestetik, erabiltzen diren materialak eta agiriak aniztasun sexualera, generokora eta familiarra ez egokitu izana. Ikasleria anitza bere gain hartzea aldaketarako erronka handia da hezkuntza sistemarentzat, izan ere, dagoeneko ezin daiteke eskema zaharkituekin eta baztertzailaekin funtzionatzen jarraitu. Bere aniztasuna argi adierazten duen ikasleariaren eskariei egokitzen segi behar du hezkuntza sistemak.

Atal honetan, bullying-az hitz egingo dugu, eta horri erantzuteak hezkuntza sistemari eragin dionaz. Handia izan da arazo horren kariaz gertatu den aldaketa; baina egoera hobetu daiteke, ezin dezakegulako baieztatu ez dela berdinen arteko tratatu txarrik egoten ikastetxeetan.

Unibertsitateaz ere hitz egingo dugu, eta bertan sexu eta genero aniztasuna jorratzeko moduez. Azkenik, parte hartu duten emakume helduek erabili dituzten bestelako hezkuntza baliabideak komentatuko ditugu; izan ere, sexu eta genero aniztasunaren inguruko interes handia erakutsi duten baliabideak dira, eta baliabide horiek erabili dituzten emakumeak eroso sentiarazi dituzte aipatu baliabideek.

EMAKUME NAGUSIAK ETA EUREN HEZIKETA FRANCOREN GARAIAIN

Ez zuen garapen pertsonalean laguntzen

Parte hartu duten emakume batzuen eskolatzearen zatirik handiena frankismoaren garaian izan zen. Garai hartan, erregimen totalitarioaren neurrira bereizitako eskola ereduak ezarri zen, izan ere, “hein handi batean, rol femenino eta maskulino tradizionalak egituratu zuten Espainiako bizitzaren bizkarrezurra, eta gizarte horren balioak eta ardurak iraunarazteko erabiltzen zen eskola” (Tomé, 2001). Juliak, Matxalenek, Natik, Ceciliak, Kattalinek edo Naiak sexu eta genero aniztasuna errespetatzeko mezurik bidaliko ez zuen hezkuntza sistema ezagutu zuten.

Bere hiriko ikastetxe erlijioso batean hezi zuten Matxalen, eta honakoa esan digu: *“Frankismo garaiko hezkuntza oso gogorra eta hertsagarria izan zen sexualitatearekin. Garai hartan, lesbianismoari buruzko berririk izan gabe hazi ginen emakume lesbianak, lesbianismoa ez baitzen existitu ere egiten.”* Modu zuzenean jaso zuen hezkuntza zapaltzailea, eta bere garaian ez zela lesbianismoari buruzko hitz-erdirik egiten esan digu. Egon zitezkeen adierazpen lesbikoak isiltasunaren kapa sendoaren azpian eta ikusezintasunpean zeuden.

Hezkuntza sistemak sexu eta genero aniztasunaren gainean hainbat urtez ezarritako isiltasunaren ondorio argia izan zen batere erreferentziarik gabeko heziketa egotea, hau da, euren sexu eta generoko identitateei buruzko gaietan inolako argibiderik gabe hezten zituzten pertsonak. Urteetan zehar, zituzten erakarpenean sexualengatik, edo euren burua beste generoarekin identifikatzen zutelako, neskato asko bultzatu zituzten ezberdinak zirela sentitzera, edo “arraroak” zirela, “munstroak”, eta sentitzen zuten hori sentitzen zuten bakarrak zirela munduan.

Juliaren, Kattalinen eta Naiaren kontakizunek hezkuntza sistema haren gaitasunik eza erakusten dute; oro har, autoafirmaziorako eta garapen pertsonalerako laguntzen ez zuenarena.

Juliak zenbait urte igaro zituen jesuitekin hezten. Bere kasua eskolako porrota izan zela esan daiteke, eta bere egoera pertsonal hauskorra gainditzeko laguntzarik jaso ez zuela erakusten du. Honakoa esan digu: *“Aita jesuitekin horrenbeste urte igaro eta gero, eduki duten prestigio guztiarekin, nik, benetan, zailtasun asko eduki nituen.”* Bere genero identitatearekin dute zerikusia aipatu dituen zailtasunek. Ez zuen izatea eskatzen zioten mutikoa zenik sentitu inoiz, bere osasun fisikoaren eta aldarrearen hondatze etengabeek adierazten zuten kontua izaki.

Kattalinek antzera kontatu digu: *“Beste garai batez ari gara, mende bat atzera. Bost urtetxo nituenetik nekien nahiko arraroa nintzela, eta eskolatuta egon nintzen denbora guztian, jan egin nuen. Zazpi urteko neskatoa nintzela gogoratzen dut, eta Maristasera joaten nintzela igerilekura. Eta igerilekura joan behar nuela ikusten nuen, eta egin beharrekoa egiten nuen bertan, baina aldagelara joaten nintzen eta generoa ez zetorren nirekin bat. Jakin banekien*

zerbait ez zela zuzena, baina une hartan ez nintzen zer zen jakiteko gai. Baina banekien zerbait ez zegoela ondo.”

Kattalinen eskola inguruko inor ez zen gertatzen ari zitzaionaz konturatu. Kattalin ez zen ondo sentitzen, nahastuta zegoen eta ez zen gertatzen ari zitzaiona detektatzeko gai. Ez zuen esplizituki adierazten, eta “jan egin nuen” esapideak ume askok egiten zutena azaldu digu, hots, isildu egiten zirela eta euren kontu arraroak isilpean gorde.

Arau heterosexistatik ateratzen diren adierazpenekin zurruna eta zapaltzailea den hezkuntzaren beste ondorioetako bat, eta pertsonen aniztasuna kontuan hartzen ez zuen hezkuntza sisteman heziak izan zirenez, hainbat lesbianak baliabide inkontzienteak garatu izana da, horretarako beharrian objektiborik ez dagoenean ere aktibatzen direnak (disimulua, bizitza bikoitza, diskrezioa...).

GAURKO HEZKUNTZA SISTEMA

Badirudi armairutik ateratzeak ez dakarrela antzinako dramatismo hura

Egun, Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sexu eta genero aniztasunean eskainitako hezkuntza ziurtazen du, nahiz eta ez den esplizituki aipatzen. Esan dezakegu gaurko hezkuntza sistemak kontuan hartzen dituela eta parte hartzen duela gure gizarteko aurrerapen legal eta sozial garrantzitsuetan, sexu eta genero aniztasunaren onarpen handiagoari dagokionez.

Matxalenek aldaketa hori nabaritu du eta honakoa esan: *“Eguno irakasleek badakite sexu aniztasunaz, baina ez da horretaz hitz egiten ikasgeletan. Izan ere, ez daukate aniztasun hori barneratuta, ez dute sentitzen guztiok horren parte garenik.”* Hezkuntza sisteman egondako aldaketa ikusten du, eta sexu eta genero aniztasunean egin duen borrokagatik badaki gaurko ikastetxeak ez direla lehengoak bezalakoak, ezta curriculumarenean ere, eta badaki irakasleak sexu aniztasunean hezten ari direla. Hala ere, ikasgeletan lesbianismoaz edo transexualitateaz hitz egin gabe jarraitzen dutela adierazi du, eta kontu giltzarria da hori.

Matxalenen gogoeta erabili nahi dugu hezkuntza sistemak LGTB ikasleen ikusgarritasuna zabaltzeko modua aztertzeko. Parte hartu duten emakume gazteenek gai honen azterketarako gakoak eskaini dizkigute.

“Ikasgelan lesbiana zarela esanez gero, batzuk estali egiten dira, eta beste batzuek begitxoekin begiratzen dizute”

Aurrerapen sozialek eta legalek zabaldu dituzten aukerek, eta, azken hamarkadan, komunikabideen zein interneten bitartez sexu eta genero identitateei buruz eskura daitekeen informazioak eragindako aldaketek, eskolan LGTB gazteek euren burua sentitzen duten bezala erakusteko aukerak handitu dituzte.

Genero identitateagatiko eta sexu orientazioagatiko diskriminazioari buruz FELGTBk eta COGAMek Espainia mailan egindako lan bakarrak (FELGTB y COGAM, 2013) jakinarazi du parte hartu duten LGTB pertsonen %76k diskriminazioa sentitu duela hezkuntza eremuan. Egun, ikastetxeetan ikusgarri egiteko aukera sozialak handiagoak izan arren, dauden diskriminazio datuak ikusita, eta goiko datuak adierazi bezala, hezkuntza sistemak ez du orientazio lesbikoaren edo izaera trasexualaren ikusgarritasun orokorrerako gonbita luzatzen.

Baiezta dezakegu, une honetan, gazte askok armairutik irtetzeari dioten beldurra eta beste batzuen aietasuna elkarbizi direla. Alazneren hitzek hezkuntza eremuan armairutik ateratzeak dituen bi aldeak erakutsi dituzte: “Lesbiana zarela esanez gero, neska batzuk estali egiten dira, eta beste batzuek begitxoekin begiratzen dizute.”

Ikusezin izaten jarraitzea, ikusgarri egin arren

Gazte askoren antzera, derrigorrezko hezkuntza amaitu eta unibertsitatera joan zenean agerrarazi zuen bere lesbianismoa Alaznek: *“Unian atera nintzen armairutik eta taldea jatorra zen, ez zen inor gurekin sartzen, ez gayekin ez lesbianekin orokorrean, baina ez zen hitz egiten. Faltan sentitzen genuena, bai nik bai orduko neska-lagunak, lesbianak badirela zioen komentarioren bat zen.”*

Alaznek sentitu zuen giro lasaia emakume lesbianenganako tolerantzia handienaren isla da. Alabaina, Alazneri bere aukera ikusezina eta ia hutsala ez izana gustatuko zitzaiokeen, horrek zaildu egiten baitzuen bere sexualitateari buruz lasai hitz egitea. Hezkuntza eremuan, familia edo lan inguruetan gertatzen denaren antzera, kontu bat heterosexualaz gain orientazio gehiago daudela jakitea da, eta beste bat giza harremanen egunerokotasunean txertatzea datu hori. Alazne eta bere bikotekidea bikote lesbiana gisa dira ezagun, baina ez dira beste ondorioetarako existitzen.

“Orain ez da errazagoa, ohikoagoa baizik”

Honakoa esan digu Mónica zapaldu dituen ikastetxeei buruz: *“Eskola eremuan beti izan da berdin, ez dut inoiz ezkutatu nahi izan, inoiz ez dut jakingo ezkutatu izana hobe izango zatekeen, baina beti pentsatu izan dut ez zela bidezkoa niretzat, pertsona naizen heinean, lesbiana naizela isildu behar izatea. Beraz, ez dut inoiz egin.”*

Azken hamarkadetako aldaketa sozialak eta legalak gertatu aurretik bizi izan diren lesbianen belaunaldiak uste dute gaurko garaia errazagoa dela gazteentzat. Oro har, ez baitiote aurre egin behar izan bazterketa sozial eta legala osoki praktikatzan zuen gizarteari.

Orain, euren bizitzak euren identitateekin eta nahiekin bat eraikitzeko baliabide eta aukera gehiago dituzte pertsonak. Egitate objektiboa da hori. Mónica, ordea, zalantzan jarri du lesbiana izanda moldatzea gaur errazagoa dela dioen ideia. Ohikoagoa dela komentatu du, baina iradoki gizarteak lesbianak aurrean egon daitezen espazioak zabaltzea baditu ere, eta horrela euren presentzia ohikoago bihurtu, lesbianismoaren onarpena ez dela ehuneko ehunekoa eta ez direla lesbiana izateagatik zeuden arazo guztiak desagertu.

Bizi garen gizarte heteronormatiboan, lesbianen belaunaldi bakoitzak arazo sozial ezberdinei egin diegu aurre. Mónica aldaketa eragin dugula gogorarazi digu, erabateko ikusezintasunetik erdizkako ikusgarritasunera igaro garela, eta horrek bestelako erronkak planteatu dizkie gazte lesbiane.

“Ikastetxe batean armairutik ateratzeko, izaera sendoa eduki behar duzu...”

Hezkuntza eremuan armairutik ateratzera ausartzen diren gazteak nortzuk izaten diren galdetu diogu geure buruari, eta ea ikasle lesbianek inguruari aurre egiteko baliabideak eta trebetasunak ba ote dituzten. Nekanek, bigarren hezkuntzako institutueta eskolak ematen hogei urte baino gehiago daramatzan irakasleak, ikasgelan modu askean adieraztea ikasleentzat oso zaila dela uste du: *“Salbuespenekin, izugarrizko nortasuna duten gaztetxoak daude, oso ondo eraikitako nortasuna eta sendoa. Bost axola zaie eta luma zoragarriarekin joaten dira; baina oso arraroa da hori gertatzea. Horrelako hiru kasuren esperientzia bizi izan dut bizitza osoan, baina gainerakoak asko landu beharrekoak izaten dira.”*

Nekanek, bere modura, ikastetxeak LGTB pertsonentzat aurkako espazio direla onartu du, eta honakoa komentatu digu: *“Gaztetxoek ezin dezakete erabaki armairuan dauden ala ez, bizirauteko da.”* Arestian aipatutako FELGTren eta COGAMen txostenak (FELGTB y COGAM, 2013) ikasleek euren burua hezkuntza eremuan agerrarazteko dituzten zailtasunez informatu gaitu. Oro har, LGTB ikasleek euren osotasunerako arriskutsu ikusten dute euren burua agerraraztea. Ikastetxea aurkako ingurua da, eta ez du ikusgarritasunerako gonbita luzatzen;

hortaz, armairutik ateratzea ez da aukera izaten ikasle gehienentzat. Dagoen aukera bakarra bizirautea da, eta ikastetxeetan bizirauteak isilik egotea esan nahi du.

IRAKASLE LESBIANAK

“Ikusi nahi bazenuen, ikusi egiten zenuen”

Irakasle lesbianek euren burua agerrarazteko ardura al daukate erreferente izan daitezen eta ikasleei lagun diezaieten? Sexu eta genero aniztasunerako heziketari buruzko debateetan askotan agertzen den galdera da hori.

Ikerketa honetan parte hartu duten emakumeen artean, bi irakasle daude. Ikusgarri agertu dira lankideen aurrean, baina zuhertasunez jokatzeko dute ikasleen aurrean, ez baitute euren burua argi eta garbi aurkezten.

Nekane adi dago zerbaiten zain, gaia noiz sortuko zain. Honelaxe adierazi du: *“Ez zait inoiz sortu ikasleen artean, inoiz ere ez. Eta diot, egunen batean egoera sortuko zait? Baina ez da sekula ere ‘lesbiana naiz’ esan beharra izan dudana egoerarik egon. Beti pentsatu izan dut nolakoa izango den momentua, zer gertatuko litzatekeen esango banu. Dagoeneko badakitela ere uste dut. Hain da agerikoa lesbiana naizela, ezinezkoa da ez ikustea.”*

Emakume lesbianak hain gaude ohituta diskreziora eta begi-bistakotasunera, ematen du ez dugula esplizituki esan beharrik aurrean dugunak lesbiana garela jakin dezan. Ez dugu lesbianismoaz argi eta garbi hitz egiten, eta ingurukoek zenbait zantzu interpretatzen dituztela uste dugu, lesbianak garela ondorioztatzen dutela. Uzten dituen kanpo seinaleengatik uste du Nekane bere ikasleek badakitela lesbiana dela, argi eta garbi esan ez dien arren.

Esplizituki ez hitz egiteak dakarren arazoa da Nekane ez dagoela hain ziur ikasleek irakasle lesbianatzat daukaten ala ez, nahiz eta berari “seigarren zentzumena” deitzen dionak balio dion. Honakoa komentatu digu horri buruz: *“Hogeita hiru urte daramatzat eskolak ematen, halako esperientzia daukat irakaskuntzan, askotan gertatu da ni izatea neskatoari gertatzen ari zitzaienaz ohartu den bakarra; hau da, neskatoak ‘ulertzen zuela’ konturatu den bakarra ni izatea, eta horregatik ari dela izugarri gaizki pasatzen. Nahiko anekdota bilduma zabala daukat horrekin. Ez du inork ulertzen zer ari zaien gertatzen, zergatik uzten dion bat-batean ikasteari, zergatik ateratzen dituen nota txarrak... eta nik ikusten dut oso argi dagoela kontua. Gero ez dakit alderatziz ere gertatzen al den, hau da, ea gaztetxoek irakasle lesbianatzat al naukaten.”*

Nekane ez daki ikasleek irakasle lesbianatzat hartzen duten ala ez. Hori jakiteko modu bat ikasleak hurbiltzen al zaizkion galdegitea da; adibidez, genero identitatearen inguruan galdezka, eta honakoa erantzun digu: *“Ez, inoiz ez. Tutorea naiz, baina nerabeak ez zaizkizu*

horrela etorriko. Beste kontu bat ni konturatzea eragiten duten gauzak gertatzea da, baina izugarritzko diskrezioz maneiatzen jarraitzen dugun gaia da, diskrezio handienaz maneiatzen dena.”

Nekane, ikasgeletan, argi eta garbi esango balu lesbiana dela, sexu eta genero aniztasunarekin dauzkaten gatazkez hitz egitera hurbilduko litzazkioke ikasleak? Erantzutera ausartzen ez garen galdera da, izan ere, oso konplexua da eta, zalantzarik gabe, gaurko irakasle gehienek zailtasunekin dauka lotura. Hau da, ikuspegi pertsonal batetik, ikasle batzuek euren sexualitatearekiko sentimenduekin dauzkaten arazoak lantzeko zailtasunak daukate irakasle gehienek.

Bertari galdetu diogu ea ikasle gay edo lesbianarik izan al duen, eta ea irakasle gisa komentatu al dioten inoiz. Honela erantzun du: *“Bai, urtero. Gero eta gehiago ikusten ditudala uste dut, ez dakit gauzak imajinatzen ote ditudan, baina nireak izan daitezke batzuk, korridorean ikusten ditudan batzuk izan daitezke, batzuetan jarrerak ikusten dituzu, posturak, begirada galdua eta esaten duzu ‘mutil hau nire ustez...’ Niri esatea desiatzen dut, ALDARTera bidaliko ditut, ez dakit besterik egiten. Ez dakit zer egin dezakedan, baina bai, zerbait egitea gustatuko litzaidake.”*

Seigarren zentzumenari ohitzea edo zantzuak interpretatuz funtzionatzea baino, iradokitzailea izan daiteke aukerarako leihoak zabaltzea. Beldurra ezabatu eta argi hitz egin daitekeen espazioak sortzea, aniztasuna onartuko duten lekuak horiek, ihesbiderik gabe; horrela, LGTB gazteriak begirunezko espazioa duela sentitu, eta irakasleekin zein ikaskideekin sentitzen duena libreki adierazteko aukera senti dezan.

“Irakasleak gaia ahaztu nahi zuen”

Ikerketa honetan parte hartu duten emakumeen artean, duela gutxi ikastetxeetan egon diren lesbiana gazteak daude. Ikasleak hezkuntza gunean agerrarazi daitezen trebetasun sozialak maneiatzeko modu eskasa dagoela ikusi dugu; batez ere, ikasleen sexu orientazioa indar handiagoz nabarmentzen hasten den adinean.

Clararen lekukotasunean, hezkuntza sistemak konponbide egokirik ahalbidetu ez duen kasuetako bat ikusi dugu, baliabideen kudeaketa txarra egin den kasu horietako bat. Honakoa esan digu: *“Duela pare bat urte, eskolan, irakasle batek lesbiana nintzelako egin zion uko laguntza eskolak emateari. Begitan hartuta ninduen, eta ez nuen ikasgaia gainditu.”*

Clarak ez zuen beharrezko laguntza jaso eta ikasgaia suspenditu zuen. Hala ere, buruari buelta eta buelta ez ematen eta kontua ahazten saiatu zen. Hamalau urte zituen eta eskola erlijioso batean zegoen. Orain, hamasei urte dauzka; beraz, duela gutxi gure hezkuntza sisteman gertatutakoa da azaldutakoa.

Nola sentitu zen eta kontua nola konpondu zen galdetu diogu, eta honakoa erantzun du: *“Gaizki, oso gaizki. Irakaslearekin hitz egitera joan nintzen, eta barkamena eskatu behar zidala esan nion. Barkamena eskatu zidan, baina gaia ahaztu nahi zuela erantzun zidan, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Ama tutorearekin hitz egitera joan zen eskolara, eta tutoreak zuena baino garrantzi handiagoa ez emateko esan zion.”*

Gatazka horrek Clara lesbiana zela lehen aldiz zabaltzea ekarri zuen: *“Eskolan eta leku guztietan atera nintzen armairutik, izan ere, eskolan leku guztietako jendea zegoen eta euren artean ezagutzen direnez...”* Seguruenik, berak ez zukeen ez modu hori ez une hori aukeratuko armairutik ateratzeko.

Gatazka horren kudeaketa eskolaren praktika txarraren adibidetzat har dezakegu. Ematen du hezkuntza instituzioa ez dela ohartu gatazkak Clararentzat duen garrantziaz, eta sexu identitatearen prozesurako duen inportantziaz. Norbera lesbiana dela jendaurrean agerraraztea prozesuaren zati garrantzitsua da; eta berebiziko kontua, nork bere burua agerrarazten duenean, bere sexu orientazioarekiko mezu baikorrak jasotzea.

Eta ikasle batek bere lesbianismoarekiko mezu eta laguntza egokiak jasotzea garrantzitsua bada, zer esanik ez hezkuntza inguruaz eta ikasgelaz. Zernolako mezuak eman zaizkie Clararen ikaskideei orientazio lesbianoaz, irakasle batek laguntza eskolak ez ematea lesbiana izateak eragin duela sentitzen badu? Ezkorrak izan direla uste dugu.

Ikasgelakoen laguntza esanguratsua jaso zuen Clarak, eta ikaskideek bere lesbianismoaren aurrean hartutako jarrerak ehuneko ehun poztu ez bazuten ere, hauxe adierazi du: *“Nire mailakoek eta ikaskideek nahiko ondo eramán zuten, zenbait gauzatxo esango nizkiokeen baten bati, baina beno, edukazioagatik ez da esaten.”*

Harrigarria da gertakarian esku hartu zuten eskolako langile helduen kopuru handia: *“Zuzendaria, psikologoa, nire tutorea... sartu ziren, mundu guztia erdian; ez zen irakasle bakarra enteratu, ikastetxe osoa baizik eta izugarritzko kaosa izan zen.”* Argi dago pertsona gehiegik parte hartzeak ez dakarrela gatazka hobeto konpontzea. Gertakari horren kasuan areago, beste aldera begiratzea eta gertatutakoa ahaztea erabaki zuten eta.

Sarreran esan dugun bezala, eta hezkuntzan sexu eta genero aniztasuna positiboki lantzen ari direla ahaztu gabe, oraindik ere, gai honekiko arazoak sortzen direnean, beste aldera begiratzen duten irakasleak daude. Agian, gatazkak gertatzea txarra dela uste dutelako.

Gure ustez, Clarak azaldutako egoera bezalakoak aldaketarako erronkatzat hartu beharko lirateke hezkuntza instituzioan. Horrela, ikasleen aniztasun sexu-afektiboa ulerraraziko luketen tresnak jarriko lirateke martxan. Hezkuntza komunitateak intolerantziaren eta homofobiaren aurka ekin beharko luke; baita LGTB ikasleek oraindik ere euren burua onartzeko eta agerrarazteko duten beldurraren kontra egin ere. Ahaztea eta beste aldera begiratzea erauzi beharreko praktika txarrak dira, eta diskriminazio beste kasuetan ezartzen ez direnak: ikastetxe horretan xenofobia kasua gertatu izan balitz, berdin jokatuko zuketena? Ziur ezetz.

Txosten eta ikerketa askok baieztatzen dute ikasleek ez dituztela irakasleak euren homosexualitatearen, lesbianismoaren edo transexualitatearen inguruko informazio

hartzailetzat hartzen. Hau da, ikasleek, oro har, ez dituzte irakasleak aukeratzen sexu eta genero aniztasunarekin lotutako gaiez hitz egiteko. Baliteke Clarak jasotakoa bezalako erantzun ezkorrekin eta espero ez dituzten jarrerekin topo egiteari beldurra edukitzeagatik izatea.

Irakasle lesbianen gabezia: arazoa da

Bere burua agerrarazi duen irakasle lesbianarik ez egotea, zalantzarik gabe, gure hezkuntza sistemaren alderdi zailenetakoa da.

Ikerketa honetan parte hartu duten emakume batzuek duela hamar urte amaitu zuten institutua, eta hitz egiteko zein hurbil sentitzeko konfiantzazko pertsonaren bat behar izan zutela adierazi dute. Alaznek hurrengo komentatu du: *“Lesbiana baino lesbianagoa zen irakaslea eduki genuen, eta agerikoa zen gu biok lesbianak ginela, eta ez zigun ezer esan, ezta lagundu ere, ez zuen inoiz keinurik egin... Bera lesbiana zela genekien bezala, berak ere bazekien gu lesbianak ginela, oso agerikoa zen eta, arreta pixka bat jarriz gero, konturatu egiten zinen. Ikusi nahi bazenuen, ikusi egiten zenuen, eta ez zuen inoiz gurekin hitz egiteko keinurik egin.”*

Oso agerikoa dirudi Alazneren ikastetxeko irakasleetako bat lesbiana zela. Aipatzen ez den zerbait, beharrezkoa izanda ere. Alaznek ez du argitu zein zentzutan gustatuko zitzaiokeen irakasle horren laguntza jasotzea; argi utzi du irakaslea hurbildu eta berarekin hitz egitea behar izan zuela. Eduki ez zituen erreferentziak eta konplizitatea behar izan zituen.

Aipatu dugun bezala, irakasle lesbianek isilpean gordetzen dute euren sexu orientazioa eta mehatxagarri ikusten ikasleak euren lesbianismoaz jakitun egitea. Errealitateak erakutsi du irakasle lesbianek ez dutela euren burua agerrarazten ikasgeletan. Beraz, irakasle horiek ezin dute eredu izateko edo laguntza emateko balio euren sexualitatea modu gatazkatsuan bizi duten ikasle lesbiana nerabeentzat, edota laguntza behar luketenentzat. INJUVEk eta CISEk “Gazteak eta sexu aniztasuna” iritzi inkesta egin zuten 2009an. Horren arabera, LGTB gazteek hezkuntza sisteman jasaten duten sufrimendua oso handia izaten da laguntzarik ez, eta euren errealitate emozionalaren irudi baikorrik ez dutenean.

Gabezia horren ondoriorik berehalakoena kontakizun eta esperientzia pertsonal lesbianoen galera da, irakasleek ikasleei adierazi dakizkiekeen kontakizunen hutsunea. Kontakizun horiek balio handia eduki lezakete ikasleentzat, haientzako eredu baikorrak izan daitezke eta. Eredu horiek, ordea, ez dira hezkuntza eremu formalean existitzen. Zentzu horretan, LGTB irakasleen papera garrantzi handikoa dela uste dugu.

Badakigu bukatzen ez den soka dela kontu hori, baina paralisitik ateratzeko ahalegina egin behar dugu. Nahiz eta jakin irakasle lesbianak ez daudela ikusgarritasun ariketa egitera derrigortuta, interesgarria litzateke ahalegina egitea ikasleek hurbileko ereduak izan ditzaten.

Horrek aurreiritzirik gabeko giroa sortzen lagunduko luke; begirunezko espazioak eraikitzen, sexu eta genero aniztasunari irekitakoak.

Sexu eta genero aniztasunaren heziketarekiko konpromisoa

Hainbat urtez, LGTB irakasleek izan dute sexu eta genero aniztasunaren gaineko heziketa ikasgeletan lantzeko ardura. Egindako txostenetan datu hori ofizialki nabarmendu ez badute ere, esperientziagatik badakigu irakasle gay eta lesbianak izaten direla eduki horiek eskoletara eramateko ardura euren gain hartzen dutenak askotan. Haiek egin ezean, euren ikastetxeetan sexu eta genero aniztasunaren inguruko heziketa landuko ez zela jakitun izan dira.

Bertak, bere ikasleen jarrera diskriminatzaileak ez onartzeaz gain, sexu aniztasunari eta genero identitateari buruzko sentsibilizazio jarduerak burutzeko erabiltzen ditu bere eskolak: *“Transgeneroei buruzko filmak jarri dizkiet, edo homosexualitateari edo lesbianismoari buruzkoak. Kontua da ikus dezatela, eta ondo informatuta egon daitezela, eta, pelikularen ostean, edukiak landu eta hausnartu egiten dugu.”*

ALDARTE Elkarteko presidenteari, duela hogeita bost urtetik irakasle denari eta, egun, Indarkeria sexistari aurrea hartzeko Hezkidetza Proiektuan parte hartzen ari denari, ikasgeletan sexu orientazioa eta genero identitatea, lesbianismoa zehazki, jorratzeko moduz gadegin diogu. Honakoa izan da bere erantzuna:

“Ikastetxeetan norbanakoak ibili izan dira erantzunak ematen, zorionez, hezkuntza munduan izugarritzko sentsibilitatedun jendea dagoelako. Eta zalantzarik gabe, euren ikasle lesbianen beharrianekin kezkatu dira. Baina norbanakoaren izenean beti, irakasleek hezkuntza komunitatearen babesa sentitu ez dutelarik. Nire ustez, irakasleek beharrezkoa dute hezkuntza komunitateak sexu aniztasunaren gaia aitortzea, ikasle lesbianeiei laguntzeko modua beldurrik gabe lantzen has daitezen.”

Gazte lesbianek laguntza senti dezaten landu beharreko esparruak zeintzuk izan beharko liratekeen jakitea ere interesatzen zitzaigun, eta hauxe da bere iritzia:

“Eskain diezaiekegun garrantzitsuena eta haiek behar dutena aldeko ingurua edukitzea da, haien sexu identitatearekin begirunezkoa dena eta ez oldarkorra. Eskola komunitatea euren alde dagoela jakin behar dute. Erreferentziazko pertsonak behar dituzte, Sexu Aniztasun eta Hezkidetzako proiektuko arduraduna bezalakoak, adibidez; behar duten guztia (informazioa, orientazioa, laguntza...) lortzeko norengana jo eduki dezaten. Lesbianismoa eta lesbianak ikastetxeetan ikusgarri egotea lortu behar dugu: horri buruzko berriak eta bideoak eskegi, ikastetxeko web orrian lekutxoak eduki, baliabideei buruzko linkak, web orri fidagarriak, filmografiak, bibliografiak eta abar.”

Gaur egun, eta hezkuntza alorreko eta LGTB elkarten arteko elkarlanaren eta ahaleginaren ondorioz esan dezakegu sexu eta genero aniztasunaren gaineko heziketa gehiago ari dela ikasgeletan sartzen ikastetxearen ardurapean, kontzientziadun irakasleen ardurapean baino.

Azken urteetan, sexu eta genero aniztasunari buruzko ikastaroak eta proiektuak abiatu dira hezkuntza eremuan, eta horrek hainbat ikastetxeetan sexu eta genero aniztasunari ateak irekitzeko interesa piztu du. Adibidez, Eusko Jaurlaritzak irakasleen formakuntzarako abiatu dituen ikastaro espezializatuak daude (GARATU), edo Berritzegune Nagusiaren konpromisoa, eduki horiek hezkuntza sisteman sistematikoki jorratzen dituenak.

BULLYINGA IKASGELETAN

Eskolako jazarpen homofobikoa eta transfobikoa edo bullying homofobikoa eta transfobikoa terminoekin, ikasle bat etengabeko arriskuan jartzen duten indarkeriazko jarrerez ari gara. Berdinek edo botere harreman asimetrikoan dauden inguru hurbileko pertsona batek zein batzuek ikasle bat etengabe baztertzen dutenean, edo isolatzen, mehatxatzen, iraintzen edota erasotzen dutenean gertatzen da. Eraso egiten dutenak edo *bullies*-ak homofobiaz, sexismoaz eta heterosexismoari lotutako balioez baliatzen dira.

IVEI-ISEIk DBHko eta Lehen Hezkuntzako berdinaren arteko tratua txarrei buruz egindako azken txostenaren arabera (IVEI-ISEI, 2012), non lehen aldiz galdetu zitzairen ikasleei ikaskideren bat sexu orientazioagatik etengabe baztertu izanaren lekuko izan al diren, bi etapatako ikasle gehienek (Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko %70k eta DBHko %62k) baieztatu dute ez dutela inoiz arrazoi horiengatik norbait baztertu izana ikusi euren ikastetxean.

Alabaina, sexuagatik diskriminazio jarrera mota horiekin lotutako txostenean, oso kontuan izan beharreko egoerak ikus daitezke:

- ✿ DBHko ikasleen %23,6k baieztatu du ikaskide bat gaytzat hartu dutelako etengabe baztertu izana ikusi duela, areago, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan, %12k adierazi du egoera berbera ikusi izana.
- ✿ Lesbianatzat jotako ikasleen kasuan, portzentajeak asko jaitsi dira, izan ere, DBHko ikasleen %7k baino pixka bat gehiagok eta Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko %5ak esan du etengabeko bazterketa kasuak ikusi dituela arrazoi hori medio.
- ✿ Bada deigarri egin zaigun beste datu bat: DBHko ikasleen %10ak baino gehiagok adierazi du norbaiten sexu orientazioarekin edo harreman sexu-afektiboekin lotutako txutxumutxuen bitartezko etengabeko bazterketa kasuak ikusi izana.

Datu hauetatik ondoriozta dezakegu bereziki kezagarria izaten jarraitzen duela hezkuntza sisteman dagoen diskriminazioak.

Clarak gehiegikeria pairatu zuen, eta honakoa esan digu: *“Ikastetxean bullyinga egin zidaten, grabatu egin ninduten, gona apurtu, lurrera bota ninduten, guztia lesbiana nintzela jakin zelako. Ikasgelako kideek ez zidaten ezer egin, batxilerren zeudenak izan ziren.”* Ikastetxeak nola erantzun zuen galdetu diogu, eta hau esan digu: *“Beste aldera begiratzen zuten, hobekien moldatzen naizen irakasleak salbu, eta esan zidan ‘deitu arazorik baduzu’. Okerrena nire psikologoa izan zen, behar nuenean ez zidan kasurik egin.”* Eta honela amaitu du: *“Horixe da istorioa, baina ez dut inolako traumarik eduki, beraz, hobeto.”*

Clarak islatu bezala, arreta gabezia dago; baina, hala ere, irakasle baten laguntza jaso zuen. Horrela, gertaeraren gogortasuna erakustiaz bat, berau gainditu izana erakusteko bertutea dauka kontakizun horrek. Clarak oso gogoan dauzka bere kontrako erasoaren oroitzapenak, baina traumarik utzi ez diotela esan du. Gazte honek, beste askok bezala, indarkeria gertaera hori gainditu egin duela adierazten du horrek.

Clararen adibideak ez digu ahaztarazi behar, berak ez bezala, erasoak pairatu eta horiek gainditu ez dituzten adingabe eta nerabe asko daudela. Askotan, sufritu zuten indarkeria ikastetxeek landu ez izanari lotutako kontua izaten da hori.

2004an, bere buruaz beste egin zuen Jokinek Hondarribian, ikaskideek eskolako jazarpena eta jazarpen morala egin baitzioten. Ikastetxeetan gertatzen ziren hitzezko indarkeria eta indarkeria fisikoko egoerak jorratzeko orduan, inflexio puntua izan zen gertaera hura gure hezkuntza sisteman.

ISEI-IVEIren txostenaren arabera, ikasleen arteko gatazkak gertatzen direnean, irakasleek inplikaturako pertsonekin hitz egiten dute, gaia ikasgelan jorratzen da eta familiarekin hitz egiten da ikastetxe guztietan. Bada bestelako datu interesgarriak ere txosten horretan; alegia, berdinen arteko tratatu txar egoerak prebenitzeko ekintzak garatzen dituztela diotela ikastetxe ia guztiek.

Badakigu datu horiek ez dutela esan nahi berdinen arteko tratatu txarrak behin betiko erauzi direnik ikastetxeetan. Noizean behin, ikastetxea jabetu ez edo modu eraginkorrean esku hartzen asmatu ez duen bullying homofobiko kasuen berri izaten dugu.

Hala ere, eta zalantzarik gabe, ISEI-IVEIren txostenak baikor izateko gonbita luzatzen digu, izan ere, ikastetxeen gaurko egoera Jokinen heriotza saihestu ezin izan zuen garaikoa baino hobea da. Gaur, oro har, ikastetxeek ez dute beste aldera begiratzen ikasleen arteko tratatu txar egoeren berri izaten dutenean.

Azken urteetan, esku hartze eta prebenitze neurri asko hartu dira hezkuntza sisteman. Hasi Berdinen Arteko Tratatu Txarren aurrean Ikastetxeetan Ekiteko Gidarekin, eta jarrai Hezkidetzarako eta Generoko Indarkeria eskoletan prebenitzeko Plan Estrategikoarekin. Azken horretan, generoko indarkeriaren barruan sartu dituzte jarrera homofoboak, lesbofoboak eta transfoboak.

Ez dugu uste ikastetxeetako berdinen arteko tratatu txarren aurrean hotz jokatzeko duen sistema daukagula esan daitekeenik, baina bai ikasgeletan gertatzen diren erasoaren aurkako lana hobetu daitekeela, eta hobetu egin behar dela, ikasleen artean inolako diskriminaziorik egon

ez arte. Aitor Martxueta³⁶ hezkuntza global baten ikuspuntutik proposatu ditu aniztasun sexu-afektiboarekiko arreta ikasgeletan hobetzeko zenbait gako, eta giza eskubideetan oinarritutako eskola inguru segurua bermatuko duen curriculum inklusiboa egitearen garrantzia azpimarratu du.

SEXU ETA FAMILIA ANIZTASUNA IKASGELETAN DAGO

“Ez dut beteko”

Ikasleei buruzko informazioa jasotzen duten inprimaki eta eskabide orri askotarikoak erabiltzen dituzte ikastetxeek. Seme-alabak eskolatuta dauzkaten emakumeekin landu dugun gaietako bat izan da hori. Inprimaki horietan familia aniztasuna islatzen al den galdetu diegu. Euren erantzunetatik ondoriozta dezakegu ikastetxeetan erabiltzen dituzten inprimaketan eta agirietan oraindik ez direla familia eredu aniztasunean sozialki eta legalki gertatu diren aldaketak islatzen.

Familia eredu eta aukera guztiak kontuan ez hartzeak ezinegon eragin dezake haurrengan. Zortzi urteko semeak duela gutxi bizi izandakoa kontatu digu Candelak. Ume hori familia lesbiana batean jaio eta hazi da eta, eskolatu zenetik, herri txiki bateko eskola publikora joaten da. Honela esan digu Candelak: *“Iaz, fitxa bat bete behar izan zuen haurrak, aita-ama jarri behar zen, eta esan zidan ‘hau nik ez dut beteko’, zergatia galdetu nion eta erantzun zidan aita jartzen zuela, eta berak ez daukala aitarik. Beste ama jartzeko esan nion eta hark erantzun ‘ez, ez dut beteko’”*.

2012an, Candelaren semearen eskolak ez dauzka inprimakiak familia aniztasunari egokituta oraindik. Candelaren semearen hitzek bere familia eredua fitxan islatzeko konfiantzarik sentitzen ez duela esan digute, eta nahiago duela isilik geratu. Eskolak egoera deserosoan jarri du Candelaren semea; normala aita eta ama edukitzea dela, eta ez, berak dituen bezala, bi ama edukitzea gogoraraziz. Ziurrenik nahi gabe, aita eta ama ez edukitzeagatik eskolako “arraroa” dela gogorarazi dio eskolak. Candelaren semea egoeraz ezin hobeki konturatu eta, fitxa ez betez, haserrearekin adierazi izana da garrantzitsua kasu honetan.

Asko dira hezkuntza sistema heteronormatiboak aniztasunari egokitzeko egin beharreko aldaketak, eta ez dira egiteko errazak; izan ere, fronte askotan egon behar da: irakasleen eta ikasleen formakuntza, erabiltzen dituzten materialak, oraindik egin beharreko unitate didaktikoak, bullying homofobikoan esku hartzea eta abar. Eginkizun konplexu eta askotariko horretan, ikastetxeetan erabiltzen diren inprimaki ofizialak ahaztu egiten dira.

³⁶ http://www.prentsa.ehu.es/p251-content/eu/contenidos/noticia/20130122_aitormartxueta/eu_info/info.html

Erabiltzen diren inprimakietan euren burua ikusten ez dutenean adingabeek eta nerabeek pairatzen dituzten egoerak egiaztatuta, interesgarria litzateke ikastetxeak inprimaki ofizialak aldatzeko beharraz jakitun egitea, bertako ikasleek bizi duten familia aniztasunari egokitu daitezen.

“Ez naiz inongo zakiletik etorri”

Ikasgeletan erabiltzen diren materialak ere landu beharrekoak dira, horietako asko ere ez daudelako sexu eta genero aniztasunari egokituta.

Semeak zientzia klasean bizi izandako egoera kontatu digu Nekanek: *“Iaz izan zen, giza-ugalketa jorratzea tokatzen zitzaien eta irakasleak oso modu tradizionaletan landu zuen, ‘zakilak baginan jartzen duela hazia...’, eta semeak irakasleari esan zion liburua ez zegoela ondo eta bera ez zela inongo zakiletik etorri; hazia agian baietz, baina zakila ez zela ugalketarako beharrezkoa. Ba, irakasleari asko kostatu zitzaion mutilari arrazoia ematea.”*

Hamar urteko Nekaneren semeak ezin hobeto daki nola etorri zen mundura, laguntza bidezko ugalketaz izan zela, eta ezin hobeki barnerarazi dizkio giza-ugalketari buruzko ezaguerak kontu horrek. Bere esperientziaren bidez jakin badaki zakila ez dela ezinbestekoa, izan ere, zakila-bagina sarketaz gain, umeak sortzeko bide gehiago daude. Bere ikastetxea erabiltzen tematzen den aita-ama eskema tradizionaletan bere burua islatuta ikusi ez duen umearen kasuaren aurrean gaude. Edozein umek ez luke ezer esango zientzetako irakasleak giza-ugalketari buruz kontatu dituen baieztapen okerrei buruz. Nekaneren semea adierazkorra da eta irakaslea gezurtatzera ausartu da. Kontua da ez zaiola egoera horiek gertatzeari itxaron behar.

Hezkuntza sistemak sexu eta genero aniztasunaren lanketa eskolako curriculumean ziurtatzen duela komentatu dugu lehen. Luzatu ditugun adibideekin, argi geratu da oso urrats zehatzak eman behar direla lanketa hori aniztasunera egokitzen joan dadin. Ikasgeletan erabiltzen diren materialak oso garrantzitsuak dira, eta, gaur egun, sexu eta genero aniztasuna islatzen ez dutela ematen du. Nekanek, irakaskuntzan urte askotako esperientzia izan ondoren kontu horrekin oso baikorra ez denak, honakoa esan digu: *“Hezkuntzan oso argi ikusten da, gaztetxoek jada badakite guztia, zoragarri, baina gero testu-liburua zabaltzen dut eta ez da ezer aldatu, are okerrago, duela 25 urtekoekin alderatuz gero.”*

Nekanek bere irudipena adierazi du, eta oso baliagarria zaigu irakaskuntzan duen esperientziagatik; hala ere, irakasleek askotan adierazten duten nekeak baldintzatuta egon daitekeela uste dugu. Izan ere, gauzak egiten dutena baino azkarrago aldatzea nahi lukete irakasle askok. Agerikoa da testu-liburuak ere heteronormatiboak direla, eta betiko diskurtsoa errepikatzen jarraitzen dutela, baina ez dugu uste liburuen edukia, sexu eta genero aniztasunari dagokionez, duela hogeita bost urtekoa baino okerragoa denik.

Heziketarako materialek sexu eta genero aniztasuna sartu gabe jarraitzeak ez du esan nahi duela hogeita bost urtekoak baino okerragoak direnik; gizartearen gaurko eskariei egokitu gabe jarraitzen dutela baizik.

Sexu eta genero aniztasuna hezkuntzan sartuta al dago?

Nekaneren azken komentarioak galdera hori egitera eramán gaitu, izan ere, alderdi interesgarria planteatu du: gizarteak, ikasleek barne, egun sexu eta genero aniztasunari buruz maneiatzen duen informazio kopuru handia. Kontu horrek pentsarazi digu hezkuntza sistemak material eta baliabide mota guztietan sartu duela gaia. Ezetz dirudi.

Ez dago euskal hezkuntza sisteman erabiltzen diren curriculumeko materialetan eta agiri ofizialetan sexu eta genero aniztasuna sartzeko moduari buruzko txostenik. Irakasleak kontu horietan formatzen daukagun esperientziaren bidez, ordea, ikasgeletan erabiltzen diren materialek, oro har, ez dutela aniztasun hori barne hartzen jakin dugu.

Irakasleek orokorrean komentatzen duten egoera Patricia Ros Zaragozak hezkuntza eremuko aniztasun sexu-afektiboari eta familia eredu berriei buruz egindako azterketaren antzekoa litzateke (Ros Zaragoza, 2012). Zenbait datu interesgarri eskaini dizkigu:

- ✿ Familiei zuzendutako ohar informatiboetan, “aita/ama” hitzak erabiltzen dira gehienbat.
- ✿ Ikasgaiak lantzeko aukeratutako testu eta irakurketa liburuetan, gutxien ageri diren familia ereduak honakoak izaten dira: harrera familiak, adoptatutako seme-alabak, guraso bananduak eta familia homoparentalak.
- ✿ Hezkuntza material berberetan, ez da pertsonaia homosexualik agertzen.

Ikastetxe guztiak ez dira berdinak

Ikarketa honetan parte hartu duten emakumeek gure gizartean elkarbizi diren ikastetxeen aniztasuna erakutsi digute. Zaloa, adibidez, ikastetxe erlijioso batean eskolatu zuten duela asko: *“Eskola erlijioso batean ikasi nuen, eta espazio deserosoa izan zen niretzat. Ikasgelako jendea gauza bat izan zitekeen, baina irakasleek, zentroen egituraketak eta curriculumak ez zuten, zinez, defentsa handiegirik.”*

Parte hartu duten emakumeek azpimarratutako alderdietako bat ikastetxe mota izan da, eta horrek jasotzen den heziketan duen eragina. Antza, ez dira guztiak berdinak eta eragina izaten du haurra eskolatzeko lekuak. Ez dira gauza bera ideologia nagusia oso kontserbadorea duten ikastetxeak eta, LGTB pertsonen eskubideei dagokienez, askatasunaren aurrerapenekin irekiagoak direnak. Argi utzi digu Zaloak, bere ustez, eliz ikastetxeak ez direla aniztasuna jorratzeko egokiak. Bere aldetik, Nekane argi dauka bere aukera: *“Nik beti Euskal Eskola Publikoa. Nahikoa umeak ez daitezen etengabe ‘aitaren izena’ eta ‘amaren izena’ orrietatik ezabatzen egon behar. Euskal Herrian dagoen eskola ‘cool’enera joaten dira seme-alabak. Ez litzaidake burutik pasako beste leku batera eramatea.”*

Ikus dezakegun bezala, Nekanek ez lituzke seme-alabak euskal eskola publikoaren sareko edozein zentrotara ere eramango. Esperientziaren bidez jakin dugu ikastetxeen giza osaketaren araberakoa izaten dela, batez ere, sexu eta genero aniztasunarekin lotutako gaiak egoki jorratzea.

“Entrenatzaile gizon onena beharrean, entrenatzaile emakume onena izango zara guretzat”

Itxasok heziketa praktika onaren adibidea eskaini digu bere elkarrizketan, adingabeekin sexu orientazioa eta genero identitatea lantzea hain konplexua ez dela erakutsiz.

Itxasok, generoa berregokitzeko prozesua hasi zuenean, berak ikasi zuen ikastolan entrenatzen zuen futbol taldea. Ikastetxean kontu hori ulertu ez eta kalera botatzea zen bere kezketako bat. Ikastolako zuzendariari gaia atera zionean, onarpena eta laguntza jaso zituen. Ikastolako zuzendaritza-taldearen laguntzak futbol entrenatzaile izaten jarraitzera animatu zuen Itxaso, eta hasiko zuen prozesua eta horrek ekarriko zizkion aldaketak gaztetxoei nola azaldu pentsatzen hasi zen. Hauxe da haiekin izandako elkarrizketaren zati bat: *“Ageriko aldaketa fisikoa egongo zela azaldu nien, eta ez dut arazorik eduki. Planteatu zidaten zalantza bakarra ea pertsona bera izaten jarraituko nuen izan zen. Baietz esan nien, beti sentitu nintzela emakume. Eta galdetu zidaten: ‘eta zein da zure izena?’, ‘Itxaso’, erantzun nien; ‘eta nola nahi duzu deitzea?’, ‘ba, Itxaso’, ‘bale, entrenatzaile gizon onena beharrean, entrenatzaile emakume onena izango zara guretzat’.”*

Asko hunkitu zuen Itxaso umeen erantzunak.

Sexu eta genero aniztasunaren heziketa lehen hezkuntzara ez iristeko argudio nagusietakoa haurrek berau ulertuko ez dutela pentsatzea da, eta kalte egingo diela. Itxasok, argudio horiek faltsuak direla frogatzeaz gain, haurrak helduok uste duguna baino irekiagoak direla erakutsi digu, eta komenigarri dela gai horiek haurtzarotik lantzen hastea; pertsonak hezkuntza sisteman matrikulatzen diren lehen urtetik.

Itxasoren ustez, *“Irakasten diedan futbola ere heziketaren eta errespetuaren zati dira”*. Aniztasunarekiko errespetuan bizitzen irakastea, adina dena delakoa izanda ere, ezin daiteke txarra izan. Irakaspen hori Aniztasunaren Arretarako Plan Estrategikoa Eskola Inklusiboetan 2012-2016 egitasmoaren bizkarrezurra da. Plan horren aurkezpenean, honakoa gogorarazi zuten: *“hezkuntza zentroak aldaketarako motorra dira, benetako eraldatzerako espazioa, eta eszenatoki horretan bilatu behar dira ikasle guztiak sartzeko bitartekoak, inolako bazterketarik egin gabe. Ikastea eta parte hartzea zailtzen dituzten harresiak hautemateko gaitasuna duten irakasleak behar dira; baita hezkuntza inklusiboaren oinarriak (presentzia, parte hartzea eta lorpenak) sustatzeko eginkizunean benetako lidergoa gauzatuko duten zuzendaritza taldeak ere.”*

UNIBERTSITATEA

60. hamarkadako unibertsitatea: Juliaren istorioa

Juliaren unibertsitateko ibilbideak eta Itxasok kontatu duenak alderdi gutxitan egiten dute bat. Kasualitatez, biek egin zuten karrera bera, baina 45 urteko aldearekin.

Juliari, “aldartearekin lotutako arazo psikosomatikoak betidanik pairatu dituenari”, ikasgaiak gainditzea ere kosta egiten zitzaion: *“Ez nituen behar zuenean gainditzen eta, noski, edo errepikatu egiten nuen edo gainditu gabeko ikasgaiekin igarotzen nintzen hurrengo ikasturtera. Horrek asko sufriarazten zidan shocka eragiten zidan, eta sufrimenduak arazo psikosomatikoak.”* Baina, Itxasok ez bezala, ez zuen gertatzen zitzaiona unibertsitateko aldian identifikatzea lortu, eta kurtso batetik bestera igaro zen, inork ere bere genero identitaterakin zituen barne gatazkak ezagutu gabe.

Juliak bazekien zerbait zuela, baina ez zuen bere ondoeza identifikatzea lortu; ez zuelako, bere bizitzako zati handi batean, transexualitateaz hitz egiten inor entzun. Hauexek dira bere hitzak: *“Ez zitzaidan burutik pasatzen, hain gai ezezaguna zen, hain tabua, sexu identitate bat eduki nezakeen, edo gaur erabiltzen den terminoa, disforia, ezta? Hori ez nuen orduan hautematen. 2006an ALDARTEa etorri ez nintzen arte, ez nuen nire identitatearekin lotzen.”* Hirurogeita bost urte inguru zituela hasi zen genero identitatearekin lotutako gai horiei buruz zerbait entzuten. Hezkidetzaz, berdintasuna, integrazioa eta aniztasunarekiko errespetua jaso ere egiten ez zituen sisteman hezia izan zenez, inork ez zion maskulino izendatutako gorputzean bizi den emakumea izatearen aukeraz hitz egin Juliari.

Juliak instituzioaren eta irakasleen oroitzapen garratza dauka: *“Unibertsitatean, urte askotako esperientzia eduki nuen, baina zerbitzua edota laguntza pertsonala eskaintzeaz, halakorik ez zegoela esango nuke; irakasleek oso humanistak zirela esaten zuten arren.”* Zorionez, Itxaso hartu zuen unibertsitatea eta Julia jaso zuena ezberdinak direla esan dezakegu. Itxasok adierazi dituen sententzio onak unibertsitate eremuan gertatu diren aldaketa handien ondorio dira, zalantzarik gabe. Duela hamarkadak baino irekiagoa, demokratikoagoa eta anitzagoa da eta.

Esperientzia ona: “Instituzioak errespetatu egin nau”

Itxaso zuzenbide ikasketak amaitzen ari da egun. Bere kontakizunean, unibertsitateko igaroaldiko hainbat une kontatu dizkigu, bere transexualitatearen onarpenarekin eta adierazpenarekin lotatutakoak.

Lehen urteetan oso une zailak bizi izan zituela esan digu; izan ere, emakume sentitzen zen eta ez zekien bere gorputzarekiko sentimenduak nola adierazi. Laguntza nahikoa eta irakasleen esku hartze nahikoa izan ez zituela aitortu du: *“Une batean, izugarri jaitsi zen nire ikasteko eraginkortasuna; besterik gabe, ezin nintzen kontzentratu, eta irakasleak zer nuen edo arazorik nuen galdetzen ez zuten testuinguruan nengoen. Unibertsitateak ez luke horrelakoa izan behar, baina bada.”*

Itxasok ez zuen EHUKo ikasleei laguntzeko zerbitzua erabili, eta unibertsitate kanpo bilatu zuen laguntza; LGTB elkarte batean, zehazki. Sentitzen zuena eta izan nahi zuena argitzeko prozesua amaituta, Itxasok berriz ere egin zion unibertsitateari aurre, baina beste baldintza batzuetan. Sentitzen zuen generoari dagokionez, unibertsitatearen jarrera berak nahi zuena izan zela aitortu du; hau da, neska moduan tratatu zuten: *“Irakasleek, idazkariak, ikaskideek... instituzio osoak errespetatu zuen izen aldaketa legalki egin ahal izan nuenean, eta lehenago, harremanetan, automatikoki aldatu zuten nire transexualitatea komentatu nuenean. Azterketak Itxaso izenarekin egiten utzi zidaten, nahiz eta legalki, berez, ez zuten zertan.”*

Unibertsitate ikasketen hasieran, mutil izena ageri zen bere agirietan. Transexualitatearen Euskadiko Legeak (baliabide juridikoen atalean aipatu dugunak) izen hori aldatzeko aukera eman dio, nahi duena aukera dezan. Egun, Itxaso da unibertsitateko agirietan. Itxasoren kontakizunaren alderdi interesgarria unibertsitateak berak nahi bezala tratatu izana da, are agirietako izen aldaketa egin aurretik. Kontu garrantzitsua da hori, eta Itxasok asko baloratu duena. Pertsona baten identitatearen onarpena pertsona horrek bere buruari ematen dion izena onartzea bezalako oinarritzko kontuarekin hasten da.

Itxasoren unibertsitateko ikusgarritasun prozesua bai instituzioko langileek bai ikaskideek onartu dute. Ondo sentitzen da unibertsitatean, eta honelaxe azaldu du: *“Ez da inolako ez inongo diskriminaziorik egon unibertsitatean.”*

Bertatik igaro direnentzat, lesbianismoaren edota transexualitatearen lehen agerpenak egiteko hezkuntza espazio bihurtu da unibertsitatea. Baliteke unibertsitatea, bere giza osaketagatik eta ikasleak bertara joateko adinagatik, ikusgarritasuna errazten duen eremu bihurtu izana. Galdetu beharko genuke ea euskal unibertsitatea al den, hezkuntza sistema formalean, egon daitezkeen sexu eta genero adierazpen mota guztietara zabalik dagoen eta heteronormatiboa ez den eremu bakarra.

Galdera horri argi erantzuteko ikerketarik ez dagoenez, unibertsitatea espazio konplexua dela esango dugu; heteronormatiboa izateari utzi gabe, emakumeei espazio hurbil eta solidarioak lehen aldiz aurkitzea ahalbidetzen diena, non euren gogo lesbikoak eta genero identitateak adieraz ditzaketen. Mónica adierazitakoekin ere elkarbizi dira espazio horiek, eta ondoren kontatuko ditugu.

“Beste irakasle batzuekin joaten nintzen tutoretzetara, nirearekin ez joatearren”

Mónicak medikuntza ikasten du eta lesbiana bezala ezagutzen dute unibertsitate eremuan. Sexu aniztasunarekiko ideia ez oso irekiak zituen irakasle bat edukitzeak eragin zion deserosotasuna kontatu du: *“Egun batean, Opusekoa zen irakasle bat kreazionismoaz hitz egiten hasi zen klasean, burua jaten hasi zitzaigun eta jainkoaren plana azaldu zuen, horrela nahi zuela eta abar. Orduan, aniztasunaren gaia atera nion, mundu guztia ez dela berdina eta gauza horiek. Berak begitan hartuta ninduen jada, eta aurrerantzean ez nintzen tutoretzetara joan berarekin. Beste departamentu batzuetako irakasleekin joaten nintzen, eskolarik ematen ez zidatenekin, ez nuen haiengana jo behar izan, baina haiekin joaten nintzen tutoretzetara nire irakaslearekin ez joatearren. Seguru asko, nire irakaslearen tutoretza askoz ere emankorragoa izango zatekeen, bazekielako zeri buruzkoa zen ikasgaia.”*

Mónicari erabat deserosoa egin zitzaion irakaslearen eliz ideologia, are desatseginagoa egin zena bere lesbiar orientazioak jo puntuan jarri zuelako, gainontzeko ikaskideen artean nabarmenduaraziz. Ondorioz, irakasleak aldatu zituen tutoretza saioetarako, ikasgaiaren irakasle titularrarekin jasoko zukeen laguntzaren aldean eskasagoa izango zela jakitun.

Irakasleen ideologia ezin daiteke erraz banatu ikasgaia ematean edota ikasleekin hartu-emana egitean izango duen jarrerarekin. Agerikoa izan arren, ez da kontu onargarria; batez ere, irakaskuntzaren eginkizunean tartekatzen baldin bada, Mónicaen kontakizunean ikus daitekeen bezala. Mónicaen irakaslearen ideia kreazionistak ez ziratekeen ikasgaiaren jardueran tartekatu behar izan, horrelako kalte argia eraginez. Egoera hori unibertsitateak landu eta konpondu beharko zukeen, Mónicaen eta bere irakaslearen arteko ika-mika hutsean geratu ez zedin.

Euskal Herriko Unibertsitateak sustatzen dituen balio eztabaida ezinetakoa da bertan daudenen aniztasuna. Espainiako beste unibertsitate eremu batzuetan gertatu denaren kontrara, azken urteetan ez da ikasleek irakasleak salatu izana ikusi, azken horiek ikasgelan doktrinatu edo sexu orientazioagatiko zein genero identitateagatiko diskriminazio eta intolerantzia balioak transmititu izanagatik.

“Ondo baloratutako beste baliabide batzuk: helduen hezkuntza”

Egun, hezkuntza iraunkorra gure gizarteetako ezaugarrietako bat da. Gero eta pertsona heldu gehiagok jotzen dute hainbat formazio gradutara, testuinguru ezberdinetan.

Elkarriketetan eta solasaldi taldeetan, helduentzako hezkuntza baliabideen inguruan ere hitz egin genuen, eta euren esperientziez hitz egiteko askatasun handiagoa sentitzen dutelako ondo baloratzen dituztela hauteman genuen. Lesbianismoaz eta feminismoaz hitz egiten da

eta, oro har, gusturago daude curriculumaren kutsuarekin. Besteak beste, Helduentzako Heziketa (HHE) eta Jabekuntza Eskolak daude.

Mirenek honakoa komentatu du: *“Niri, hezkuntza baliabide gisa, oso onak iruditzen zaizkit Jabekuntza Eskolak.”* Ceciliak hauxe nabarmendu du: *“Nire ustez, HHE, helduentzako etengabeko hezkuntza, ona da”,* eta Fátimari asko gustatu zitzaion bizi den herriko emakume feministek antolatzen duten hezkuntza ez-formala. Honelaxe adierazi du: *“Oso ona izan zen emakumeen eskubideei buruzko ikastaroak herriko emakume taldean egitea.”*

Mirenek, Ceciliak eta Fátimak ez digute esan zergatik balioztatzen duten horrenbeste heldutako hezkuntza, baina Jabekuntza Eskolen³⁷ formakuntza lerroak egun mugitzen dituzten balio anitzak eta zenbait emakume taldek antolatzen dituzten formakuntza ikastaroak ezagututa, balorazio on horren arrazoiak asma ditzakegu.

Goi mailako ikasketak: “generoan kokatuta”

Unibertsitate eremukoak izan arren, goi mailako ikasketa diren masterrak unibertsitate baliabideetatik kanpo kokatu ditugu, emakumeek horrela aipatu dituzte eta. Arantxak unibertsitatara joan zela esan digu: *“Euskadiko bi unibertsitatara (publikora eta pribatura) joateko aukera izan nuen master bat egitera, eta oso eroso sentitu nintzen bietan. Nire ikasketak generoan kokatuta zeuden.”*

Arantxa da sexu eta genero aniztasuna bere ikasketa testuinguruan lantzeko moduz hitz egin duen bakarra. Genero ikasketetan, sexu aniztasunari egindako erreferentzia gutxi aurkitu zituela uste du, eta indarkeriatzat jotzen du gabezia hori. Honalaxe azaldu du: *“Egin nuen masterrean ez da aniztasunari buruzko erreferentziarik ageri. Keinu bat agertu da, baina ez errespetua; ez da emakume lesbianek borroka feministari egindako ekarpen osoa erakusten, horien erresistentziazko lan guztia. Feminismoaz hitz egiteko denbora egonik, zergatik ez erakutsi emakume lesbianen erresistentzia, euren ekarpen akademikoak, legeen hainbat espaziotan egindako ekarpenak... ere bai? Akademietan ez dago begirunezko begiradarik, ez nuen sentitu, eta lesbianak ikusezin bihurtzen dituen indarkeria dela iruditzen zait.”*

Egun ematen ari diren genero ikasketetan, emakume lesbianak agerrarazteari garrantzi handiagoa eman beharko litzaiokeela uste dugu, eta emakume lesbianen ekarpenak edukietan sartu beharko lituzketela; bai maila indibidualean bai mugimendu feministan parte hartu duten emakumeek egindakoak. Arantxak ideia hori berretsi du eta horrek kolektiboaren aitorpena ere ekarriko lukeela baieztatu.

³⁷ Ikus, adibidez, Getxoko Jabekuntza Eskola: <https://www.getxo.net/es/igualdad/programas>

LAN ARLOKO BALIABIDEEN ANALISIA

SARRERA

Emakume lesbianek haien lanean jokatzeko moduan elementu eta egoera askoren araberakoa da, eta era berean, ondorio zuzenak izaten ditu haien bizi kalitatean. Landa lanerako osatutako hainbat solasaldi taldeetan, hainbat emakumek haien lantokietan lesbiana izaera agerrarazten ez dutela argi utzi dute, horrek haien lanpostua arriskuan jar lezake eta.

Gure gizartean, pertsonaren bizitzaren ardatzetako bat da lana. Lana bitzitzeko bitartekoa eta nolabaiteko bizi kalitatea izateko diru iturri den arren, are gehiago egun bizi dugun krisi ekonomikoaren ondorioz, arazoa ez da ekonomiari edo produktibitateari dagokiona soilik. Izan ere, gure gizartearen erdigunean kokatzen duten hainbat adjektibo egozten zaizkio lan kontzeptuari, hala nola, duintasuna eta gizarte estatusa.

Horregatik guztiagatik, pertsonen bizitzan lanak duen garrantzia berau galtzeko beldurrarekin hertsiki loturik dago, baita galera horrek ikuspegi pertsonalean, familiarrean edo sozialean eragin dezakeen guztia ere.

Desazkundearen aldeko mugimenduek (Marcellesi, 2013) lana eta lanari ematen diogun garrantzia birpentsatu eta produktibitatean oinarrituta ez dagoen gizartea proposatzen dute, hau da, bizi onean³⁸ oinarrituta dagoen gizarte alternatiboa. Lana mantentzearekin dugun dependentzia handiagoa izaten da krisi garaian, eta horrelakoetan, eskubideak mugatzeaz gain, pertsona ahulengan beldur sententzia hazi egiten da.

Bizitzako beste hainbat eremuetan bezala, lan eremuan ere heterosexual-presuntzioa da nagusi eta homosexualitatearekiko, lesbianismoarekiko eta transexualitatearekiko aurritziekin eta estereotipoek eragin handia izaten dute. Uste horiek guztiak are nabariagoak izaten dira gizonezkoen lan eremu izendatu izan direnetan.

Aurritzi horiek aztertuko ditugu, horiek eragiten baitute emakume lesbianek, oraindik ere, kontrako ingurunetzat hartzea lan eremua. Emakumeek txantxa, txiste edo irainak pairatu dituzte, eta haien orientazioa agerrarazteko ausardia eza izaten dute ondorio.

Kapitulu honetan ikusgarritasunarekin edo ikusgarritasun ezarekin lan eremuan sortzen diren elementu zehatzak azalduko ditugu: hezkuntza eremuko adibide zehatza, lankideen arteko tratatu ezberdinak (emakumeak, gizonak edo nagusiak izan), izaera publikoa edo pribatua duten lan eremuetan ematen diren ezberdintasunak, eta abar.

³⁸ “Gure Lurraren muga ekologikoen barruan ondo bizi eta zoriontsuak izatea posible da. Bidea erraza ez dela dakigun arren, guztion ardura da elkartasunean eta iraunkortasunean oinarritutako munduan ondo bizitzea ahalbidetzea.”

Lege aldetik indarrean dagoen araudia eta babesa zabala bada ere, emakume lesbiana askok haien langile eskubideei izkin egiten dietela ikusiko dugu, eta haien bizi egoeran eragina izaten du horrek. Lanean haien lesbianismoa ez azalerazteko arrazoia bizitza pribatuaren parte dela izaten da eta horren atzean ezkututzen dira, horrek ez baitu lanean eraginik izan behar.

HETEROSEXISMOA LANEAN

“Matxote eta matxista asko biltzen dituen tailerrean nago, eta atzera egin dut”

Elementu asko batzen dira emakume lesbiana bat lanean gustura ez egotearen atzean. Gizartean hain errotua dagoen heterosexualitate-presuntzio unibertsean eta indarrean dagoen matxismoan dute sorburua, eta gurutzatuta, diskriminazio jokaerak sortzen dituzte.

“Concepciones, actitudes y comportamientos respecto a la homofobia en el ámbito laboral de Coslada (Guirigay, FELGTB, 2003)” lanaren arabera: “Heterosexualitatea sexualitatea bizitzeko eredu bakar moduan onartzen duten erreferente kulturek aukera eta jarraibide batzuk zehazten dituzte. Horrela bada, beste sexualitate batzuk aztertzeke aukera faktore garrantzitsuenetakoa da”. Gaur egun, gizarte jarrera onartua, ona eta egokia zein den zehazten duten genero rolak indarrean daude.

“Niri ez zidaten ezer esan baina, bat-batean, zirujau bat jaitsi eta halaxe esan zuen ‘egin dut egoitzako maritxuen zerrenda.’ Zerrenda egin zuenarentzat emakumeak ezin ginen bertan sartu ere egin, ez zegoen horretarako aukerarik.” Esaldi horrek eta Natiren laneko bizipenak argi erakusten dute lesbianismoa ez dela aukera moduan ere proposatzen mundo heteronormatiboan. Gehienara ere, baliteke gizon batzuek araua haustea, baina horiek ezin dira inoiz ere emakumeak izan.

Lan eremuan nagusi den matxismoak zerikusia dauka emakumeek edozein lan mota egin ezin duten ustearekin, edo ustez gizonezkoen lanetan emakumeek ezin dutela ardura handiko posturik izan. Paulak lorazaintzaren eremuan lan egiten du eta halaxe dio: *“Emakume gehienak batera sartu ginen eta ez zeukaten emakumeekin lan egiteko ohiturarik. Lan bat ala bestea egiteko dudak gaitasunari buruz zuzenean eta zeharkako iruzkinak entzun behar izan ditut. Gauzak gizonek bezala egin ditzakezula beti erakutsi beharra izatea nekagarria eta oso frustragarria da. Aurreko egunean langileburu batek galdetu zidan ea jendea ez zen harritzen neska bat matxote talde bati agintzen ikustean.”*

Emakume berberak esan digunez, matxismo adierazpen horren elementu gehiagarria da bere lesbianismoa: *“Honi guztiari gehitzen badiogu orain dela bost urte inguru dakitela lesbiana naizela eta gainera, nire bikotekidea lankide bat dela... Ziur naiz haien artean gaiaz mintzatu direla eta iseka egin izan didatela.”*

Matxismo esamoldeez gain, badira bestelako diskriminazio jarrerak ere, esaterako, pertsonari lan funtzio ezberdinak ematea haren sexu orientazioa edo genero aldaketa ezagutu ostean. Horrela bada, lan eremuko diskriminazioa lanpostuko funtzioen arabera ere egin daiteke: lan aldaketa edo beheragoko mailako lanetara behartzea, lan igoera eragozteak edo zailtzea, eta abar.

Horrela azaldu zigun Zaloak lanean bizi izandakoa: *“Nagusi batzuek, emakume transexuala naizela jakin ondoren, lan ezberdinak eman izan dizkidate. Gauza berak egiteko kontratatuta gauden lanpostu batean, niri lan atseginagoak eman izan dizkidate. Batzuekin hori eztabaidatu eta “jendeak maite zaituelako da, zaintzen zaitu” entzun behar duzu. Zaindu ala diskriminatu egiten naute.”* Lehen aipatzen genuen eragin argiaren ondorio da hau: gizon paperean agertzen zenean lan “maskulinoak” egiten zituen eta aldaketaren ondoren lan atseginagoak ematen dizkiote. Zaloak berak dioen moduan: *“Haien subkontzientean dago emakume generoa ahula dela berez.”*

Era berean, matxismoa zeharkako esaldiekin edo zentzu bikoitza duten esaldiekin agertzen da. Horrela bizi izan zuen Candelak lanean hasi zenean: *“Osakidetzan laneko “matxito” bat txantxak egiten hasi zen: “jo, berriak iritsi dira, begira batzuk ze onak dauden, gainera “tortillerak”. Eta erantzun nion “Zer?”, “Ez ezer ez, tortillak gustatzen zaizkidala.”*

LANEKO ARERIASUNA LANTZEKO ESTRATEGIAK

“Lanera sartzearekin batera esan zidaten: begira, hori lesbiana da”

Lesbofobia kasuek, izan isekak, kritikak, iradokizunak, zeharka esandakoak... berehalako erantzuna izaten dute emakumeengan: ~~haien buruak~~ ikusgarri ez egiteko mezu zuzena izaten dira. Arestian aipatu bezala, lana galtzeko beldurrak edo hainbeste ordu ematen dituzten lekuan baztertuta sentitzeko beldurrak eragin dezake haien orientazioa agerrarazteak, egunerokoa infernu bilakatzea.

“Esango banu aldaketa ikaragarria izango litzateke, tratua eta guztia. Orain ze jatorra eta ze guay dioten lekuan, piperropil eta tortillera esatera pasako lirateke. Bizitza osoa aldatuko litzaidake, okerrera baina. Zazpi hilabete daramatzat han, eta argi daukat ez dudala lesbiana naizela esango.” Joneren bizipena eta bere lesbianismoa ez azalerazteko erabakia hainbesteko ziurtasunez azaldu izana gogorra da.

Mirenek lan bizipen bat izan zuen eta ezer ez esatea erabaki zuen: *“Ez nien esan lesbiana nintzela horrek nire lanpostua arriskuan jar zezakeelako.”*

Inguruneak kontrako jarrera duenean, jarraian aztertuko ditugun adibideetan bezala, erantzunak oso anitzak eta faktore askoren arabera izaten dira. Ez da gauza bera enpresa pribatu batean edo sektore publikoan lan egitea; emakume batzuei, haien itxura fisikoagatik edo “lumagatik” (ikus ikusgarritasunari buruzko atala), zailagoa izaten zaie ezkutatzea eta modu jakin batean erantzuten dute.

Horrela, emakume lesbianaren defentsa modua anitza izan daiteke, ezkutatzetik jarrera borrokalaria azaleratzera arte, edo iruzkinek eta intsinuazioak kikiltzen ez dutela erakusteko umorea erabili dezake.

COGAM eta FELGTB elkarteek sexu orientazioa edota genero identitatea dela eta 2013an Espainian emandako diskriminazioari buruz egindako ikerketaren arabera, diskriminazioa sentitu izan duten emakumeen %72,73k txantxak jasan behar izaten dituzte. Txantxa horien aurrean izaten duen erantzuna da, askotan, persona horrek lan eremuan bere orientazioa nola bizi duen erabakiko duena, hau da, txantxari aurre egiteko gai izango den edo, aurretik ikusitakoaren ondorioz ezkutatzea erabakitzen duen.

Interesgarria da oso Candelaren erantzuna, lankide baten zeharkako iruzkina entzunda, intsinuazioari aurre egiteko umorea baliatzen du, hein batean eraso zenari erantzuna emanez. Zentzu bikoitza erabilia baina Candelaren lesbianismoari zeharkako aipamena eginez lankide batek tortillak gustatzen zaizkiola esaten duenean, halaxe erantzuten dio Candelak:

“Bada ez kezkatu, gaur gauen tortilla batzuk egingo dizkizut eta... eta tortilla bat eraman nuen, eta esan nion “tori tortilla”, eta guztiok afaldu genuen tortilla.”

Hala ere, eta bere lan ingurunean aurkakotasun handiagoa dela eta, Jonek bere orientazioa ezkutatzea erabakitzen du, bizirauteko helburuarekin. Horrek emozioak higatzea eragiten dio eta inguruko adierazpenak larritasuna sortzen diote: *“Saihesten saiatzen naiz eta ahal dudan moduan bizirauten. Ez diet esaten mutil-laguna dudarik ezta ez dudarik ere, guztiz saihesten ditut elkarrizketa guztiak.”*

Emakume batentzat horrela bizi behar izatea zer den sumatu ahal izateko, elkarrizketa guztietan bere bizitzari erreferentzia egitea saihestu behar duen persona baten estres mentala hartu behar dugu kontuan, beti hitzak neurtuz eta gorputz adierazpena zainduz (keinuak eta jarrerak). Pertsona horrek bere burua kontrolatzeko ariketa egin behar du uneoro bere orientazioa inondik inora susma ez dezaten.

Norbera kontrolatzeko estrategien artean, Jonek erabiltzen duen disimulua dago, feminitatearen arauak bere egiten ditu oharkabea pasa eta lesbiana dela antzeman ez dezaten. Hala dio ikusgarritasunaren atalean: *“Lan honetan sartu eta luma handiagoa jartzen didate buzoekin eta mahoizko prakekin, ze nazka!”*

ESKUBIDEAK LANEAN GAUZATZEA: AMESKERIA?

“Ezkondur eta 20 egunak eskatu nituen erregistroan sartzeko asmo hutsarekin”

Laneko legedia arautzen duen esparrua zabala da, baina are zabalagoa da lan eremuan ez diskriminatzeari dagokiona, eta barnan ditu bai Europatik erabakitako zuzentarauak, bai eremu autonomikoetako zuzentarauak.

Hortaz, 2000/78/CE Zuzentaraua onartu zen 2000. urtean, enpleguan eta lanbidean berdintasunezko trataera egon dadin lege esparrua ezartzeari buruzkoa, hain zuzen ere. Aipatu Zuzentaraua legislazio espainiarrera igaro da, 62/2003 Legearen bitartez. Honakoa da lege horren helburua: berdintasunezko eta ez-diskriminaziozko trataeraren printzipioa benetakoa eta eraginkorra izateko beharrezko neurriak ezartzea; hala nola, enplegurako sarbidean, baita enpresa eta sindikatu erakundeetako afiliazio eta parte hartzean ere, edo lan baldintzetan, sustapen profesionalean eta okupaziozko formazio profesional jarraituan, bai eta norberaren kabuzko ekintzarako eta okupaziozko aritze profesionalerako sarbidean ere, edota kideek lan zehatza betetzen duten edozein erakundetako parte hartzean eta bertarako sarbidean. Berdintasunezko trataeraren printzipioak pertsona baten sexu orientazioagatiko edo genero identitateagatiko diskriminazio eza esan nahi du.

Laneko babes eremua eta ez diskriminatze eta berdintasunaren aldeko araua langileen estatutuarekin osatzen da, baita hitzarmen kolektiboekin eta alderdi ezberdinetan, izatezko Bikoteak arautzeko autonomia arauarekin, langileen eskubideetan eragin juridikoa dutelarik beti ere.

Lesbianen, gayen, transexualen eta bisexualen eskubide berdintasunean aurrerapena ekarri duten legezko lorpenak egin dira, eta eragin zuzena izan dute lan eremuan. Hiru arau nabarmenduko ditugu: 13/2005 Legea (Kode Zibila aldatu duena ezkontzaren gaiari dagokionean, eta sexu bereko bi pertsona elkarrekin ezkontzea baimendu duena); 3/2007 Legea (pertsonen sexuaren eta izenaren aipamena aldatzea ahalbidetzen duen erregistroko zuzenketa arautu duena), eta Eusko Jaurlaritzako 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, genero identitateagatiko ez-diskriminazioari buruzkoa, eta transexualen eskubideak aitortzen dituen.

Araudi honek, lan eremuan LGTB pertsonen eskubideak gainerakoenekin berdintzea eragin du, bai garrantziagatik bai eraginagatik. Adibide ezberdinak aipa ditzakegu: amatasun/aitatasun biologikoagatik edo adopzioagatik dagozkigun eskubideak, ezkontzagatik edo izatezko bikote egiteagatik egunak gozatzeko eskubidea, gaixotasunagatik har daitezkeen baimenak, hitzarmen batzuekin lotutako laguntza ekonomikoak edo persona transexualek izena eta sexuari dagokion aipamena dokumentuetan aldatzeko eskubidea lortzea, lanpostua eskatzeko ezinbesteko den kontua.

Gaur egun, babes marko zabala dute LGTB pertsonak, bai lanaren eremuan, baita diskriminazioaren aurkako borrokan ere. Lege aldeko berdintasuna berdintasun erreala ote den galdetzen diogu gure buruari, edo lanean emakume lesbiana baten izaera ezagutzeko beldurak lege onartuta dituen eskubideen jabe ez egitera bultzatzen duen.

Pertsona batek ezkontzea, izatezko bikote moduan izena ematea, familia izatea edo izena aldatzea erabakitzen duenean, bizitza pertsonalean eragiteaz gain, lanean eta aurretik aipatu ditugun eskubideetan eragin zuzena duen ekintza juridikoa hartzen du bere gain.

Hori dela eta, eskubide horiek gauzatzea edo ez pertsonaren lan egoera zehatzaren arabera izaten da. Norberaren orientazioa erabat ezkutatzek hainbat eskubide ez gauzatzeko ausardiarik ez izatea izan dezake ondorio, edo ezkontza bezalako eskubideak gauzatzean adibidez, ezkontzari berari lotutako eskubideak ez gozatzea, dagozkion egun libreak adibidez. Askotan garesti ordaindu behar izaten dute uko egite hori.

Jarraian aztertuko dugun moduan, erabakigarria izan daiteke lan egiten den enpresa mota. Jonek ez du pentsatu ere egin izatezko bikote egitea bere lan egoera dela eta: *“Ni izatezko bikote, lanean egun nagoen modua ikusita, ez. Aurreko lanean eskatuko nituzke (ezkontzagatiko edo izatezko bikote egiteagatiko egunak), orain nagoen tokian, ez.”*

Hala ere, egoera hori errotik aldatzen da baldintzak aldekoak direnean, Miren dugu horren adibide, funtzionaria da eta lanean bere orientazioa erabat normaldua dago. Zenbait eskubide gauzatzen ditu ikusgarritasuna aldarrikatu eta agerikoagoa egiteko: *“Erregistroan sartzegatik zegozkidan 20 egunak eskatu nituen mundu guztiak jakin zezan. Nahita egiten dut: sailen bateko norbaitekin nago eta elkarrizketan beharrezkoa ez izan arren ahal dudak bakoitzean esaten diot: “bada nik, neska batekin ezkondu nintzelako 20 egunak hartu nituenean...”*

EREMU EZBERDINAK: ADMINISTRAZIO PUBLIKOA – ENPRESA PRIBATUA

“Administrazio publikoan lan egiten dut eta aniztasuna onartu behar dute”

Aurreko atalean aipatu dugun moduan, emakume batek lesbiana dela agertzeko eragin dezakeen baldintza argienetako bat enpresaren izaera publikoa edo pribatua izan daiteke.

Arestian azaldu dugu emakume lesbianak lanean ikusgarri ez egiteko arrazoia berau ez galtzea dela, hau da, kaleratzeko arriskua. Lankideekin izaten den harremana epela izan daiteke enpresa motari dagokionez, baina administrazio publikoak lana mantentzeko ematen duen segurtasuna enpresa pribatuak ematen duena baino handiagoa da.

Zaloak administrazio publikoan lan egiten du eta ezaugarri horrek LGTB pertsonen segurtasun handiagoa ematen diela onartzen du, emakumeek beste eremu batzuetan babes txikiagoa

baitute: *“Nik administrazio publikoan lan egiten dut eta aniztasuna onartu behar dute, ezin da diskriminaziorik egon. Lankideen jarreran ezberdintasunak egon daitezke. Pribatuan, kaleratzeak badaude, baldintza berdinetan lesbiana edo mutil gay izan daiteke soberan dagoena.”*

Arazo bakarra ez da sexu orientazioa edo genero identitatea era zabalean bizitzea. Ikusgarritasunak eskubideak gauzatzean eta emakumeen segurtasun sentipenean du isla, administrazio publikoa denean babestua sentitzen du bere burua, ezin baitute kaleratu ezkontzeko eskubidea baliatzeagatik, Mirenen kasuan ikusi dugun moduan.

Ezberdintasuna argi ikusten da beste emakume baten testigantzan. Honela azaltzen du Candelak: *“Eskolan jarraituko banu ezberdin izango litzatekeela usted dut, luzaroago ezkutatuko nuke.”* Candelak badaki bere orientazioa azaltzeko jarrera ez litzatekeela berdina izango eremu pribatuan lanean jarraitu izan balu. Aurretik ikusi dugun moduan, Osakidetzan egun duen lanean, lankide baten txantxa entzunda aurre egiten dio irainari, administrazio publikoan lan egiteak sorrarazten dion babesa dela eta.

Enpresa motari dagokionez, ezaugarri garrantzitsua da ikastetxe batzuetako izaera erlijiosoa, aurreiritzi erlijiosoek bertan lan egiten duten emakume lesbienek haien orientazioa ez azaltzea eragiten baitute, lesbiana zela uste zuen lankide ohi bati buruz Candelak dioen moduan: *“Nik pentsatzen nuen: hau hemen ezkutatuta dago moja eskola delako, baina nik uste lesbiana dela eta isiltzen ari dela.”*

Hala ere, enpresa publiko batean lan egiteak ez du beti ziurtatzen erabateko ikusgarritasuna. Beldurra libre da eta emakume batzuentzat ikusgarritasuna agerrarazteko beldurra handiagoa da enpresa publikoan lan egiteak ematen dien segurtasuna baino. Hori izan zen parte hartu zuen emakume baten kasua. Bere bikotekideak lan egiten duen ospitalean ospitaleratua zegoen eta bikote zirela jakiteko beldur, maitasun keinurik txikiena egitea eragotzi zien. Gainera, familiartekoen gaixotasuna dela eta hartu daitezkeen egunak ere galdu zituen. Horrela dio Jonek: *“Berak Gurutzetan lan egiten du eta ospitaleratua egon nintzenean, esaten zidan: “mesedez, mesedez, ea nola begiratzen didazun”. Egun batean, esnatu nintzenean, norbait nire seruma ukitzen ari zen, heldu eta esan nion “Anita”, eta besteak, “ez naiz Anita”. Anari kontatu nion eta ez dakizu zer estualdi zeukan “nor zen, norekin nahastu nauzu?” galdetzen zidan eta nik esaten nion “lasai, guztia oso naturala izan da”. Nire bikotea ez da inondik inora armairutik aterako. Ziur nago zerbait gertatuko balitzait inoiz ez lukeela esango nire bikotekidea denik.”*

IZAERA SOZIALEKO ENPRESEN KASU BEREZIA

“Hemen badakit zer dagoen”

lkerketan zehar izaera sozialeko enpresetan lan egiten duten bi emakumeren bizipen negatiboak bildu ditugu. Irabazi asmorik gabeko eta ongintzazko izaera duten fundazioak dira eta desgaitasuna duten pertsonen ematen diete lana. Gure ustez, hausnarketa merezi du egoera honek.

Jonek aniztasun funtzionala du eta Lantegi Batuak fundazioko tailer batean egiten du lan. Kontrako giroa dagoen lan inguruan lan egiten duela azaldu duen emakumeetako bat da. Lan egiten hasi zenean begirale bat lesbiana zela esan zioten. Bere orientazioa agertu zuen begiraleari buruz nola aritzen ziren ikusita, Jonek bere lesbianismoa ikusgarri ez egitea erabaki zuen, segurtasun bila, agerraraziko balu lana galduko lukeela uste baitu.

Gainera, diskriminazio jarrera horiek ez omen dira lankideen aldetik bakarrik gertatzen baizik eta nagusien aldetik ere. Hortaz, argi dago aniztasun afektibo-sexuala tabu gisa bizi dela berton: *“Saihestu egiten dut eta ahal dudan moduan biziraun. Besteari iseka egiten diote eta, nola ez, ni urduritu egiten naiz. Ikaragarria da, baina ez da lankideen kontua soilik, nagusia edo idazkaria ere badira. Esango banu nire bizitza aldatuko litzateke, baina okerrera oso. Kaleratze bati buruz arituko ginateke hizketan, erabat ziur nago.”*

Ez dago sentsibilizazio programarik eta aniztasuna ere ez da inongo mailatan lantzen. Nola daiteke desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea helburu duen izaera sozialeko enpresa batek sexu aniztasuna ez errespetatzea eta bertan aniztasun guztiak gizarteratzeko politikarik ez egotea?

2013ko hitzarmenak Lantegi Batuak erakundea irabazi asmorik gabeko entitate moduan definitzen du, eta bere helburu sozialari buruz halaxe dio: *“haien bizitzetako aro guztietan desgaitasun psikikoa duten pertsonen gizarteratzea bultzatu, haien gaitasunen garapenik handiena eta bizitzeko segurtasuna lortzen lagundu, eta aukeren arabera, desgaitasuna duten pertsonak lan mundura sartzen lagundu.”*

Emakunderekin gizon eta emakumeen aukera berdintasunean elkarlanean ari den entitatea da, baina bertako lantokietan ez da berdintasun hori ematen, Joneren bizipenean ikusi dugun moduan. 2010ean Europako Laneko Jardunbide Onen Atlasean sartu zutela azpimarratu nahi dugu, baina aipatuak aipatu, zalantzan jarri beharko genuke izendapena bera.

Enpresa batzuek aniztasun funtzionala duten pertsonen alde egiten duten lana goraiatzeko delatzen dugu baina, era berean, ez dugu inondik inora ulertzen enpresa horietan lan egiteak pertsonen eskubideetan eta ongizatean atzera pausorik eragin dezakeenik. Zerbait ez dabil ondo pertsona batek aurreko lanean bere lesbianismoa askatasun osoz bizi bazuen eta integrazioa helburu nagusi duen enpresa batean lanean hasten denean galtzen badu. Aipatu

enpresako instantzia bakar batean ere ez da sexu aniztasuna lantzen ez errespetatzen, eta lanpostua, auto-estimua eta duintasuna indartzen dituen lekua izan beharrean, gogor erasotzen dituen leku bilakatu da.

Jonek argi dio fundazio honetan lan egiten hasi zenetik bere egoerak okerra egin duela: *“Orain tailer batean nago eta atzera egin dut. Ikaragarria, izutzeko modukoa... eta ni ez nengoen horrelakoetara ohituta.”*

Joneren testigantzan ikusi dugun moduan, zerbait oker dago lantoki batean jarrera matxistak nagusitzeaz eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ez errespetatzeaz gain, diskriminazio eta lesbofobia jarrera argiak agertzen direnean.

Marisolek antzeko egoera bizi du ongintzazko Eragintza fundazioan, bertan egiten baitu lan desgaitasuna duen emakume honek. Berak azaldu duen moduan, tailerrean erabat ezkutukoa da bere ikusgarritasuna: *“Eskizofrenia paranoidea diagnostikatu didate. Eragintzan ez dakite lesbiana naizenik.”* Joneren kasuan bezala, nagusi den matxismoak zuzenean eragiten dio bere ikusgarritasun ezari, ez du esaten lesbiana denik eta inork bere orientazioa susmatu ez dezan itxura egiten du: *“Mutilen klasean nago, neska bakarra naiz, ikusten dute nola janzten naizen, prakak eramaten ditut, haiek bezala, baina ez dakit imajinatzen ote duten. Ez dut esan, ezkutatu ere egiten dut: Ordenagailuan Ben Affleck aktorearen gorputza atera zen eta nik esan nuen “ederra dago”, eta mutilek barre egin zuten. Ez dut lesbiana naizela esango...”*

Ikerketan zehar bi kasu hauen berri izan badugu ere, sexu orientazioagatik emandako lan kaleratze baten berri ere izan dugu aurretik ALDARTEn. Kaleratzea epai judizial batek babesten du eta aurretik aipatu duguna berresten du. Barakaldoko Udalak sortutako USOA elkarteak langile homosexuala kaleratu zuen homosexuala izateagatik. USOA elkarteak, dena den, honela definitzen du bere elkarteak: *“lan babestua eskaintzen duen lantokia da, desgaitasuna duten pertsonen lan aukera egonkorra eta normalizatuak ematea du helburu, haien gizarte garapena ahalbidetzeko.”*

FELGTBk 2013an egin zuen ikerketaren arabera, sexu orientazioagatik edota genero identitateagatik emandako diskriminazioa aztertzen zuen ikerketaren arabera, lanean diskriminazioa antzeman zutenen %2,81ek baino ez zuen epaitegiara jo. Datu hauek legearekiko konfiantza eza erakusten dute.

Ez zen hori izan Jonen kasua, bere orientazioagatik kaleratu ostean, enpresa (USOA) auzitara eramatea erabaki baitzuen. Ondorioa Bilboko Lan arloko 9 zenbakiko epaitegiaren 2010eko urtarrilaren 21eko epaian zehaztu zen: *“Egoera zehatzek arrazoi osoz argiten dute langilea ALDARTEko ordezkaria izan dela publikoki. Hori baieztatuta, arrazoi osoz ondorioztatu daiteke prentsan agertu izana izan dela kaleratzea erabaki zuen azken arrazoiak, enpresak ez baitu kaleratzeko arrazoi objektiborik azaldu. Elkarte homosexual bateko ordezkari moduan prentsan agertu izana argudiatu dute kaleratzerako orduan eta horrek berdintasunerako eskubidea urratzen du, sexu joeragatik diskriminatua ez izateko eskubidea.”*

Beharrezkoa da aniztasun funtzionalaren, sexu aniztasunaren eta genero identitatearen alorrean egiten den lanaketa berdintasunaren eta diskriminazioaren aurkako borrokaren

ikuspegitik jorratzea, erakunde eta enpresa hauek desgaitasunari eskaintzen dioten adinako garrantzia eskainiz.

“Concepciones, actitudes y comportamientos respecto a la homofobia en el ámbito laboral de Coslada” (Guirigay, FELGTB, 2003) ikerketaren arabera, “diskriminazioari dagokionez enpresak duen politika zentzu guztietan da garrantzitsua homofobia handitzeari begira, lan gatazkak gutxitzeko eta enpresaren irudia babesteko batez ere.” Pertsonen duintasuna babesteko beharra gehitu nahi diogu zerrendari, bere sexu orientazioa eta genero identitatea alde batera utzita, desgaitasunen eremuan lan egiten duten enpresen politiketan txertatu behar baita, enpresak eremu publikokoak zein eremu pribatukoak izan.

HEZKUNTZAN LAN EGITEN DUTEN LESBIANAK

“Esan dudanean, inoiz ez dut nire lankideekin arazorik izan”

Ikerketan parte hartu duten hainbat emakume irakasle dira edo izan dira eta hezkuntza alorrari eskainitako baliabideen eremuan zabal landu dugu. Atal honetan gainerako irakasle lankideekin duten harremana aztertuko dugu.

Hezkuntzaren alorrean ezberdintasun handia dago ikusgarritasunean berdinen artean, hau da, gainerako irakasleekiko ikusgarritasunean eta ikasleekikoan. Hezkuntzaren gaia jorratzean azaldu dugun moduan, irakasleen ikusgarritasunak lankideen aurrean azaltzen ez diren hainbat gabezia ditu, lankideekin modu irekiagoan azaltzen baitute euren burua: *“Lankideekin gerta daiteke uneren batean horrelakoak esatea ‘joan beharra daukat seme-alabak norekin utzi ez daukadalako, edo esaten dut emakume batekin banatuta nagoela.’* Nekanek lasaitasunez azaltzen du bere egoera pertsonala gainerako irakasleen aurrean eta itzulingururik gabe egiten die erreferentzia elkarriketetan, bere lesbianismoari buruz zailtasunik gabe arituz, berak azaltzen duen moduan.

Berta irakaslea da eta bere lesbianismoa normaltasunez eta naturaltasunez bizi du, berak dioen bezala: *“Inoiz ez dut lankideekin arazorik izan, esan dudanean normaltasun osoz esan dut, nire neskarekin edonora joan naiz, edo oporretan egon gara nire neska eta biok, edo norbaitekin hizketan ari banaiz eta gaiarekin bat egiten badu, ez dut bat-batean lesbiana naizela esan beharrik.”*

Gainerako irakasleekin berdinen arteko harremana dute, eta hori izan daiteke irakaskuntzan lanean ari diren emakume lesbianak haien sexu orientazioa hain eroso bizitzeko arrazoiak. Ikasleekiko harremanean ez da gauza bera gertatzen. Lesbianismoarekin lotutako iruzkin edo iradokizun iraingarrien aurrean, pertsona heldu bati aurre egiteko mekanismoak ez dira ikasleekin erabili daitezkeen berdinak. Helduen artean, diskriminazioari erantzutea errazagoa da eta konplexutasun txikiagoa du.

BIZITZA PRIBATUA - BIZITZA PUBLIKOA

“Sexu orientazioa nire kontua da, ez da esan ohi dudana zerbait”

Horrela zioen Naiak lanean sexu orientazioa azaltzeari zegokionez. Azpimarragarria da bere sexu orientazioa bizitza pribatuko eremukotzat daukala baina ez bere transexualitatea. Berak halaxe dio: *“nire orientazioa eta nire sexu identitatea bi gauza erabat desberdin dira niretzat. Lanean nire genero identitatea azaldu behar izan nuen, baina nire sexu orientazioa nire arazoa da.”*

Emakume transexualen sexu identitatea eta generoa birresleitzeko prozesuan zehar bizi izaten dituzten aldaketak ezkutatzen zailak izaten dira, ezinezkoa izaten da genero identitateari dagokiona ezkutatzea. Pertsonak bere egoera azaldu behar izaten du lankideen eta nagusien aurrean. Hala ere, sexu orientazioa ezkutatu egiten da, ez da genero identitatearen maila berekotzat hartzen, eremu pribatuko datua dela uste izaten baita.

“Lan eremuko sexu aniztasuna” txostenaren arabera: “Sexualitatea pertsonen bizitza pribatuko alderditzat ulertzen da. Pertsonen intimitate eskubidea aldarrikatuz, gizon eta emakumeen bizitzetako eremurik pertsonalenean kokatzen da sexualitatea. Hala ere, askatasunerako aukera horrek oinarritzko amarrua dauka barnean: sexualitatea eta maitasuna eremu pribatuarekin lotzeak ezkutatzea eragiten du eta, larriagoa dena, ustezko “heteronormatibitatea” indartzen du.” (FELGTB, 2009).

Analisi labur honek pertsonen erabat eragiten die haien gizarteratzerako funtsezkoa den alor batean, horixe baita haien lan bizitza. Sexualitatea eta maitasuna alor pribatuaren parte badira, hori gure bizitzetako alderdi publikotik kanpo egon behar badu, sexu aniztasuna ezkutatzen duen eredu onartzen ari gara, norma eta normalitatea heterosexualitatea dela esaten digun eredu.

Bizitza pribatuaren alorrari dagokiola defendatuz ez ikusgarritasunaren alde egitea eta ondorioz, lesbianismoa publiko ez egitea defentsa mekanismoa da eta askotan, emakume lesbianentzat aurkako lan ingurunean segurtasunez egoteko estrategia izaten da. *“Batek ez du zertan esan, lana eskatzera nator, nire izena ematen dut eta kitto”* dio Marisak.

Beatriz Gimeno (2012)³⁹ dioten moduan, sexu jarduerak pribatuak dira baina berdintasunik ez dagoen bitartean, gizarte jarrera ezin da pribatua izan. Berdintasuna lortzen denean utziko dio garrantzia izateari.

Agerikoa da emakume lesbianeiei ezin zaiela eskatu bizitza pertsonaleko edo bikote bizitzako intimitateak kontatzeko, emakume lesbiana izaerarekin eta horren garrantzia publikoarekin du harremana: pertsona heterosexualek bezain normal eta natural esan asteburua norekin pasa

³⁹ <http://www.pikaramagazine.com/2012/02/el-semiarmario-de-elena-anaya-la-homolesbotransfobia-mata-y-la-unica-arma-para-combatirla-es-la-visibilidad-sostiene-beatriz-gimeno/>

dugun, elkarrizketetan bikoteari erreferentzia egin edo antzeko egoerak aipatu. Zentro batean lan egiten hasten garenean, berehala jakiten dugu lankide bat ezkontuta dagoen, ama den, edo mutilezkoa den lankide bat asteburuan neskalagunarekin afaltzera joan den. Zergatik ez dira emakume lesbianak berdin jokatzera ausartzen? Zergatik uste dute bizitza pribatuko kontuak direla, lankideek trataera ezberdina dela ematen dietela agerikoa bada?

“Ustezko pribatutasunaren defentsa ez da hala, sekretua mantentzea da gehiago eta gizarte jarrera batzuk normaltzea zaintzen du, heterosexualitatearen pareko behar luketen identitateak” (Gimeno, 2012).

Emakume lesbianak pentsa dezake lanean bere sexu orientazioaren berri ematen ez badu arazo asko aurreztuko dituela, eta, ondorioz, nagusien aurrean ezkutuan egoteak nolabaiteko segurtasuna ematen dio. Baina segurtasun hori ordaindu beharreko prezioarekin lotu behar da: eskubideak galdu, itxura egiten ibili edo lanera bizirautera goazelako irudipena. Segurtasunak merezi al du? Guztia arrazoitu daiteke bizitza pribatua bizitza laboraletik banatuta egon behar dela esanda? Ezetz uste dugu, ikusgarritasunari buruzko atalean azalduko dugun moduan.

EMAKUME LESBIANEN INGURUKO ESTEREOTIPOAK

“Nola egiten duzu emakumeekin lan egiteko lesbiana izanik?”

Emakume lesbianen inguruko aurreiritziak eta estereotipoak oso errotuta daude gizartean. Lesbianen emakume guztiak gustatzen zaizkiela da horietako bat, adibidez. Aurreiritzi larri honek emakume lesbianen lanerako gaitasuna zalantzan jartzen du, bere lana ondo egingo duten zalantzan jartzen baita. Arantxari egindako elkarrizketa batean, emakumeekin nola lan egin zezakeen galdetu zioten, lesbiana izanik, “ziurrenik bat edo beste” gustuko izan baitzezakeen.

Arantxak bizi izan zuen bizipen batek aipatzen ditugun aurreiritziak azaltzen ditu. Etxeko lanak egiteko familia batera bideratu zuten emakumea kaleratu zuten: *“Hilabete eta erdi zeraman oso ongi lanean, eta halako batean etxeko emakumeak deitu zigun beste emakume bat ote genuen galdetuz, emakumea oso langile ona zela baina aldatu nahi zuela esanez. Gogorra izan zen jakitea lesbiana zela esan ziotela eta emakumeak bi alaba zituelako kaleratu nahi zuela.”*

Sexualitateak lan eremuan eragin zuzena duen irudipen faltsuaren aurrean oinarritzen diren aurreiritzi eta estereotipoak, aurretik ikusi dugun moduan, lan eremu “sentiberagoak” daude, “Lan eremuko sexu aniztasuna” (FELGTB 2009) izeneko txostenean biltzen den moduan: “Harremanezko ingurune zehatzetatik haratago badira, hasiera batean, sexu aniztasunarekin sentiberatasun handiagoa duten sektore enpresarialak: hezkuntza, haurrak, zaharrak, gazteak, gizarte zerbitzuak eta osasuna. Ez da kasualitatea haurtzaroarekin, gazteriarekin edo eliza

katolikoaren menpeko erakundeekin (zaharren egoitzen, ospitaleen eta ikastetxeen jabeak baitira) harremanduta dauden sektoreak izatea”.

TRANS PERTSONEN EGUNEROKOA LANEAN

Lan eremua zailtasun handiko eremua da generoa birresleitzeko prozesuan dauden pertsona transexualentzat, baita prozesua amaitu ondoren ere.

Ohiko zailtasunak lan merkatuan sartzeko gertatzen dira. Ohikoa izaten da pertsona transexualak lana aurkitzeko oztopoak izatea; erregistro zibilean izena aldatzerik izan ez dutenak edo egin arren diskriminazioa jasaten dutenak adibidez.

Ikerketan parte hartu duten emakume transexualek lanean hasteko bizipen ezberdinak izan dituzte. Zaloaren bizipen baikorra azpimarratzekoa da; eremu publikoko langilea da eta lanposturako gainerako hautagaien baldintza berak ziurtatuta izan zituen. Ikusgarritasun kontua baino ez zen: *“Onartzen dut urte askotan ezkutatuta izan dudala nire transexualitatea. Gasteizko ospitaleetan lan egin izan dut eta nik ezer esan ez arren ziur bazela bazekien jendea, baina jende askok uste zuen lesbiana mari-mutila nintzela, ez transexuala.”*

“Nik neure burua lizentziatu nuen”

Esaldi honekin laburtzen du Kattalinek genero birresleitzeak bere lanean izan zuen eragina. Lan eta bizibide asko izan ditu, baina generoa birresleitzeko prozesua hastea erabaki zuenean izaera erdi-publikoa zuen lanpostura aldatzea erabaki zuen lan segurtasun handiagoaren bila. Taberna batean egiten zuen lan aurretik eta ezin zuen aldaketa egin bezeroen jakin-minezko begiraden beldur, edo are gehiago, bezeroak galtzeko beldur zelako.

“Nik neure burua lizentziatu nuen. Egina nuen nire bizitza, ostalaritza establezimendua, baina tabernan ezin nuen batetik bestera aldatzeko bidea egin, zerbait bilatu nuen eta zabor enpresan hasi nintzen lanean eta bertan egin nuen nik nire aldaketa. Eta zaborraren alderdi polita da ez naizela aldatu zena, baizik eta baseko bollera..”

Garrantzitsua da nola baikortzat duen Kattalinek “transexuala” txartelarekin baino bere orientazioarekin identifikatua izatea; berak ez du bere lesbianismoa ezkututzen, gizonezkoak nagusi diren ingurunean normaltasun osoz bizi du lesbianismoa eta lan eremuko bizipena erabat baikorra da. Inoiz edo behin esan duen moduan, ez du bere burua pertsona transexual moduan definitu nahi. Bere bizitzako une batean egin behar izan zuen prozesua da baina honezkero “altan” dago eta, ondorioz, ez du uste bere transexualitatea beti bidelagun eraman behar duenik. Hala ere, harro eta ahaldun dago bere emakume lesbiana izaerari dagokionez.

“Nire nagusiari esan nionean, erantzun zidan: esadazu nola nahi duzun deitzea”

Pertsona transexualek izaten duten arazoetako bat goiko mailetatik etortzen da, horiek identitatea ukatzen baitiete. Lanean hasi ondoren hasi zen Nahia generoa birresleitzeko prozesuarekin, eta azpimarratzekoa da bere nagusien erantzun ona. Erantzun on horrek, segurtasuna eta konfiantza handiagoa eman zizkion argi eta garbi. Bere nagusien erantzuna oso ona izan zen, izan ere, nagusiak galdetu zion: *“Hemendik aurrera, nola nahi duzu esatea, neska edo mutil? Oraindik ere nahastu egiten da batzuetan, baina tira.”*

Hierarkian gainetik daudenen babesa izatea kontu garrantzitsua da, baina egunerokotasuna lankideekin lotuta dago eta lantokia ziurra ez izatea eta giroa larritasunez bizitzea eragin dezakete lankideek: *“Zentzu horretan kezkatzen nauena lana da. Bost urtetan mutila izan naiz, lau hilabete inguru bidean eta orain neska naiz. Jendeari txipa aldatzea kostatzen zaiola da arazoa. Batzuek lehengo izenarekin deitzen didate inolako asmo txarrik gabe eta beste batzuek paso egiten dute, gustuko ez dutela erakusten dute, eroso ez nagoela esan diedan arren. Errespetatzea espero dut, ez dut pertsona baten aurrean nire aurreko izena esatea nahi horrek haserrarazten nauelako.”*

Lan inguruetan haiei buruz nola hitz egiten duten jakitea garrantzitsua da emakume transexualentzat, gainerakoek haiei buruz aritzean atzean duten helburua zehazki. Hau da, onartzen dute aldaketak denbora eska dezakeela eta, ondorioz, fede txarrik ez badute ez dira mintzen, esaterako, haien aurreko izenez deitzen badiete. Halaxe dio Itxasok: *“Avifesen jendea zaintzen dut, nire lana haiekin hitz egitea da. Aipatu nien eta ez dago arazorik, nire mutil izenarekin deitzen didate ohituta daudelako eta aldatzea kostatzen zaielako. Esaten duten moduaren araberakoa da, konturatzen ez direlako egiten badute eta maltzurkeriarik gabe egiten badute ez dit axola, aldaketa bat da eta gehiago ala gutxiago baina denbora behar dute; maltzurkeria tarteko denean da arazoa.”*

Juliaren bizipenak: “Bizitza bizi izan dut”

Juliak Zuzenbidea ikasi zuen eta ez zuen ia enplegurik izan lizentziatu ostean. Orduetik, inoiz ez zuen Juliak lan merkatuan lan egin eta, bere lan bizitzari dagokionez, halaxe dio: *“Une batean sailkatu ninduten, urte batez lanean aritu zen abokatua izan nintzelako, baja eman nuenetik zuzenbidean lizentziatua naiz.”*

Julia berrogei urte baino gehiago etxeko lanak egiten aritu den trans emakumea da. Hala ere, lan-sariak egituratuta dauden modua dela eta, bere emaztea da etxeko langileen erregimenean pentsioa jaso dezakeena: *“Orain lanean ari ez bada ere, hirurogeita bost urte*

betetzen dituenean, eta ez du asko falta, Felisak erretiroa izateko eskubidea izango du etxeko langileen erregimenean.”

Juliaren kasua paradigmaticoa da bere lan egoerari dagokionez, etxeko lanak egiten aritu izana eta bere feminitate-sentipena elkarri lotuak bizi baititu, etxeko lanak-identitatea sinbiosiak eraikitzen du pertsona moduan.

Ezberdindu egiten du lan zehatz batzuei esleitzen zaizkien gizarte rola direla eta. Etxeko lanek ez dute etxeko lanetan ari diren gizonezkoen maskulinitatea definitzen laguntzen, eta kolaborazio moduan ikusten dituzte: *“Etxekoandreekin identifikatzen dut neure burua, eta horrek nire izaera femeninoa bermatzen du. Gaur egun ez naiz gaizki ez errudun sentiarazten baina orain dela urte batzuk bai”.*

Etxean lan egitea identitate pertsonalaren kontua da beretzat, bere “alderdi femeninoa” azaltzen eta garatzen uzten dion eginkizuna. Ohituraz emakumeenak izan diren lanak egiteak askatasun modukoa eman diote eta onurak eman dizkio horrek, etxe barruan gauzatu ditzakeelako eta ez duelako bere burua publikoki azaldu behar: *“Etxeko lanek are gehiago gerturatzen ninduten nire alderdi femeninora, aspiragailua pasatzean edo arropa eskegitzean. Hala ere, bizilagunekin bat ez egiten saiatzen nintzen. Ez dakit jarrera horiek ote ziren nire femeninotasuna eragiten zutenak edo alde zurretik neukan. Nire bizitza etxean zertu zen.”*

Hala ere, gizonezko itxura duenez, ikusgarri ez egitea erabaki du: *“Ez da normala gizon batek, kakotx artean, horrelakoak egitea, etxean gelditzea...”*. Gainerakoek ikusteak lotsa ematen dio: *“gainerakoek ikusteak sentimendu hori eragiten zidan, goizeko hamaiketan arropa eskegitzen ikusten baninduten adibidez.”*

Eta Juliak, lan berdina egin badu, ez dauka erretiro pentsioa jasotzeko eskubiderik?

Juliaren istorioan bizitza sozial hobea izatea ahalbidetu dion zerbait dago: kanpotik duen gizon itxurak bizitza osoan zehar izan ez duen onarpen soziala ematen dio orain, inoiz ez baitu etxetik kanpo “ofizalki” lan egin. Aurretik aipatu dugun moduan, lana gure bizitzako zutabeetako bat da eta lana ez izateak estigmatizatu egiten gaitu. Juliak gainean eraman duen estigma, eta bere auto-estimuan arrastoa utzi duena, erretiroa hartzeko adina bete eta gero gizartean statusa ematen dion elementu bilakatu da eta bere adineko gainerakoen maila berean kokatzen du. Horrela diosku: *“Gaur egun soziabilitate handiagoa dut, hirurogeita zortzi urteko gizon baten itxura gizon erretiratu baten itxura delako, bizitza osoa lanean eman duen gizona. Kide guztiek haien bizitza kontatzen dute, zer egin duten, eta batek nik denbora horretan zehar zer egin nuen galdetu zidanean, barru-barrutik erantzun nion: “bizitza bizi izan dut.”*

ARLO SOZIOKULTURALEKO BALIABIDEEN AZTERKETA

SARRERA

Izaki taldekoiak izanik, sozializatzeko espazioak oinarrizkoak dira gure garapen pertsonalerako. Baliabide soziokulturalek gune horiek errazten dituzte, eta oinarrizkoak dira bizi kalitate ona edukitzeko; izan ere, gizakien beharrian sozialei erantzuten diete. Labur esanda, gizarteak bere buruari ematen dizkion giza bitartekoak eta bitarteko materialak dira baliabide soziokulturalek; pertsonen beharrian, gizartearen beraren parte diren neurrian, erantzuteko xedea dutenak.

Voces de mujeres en la diversidad [Emakume ahotsak aniztasunean] ikerketa (ALDARTE, 2008), EAEko eta Nafarroako testuinguruan egindakoa, emakume lesbianek baliabide soziokulturalek erabiltzeko moduari buruzko informazioa eskaintzen duen lan bakarra da. Bertan, hurrengo datuak erakutsi dira:

Beste lesbianekin erlazionatzen diren aisialdi ekintzei dagokienez, homosexual giroko tabernak dira, bazkari eta afariekin batera, elkartze horiek gehien gertatzen diren leku eta ekintzak. Oro har, denbora gehien eskaintzen dieten aisialdi ekintzak jatetxeetara, tabernetara eta ikuskizunetara joatea eta irakurtzea izaten dira; %16,2 eta %12,4, hurrenez hurren.

Kolektibo honen asoziazionismoari dagokionez, mugimendu feministetan ikus daiteke parte hartzerik handiena. Hala ere, interesgarria da “Ez du erantzun” markatu dutenen indize kopuru altua nabarmentzea, %30,13koa da eta.

Ikerketa honetan parte hartu duten emakumeek baliabide soziokultural asko erabiltzen dituztela egiaztatu dugu. Denetarikoz zerbitzuak eta mota guztietako espazioak erabiltzen dituzte; ez bakarrik entretenimendurako edo beharrian erlijiosoak edota soziopolitikoak asetzeko, baizik eta euren lesbianismoa modu integratuagoan bizitzeko. Horrela, gizarte heteronormatiboak sortzen dien bakardadea eta giza isolamendua hausten dituzte.

Era berean, garatzen ari diren baliabideetara eta horien erabileran gertatu diren aurrerapenetara arazorik gabe egokitzen direla ikusiko dugu. Are kateatutako erabilerak sortzen direla ere, horrela, baliabide batzuen erabilerak beste batzuen errazten dutelarik.

Lesbiana askoren bizitzetan, lagun lesbianen taldeak “beste lesbianekin lesbiana gisa moldatzen” ikasteko ezinbesteko gune bihurtzen direla ikusiko dugu. Areago, adiskidetasun lesbikoen sarerik eraikitzea lortzen ez duten emakume askok nahitaezko zerbaiten hutsunea sentitzen dute. Interneten erabilera eta kirola sare hori eraikitzeko baliabide oso baliotsu bilakatzen dira horrelakoetan.

Lesbianen sozializazioan giroko tabernekin izaten jarraitzen duten garrantzia erakutsiko dugu, eta taberna horien inguruan sortzen diren eztabaidak.

LESBIANEN SOZIALIZAZIOA

Eraikuntza prekarioa

Sexu identitatearen eraikuntza ez da egiten gizarteak pertsonaren sexu praktikaz egiten duen definizioetatik at. Beraz, sarri, “Nor naiz?” galderari erantzutea ez da ariketa erraza izaten. Batez ere, sexualitatea ez datorrenean ontzat, egokitzen edo normalizat ezarritakoarekin bat, lesbianismoaren kasuan bezala. Sentitzen dutenagatik isolamendua, bakarrik sentitzea, lotsa edo erruduntasuna sentitzea lesbianen sozializazio prozesuan agertzen diren elementuak dira, prozesu horri berari oztopoak jarritz.

Hortaz, parte hartu duten emakume lesbianen identitatea, oro har, modu ezkor eta prekarioan eraiki da, eta horrek ondorio handiak izan ditu sozializatzeko moduetan eta horretarako erabiltzen dituzten gizarte baliabideetan. Adibidez, sexualitatearen eremuan, ona ala txarra zein normala ala anormala denaren barneratzea oso sustraituta dago lesbianengan. Ceciliak honela adierazi du oso modu naturalean: *“Hiru ginen taldean, baina gainerakoak neska normalak ziren, esan nahi dut... oraindik ere normalaren eta anormalaren kontua daukat.”*

Errotze horren ondorioz, esperientzia lesbikoaren lehen urteak modu bakartian bizitzen dira. Lesbiana askok konfiantza faltagatik eta euren “sekretua” ikaskideekin eta auzoko zein herriko lagunekin ezin elkarbanatu izanagatik hitz egiten dute bakardade horri buruz: *“Ez dut inoiz eduki benetako lagunik eskolan. Bakarra nuen, eta bera izan zen, nire lesbianismoaz enteratu zenean, huts egin zidana”*, kontatu digu Clarak. Julia oso herabea zen, eta ez oso lagunartekoa, bere izaera besteei egokitzen ez zitzaizela uste zuelako. Ageriko giza bazterketa jasan zuen, izan ere, bere adiskideak taldean ateratzen ziren, eta berak gurasoekin pasieran ateratzera behartuta ikusten zuen bere burua. Umiliazio sentimenduak eragiten zizkion egoera horrek: *“Eskola garaitik jada, harremanetarako oso herabea nintzen, lotsatia, ez nuen asko hitz egiten. Oso sentikorra nintzen. Ez nintzen inoiz taldean ateratzen eta gurasoekin ateratzen nintzen pasieran, zinemara eramaten ninduten, eta oso gaizki sentiarazten zidan besteak elkarrekin joateak eta ni gurasoekin. Baztertuta sentitzen nintzen taldean.”*

Juliak txikitatik sentitu izan du “gizonaren gorputzean harrapatutako emakumea” zela, eta, izandako arazo psikosomatiko guztiengatik, ez du bizitza sozialik eduki. Arazo horiek bere nahiak ezin gauzatzearen eta sentitzen den bezala ezin adieraztearen ondorio izan dira. Honela esan digu: *“Nire alderdi soziala ezdeusa zen, izan ere, nire egoeraz jakitun izanda, besteekiko harremanak mozten saiatzen nintzen.”*

Buru nahasmenduek, askotan, sozializazio dinamika edukitzea zailtzen dute. Marisoli ondo etorri zitzaion LGTB elkarte batera jotzea eta jendea ezagutzea, baina ez du bere bakardadearekin hautsi. Buru nahasmendua dutenenganako estigmak bere isolamendu soziala handitzen dute: *“Elkartean koadrila bat aurkitu nuen, baina orain lagunik gabe nago... bakoitza berera doa.”* Berau duenarentzat, buru nahasmendua edukitzea oztopo handia da garapen

pertsonalerako edo hurbileko talde sozialerako, eta horrek garapen sozial, afektibo, intelektual edota fisiko maila ezin hobea lortzea galarazten dio.

Buru nahasmenduaren diagnostikoa estigma da berau duen pertsonarentzat, eta bereizkuntza argia ez duenarekiko, “Osasun mentala eta LGTB Kolektiboa” (ALDARTE, 2009) txostenak dioen bezala. Oso zaila da buru nahasmenduarekin bizitzea. Gizartean orokorrean gertatzen den bezala, buru nahasmenduak LGTB kolektiboaren barnean ere beldurra ematen du, eta bere aurrean zein berau dutenen aurrean bazterkeriaz eta intolerantziaz jokatzeko da. Marisolek ez dela diagnostikorik gabeko pertsonengandik ia ezertan bereizten sentitzen du: beharrianak dauzka, zaletasunak, musika gustuak... Beharbada, zenbait eginkizun egiteko gai ez dela onartu du, baina jakin ere badaki horrek ez duela ezgaitzen pertsona izateko, osasuntsua izateko eta beste lesbianekin berdintasun baldintzetan elkartzeko.

“Zuzenean hasi nintzen herrialde honetako lagunak edukitzen”

Parte hartu duten emakumeetako batzuek ez dute apenas euren jatorrizko komunitatearekin harremanik, lesbiana izateagatik baztertu dituztela sentitzen dutelako. Fátimaren hitzetan, arabiarra izanik: *“Nire komunitatekoek ez dute onartzen, eta denbora galtzea iruditzen zait naizenarekiko eta sentitzen dudanarekiko ezer positiboa erakusten ez didan jendearekin egotea”*. Fátimak bere kulturako pertsonengandiko bazterketa hautematen du, eta bere orientazioa argi eta garbi bizitzea galarazten dio horrek. Hain da horrela, ezen ez baitu apenas harremanik haiekin, eta bere lesbianismoa erabat ezkutatuta baitago. Guztiz bere gain hartuta dauka bizitza bikoitzaren ideia, nahiz eta barnetik horren aurka altxatu: *“Beti eduki izan dut bizitza bikoitza nire komunitatearekin. Ezin dezakezu emakume arabiarrekin hitz egin ez zaituztelako ulertzen, eta baztertu egiten zaituzte eta gezurrak esanez hitz egin behar izaten dut. Ez du merezi sentitzen duzuna konta ezin diezaiokezun batekin egotea. Ezin zaitezke askea izan, askatasunez hitz egin, beti zaude sekretupean.”*

Inmaculada Mujikak adierazi bezala (Mujika, 2011), Fátimaren kontakizuna ohikoa da euren lesbianismoa ezkutatu edota berau bizitzeko estrategia gisa bizitza bikoitza aukeratzen duten lesbiana migratzaileen artean. Herrialde askotan lesbiana izatea ez da eskubidea, kaltea baizik. Lesbianismoa bekatutzat, gaixotasuntzat, desbideratze sozial edo ideologikotzat hartzen dute, eta, sarritan, emakume lesbianak euren kultura traizionatzeaz salatzen dituzte. Gainera, eta munduko herrialde askotan lege antidiskriminatzaileak onartzen ari diren arren, jarrera sexisten eta homofoboaren nagusitasunak indarkeriazko giroa sortzen du. Giro horrek lesbianak jartzen ditu bereziki arriskuan, beraiek ibiltzen diren eremuetan ere bai: etxean, lanean, komunitatean. Zalantzarik gabe, lesbianismoa izan daiteke eta izaten ari da beti esplizitu bihurtzen ez den migratzeko arrazoietako bat; batez ere, ezkontza zibilaren eta adopzioaren erreformen ostean, gure herrialdean lortutako berdintasun legalaren ondoren (Mujika, 2013).

Izan ere, lesbiana migratzaile askok sentitzen dute Euskadin jatorrizko herrialdeetan baino lasaiago bizi dezaketela euren lesbianismoa. Fátimaren ustez, bere komunitatekoak baino azkarrago integratu da bera harrera-komunitatean. Honelaxe esan digu: *“Hona iritsi*

nintzenean, berehala hasi nintzen herriko lagunak egiten, herrialde honetakoak, Euskadikoak. Nire jendea itxita dago.” Fátimak hainbat herrialdetan bizitzeko aukera izan du, eta egiaztatu matxismo gutxiago dagoen herrialde eta espazioetan, non Euskadi sartu duen, pertsona sentitu dela.

Lagun lesbianen taldea edukitzearen garrantzia

Emakumeak euren lesbianismoa hobeto bizitzeko faktoreen artean, giza baliabideekin lotutakoak daude: komunikabideen bitartez eredu baikorrak edukitzea, interneten dauden lesbianen txatak, LGTB elkarteak, elkarte feministak, giro lesbikoa.

Berdinen arteko taldeak sozializatzeko eragile garrantzitsuak dira. Pertsona guztiak bezalaxe, lesbianek ere berdinen edo erreferentziazko taldeak behar dituzte, lagun lesbianak edo lesbianen koadrilak. Ceciliaren hitzetan: *“Girotik ateratzen hasi eta lagunak egiten hasi nintzen. Berehala ezagutu nituen lesbianak ziren bi”*, eta Clararen hitzetan: *“Nire lagun ia guztiak edo bisexualak, edo lesbianak, edo gayak dira, oso gutxi dira heterosexualak.”*

Elkarriketatutako emakume gehienek, bizitzan zehar, lagun lesbianen kopuru handia barneratu dute euren sare sozialera. Batzuek haurtzaroko eta nerabezaroko lagunak batez ere lesbianeaz osatutako sarearekin ordezkatzan dituzte; beste batzuek, betiko lagun taldea lagun lesbianek soilik osatutako taldearekin tartekatzen dituzte. Kasu horietan, talde bakoitzarekin funtzio zehatz eta bereiziak betetzen dituzte. Lesbianismoa estigmatizatzen den gizartean, ez da kasualitatea emakume gehienek lagun lesbianen taldea edukitzea. Olga Viñualesek esan bezala (Viñuales, 1999), lagun mota horiek eduki ahal izateak konplizitatearekin du zerikusi handiagoa, lesbianismoaren onarpenarekin berarekin baino. Sexu identitatea emakume lesbianen bizitzan garrantzitsua dela jartzen du agerian horrek.

Lagunen sare lesbikoak sortzeko eta mantentzeko arrazoiekin lotuta, gainera dezakegu lesbianeak lasaiagoa egin dakiekeela emakumeen artean egotea. Izan ere, ez dute eraso posibleen aurreko defentsarako mekanismorik aktibatzeko beharrianik sentitzen. Natik berretsi egin du: *“Agian, lasaiagoa da beti emakume artean egotea. Ez dituzu defentsarako, babesteko mekanismo hauek erabili behar.”*

Emakume askoren bizitzetan, lagun lesbianen taldeak beste lesbianekin lesbiana moduan moldatzen ikasteko ezinbesteko gune bihurtzen dira. Areago, lagun lesbianen sarea eraikitzea lortzen ez dutenek nahitaezko zerbait falta zaiela sentitzen dute.

BALIABIDE SOZIOKULTURALAK ERABILTZEKO MODUA

Telebistan eta zineman lesbianak daude

Komunikabideek –zinemak eta telebistak bereziki- gure bizitzan inoiz gertatu ez diren sentimenduen, lekuen eta ekintzen ordeko esperientziak eskaintzen dizkigute, baina baita eguneroko kontuen eraikuntzak ere. Komunikabide horiek mundua ezaguna zaigunaren bitartez interpretatzen laguntzen digun imaginarioa sortzen dute, nahiz eta pantaila batean edo aldizkari baten orrialdeetan jaso ditugun ezagutza horiek.

El celuloide oculto (Epstein eta Friedman, 1995) dokumentalak hain modu zoragarrian erakutsi digun bezala, denbora askoan, bai telebistan bai zineman, lesbianak ez ziren existitzen, oro har; eta pantailetan agertzen zirenean, jendea hiltzeko, euren buruaz beste egiteko edo zoroetxean amaitzeko egiten zuten. Laburbilduz, lesbianak emakume berez gaizto, makur eta asaldatutakotzat irudikatzen ziren.

Egun, historikoki baztertuak izan diren kolektiboak, emakume lesbianak adibidez, komunikabideetan agertu izanak horiek irudikatzeko modua aldatu du, eta baikorrangoak dira orain ematen diren erreferentziak. Solasaldi taldeetan, horri buruzko debate interesgarriak sortu ziren.

Ikerketan parte hartu duten emakume batzuek telebistarako eta komunikabideetarako existitzen ez direla ikusten dute, Matxalenek baieztatu duen bezala: *“Telebistan, lesbianak ez dira existitzen, gehiago ikusten dira gayak, nik lesbianak ez daudela sentitzen dut.”* Juliak, bere aldetik, identitatearen gaia azaletik lantzen dela uste du: *“Nire ustez, gaur oraindik ere, sexu identitatearen gaiak tabua izaten jarraitzen du; komunikabideek modu nahiko friboloan lantzen dute, oso neurriz gaineko kasuak ateratzen dituztelako.”* Alaznek, ordea, telebistan lesbianen ereduak agertzen direla uste du, baina ikusleek alboratu egiten dituztela, ez dituztela lesbiana gisa aitortzen: *“Beti kritikatzten da telebistan ez dagoela lesbianen eredurik, eta horri buruzko tesina egin dudanez, badaude lesbianak telebistan, baina kontua ez da ikusezinak garela, kontua da paso egiten dutela gutaz pila bat.”*

Badirudi komunikabideek erakusten dituzten lesbianen ereduak identifikatuta ez sentitzean egiten dutela bat. Aldi berean, ordea, kontziente dira eredu horiek gizartean duten eragin handiaz. Adibidez, *“L Word”* telesailak egoera normaltzen laguntzen dien ereduak ematen dizkie lesbiana gazteenei. Alaznek honako gogoeta egin du: *““L Word” saioa lesbiana guztientzat izan da garrantzitsua, bai nire adinekoentzat, behinik behin. Ez zenekien ezer eta, bat-batean, lesbianaz betetako telesaila.”* Eredu baikorrek garrantzi handia dute, eta ikusgarriago izatera anima dezakete jendea, edo ikusgarritasuna irudikatzera, behintzat. Esperi horrela gertatu zaio: *“Emakumeak gustatzen zaizkidanetik, eta orain ateratzea erabaki dudala, gehiago ikusten ditut telesailak, gayen eta lesbianen saioak, eta animatu egiten nau.”*

Emakume batzuk telebistan eta zineman horrenbeste lesbiana agertzeko arrazoiez aritu ziren. Zaloaren hitzetan, kontsumoan dago gakoa: *“Onarpena kontsumo arrosa horretan dagoela ikusten dut, eta ez naiz identifikatua sentitzen.”* Alazneren ustez, telebistan, emakumeen arteko sexu adierazpen gehiago erakusten dira, gizonen artekoak baino; beharbada, ikusle gizonari atsegin egitearren: *“Arazo gehiago dago bi gizon ohean irudikatzearekin, bi emakume irudikatzearekin baino. Beti asexual erakusten gaituztela kritikatzan badugu ere, telebistan ezberdina da; egia da sexu proposamen gehiago dagoela, baina gizon ikusleari atsegin egiteagatik izango dela pentsatzen dut.”* Raquel Plateroren hitzetan (Platero, 2008), irudiek seduzitzen eta interpelatzen dituzten ikusle idealak maskulinoztat eta heterosexualtzat hartzen dira, oinarritzat derrigorrezko heterosexualitatea duten genero harreman bereiziak sartuta eta eraikita. Lesbianak ez daude diskurtso nagusietatik at, eta komunikabideetan duten agerpen kopuru gero eta handiagoa, berez, positiboa gerta badaiteke ere, ez dira emakumearen hipersexualizazioan oinarritzen den eta ikusle maskulino estereotipatuari zuzentzen zaion kontsumo merkatua asetzeaz libratzen.

Internet

Internetek berekin ekarri du harremanak egiteko moduen aldaketa. Lesbianen txatek eta sare sozialek elkartzeko espazio birtuala eskaintzen dute, eta hainbat jatorri eta mota guztietako emakume lesbianen arteko harremanak errazten dituzte, izan baserri ingurukoak zein urbanoetakoak. Gainera, ikusgarri egitea edo balizko aurkako giro batean agertzea eskatzen ez duen inguru ziurra ahalbidetzen dute. Ikerketan parte hartu duten emakumeen sare sozialen erabilera pertsonaren eta teknologiekiko gustuaren arabera izan da. Clarak eta Mónica sare sozialak erabili ohi dituzte. Honakoa komentatu du Cecilia: *“WhatsApp daukat, baina ezinbestekoa denerako bakarrik, ez jardunean aritzeko, ez dit atentzioa ematen”*, eta Natik elektronika asko erabiltzen duela ziurtatu du: *“Nik asko erabiltzen ditut whatsapp eta gauza elektronikoak.”*

Badakigun bezala, erantsi beharra dugu internetek berehalako informazioa eskaintzen duela nahi dugun guztiaz, eta baliabide askotarako sarbidea errazten du horrek; LGTB elkarteetarako, adibidez. Bai hemengo lesbianentzat, bai bisita egitera edo geratzera etortzea pentsatzen ari diren beste herrialdeetakoentzat. Marisak, herrialde honetara etorri aurretik, kontakturako LGTB elkarten zundaketa egin zuen, eta honakoa esan digu: *“Orain, interneteko komunikazio gehiago dagoenez, errazagoa da LGTB elkarteetara iristea. Gogoan dut, duela hamabost urte, Euskadiko LGTB elkarte bakarra aurkitu ahal izan nuela interneten.”*

Internetek aukera asko eskaini dizkio Juliari; aurrez aurre erlazionatzeko dituen zailtasunak direla eta, lehen iristerik ez zuen aukera asko zabaldu zaizkio. Ez dauka ordenagailurik eta inoiz ez txateatu izana aitortu du. Honakoa esan digu: *“Oraindik asko menderatzen ez dudana telefonoa daukat, eta internetera konektatzea lortu nuen lehenengoan, ‘transexualitate’ hitza bilatu nuen.”* Juliari, beste emakume lesbiana askori bezala, internetek ezagutza-unibertso bati

zabaldutako ateak. Horrela, sentitzen duen horri zentzua ematea eta bere esperientzia berberak dituzten pertsona gehiagorekin sinbolikoki konektatzea lortu du.

Kirola lesbiana moduan sozializatzeko

Lesbianentzat, lasaitasun oasia izan da eta bada kirola (futbola eta eskubaloia bereziki), elkartzen eta sozializatzen hasteko espazioa izan daiteke eta. Ceciliaren arabera: *“Kirolaren bitartez, zenbait elkartu ginen, eta hortik egin genuen gure mundua, gure bizitza. Ni eskubaloiarekin hasi nintzen.”* Mónica ere esperientzia bera dauka: *“Futbolean oso erraza da lesbiana izatea. Nik dakidala, nire taldean bost daude.”* Lesbiana izanez gero, talde kirola praktikatzeko eskain ditzakeen sozializazio aukerak kirola egiteko bestelako arrazoiak gutxietsi ditzake. Monica askotan esaten diote: *“Ligatzera joaten zara, ez kirola egitera.”*

Esperientziak erakutsita ikertzaileok jakin dugu hainbat arrazoiengatik egiten dutela kirola emakume lesbiana askok. Arrazoi nagusietakoa lagun lesbikoen mundua aurkituko dutela jakitea da, izan ere, ez dituzte beste inguru batzuetan aurkituko (familian, hezkuntzan, auzoan, herrian, kasu).

Gurpildun aulkian utzi zuen istripua eduki zuenean, sasoi onean zegoen Amelia. Beti gustatu izan zaio kirola egitea, eta sasoi onean egoten jarraitu nahi du. Egin dituen eta egiten dituen kirol mota guztiek istripua eduki eta gutxira izan zuen depresiotik ateratzen lagundu zioten. Igeri egin du, elkarteko jendearekin eskia ere bai, saskibaloia eta are parapentea egitea pentsatu du. Honelaxe azaldu digu: *“Ezin naiz ibili baina gauza asko egin ditzaket. Jende aparta dagoen kirol egokitan nago.”*

Natik gogorarazi digu bere haurtzaroan ez zegoela ondo ikusita emakumeek kirola egitea, eta bera baino gazteagoak diren emakumeenganako nolabaiteko inbidia sentitzen du: *“Izugarrizko gozarena da futbolean jolas dezatela eta federatuta egon daitezela, bai horixe. Umetan, futbolean jolasten nuen, eta etxera iristean, jo egiten ninduten, emakumeek ezin zezaketelako futbolean jolastu, marimutilena zelako.”* Emakumeek kirola egiteko historikoki eduki dituzten eta oraindik ere badauzkaten zailtasunak hainbat artikulutan eta ikerketetan islatu dituzte. Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako V. Plana 2010-2013an jorratu zituzten (Emakunde, 2010), 2.3.4 helburu estrategikoaren bidez: emakumeei kirol baliabideetarako sarbidea emendatu, kolektiboen eta beharizanen aniztasuna kontuan hartuta.

Lesbiana askorentzat dira bereziki beharrezkoak kirolarekin lotutako helburu estrategikoen planteamenduak; izan ere, kirola eginez ariketa egiteaz gain, beste emakumeenganako gogoia sozializatzeko espazioak bilatu izan dituzte bertan.

Kirola gozatzeko, besterik gabe

Ikerketan parte hartu duten emakume batzuek gozatzeko espaziotzat hartzen dute kirola, eta ez dute esplizituak izateko eta ikusgarri egiteko beharrianik sentitzen. Era berean, ez dituzte kirol horretako edota kirol klubeko kideen bizitza pribatuak ezagutzen. Paulak honakoa esan du horri buruz: *“Klubeko kideek lesbiana naizela imajinatuko dutela pentsatzen dut, Rosarekin ikusten nautelako, baina nik ere ez dut euren bizitza pribatuen berri, eta ez dut esplizitua izateko beharrianik sentitzen.”*

Julia bezalako beste emakume batzuek kirola ikusteko dela uste dute. Futbola izan da beti Juliaren zaletasun nagusia, eta eguneroko arazoei ihes egiteko modua: *“Nire ihesbide handiena, nire zaletasun handiena futbola izan da beti, ikusle moduan. Aitak zortzi urte nituela egin ninduen Athletic-eko bazkide, eta maiz joaten naiz San Mamesera.”*

Itxaso saskibaloia oso zalea da eta Bilbao Basketeko bazkidea. Zalantzarik gabe, kirol klub horren praktika ona kontatu digu: *“Bilbao Basketen, gizon bazkidea nintzen hasieran, eta emakume bazkidea naiz egun. Izena aldatzera joan nintzenean, honakoa esan zidaten: ‘sexua, orain aldatuko dizugu?’, arazorik gabe aldatu zizkidaten izena eta sexua; orain emakumea eta emakume bazkidea naiz.”* Itxasori, identifikazio guztiek bere emakume genero sentitua islatu behar dutela oso kontzientziatuta dagoenari, nahiko erraza egin zaio Bilbao Basketeko bazkide txartelean izena aldatzea. Kirol klubak arazorik gabe egin izana oso baikorra izan da berarentzat, eta gizarte honetan hobeto senti dadin lagundu du horrek.

Itxasok kirolarekin duen harremana zabalagoa da eta, hezkuntza baliabideen atalean aipatu den bezala, bere herriko ikastolako umeen entrenatzailea da. Gurutzetako Unitatean sexua berregokitzeko prozesua hasi zuenean umeekin hitz egin zuen bezala, euren gurasoekin ere egin zuen. Itxasok elkarriketa horren une bat kontatu digu: *“Taldeko delegatuaren galderetako bat ona iruditu zitzaidan: ‘zeri egin behar diogu aurre zarena zarela onartzen zaitugulako, baina gainontzekoak? Federazioaren diskriminazio egoerari egingo diogu aurre? beste taldekoenari?’”*. Guraso horiek Itxasori planteatu zioten arazoa ez dago taldearekin berarekin lotuta, kanpokoekin gerta daitezkeen egoera zailekin baizik. Gurasoen aldetik jasotako laguntzak, beste talde batzuei zein federazioari berari aurre egitearekin lotutakoak, kontrako jarrerari aurre egiteko ziurrago eta indartsuago sentiarazi zuen Itxaso.

Aldagela, espazio polemikoa

Aldagelak lesbianen artean tentsioa eragiten duten espazioak dira. Luma duten lesbiana batzuk deseroso eta behatuta sentitzen dira gimnasioetan, eta “besteekin”, emakume heterosexualekin, topo ez egiten saiatzen dira. Emakume lesbianek “besteak” generikoa eraikitzen dute subjektiboki bereizgarri hautematen dituzten ezaugarrietan oinarrituta. Eraikuntza prekarioa izan ohi da, eta euren buruarekin duten konfiantza mailaren arabera.

Bere ikusgarritasunak, edo, Lorenaren kasuan, lesbiana ez agerrarazteko ezintasunak, baliabide baten erabilera mugatzen dio. Honelaxe argitu digu: *“Izena eman dut gimnasio batean, eta dutxetara aldatzera sartzen zarenean, biratu egiten dira nirekin aldatzen diren neskak... uste dut nik sentiarazten ditudala deseroso. Badakite lesbiana naizela, ezin dudalako ezkutatu agerikoa delako, nire ile mozketagatik, arropagatik, jarreragatik, lumagatik... Nabaritu egiten ditut, eta pentsatu: eta, egunen batean, mindu egiten badira biratu egin zarelako edo ukitu egin dituzulako, eta iskanbila ederra sortzen badizute hemen? Izan ere, berdina izango da edozein gimnasiotan.”* Lorena, aldagelak eragiten dion ziurtasun ezagatik, ez da konturatzen Marisak beste modu batean bizi duenaz; azken horren ustez, aldageletan mundu guztiak begiratzen du eta: *“Noizean behin, begiak joan egiten zaizkizu, oso emakume ederrak daude eta. Hortxe dago kontua, ‘izango da, ez da izango’. Baina ez naiz ni begiratzen dudana bakarra.”*

Ondorioz, eta mundu guztiak begiratzen duela pentsatuta, emakume batzuentzat sufrimendu eremu bihur daitezke aldagelak. Izan ere, trantsizioan dagoen eta genero kanonekin bat ez datorren kanpo itxurak harridura eta urduritasuna eragin baitezake begiratzen duenarengan. Naiak Bilboko udal kiroldegi bateko aldageletako esperientzia kontatu digu: *“Ez daukat emakumeen aldagela erabiltzeko arazorik, kontua da, irekiak izatean, oraindik ez daukadala bertan aldatzeko adorerik, ebakuntza egin gabe eta ezer gabe. Egiten dudana etxetik jantzita eta aldatuta etortzea da. Estentsioak daramatzat, eta lotsa ematen dit ilearen lerroa ikusteak, beraz, beti daramat guztia estaltzen didan buruko zinta. Han beti egoten naiz izututa. Kamiseta kentzen badut, txokolate-tableta daukat oraindik, gizon gorputza oraindik.”*

AISIALDI ESKAINTZA

“Marketina gehiengoaren araberakoa da”

Ikerketa honetan parte hartu duten emakumeek marketinaren xede ez direla sentitzen dute, eta aisialdi eskaintza txikiagoa dagoela eurentzat, Mónica ziurtatu duen bezala: *“Aisialdi eskaintza, kulturala, beste ikus-entzule mota bati dago askoz ere zuzenduago, are LGTB denean, bisexualentzat da ikus-entzule lesbianentzat baino.”* Arrazoiak askotarikoak izan daitezke, eta lesbianak beraiek ere ez dira ados jarri eurentzako aisialdi eskaintza txikia izateko arrazoiengandik. Batzuen ustez, gutxiengoa izatearekin du zerikusia. Kontzeptu horrek debatea dakar, izan ere, batzuen iritziz, gutxiengoa dirudite baina topikoa besterik ez da hori, askok ikusezin izaten jarraitzen dutelako. Cecilia, berriz, emakume lesbianak baino gizon gay gehiago daudela dioten topikoari heldu dio: *“Horrek ere bere logika dauka, marketina gehiengoaren araberakoa delako, eta gehiengoa ez da lesbiana, gay da, eta horregatik dago eskaintza handiagoa eurentzat”,* baina Mónica kontra argudiatu du: *“Bai, baina LGTB komunitateko gehiengoa ikusezina da.”* Hortaz, emakume lesbianentzat eskaintza txikiagoa egoteak zerikusi handiagoa dauka ikusgarritasunarekin estatistikarekin baino.

Lesbianei eskusiboki zuzendutako aisialdi eta kultura eskaintza egotea beharrezkoa den ala ez den eztabaidatzera sartu gabe, esan dezakegu zaila dela, emakumeek komentatu duten bezala, sozialki oraindik ikusezina den kolektiboari zuzentzea negozioan eta etekinetan pentsatzen duen sektorea. Debate horrekin lotuta, Zaloaren hitzak nabarmendu nahi ditugu: *“Ez naiz kontsumo arrosarekin identifikatua sentitzen.”* Aisialdi eta kultura eskaintzak inklusiboa izan behar duela uste dugu, hau da, gizarteari bere osotasunean zuzentzen zaiona. Mónicaen, Naiaren eta Lorenaren komentarioak kontuan hartuta, ehuneko ehun betetzen ez den kontua da, ordea.

Aisialdi espazioen erabilera

Mirenek aisialdi espazioak aurkako eremuak izan daitezkeela hautematen du; ikusgarri agertuz gero, emakume lesbianak deseroso senti daitezkeen lekuak. Beraz, antzokietan, zinemetan, museoetan, parke tematikoetan... nolako jarrera izan neurtzen ibili behar izaten dute askotan: *“Baina erronka da niretzat. Nahiz eta betidanik egon naizen armairutik kanpo, emakume lesbiana bat berea ez den edo pribatua ez den leku batera joaten denean, erronka da; izan ere, edozein momentutan eduki dezake aurkako egoeraren bat, lesbiana gisa ikusgarri egiten bada.”*

Aisialdi espazioekin lotuta, komun publikoen erabilera gatazkatsuaz hitz egin digute Naiak eta Loreak. Honakoa esan digu Naiak: *“Eta komunei dagokienez, beti joaten naiz elbarrituenera, arazoak ditudalako emakumeenarekin, askotan jartzen dute zalantzan ni bertara sartzea.”* Eta Lorenak hau esan digu, haserre: *“Mazarredo eremuko tabernetan, edo antzekoetan, nesken komunera joaten naizen bakoitzean, arazoak izaten ditut mutilekin nahasten nautelako. Eta ez litzateke zertan gertatu hori.”*

Giro lesbikoa

Hiri askotako aisialdi eskaintzetan, giroko lokalak egoten dira. Horiek LGTB komunitatea elkartzeko tabernak, jatetxeak, pubak, dantzalekuak... izaten dira; jende heterosexualari irekita ala itxita egon daitezkeenak, eta hurbileko jendea inguru seguru, eroso eta lasaian ezagutzeko aukera gehiago eskaintzen dutenak. Egun, euskal hiri eta herri handienek dauzkate giroko lokalak, eta inguruko LGTB elkarteek argitaratzen dituzten aldizkarietan edota mapetan egoten dira iragarrita. Clarak nahiago izaten ditu parrandan ateratzeko: *“Parrandan ateratzen bazara, hobe giroko lekuren batera joatea, lagunekin zoazelako, agian jendea ezagutuko duzu eta gehiago sozializatu dezakezu.”*

Pat Califia-k (Califia, 1999) modu atseginez eta ondo asmatuik esan du: “lesbianak aurre egin behar dion lehen erroka lesbiana dela igartzea da. Bigarrena, nor gehiago ere baden igartzea.” Nola aurki dezake lesbiana batek beste lesbiana bat? Giroko lokalak urteetan izan dira, eta izaten jarraitzen dute, galdera horren erantzuna. Izan ere, lesbianek elkar ezagutzea errazten dute, indentitate ziurtasuna ematen dute, baita afektibitatea adierazteko askatasuna ere, beste leku batzuetako eragozpenik izan gabe, eta lesbiana izateko ikasbideak eta trebetasunak eskaintzen dituzte.

Miren, aukera edukita, giroko lekuetara baino ez da joaten: *“Bazkaltzera edo kafe bat hartzera, leku hori lesbianena dela baldin badakit, horra joaten naiz. Ezagutzen ez ditudan hirietara bidaiatzen dudanean, giroko lekuez galdetzen dut eta hara joaten naiz.”*

Gainera, jatorrizko herrialdeetan horrelako espaziorik ez duten lesbiana migratzaileentzat, abegikorak edo erosoak izaten dira giroko lokalak. *“Noizean behin joaten naiz giroko tabernetara. Asko gustatzen zaizkit, emakumeak gustatzen zaizkion jendearekin sentitzen zarelako, zure gustu berberak dituen jendearekin”*, esan du Fátimak.

Lesbiana batzuen ustez, giroko tabernetan, orokorrean, oso emakume gutxi egoten da, eta gizon gayek menderatzen duten giro oso maskulinoa sortzen da. Mónica adibidea jarri du: *“Giroko taberna batean bazaude, edo gay pila dago eta ezagutzen dituzun lau edo bost neska, edo etortzen zaizkizun gizon heterosexualak daude”*, eta Clarak honakoa baieztatu du: *“Zoazen lekura zoazela, giroko taberna batean, beti daude emakumeak baino gizon gehiago.”* Egia esan, ez daukagu Mónica-ren eta Clararen irudipenak baieztatzeke datu objektiboagorik, baina adierazi dutenak bat egiten du emakume lesbiana askok giroko tabernen inguruan dugun inpresio orokorarekin. Hau da, emakume lesbaniak elkartzeko eta sozializatzeko elementu oso baliotsuak eskaini arren, muga argiak dauzka giroak; izan ere, lokal horiek, dituzten ezaugarriengatik, jende gazte, maskulino, desgaitasunik gabeko eta baliabide ekonomikodunari zuzenduta baitaude.

Giroa ez da hain ezinbestekoa sozializatzeko

Ikerketa honetan parte hartu duten lesbiana guztiek ez dituzte hain beharrezko ikusten giroko lokalak. Bertak gauarekin lotzen ditu giroko tabernak, eta apenas joaten da haietara; ohiturarik ez edukitzeaz gain, nahiago duelako egunez atera: *“Ez naiz giroko tabernetatik ateratzen gauarekin lotzen ditudalako, eta sekulako alfergura ematen dit...”*. Paulak esan bezala, lesbiana asko ez dira giroko tokietan ibiltzen, beste lokal mota batzuetara joatea nahiago dute lagun heterosexualak dauzkatelako: *“Gure hurbileko lagunen artean, bikote homosexualak eta heterosexualak daude, eta ez gara asko mugitzen giro homosexualean.”*

Natik eta Mónica-k, bizi esperientzia oso ezberdinak eduki badituzte ere, LGTB espazioetatik soilik mugitzea eta LGTB pertsonekin bakarrik erlazionatzea normalizazio sozialaren aurkakoa dela uste dute. Natik saturatu egiten dela esan du: *“Giroko lokaletan denbora asko daramakidanean, saturatu egiten naiz eta beste gauza batzuk behar izaten ditut”*, eta Mónica-k

auto-baztertze modua dela pentsatzen du: *“Hor barruan ixten den jende asko dago, LGTB lagunak dauzkana, giroko tabernetara baino ateratzen ez dena, LGTB jendearekin bazkaltzen du tabernetan, eta ez zait osasuntsua iruditzen.”* Giroko tabernak sozializatzeko espazio interesgarriak izan daitezke, baina geto bihur daitezke, benetako ikusgarritasun lana eguneroko bizitza igarotzen den lekuetan gertatzen delako. Bertak laburbildu duen bezala: *“Giroko leku batera zoaz eta bandera bat ikusten duzu hemendik, eta kartel bat, eta bi neska elkarri musuka eta polita da, ospakizuna da, baina ez da egunero ekainaren 28a, eta egunero bizi naizen herria daukat eta han ikusgarri egiten naiz, eta Bilboko tabernetan egiten ez dudalako sentsazioa izaten dut.”*

Nekane argi dauka giroko lokalen aukera eta honakoa komentatu digu: *“Aisialdirako aukeratzen ditut, bizi daitekeen ala bizi ezin daitekeen espazioa da. Jende heterosexualarekin ateratzea gertatzen zait, eta giroko tabernetara etorri nahi izatea badakitelako segurtasun bermea dela eta ez dituztela hainbat egoera txar jasan beharko.”* Baina giroa ez da bere aukera bakarra, eta, zenbait unetan, Herrikoan erosoago senti daitekeela kontatu du: *“Ziur sentitzea oinarritzkoa da, baina ez da aukera sexuala jokoan sartzen den bektore bakarra; bada faktore bat, gustatzen zaizunera jotzen duen ingurua aurkitzea dena. Giroko taberna batean Herrikoan baino erosoago senti naiteke, dagoen energia motaren arabera. Agian, sadomasoaren inguruko lesbianen taberna bat ez zait batere gustatuko.”*

Sortu zirenetik izan dira giroko lokalak oso eztabaidatuak, eta zenbait lesbianek kontraesan modura bizi izan dituzte. Ez dago adostasun orokorrik, Euskadiko hiri eta herrietan ondo pasatu eta dibertitu nahi duen jende mota oro hartuko duten dibertimendu espazio inklusiboagoi leku egiteko, giroak existitzen jarraitu behar al duen ala ez esateko. Emakume batzuek geto hitza erabiltzen dute giroa deskribatzeko; beste batzuek, Bertak kasu, eduki ditzaketen alderdi interesgarriak ikusten dituzte, baina dagoeneko ezinbestekoak ez direla uste du.

Sexu eta genero aniztasunaren onarpenean sozialki eta legalki aurrera egin duen gizartean, eta lesbianak onartu eta elkartu daitezkeen espazio anitz gehiago baimentzean, beharbada, espazio horiek ez dira duela hogeita hamar urte bezain ezinbestekoak izango LGTB kolektiboarentzat. Baina bidezkoa da giroko espazioek beharrezko izaten jarraituko dutela esatea, lesbianak etengabe “beste lesbiana batzuk aurkitzeko erronkan” jartzen dituen gizarte heteronormatiboan.

ASOZIAZIONISMO ETA EKINTZA POLITIKO FEMINISTA EDOTA LESBIKOA

Hainbat emakumek hartzen dute aktiboki parte LGTB elkarteetan eta elkarte feministetan. Eragile eta elkarte feministak eta LGTB komunitatearen eskubideen alde borrokatzen dutenak mundu bidezkoagoa ahalbidetzeko eragileak dira, eta emakume lesbianentzat nahitaezkoa den funtzio soziala betetzen duten elkarte sarea osatzen dute. Arantxak definitu bezala: *“Nik ez diet baliabide deitzen Bizkaiko Emakumeen Asanbladari eta Munduko Emakumeei eta LGTB*

elkarteei; laguntzeko, erresistentziarako eta mundu ezberdina eraikitzeko sarea baizik." Nabarmendu beharra dago Euskadin beste lekuetan dagoena baino askoz mugimendu handiagoa egon dela eta dagoela feminismoaren eta lesbianismoaren inguruan (Villar, 2008). Bai laguntza sozialak bai ekintzaile eta kolektibo kopuru altuak, eta aniztasun sexu-afektiboarekin dagoen giro ireki eta proaktiboak, armairutik kanpo bizitzea errazten dute. Amelia, jatorriz Extremadurakoa denak, bere ikuspegia kontatu digu: *"Euskadik eta Kataluniak maila europarrakoa dute, elkartze baliabide gehiago daude, emakumeen, feminismoaren eta lesbianismoaren haztegia. Baliabideez baliatu naiz hemen beti egon naizelako armairutik kanpo, lesbiana gisa ikusgarri egin naizelako."*

Lehen, ez zegoen lesbianentzako berariazko espaziorik, eta Bilboko Lilith liburu denda bezalako gune feministek betetzen zuten biltzeko eta eztabaidarako funtzioa, non lesbianak ahalduz baitziren. Mirenek gogoratu bezala: *"Niretzat, oso garrantzitsuak izan dira emakumeen liburu dendak, bai nire izaerarako bai lesbiana moduan egoteko. Guztizko ahalduzterako espazioa izan zen. Garai hartako emakumeen liburu dendak emakumeak biltzeko lekuak izaten ziren. Bilboko Lilith, adibidez, lesbiana bikote ekintzaile eta feminista batena zen. Garai hartan, ez zegoen lesbianentzako lekurik; hala ere, liburu dendan lesbiana bezala agertzen zinen, inolako arazorik gabe. Egoteko leku erosoak ziren, heteroekin egon arren."*

Giza eskubideen alde borrokatu eta aldarrikatu ziren feministei esker goza dezakegu orain eskubide horietaz, eta borroka zein aldarri haiek bai emakumeen liburu dendetatik bai LGTB zein kolektibo feministetatik egin ziren. Gaur, lesbiana ekintzaileek nahiz ez ekintzaileek aitortzen dute hainbat lesbiana militanteren eta elkarte feministaren eta LGTB kolektiboren lan eskuzabala. Candelak asko eskertzen ditu, eta baita gozatu ere, bizitzaren zati handi bat militantziari eskaini zioten emakumeen lanari esker lortutakoak. Ameliak gure aitzindariak aipatu ditu: *"Berrogeita hamar urtean buelta eman dioten emakume aitzindariak edukitzearen zortea izan dugu."* Filok ekintza kolektiboak gogoratu ditu: *"Gayen eta lesbianen elkarteetako jendeak egindako manifestazioei esker erabili izan ditugu zerbitzu horiek, inora ateratzen ez ginenok ere erabiltzen ditugu; ezkontza, adibidez."*

Zaloaren iritziz, mugimendu feministaren lanaren aitortza falta da hainbat mugimendu sozialetan, eta ondorengo gogoeta egin du horri buruz: *"Feministak edo genero identitatekoak ez diren mugimenduetan, mugimendu feministak egin duen lan guztia aitortzea falta da. Saihestu egiten dira gai horiek."*

Generoarekin eta sexualitatearekin politika egiten zuten eta duten mugimenduetan, nabarmenagoa izan da militantzia feminista, lesbiar militantzia baino. Emakume ekintzaile batzuen ustez, euren generoaren dimentsioa euren sexualitatearen dimentsioaren gainetik dago. Natik ekintzaile feministatzat dauka bere burua, baina orientazio sexuala bere aktibismoaren helburuetan txertatzen ez duela onartu du: *"Lesbiana moduan militatzeak ez nau motibatzen. Emakume bezala gehiago, baina lesbiana bezala aspertu egiten naiz... Aldarrikatzaileagoa naiz emakume bezala."*

Beste alde batetik, kolektibo feministetan militatzen duten lesbiana asko nekatuta daude zuzenean eragiten ez dieten gaiak baino ez aldarrikatzeaz, eta ez dute sentitzen euren aldarri

zehatzak kontuan hartzen direnik. *“Asanbladara ez naiz gehiegitan joaten; lesbiana bezala, ez nau motibatzen egun osoa abortuaren gaiekin ibiltzeak, nekagarria da, ahalmenik gabe sentitzen zara”*, kexu da Kattalin. Abortu askearen aldarria bezalako borroka feministek lesbianak ezkututzen al dituzte? Aniztasunaren ikuspegirik gabeko borroka heterosexuala dirudi, baina lesbiana asko sartu dira bertan: *“Abortuarena da interesatzen zaigun azken gaia, zeinari eman diogun eta ematen jarraituko dugun. HIESa izan zen bere garaian, guri eragin ez arren gure kideei eragiten ziena, eta gu ikusezin geratzen ginen gure borrokan”*, gaineratu du Nekanek.

Emakume hauentzat, gune feministak aldi berean inklusiboak eta baztertzailak izan direla ematen du, eta askotan funtzionatu dutela aurreiritzien eta estereotipoen zamapean. Zaloak eta Alaznek, ekintzaile lesbiana feministak beraiek, eta sexualitatea zein lesbiar desioa gai politikotzat jorratu dituztenek, euren ikuspegia azaldu digute: *“Ezadostasun una egon da, eta lesbiar mugimenduak feministari esan zion ‘aizue, hemen egon garela, abortuaren alde lagunduz, gu sartzen ez ginen borrokan, eta ez dugu erantzunik jaso gure eskakizun politikoetan’”*, esan digu Zaloak mugimendu feministaren eta lesbianistaren arteko desadostasunei buruz. Eta, ildo berean, honakoa esan digu Alaznek: *“Feminismoan, orain, guztiok gara lesbianak, eta pribatua den zerbait dela pentsatzen jarraitzen da, ohean egiten dela, eta ez dela politikarik egiten. Generoko indarkeria publiko bihurtzeko borrokatu gara, eta norekin oheratzen garen ez? Niri berdin-berdin iruditzen zait politikoa. Modu irekian lesbiana agerrarazteak beldur handia ematen du.”*

Matxalenek, militante feminista eta LGTBko mugimendukoak, bi mugimenduek komunezko puntuak dituztela gogorarazi digu, baina baita bereizitako kontu asko eta ekintzarako eremuak dituztela ere: *“Asko kritikatu izan da mugimendu feministak lesbianismoaren gaia bere gain hartu ez izana, baina Donostiako Emakumeen Asanbladan zehazki, izugarri hitz egin da lesbianez; beste kontu bat da ekainaren 28an baino ez atera izana gaia kalera... Mugimendu feministak, lesbianismoaz gain, ekintzarako eremu gehiago dauzka. LGTB elkarte baten ekintzarako eremua homosexualitatea da. Komunezko puntuak dauzkate, baina ez osotasunean.”*

Mirenek, bere aldetik, honakoa kontatu digu: *“Ni mugimendu feministan ahaldunduta egin nintzen lesbiana feminista. Baina aldaketarako proposamen politikoak heteronormatik proposatu dituztela onartzen dut. Borroka feminista logika heteropatriarkala delako, gizonena. Feminismoak heteropatriarkatuaren jarrerak kritikatzeko ditu, hortaz, heteronormarekin zerikusia duten gaiak. Emakume heterosexualen egoerarekin lotutako proposamen politikoak egiten dira, zeharka, emakume guztioi ondo etortzen zaizkigunak. Azkenean, lesbianentzako proposamen politikoak LGTB mugimenduan egiten dira.”*

Mugimendu feministaren eta LGTB mugimenduaren arteko ezadostasunak egon arren, beti egin izan dira politika lesbikoei buruzko debateak feminismoan. Hala ere, gehienak barne mailakoak izan dira eta ez dira argitara atera, *Voces de mujeres en la diversidad* [Emakumeen ahotsak aniztasunean] (ALDARTE, 2008) ikerketak gogorarazi digun bezala.

ARTAPENERAKO LGTB ZERBITZUAK

LGTB elkarteak eta sozializaziorako baliabideak

Artapenerako eta sozializaziorako LGTB espazioak oso beharrezkoak dira emakume askorentzat, izan ere, mota guztietako ekintzak egiten dira bertan, bakardadearekin eta isolamenduarekin apurtzeko aukera oso baliotsuak eskainita. Arantxak “La Posada de los Abrazos” elkarteak bideratutako harrera lanetan lan egin zuen urteetan egiaztatu zuen premia hori. Elkarte horrek duintasunez bizitzeko espazioa eskaintzen die bazterketa sozialaren egoeran dauden pertsonen, eta Emakunde saria jaso zuen 2013an: *“Lesbianak artatzen dituzten LGTB elkarteak zeudela jakin nuenean, zoragarria izan zen, emakume askok behar dituzte eta.”*

Kuadrillarik ez dutenek edo emakume lesbiana gehiago ezagutzen ez dituztenek konponbidetzat hartzen dituzte lesbianentzako artapenerako eta sozializaziorako berariazko baliabideak. Berta ondo sentitzen da bera dagoen LGTB elkartean, ziurtasun osoz dakielako inguruan dituen pertsonak lesbianak direla. Berta, elkartera jo arte, ez zen hasi beste emakume batzuekin harremanak sortzen; eta ziurtasuna ematen diote bertan topatzen dituen lesbianen aniztasunak eta ikusgarritasunak: *“Tunelaren amaieran dagoen argia izan zen elkartea, bat-batean, hemen ondo nengoen, eta lesbianak ziren pertsonak nituen inguruan. Ez lesbianak ziruditenak, bazirenak baizik. Eta ateratzeko jendea, ez bainuen kuadrillarik.”* Sozializaziorako baliabide diren elkarteak ez dira Bertarentzat soilik garrantzitsuak; desgaitasunen bat dutenentzat edota beste espazioetan arbuioa jasan dezaketenentzat ere ezinbestekoak dira eta. Marisolek, adibidez, kuadrilla osatzea lortu zuen garai batez, bere garaian parte hartu zuen elkartean: *“Lesbiana nintzelako eta jendea ezagutu nahi nuelako joan nintzen. Ni bezalako jendea aurkitu nuen, koadrila bat aurkitu nuen.”*

Zalantzarik gabe, LGTB elkarte baliabideak bizitza hobetzeko bidea izan daitezke, eta giza zein lan integrazioarako tresna. Lesbiana migratzaile asko etortzen dira lesbianen elkartean bila; horrela, lehentasuna ematen diete berdinaren arteko komunitatea sexu orientazioagatik sortzeari, arrazoi kulturalengatik sortzeari baino. Beharbada, euren jatorrizko herrialdeetan bete ez dizkieten lehentasuneko beharrezko erantzuteko. Marisak, Bilbora etorri zenean, oso argi eduki zuen LGTB elkarte batean egon nahi zuela: *“Bilbon, lesbianen elkarteak bilatu nituen, ez nire herrialdeko elkarteak.”* “Zenbait gogoeta harrera ona egiteko” ALDARTEk 2009an argitaratutako gidak jasotzen duen bezala, lesbiana eta transexual askok, gure herrialdera iristen direnean, uko egiten diete immigranteen elkarteetara jotzeari; izan ere, jatorrizko herrialdeetan diskriminatzen zituzten pertsona berberak topatuko dituztela sentitzen dute (pentsamolde berbera, arbuio berbera). Oro har, immigranteen elkarteetan, ez dute kontuan hartzen aniztasun sexu-afektiboa.

Emakumeen kolektibo feministetan ondo tratatzen dutela sentitzen du Fátimak, baina LGTB elkarteetan sentitzen da benetan lasai eta ulertua; bere sexualitatea askatasunez eta modu

irekian bizi dezakeen lekua baita: *“Nire bigarren familia aurkitu nuenean, LGTB elkarte, lasaitasuna sentitu nuen, nahi dudana bezala adieraz naitekeela sentitzen dut, sentitzen dudana kontatu, eta babestuta sentitu. Gaizki nagoenean, “bigarren etxera” joaten naiz, eta ziur konponbideren bat aurkituko dudala.”*

Bestalde, LGTB gurasoen elkarteek seme-alabak dituzten emakume bikoteei inguru atsegina eta ikusgarritasun handiagoa ahalbidetzen dizkieten espazioak dira. Candelak oso argi azaldu du: *“SEHASKAn behin baino gehiagotan esan dut, ikusgarritasuna, afektuzko keinuak modu naturalagoan, gay eta lesbianen familien topaketetan gertatzen direla.”*

Ikerteta honetan parte hartu duten eta LGTB elkarte batekin harremana edukitzeko aukera eduki duten emakumeek argi eta garbi azaldu dituzte harreman horrek ekarri dizkien onurak. Marisolek adierazi bezala, ordea, lesbianentzat ez da beti erraza izaten harreman hori egitea: *“Lehenengo, ALDARTERen iragarkia ikusi nuen El Correon, eta etortzea erabaki nuen arte asko kostatu zitzaidan, eta niri gertatutakoa jende askori gertatu zaio.”* Marisolek arrazoi du, berari gertatu zaiona, elkarte ezagutzetik bertara jotzea erabaki arte denbora luzea behar izatea jende askori ere gertatu zaio. Badirudi kostatu egiten zaiela lehen aldiz euren burua lesbiana gisa aurkezteak sortzen duen izuari gailentzea, euren burua halaxe izendatu ez arren, edota beste lesbiana batzuk ezagutzea. Marisolek, LGTB elkarten beharrezko argi ikusi arren, beharrezkoa du bere lesbianismoaren ideia egitea, eta lesbianeaz gaindiko kolektibo baten partaidetza irudikatzea bere burua. Lesbiana izendapenarekin nolabait identifikatzea eskatzen dio kontu horrek, eta bi urte iraun duen prozesua da hori.

Zaloak komentatu eta zalantzan jarri du zenbait LGTB elkarteren elementu identitarioa, lesbiana izatearen definizio oso itxiakin egiten baitute lan: *“Une zehatz batean gizon batekin harremana eduki duen lesbianak lesbiana izateari uzten dio? Edo pertsona heterosexuala da? LGTB talde batzuetan, normatiboki ezarritakotik kanpoko harremanen bat edukitzeak banandu egiten zaitu, jada ez zaituzte lesbianatzat hartzen. Nire ustez, ez litzateke horrela izan behar, ez liratekeelako hain identitate itxiak eduki behar. Agian, ez zara ondo sentitzen lesbiana terminoaren barruan.”* Zaloa sexu eta genero aniztasunaren eremuan mugitzen diren elkarteetako antzinako debatea ari da benetan planteatzen. Batzuek oso argi dute eta oso definituta zer esan nahi duen lesbiana izateak, eta definizio zorrotz eta itxien arabera antolatzen dira; beste batzuek, ordea, irekiago uzten dute lesbianismoa denaren inguruko jarrera. Erosoago sentitzen da Zaloa azken motatako antolakuntzetan.

Artapenerako LGTB zerbitzu instituzionalak

2000. urtean, gayentzako, lesbianentzako, bisexualentzako eta transexualentzako Informazio Zerbitzua sustatzeko proposamen ez-legezkoa onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. 2002ko urriaren 15eko Gobernu Kontseiluko akordioak BERDINDU Zerbitzua abiatu zuen.

BERDINDU sexu eta genero aniztasunarekin lotutako gaietarako Informazio eta Artapen Zerbitzua da Euskal Gobernuan. Homofobia ezabatzeko xedez, informazioa eta artapena

eskaintzen die lesbianeiei, gayei, transexualei eta bisexualei. Baita euren inguruari ere, eta hezkuntza eremuari, hainbat eragile sozial eta profesionali, komunikabideei eta gizarteari, oro har. EAE mailan funtzionatzen du zerbitzuak, eta LGTB elkarteek kudeatzen dute.

BERDINDU*Uri dagokionez, ikerketa honetan parte hartu duten emakumeek uste dute berau zuzenduta dagoen herritarrek ez dutela asko ezagutzen. Nekanek honakoa argudiatu du: “Berdindu oso beharrezkoa da, baina hamar urte dauzka eta nik ez dakit zer egiten duten ere, gizartean daukan inpaktua, eta, kontuz, egiteko asko dute eta!”*

Halere, beste batzuen ustez, zerbitzua behar dutenek ezagutzen dute. Mirenen arabera: *“Behar dituztenei daude erabat zuzenduta zerbitzu horiek. Galde ezazu hor zehar ea zer den Gurutzetako laguntza bidezko ugalketarako gunea, jainkoak ere ez daki! Salbu eta ugalketarako arazoak dituztenek; edo genero unitatea, trans pertsonak ezagutzen dute.”*

Emakume guztiak bat datoz instituzioen eginbeharra arazo sozial zehatzak dituzten herritarren kolektiboak artatzea dela esatean; LGTB kolektiboa, adibidez. Mirenek ez dauka zalantzarik: *“Nire ustez, arazo zehatzak dituzten gizataldeak daude, eta estatuak beharrian horiek artatzeko betebeharra dauka. Beraz, Berdinduk diru gehiagorekin jarraitu behar du, profesional gehiagorekin, eta lan handiagoa egin behar du gizartea oro har sentsibilizatzeko.”*

Parte hartu duten emakumeentzat eta guretzat Berdindu zerbitzu publikoak duen garrantzia ikusita, bai LGTB kolektiboarentzat bai gizartearentzat oro har beharrezko baliabidea dela uste dugulako, beronen lana indartu egin behar dutela eta beharrezkoak dituen baliabide guztiak eman behar zaizkiola deritzogu; gizartean duen eragina ahalik eta handiena izan dadin.

BESTE ELKARTE MOTA BATZUK

Bizi egoerari lotuta daudenak

Ikerketan parte hartu duten zenbait emakumek euren bizi egoerei lotutako elkarteetan hartzen dute parte. Amelia, adibidez, Fekoor-en egon zen, Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazioan: *“Fekoor-eko emakumeekin desgaitasun batzordean egon naiz jardunaldiak antolatzen, kongresuak...”*. Candelak Sarea-n hartzen du parte, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen sarean. Marisa hainbat erakundetan egon da: *“Minbiziaren kontrako elkarteari esker hasi nintzen mugitzen, GKE batean sartu nintzen, UNICEFen, ACNURen...”*, eta Matxalen esklerosi anizkunaren elkarte batean dago.

Aniztasun funtzionalean zein fisikoan lan egiten duten hainbat elkartetan, Fekoor-en, Eragintza-n edo Lantegi Batuak-en, adibidez, desgaitasunen bat duten pertsonen prozesuetan laguntzeko zerbitzu psikologikoak dauzkate. Jonek esan digun bezala: *“Elkarteak psikologoa jarri dit eta, egia esan, ni ondo eramaten asmatu du. Fekooren eta Lantegi Batuak izena*

eman nuen, eta han hasi zitzaizkidan deika. Aholkularia daukate eta egunetan zehar joaten zara, hitz egiten duzu eta barrua husten. Ez zidan nire bizitza afektiboaz galdetu, inoiz ere ez zidaten galdetu ea ezkontuta nengoen, ezkongabea nintzen edo seme-alabak nituen, inoiz ez.” Joneren psikologoak bere burua desgaitasuna duen pertsonatzat hartzeko prozesuan lagundu zion, baina ez ziola inoiz ere bere bizitza sexu-afektiboaz galdetu esan digu. Agerikoa da, psikologoaren ustez Jonek ez duela bizitza afektiborik zein sentimentalik, eta ez duela Jone emakume sexuatzat jotzen. Senak esaten digu ez dutela Jone lesbiana izateko aukera aztertu ere egin.

Gai horrekin lotuta, Amelia kexu da: *“Gainera, heteropatriarkatuaren gaia hain sartuta dutenez, jasotzen duzun sexu informazio guztia genitaletan dago zentratuta, ez dago beste ezer, eta `zer egingo du gajo honek` pentsatzen dute gutaz.”* Marisolek disimulatu egiten du eta bizitza bikoitza darama berak parte hartzen duen gaixotasun mentala dutenentzako elkartean, lan baliabideen atalean adierazi dugun bezala. Matxalenek antzekoa kontatu digu: *“Lesbiana izatearena ez dut esan ere egiten Esklerosiaren Elkartean; kontu hori erabat alboratuta geratzen da.”* Emakume horien esperientzietatik ondoriozta dezakegu emakume lesbianak ia-ia ikusezinak izaten direla ekintzarako eremuan aniztasun sexu-afektiboa kontuan hartzen ez duten elkarteetan.

Tailerrak eta ikastaroak

Bizi esperientziekin lan egitea eta elkarrekiko erlazioa errazten duten udal tailerretan eta ikastaroetan, edota entitate pribatuek antolatutakoetan, erraza eta erosoak izaten da parte hartzea. Bertarentzat, adibidez, halaxe gertatzen da clown edo antzerki tailerretan: *“Clown tailerrean ere primeran egin nintzen ikusgarri.”* Edota abesbatzan, Marisarentzat: *“Nire abesbatzekin lesbiana naizela elkarbanatu dut, neska-lagunak leku guztietara laguntzen nauelako, eta inongo arazorik gabe.”* Edo Ameliak parte hartzen duen idazketa tailerretan: *“Oso atseginak egiten zaizkit idazketa tailerrak, jendea giro onean egoten da, zeuri buruz idazten duzu eta are lagunak egiten dituzu.”* Bertaren, Marisaren eta Ameliaren parte hartzea atsegin egin duen elementuetako bat lesbiana lasai asko agerrarazi ahal izatea izan da.

Nagusientzako baliabideak

Emakume lesbianentzat ere denborak aurrera egiten du eta saihestezina da etorkizunean eta nagusiei zuzendutako baliabideetan pentsatzea. LGTB kolektiboan duela asko hasi zen berariazko LGTB baliabideek egon behar al duten ala ez eztabaidatzeko debatea. Solasaldi taldeetan ere, hein batean, errepikatu egin da debate hori.

Lesbiana batzuentzat ez dira erakargarri gertatzen hirugarren adinekoak deiturikoarentzat instituzioek pentsatutako espazio eta baliabideak. Nekane, adibidez, berariazko zenbait LGTB baliabide sortzea proposatu du: *“Hirugarren adinarentzako zerbitzuen inguruan pentsatzen aritu naiz, edo asko aldatuko da edo jai dugu. Biziraun ahal izateko etxea sortu behar dugu, gizarte zerbitzuei ez diedalako lesbianak egoitza berezi batean sartzeko inolako asmorik ikusten.”* Nekaneri heteronormatiboa iruditzen zaio gaurko eskaintza, ez da bere beharrazanez egokitzen eta, bere ustez, ez du kontuan hartzen nagusi den lesbofobia soziala, zeinak eskaintako inguruetan askatasunez adieraztea eragotziko liokeen (IMSERSOko bidaietan, egoitzetan, eguneko zentroetan...). Beste emakume batzuk, aldiz, eta Nekaneren hitzen jakitun izan arren, gaurko eskaintzak erabiltzeko prest daude. Adibidez, Miren: *“Ba, nik IMSERSOko atzerrirako bidaiak erabiliko ditut, oso argi daukat.”*

2014ko martxoan, hainbat komunikabidetan ikusi genuen LGTB nagusientzako egoitza baten etorkizunerako sorrerari buruzko berria. Fundación 26D izena duen LGTB nagusien fundazioak sustatu du proiektua, eta LGTB espazio fisiko eta sozial espezializatuak eraikitzeke egiten du lan. Egun, bazkide bila dabil eraikina egin ahal izateko, eta, eskarien artean, 90 urteko transexuala dago; egoitza batean egonik, bere sexu identitatea ezkutatzen ari dena.

Jakitun gara, egun, nagusiei bideratutako espazio askok ez dituztela kontuan hartzen lesbiana izan daitezkeen beharrazanak. Nolabait, berriz ere armairuan sartzera derrigortzen dituzte, batek baino gehiagok salatu duten bezala. Oro har, nagusientzako baliabideak modu heteronormatiboan daude planteatuta. Baina, gure ustez, arazoa ez da leku espezializatuak eraikiz konponduko; adineko pertsonak zaintzeaz arduratzen diren pertsonak sexu eta genero aniztasunean formatuz baizik. Hala nola, egoitzetan, eguneko zentroetan edo IMSERSOko bidaietan lan egiten dutenak.

ALDERDI POLITIKOAK

Ikerketa honetan parte hartu duten emakumeetako batzuek interes politikoak daukate eta hainbat euskal talde politikotan hartzen dute parte. Orokorrean, euren alderdiaren balioekin, idealekin, helburuekin eta misioekin konpromisoa hartuz izaten dira partaide, kide soil gisa.

Bere ustez berdintasuna defendatzen duen alderdi politiko batekoa da Itxaso, baina ez daki LGTB ildo berariaz defendatzen ote duen. Hala ere, gehiegi axola ez zaiola eta ez dela horregatik baztertuta sentitzen esan digu. Gainera, bere iritziz, mundu guztiak sentitu beharko luke alderdi politikoaren informazio esku-orrietan sartuta, guztiok baikara berdinak. Etiketa bereizgarriak jartzea, bere ustez, auto-bazterketarako modua da: *“Uste dut nire alderdiko esku-orrietan ez dela berariaz aipatzen LGTB arloa. Pertsona guztien berdintasuna defendatzen du; berdin dio lesbiana, gay, transexuala edo zarena zarela zaren. Jakina neure burua bertan ikusten dudala! Izan beharko lukeen bezala da. Etiketak jartzeari ekiten badiozu, zuk auto-baztertzen duzu zeure burua.”*

Bere alderdiaren bazkidetze prozesuaren praktika on baten berri eman digu Itxasok. Benetan sentitzen zuen generoarekin, emakume gisa, alegia, jendaurrean agertzea erabaki zuenean egin zen bazkide. Honakoa kontatu digu: *“Guztia agerrarazi eta gero egin nintzen alderdiko kide, ez lehenago, eta ni afiliatzeko beste pertsona batzuekin tardatzen dutena baino gutxiago tardatu zutela uste dut. Izan ere, dokumentazioa eman eta astebetara banuen jada bazkide txartela. Nahi nuen izenarekin eta argazkiarekin egin zidaten txartela. Ez zidaten eragozpenik jarri.”*

Marisa euskaldunago sentitzen da bere jatorrizko herrialdekoa baino, eta ideologia nazionalistadun alderdi politiko bateko bazkide dela adierazi du.

Bai Itxasok bai Marisak adierazi dute eroso sentitzen direla dauden alderdien egituretan. Eurretan aktiboki parte hartzera bultzatu dituen lesbiana izatea izan ez den arren, euren alderdiek sexu eta genero aniztasuna gehiago hartu beharko luketela kontuan adierazi dute modu arinean. Adibidez, Itxasok kontatu digu bere alderdiko hauteskunde kanpainetan ez dela transexual gisa bereziki ordezkatuta sentitzen. Arazo horrek ez diola bere alderdiari soilik eragiten azaldu du, guztien arazoa dela: *“Kanpainetan, alderdi guztiak, ez nirea bakarrik, oinarritzen dira besteekin sartzean, eta, orain, krisi garaian, nabarmendu egiten da jarrera hori. Elkarri egiten diote agiraka, gertatzen dena zuk gaizki egin duzulako da eta guk hobeto egin genezakeelako.”*

EAEko hainbat alderdi politikoren ildo ideologikoak eta politika egiteko moduak duela urteak hasi ziren sexu eta genero aniztasuna kontuan hartzen. Eusko Legebiltzarrean egondako debateek eta onartutako zenbait legek islatzen dute egitate hori. Geure ustez, hainbat euskal alderdik sexu orientazioagatiko eta identitateagatiko ez-diskriminazioarekin duten konpromisoa ukatu ezinezko errealitatea da. Areago, 2012ko hauteskunde autonomikoetan, euskal alderdi politiko gehienek sartu zituzten euren programetan LGTB kolektiboarekin lotutako ekintzarako neurriak.

Halere, sexu eta genero aniztasunarekin lotutako gaiak ez dituzte barne hartzen alderdi politikoen egituren garrantzizko gai politikoetan. Bazterreko eta alboko kontuak izatera igarotzen dira, bigarren mailako politikaren zati. Gainera, alderdi politikoen egituretan sexu eta genero aniztasuna jorratzeko garaian, LGTB kolektiboa osatzen duten pertsonen eta euren beharrianen gehiegizko homogeneousatzea egiten dute.

Askotan, politikak LGTB pertsonen irudikapen oso zehatzarekin jorratzen du sexu eta genero aniztasuna: alor gaztea izaten da, maskulinoa, gay, bertakoa eta desgaitasun funtzionalik gabea. Irudikapen horietan, emakumeak, transak, migratzaileak edo desgaitasuna dutenak ez dira barnean sentitzen.

Sexu eta genero aniztasunari buruzko politikak zerbaitetan hobetu ahalko balira, LGTB kolektiboak dauzkan interes eta beharrian anitzak sartzean izango litzateke.

SINDIKATUAK

Ikerketan parte hartu duten emakume batzuk sindikalistak dira, Berta eta Nekane zehazki, eta euren sindikatuko parte hartzeaz hitz egin digute.

Alderdietan daudenekin gertatzen den antzera, sindikatuetan daudenek ere bigarren planoan uzten dute euren sexu orientazioa, eta ez da ohikoa izaten euren sindikatuetan lesbianismoaz hitz egitea, edota berau adieraztea.

Berta, adibidez, hezkuntza eremuko sindikatu bateko kide da, ikasgeletan sexu eta genero aniztasuna sustatzen duena. Honakoa esan digu horri buruz: *“Sindikatuaren gaietako bat hezkuntza da, homosexualitatearen edo aniztasunaren sustapena ikasgeletan. Badakit lesbiana naizela esango banu, ez nukeela inolako arazorik edukiko, baina ez dut egiten.”*

Nekane oso argi adierazi du bere sindikatuan garrantzitsuagotzat jotako gaiez hitz egiten delako ez dela lesbianismoa lantzen. Ondorioz, ez da garrantzitsutzat jotzen aukera sexuala: *“Sindikatuan nengoen, baina beti hitz egiten zen gai pisutsuagoez, sexu aukeraren bektorea sartzeko moduan! Oso konplexua zen.”*

Hezkuntza eremuan mugitzen direnetan salbu, sindikatu gehienetan, alderdi politikoetan ez bezala, indar txikiagoz barneratu dituzte euren ildoetan sexu eta genero aniztasunaren arloarekiko errespetuzko eta lan bizikidetzazko balioak. Sindikatuetakoa kanpaina gutxik kontzientziatzen dute gai horien gainean, lan inguru anitzetan. Gure ustez, krisia eta bere lehentasunak ez dira aitzakia lan eremuan gertatutako LGTB kolektiboarekiko diskriminazioari aurre egiteko neurriak ez abiatu izateko.

Zerbaitek huts egiten du euskal sindikalismoan, sindikalista lesbianek edo hitzez adierazten ez dutenean, edo sindikatuko agendan sexu eta genero aniztasunaren gaia ateratzera ausartzen ez direnean.

Gogorarazi nahi dugu FELGTen eta COGAMen *Sexu edota genero identitateagatiko diskriminazioa Espainian* (FELTGB eta COGAM, 2013) ikerketaren ondorioetako batek LGTB kolektiboko %31,23k euren lan eremuetan diskriminatu dituztela dioela. Zifra horiek euskal sindikalismoak erronka handia duela erakusten dute.

ERLIJIOZALETASUNA

Matxalenek, Fátimak eta Juliak hainbat erlijio erakundetako egituretan bizi izandakoak komentatu dituzte.

Frankismoan, elizak min handia egin zuen emakumeen, sexualitatearen oro har, eta, zehazki, sexu aniztasunaren aurkako indarkeriazko muturreko jarrerarekin. Matxalenek, zeinak ez duen bere burua erlijio interes handiduntzat definitzen, bere heziketa birgogoratu du: *“Frankismoak*

eta elizak min handia egin zuten. Orain ez da hitz egiten, ez da sexuarekin oinazetzen frankismoan bizi izan nuen bezala, mojak, apaizak, Ekintza Katolikoa... Lesbianismoa ez zen existitu ere egiten, ez genuen hitz hori ezagutzen.” Horren ondorioz, Julia bezalako pertsona erlijioso batzuek bekatua eta Jainkoaren zigorra balira bezala bizi dituzte zenbait joera eta sentimendu, eta nahasmendu zein erruduntasun sentimenduak eragiten dizkie horrek. Juliak esan digun bezala: “Lehen nahasmendu izugarriak nituen, pertsona erlijiosoa naizenez, bekatuarekin identifikatzen bainuen. Apaingarrienganako eta arropenganako joera nuen, baina erruduntasunez bizi nuen. Oso akats handia zen.”

Gizarte musulmanetan jaiotako lesbianek erruduntasun modu berean bizi dezakete islama. Fátimak ez du bere burua erlijioarekin identifikatzen, baina bai bere jatorrizko gizartearekin. Honakoa esan digu: *“Gaixotasuna dela esaten dizute, eta horrelako emakume bat, lesbiana, ez dela existitzen eta Jainkoaren zigorra dela.”* Dena dela, Fátimak ez dauka erruduntasun sentimendurik eta argi eta garbi esan du: *“Jainkoaren zein zigor? Zer egin duzu? Zergatik ez zituen zure nebak zigortu? Ba ni harro nago naizena izateaz, lesbiana izateaz.”*

Erlijio edota hierarkia erlijioso askoren jarrera horrek euren barneko gayen, lesbianen eta transexualen elkarbizitza, oro har, oso konplexua izatea eragiten du. Baina erlijioak hierarkiak edo goi-karguak baino gehiago dira, eta hainbat erlijiotako pertsona praktikante daude erlijio batzuek homosexualitatearekiko, lesbianismoarekiko eta transexualitatearekiko dauzkaten planteamenduen aurka. Eliza katolikoaren barruan, adibidez, oinarritzko kristau komunitate askok kritikatzeko dute hierarkia katolikoaren jarrera homofobo publiko eta beligerantea.

Horrela azal daiteke Juliaren esperientzia baikorrenekin topo egitea. Bere sinesmen erlijioso sakonen ondorioz, baliabide erlijioso bat erabili zuen bere egoera konpontzeko saiakeran: *“Apaiz bati esan egin nion, bi aldiz egon nintzen berarekin eta nahiko ulerkorra izan zen. Ulertzen lagundu zidan pertsona izan zen, gertatzen zitzaidana ez zela hain txarra esan zidana, eta sexu joeren inguruan informatu ninduen lehena izan zen.”*

Era berean, LGTB elkarteetan erlijioarekin lotuta dauden berariazko baliabideak aipatu behar ditugu. ALDARTE elkartean, Galigay taldea dago, euren sexu orientazioak fedea bizitzeko arazorik ekartzen ez dien pertsona kristauak osatzen dutena. Fedea eta sexualitatea batasunean eta kontraesanik gabe bizitzeko gunea da; gay, lesbiana eta transexual gisa edozein erlijio eta konfesio bizitzekoa, eta eliza aktiboa sentitzen duena. Hortik, elizaren hierarkiak daukan jarrera homofoboaren aurka borrokatzen dute.

ZEHARKAKO ALDAGAIEN AZTERKETA



IKUSGARRITASUNA

SARRERA

Ikusketa honetan parte hartu duten emakume gehienek erabili dituzte giza baliabideak modu ikusezinean, hau da, aukera lesbikoa edota transexualitatea aipatu gabe.

Atal honetan, emakumeen sexu aukerak familia heterosexualaren mitoari egokitzen zaien familietan eragiten dituen askotariko gatazkez arituko gara.

Modu berean, migratzailea izatea edo desgaitasun psikikoa edukitzea emakumeen ikusgarritasunean modu zehatzean eragiten duten kontuak izaten dira. Ondorioz, isiltasuna edota bizitza bikoitz gogorra ezartzen dira.

Inguru hiritarrak edo baserrikoak ere aztergai izango ditugu, izan ere, hirian edo herrian ikusgarri egiteak bereizketa argiak dakarzkie espazio batean ala bestean bizi diren emakumeei. Herrian posible ez den anonimotasuna ahalbidetzen du hiriak, emakumeak hazi diren lekua horixe izan arren. Emakumeek gehiagotan egiten dira ikusgarri herrietan, helduaroan joaten direnean bertara bizitzera.

Ikusgarritasun publikoa noren ardura da? Egun, debate hau puri-purian dago lesbianen artean, eta erantzukizun kontutzat jorratzen da, sexu aukera kontu intimo eta pribatutzat jo beharrean. Diskriminazio egoera hain ezberdinak bizi dituzten lesbianen arteko elkartasuna dago jokoan.

Lesbiar estereotipoari buruz, eta kanpo itxura “maskulinoa” eduki nahi duten lesbianeiei estereotipo horrek eragiten dizkien etengabeko tentsioei buruz hausnartuko dugu. Estereotipo horren ondorioz, ikerketa honetan parte hartu duten emakume askok adierazten duten maskulinitatea estigmatizat bizi dute.

Azkenik, lesbiana askok euren artean ezagutzeko omen duten antenaren edo radarraren kontua landuko dugu. Atal horretan, “euskal lumari” buruz hitz egingo dugu, euskal emakume askoren estetikak zenbait lesbianen irudi maskulinoarekin duten antzekotasunaz.

IKUSGARRITASUNA ETA ONARPENA

“Hogei urte dira familiak badakiela”

Hainbat belaunalditan pentsatu izan da homosexualitatea eta familia kontzeptuak erabat kontrakoak eta bereziak zirela. Norbaitek gay edo lesbiana zela esaten bazuen, familia arbuiaitzeko adierazpentzat jotzen zen. Kath Weston-ek gogorarazi digun bezala (Weston, 2003), “homosexualitatea familiaren parte izateari kontrajartzen zaiola dioen diskurtsoa ez da esparru politikora mugatzen”, eta testuinguru askotan eta ezberdinetan funtzionatzen du. Gaur egun ere, homosexualitatea familiarentzako mehatxu handia da gizarte honen sektore batzuentzat.

Sexu orientazioak euren familietan eragin dituen askotariko gatazkek osatu dute elkarrizketatu ditugun emakumeek komunean duten lotura. Familia horietan jaio dira, bertan hazi eta hezi dituzte, eta guztiek dute oinarri familia heterosexualaren mitoa (Herd, 2002). Mito hori familiak nolakoa beharko lukeen izan dioten sineste sendo kulturek osatzen dute. Honela labur daiteke: elkartze heterosexualaren eta ugalketaren bitartez soilik lortuko dira zoriona eta gure bizitzaren zentzu baikorra. Beraz, printzipioz, elkarrizketatutako emakumeen familia bakar batek ere ez du alaben balizko lesbianismoa posiblea kontuan hartu, eta beldurrez, lotsaz edota kezka erantzun diote. Honakoa komentatu du Marisolek horri buruz: *“Hamazortzi urterekin kontatu nien gurasoei; ama depresio handi batean sartu zen eta aita erlijioarekin hasi zen, bonba atomikoa bezala erori zitzairen. Ahizpa ez zitzaiola ahizpa lesbiana edukitzea gustatzen esatera iritsi zitzaidan, eta nik esan nion ea lesbiana apeta hutsez nintzela uste al zuen.”*

Hasierako kolpea igarota, elkarrizketatutako emakumeen familiek, oro har, modu baikorreetan erantzun zutela esan dezakegu. Natiren amaren kasuan: *“Amak laurogeita lau urte zituen, eta edozein aukera probesten zuen ‘ze ondo zaudeten’ esateko. Behin, bisitan joan nintzaion eta urduri nabaritu nuen eta galdetu nion: ‘ama, zer duzu?’, eta erantzun zidan: ‘ez dakizu zer gertatu den herrian? Ile-apaintzaileak senarra utzi eta emakume batekin joan da’, eta gaineratu zuen: ‘bazen gogoak ematen diguna egiteko garaia!’ Agurtu ginenean, musu bat eman zidan igogailuan, begiratu egin ninduen eta pentsatu nuen, ‘ze zoragarria, ari zait esaten’.”*

Familia harremanenganako atxikipenik eza

Kath Weston-ek honakoa dio: “Nahiz eta guraso gehienek ez duten guztiz arbuiaitzen familiako homosexuala, arbuiatua eta baztertua izateko aukera edukitzen du gogoan homosexualak. Egitate horren ondorioz, gayek eta lesbianek familia loturen izaeraren kontzientzia

hegakorragoa eratzten dute, familia nozioarekin irekiagoak izatera iristen dira eta, ondorioz, familiaren loturekin kultura heterosexualak pentsatzen duen bezain mendekoak ez direla ematen du.”

Gazteei buruz hitz egitean ikusi dugu egitate hori emakume nagusien artean. Nagusiek ez dute euren familiei sexu aukera kontatzeko horrenbesteko beharrezana sentitu izan; gazteek, berriz, hasieratik eduki dute argi, eta oso goiz egin dira ikusgarri etxean. Natik honakoa esan die gazteenei: *“Bikotekidea etxean aurkezteko beharra duzue, nik ez dut inoiz izan”*, eta Ceciliak gogoeta egin du: *“Lehen ez zen gauza hauetaz hitz egiten.”*

Hamarkadetan zehar, euren familiengandik jasotzen ez zuten laguntza afektibo eta emozionala lagunek, bikotekide ohiek, bikotekideek, lankideek... betetzen zuten; familiaren betekizun babeslearen funtzio bera gauzatzen zuten.

Lesbiana zarela esplizituki ez esatea

Mónicak amarekin bere lesbianismoaz esplizituki hitz egin zueneko kontatu digu: *“Argi eta garbi esan nion eta esan zidan ‘baina zu mutilekin etorri izan zara etxera’, nire mutil-lagunak zirela esanez bezala, eta erantzun nion ‘eta neskekin ere etorri izan naiz, neska asko eta askorekin’*. Etxera neska “asko” eramanez eta gero, Mónica konturatu egin zen bere ama ez zela neska horiek bere bikotekideak izan zitezkeela eta bera lesbiana izan zitekeela ohartu: *“Ezta gu ikustera igo eta uztaila betean manta azpian aurkitzen gintuenean ere, eta egiten zuen beroarekin!”* Mónica, lesbiana den ala ez amak zuen nahasmendua ikusita, bere lesbianismoaz zuzenean hitz egitea erabaki zuen.

Mujikak dioen bezala (Mujika, 2007), lesbianismoaz konturatuko dena familia izango dela itxaroteak, beste emakumeekiko erlazioen kanpo seinaleak behatuta, adibidez, arazoak sortzen ditu; izan ere, agerikoa dirudiena ez da hala izaten errealitatean. Eredu heterosexistak duen indarra hain da handia, beharrezko egiten baita desio lesbikoa argi eta garbi adieraztea, edota etxera zein familia elkartzeetara eramaten den pertsonak duen esanahi afektiboa azaltzea. Familia benetan lesbianismoaren jakitun den ala ez zalantza egitea, eta arrazoi horrengatik zein puntura arte arbuatuko zaituzten ala ez ezin jakitea izaten dira gauzak argi ez adierazteak eragiten dituen arazoetako bi.

“Jada ezagutzen dugu zure sexu aukera, baina ez zaigu interesatzen gehiago jakitea”

Askotan agertu da, parte hartu duten emakumeen artean, lesbianismoa sexu aukeraz haratago doala onartzeko zailtasuna. Baita bizitzeko era zehatza edukitzea esan nahi duela horrek ere,

bikote eta lagun jakinekin gertatuko dena. Elkarriketatutako emakumeen bizitzetan gakoa dira alderdi horiek.

Familiak lesbianismoa onartu du, baina ez emakumeei ekar dakizkien ondorio zehatzak; horri buruz hitz egitea edota alaben bizitza nola garatzen den ezagutzea bezalako ondorioak. Ceciliaren familiaren jarrerak ildo hori jarraitu du: *“Badaezpada ere, inork ez du galdetzen, ez dute arazorik nahi, egin ezazu gogoak ematen dizuna, niri ez eman arazorik”, jarrera honakoa da: “jada ezagutzen dugu zure sexu aukera, baina ez zaigu interesatzen gehiago jakitea.”*

Interesgarria da Clarak kontatu diguna aztertzea: *“Gurasoei neska-lagun bakarra aurkeztu diet, hirutik. Hiru hileraz moztu nuen berarekin, eta aitak esan zidan ‘ez aurkeztu besterik, berarekin bi urte eraman arte’”*. Clararen adinean bikotekidea aldatzea sarria izaten dela kontuan hartuta, berbera izango litzateke Clararen aitaren jarrera, neskak beharrean mutilak aurkeztuko balizkio? Bere adinean emakume gutxi daukaten egonkortasuna eskatu zion aitak gazte honi, emakumeekin dituen harremanetan.

Lesbianek askotan esaten dute eguneroko bizitza afektiboari dagozkion kontuetan sartzea kostatzen zaiela familiei. Hala nola, lesbianen lagun taldea edukitzea, haiekin geratzea eta erlazionatzea, bikotekidea izan eta etxean aurkezte, bikotekidearekin beste etxe batera bizitzera joatea, etorkizunerako planak egitea, seme-alabak intseminazio bitartez edukitzea, ezkontzea, harreman sentimentalen hausturak, eta abar. Askotan isilarazten diren alderdiak dira horiek, eta familiaren bizitzan agerian egoteari uzten diotenak, beste seme-alabek daukaten harreman heterosexualetan gertatzen ez den bezala.

ALDARTE elkarteko eguneroko praktikan, gurasoek euren bizitza afektiboarekiko isiltasuna ezartzen dietelako oso kezkatuta dauden LGTB pertsonak izaten ditugu. Candelak kontatu digu urteak igaro eta gero, ama bere bikotekidea onartzen hasi berria dela, baina ez duela berataz zuzenean galdetzen: *“Amak denbora izugarria behar izan zuen nik bizitza eta bikotekidea nituela ikusteko. Denbora askoan ni eta nire betiko bizitza baino ez ziren existitzen.”*

Familiak daukaten jarrera horiek kalte egiten diete emakume lesbanei, heterosexualen kontrara, eguneroko gertakariak isilarazten baitituzte. Horrela, bakarrik egiten diete aurre euren erlazioetako gorabeheri; hala nola maitemintzei, hausturei, tratu txarrei eta abarri.

Egoera konplexuak: kultura eta desgaitasun psikikoa

Fátima arabiarra eta musulmana da, eta badaki bere kulturen homosexualitatea baztertzen dela. Kontu horrek bizitza bikoitza edukitzera behartzen du, eta barne tristura handia eragiten dio, bai familiak bai kulturak garrantzi handia dutelako berarentzat: *“Gurasoek asko balio dute niretzat. Badakit atzeratuta daudela, erlijio itxi batekoak direla, ez nautela inoiz ere ulertuko. Niri ere ez zait haiei ezer kontatzea interesatzen, zertarako larrituko ditut, ez badute honi buruzko ezer ulertzen? Haientzat, bekatua da hau.”*

Fátima jakitun da ezin dituela gurasoak ez bisitan ez berarekin bizitzera ekarri. Gustatuko litzaioke, baina daukan bizitza bikoitzarekin ez du pentsatu ere egiten. Beraz, bera izaten da bisitan joaten dena: *“Ez dut nire egia jakin dezaten nahi”*. Bi urterik behin bisitatzen ditu gurasoak, eta sekretuz jositako motxila eramaten du, bere ustez, gurasoak bere lesbianismoaz enteratuko balira, arbuiatu egingo luketelako: *“Honi buruzko ezer jakin eta ikasi gabe hilko dira. Ez dira inoiz ere negatik poztuko. Min handia ematen dit, asko poztuko nindukeelako neskak gustatzen zaizkidala kontatzeak, ama neska-laguna dudalako pozteak, zeinarekin ezkonduko naizen, edo agian seme-alabak eduki. Hori izango litzateke politena, baina ez da existitzen. Beharbada, egunen batean, lortuko dugu musulmanok.”*

Fátimak ez du bere familiarekin apurtu nahi, eta harremana mantentzen jarraitzeagatik ordaindu beharrekoa bere benetako bizitzari buruz isiltzea da. Sufriarazi egiten dio horrek.

Marisolek adimen nahasmendua du, urritu egiten duena. Lehenago kontatu dugu hamazortzi urte zituela emakumeak gustatzen zaizkiola esan zuela, eta bonba atomikoa balitz bezala erori zitzailela. Marisolen familian bere lesbianismoaz hitzik ere ez egitea eta berak ere ezer ez esatea da horren ondorioa, berrogeita lau urte eduki arren.

Sexualitatea gai tabua da, gai ikusezina desgaitasunaz ari garenean. Normalean, desgaitasunen kontuez hitz egiten denean, erabat ahazten dira sexu sentimenduekin, gogoekin, fantasiekin edo desioekin lotutako gaiak. Gainera, desgaitasuna duten pertsonenganako hiperbabesak “desgaitasuna duten pertsonen euren arazoekin nahikoa dutela sexuarekin interesatzen hasteko” pentsarazten du (Allué, 2003).

Ameliak honakoa komentatu du: *“Ez gaituzte emakume sexuatzat hartzen, gajo horrek zer egingo du pentsatzen dute. Izan ere, oso barneratuta dute heteropatriarkatuaren gaia.”* Ameliarentzat errazagoa da desgaitasuna lantzea, lesbianismoa lantzea baino. Batez ere, inguruak, oraindik ere, lesbiana edo gay izatea harreman heterosexuala garatzeko duten ezintasunaren ageriko ondorioa dela pentsatzen duelako. Ondorioz, ez da zaila inguru familiar eta terapeutikoan desgaitasuna duen pertsonaren lesbianismoa adierazteko erabateko zailtasunak topatzea.

HERRIA ALA HIRIA

2006-2009an Euskal Herrian egin zen *Voces de mujeres en la diversidad sexual* [Emakumeen ahotsak sexu aniztasunean] ikerketaren ondorioen arabera, errazago ikusgarri egiten diren emakume lesbianak 5.000 biztanletik beherako herrietan bizi dira. Datu hori kontrajarri egiten zaio ikusgarritasuna herrietan hirietan baino zailagoa dela dioen usteari.

Ikerketa honetan parte hartu duten emakumeek emaitza hori berretsi egin dute nolabait. Nati Gipuzkoako herri batean bizi da, eta honakoa adierazi du: *“Ez naiz hor zehar lesbiana naizela esanez ibiltzen, baina berdin dio, mundu guztiak dakielako. Nahiko irekia iruditzen zait nire herria, lau baserri baino ez izan arren.”*

Natik bere kontakizuna jarraitu du: *“Gay zen lagun bat nuen eta baserrikoak ziren bere gurasoak, behiak eta denetarik dituztenetakoak, mutil-lagunarekin iritsi zen eta amak biei jarri zien ohea, galderarik egin gabe.”*

Ceciliak bere herriko giroa deskribatu du, bere lagunei dagokienez: *“Nabaritu egin behar dela uste dut. Nirekin bizi diren lagunak ezkondu egin dira. Bat idazkaria denez, bandoa jarri zuten udaletxean, eta are hobeto ikusten dutela uste dut.”*

Natiri eta Ceciliari entzunez, herrian ala hirian bizitzea sexu aukerarekiko axolagabea dela esan liteke. Clararen, Alazneren, Candelaren edota Ameliaren kontakizunek azterketa sakonagoa egiten lagundu digute.

Clarak: *“Herrietan zurrumurru asko dago. Familia daukat Zaragozan, eta zure familian hiru pertsonak baino ez badakite, izeba-osabek, aitona-amonek ere ez badakite, kontu handiz ibiltzen zara herritik, norekin erlazionatzen zaren, nori kontatzen dizkiozun gauzak... berehala zabaltzen delako. Kontu handiagoarekin ibiltzen naiz herrian.”*

Alaznek herrien alderdi bat nabarmendu du, medikuari dagokiona: *“Guztia areagotzen da herriez ari garenean eta ez hiriez. Herriko jendea ezagutzen dut eta, azkenean, askoz ere giro itxiagoa dela konturatzen zara, eta ez da gauza bera zure herrian medikuarengana joatea, zure familia ezagutzeaz gain herrikoa baita, eta, adibidez, lesbiana zarela esatea etxean ez dakitenean.”*

Amelia duela hogeita hamar urte etorri zen Euskal Herrira bizitzera, eta etengabe galdetzen dio bere buruari zer gertatuko zatekeen, jaiotzetiko Cacereseko herrian geratu izan balitz. Ildo berean, honakoa azaldu digu Candelak: *“Gu Erandiora joan ginen bizitzera, azken finean, herria dena. Hasieran haurdun ikusten ninduten, eta Maria, umeak eta ni lotu gintuztenean, inondik ezagutzen ez nuen jendeak agurtzen gintuen, areago, umeen urtebetetzea izan da eta hogeit ume egon dira etxean ospatzen, eta gurasoak primeran. Baina beldurra hor dago, hau herria delako, biotako inor ez da herrikoa eta umeengatik ezagutu gaituzte, familia gisa.”*

Beraz, erraza al da, lesbiana izanik, herri batean bizitzea? Erantzuna konplexua da.

Parte hartu duten emakumeen iritziek eragindako inpresioaren arabera, herri txikietan bizi direnek ezberdin jokatzen dute kanpoko ala herriko familia batekoa izatean. Betikoa baldin bazara, zailtasunak handiagoak direla ematen du, Clarak komentatu duen bezala.

Herri batean jaiotzeak eta hazteak mugatzaileagoa dirudi lesbiana agerrarazteko. Emakume askoren ustez, lesbianismoa bizitzeko herritik edo auzotik irten behar da, oso ezagunak baitira bertan, eta beste leku batzuetara migratu anonimotasun bila. Beste lekuetan oharkabean igarotzea euren sexualitatea bizitzeko beharrezko omen duten oreka lortzeko mekanismoa da.

Herri txikietan denek ezagutzen dute elkar, eta “normaltzat” hartutakotik ateratzeak isolamendua, bazterketa edota zurrumurruek erdigunea izatea ekar dezake. Kontu horiek askotan bihurtzen dituzte herriak leku itogarri, eta lesbianen ezkutatzea eragiten dute.

Kanpotik etortzeak eta herriko erlazio familiarren eta sozialen parte ez izateak ahalbidetzen dizkie, Natiri eta Ceciliaren lagunei bezala, euren desioen arabera modu irekiago edo ez hain irekian bizitzeko aukera gehiago. Erabat esplizitu bihurtu ez arren, Natic uste du bizi den herriko jende guztiak dakiela lesbiana dela, baina ez daki ziurtasun osoz.

Askotan ikusi dugu helduaroan dauden lesbianek hiria utzi dutela eta baserri ingurura alde egin, lasaiago bizitzeko asmoz. Ahaldundutako lesbiana ikusgarriak izaten dira, eta ez diote ikusgarritasun horri uko egiten herri txiki batera bizitzera joanagatik ere.

Candelaren herriko esperientzia ere nabarmendu beharrekoa da; izan ere, onarpenak familia osatzearekin eta familiatzat hartuta egotearekin duela zerikusi handia baitirudi. Candelak bere susmoak komentatu ditu lesbiana bikotetzat erakutsi izan balute euren burua, eta publikoki adierazi, gertatuko zatekeenaren inguruan. Familia ikuspegiak ezabatu egin du Candelak bikotekidearekin duen harremanaren izaera sexu-afektiboa. Aurrerago aztertuko dugu alderdi hori.

IKUSGARritasunari BEGIRAKO JARRERA SOZIALAK

“Zertarako izango naiz eskuzabala sentitzen dudana adieraztean?”

Erabateko ikusgarritasun lesbikoa ezinezkoa da heterosexualitatearen ustekizun suposizio unibertsala dagoen gizartean. Beraz, ikusgarritasunaz hitz egiten denean, emakumeak mugitzen diren testuinguruaren arabera lortutako ikusgarritasun mailaz hitz egin behar da, eta ez modu orokorrean. Hain juxtu, espazio batzuetan, emakume lesbianak guztiz ikusgarriak badira ere, beste batzuetan erdizka baino ez dira izaten, edo ezkutatu egiten dute euren burua. Natic honelaxe adierazi du: *“Norbaitek merezi bazuen, esan egiten nion, bestela, zertarako arduratuko naiz? Gertatzen dena da une bat iristen dela non esaten duzun: ‘zertarako izango naiz eskuzabala sentitzen dudana esatean, jendea ez baldin bada ezta pixka bat koherentea ere’.”*

Ikusgarritasuna estrategia kontua ere bada, emakume lesbianak mugitzen dituzten beharrizanen eta interesen arabera. Kontu hori ez da erabat ulertzen ikusgarritasuna “kaltetuen” esku utzi eta egia baten “aitorpen” edo “jakinarazte” bihurtu duen gizartean. Inguruko pertsonak, askotan, iruzur egin dietela edo engainatu egin dituztela sentitzen dute, inguruko emakumeek ez badute lesbianak direla esaten.

“Hitz egiteko zure sexualitatea markatu behar al duzu?”

Azken urteetan lesbianismoari, homosexualitateari eta transexualitateari buruz sortutako informazio eta debate soziala handia izan bada ere, gure gizarteak ez du begirada aldatu, ez eta erlazio sexu-afektiboetara hurbiltzeko modua ere. Beraz, salbuespena heterosexuala ez denak jarraitzen du izaten. Ikusgarritasunaren gaia deserosoa da komunitatearentzat eta lesbianentzat beraientzat ere.

Elkarriketatutako emakumeek hainbat modutan adierazi dute. Hitzaldietara joaten denean, bere sexualitate lesbikoa argi eta garbi adierazten duela esan digu Arantxak, eta guztiz harritzen duten galderak egiten dizkiotela: *“Hitz egiteko zure sexualitatea markatu behar al duzu?”*

Arantxaren kontakizunak, lesbianismoaren ikusezintasunaz kontziente diren eta espazio publikoetan euren aukeraz hitz egin nahi duten edo lesbiana agerrarazi nahi duten emakume lesbiana askok jasan behar duten egoera deserosoa islatu du. Izan ere, aurpegiratu egiten zaie ekintza hori askotan. Errealitatean, gustatu egiten zaigu eraikitzen ditugun erlazio sozialetan gure bizitzaz askatasunez hitz egitea, eta etengabeak izaten dira gure sexualitatea argi eta garbi markatzen duten komentarioak. Bikotekideei, seme-alabei, bidaiei... buruzko baieztapenek sarritan ematen dute sexu aukeraren berri.

Gure lesbianismoaz argi eta garbi hitz egitea deserosoa izan daiteke gainontzekoentzat. Sexu aukeraz modu ausartean hitz egitea integrazio sozialerako prozesuaren parte izan beharko litzateke, eta ez deserosoa den zerbait. Hala ere, emakume askok isiltasuna eta ikusezintasuna eragiten duten jarrera gogaikarri horiei egin behar izaten diete aurre maiz.

Ildo berean, honakoa kontatu digu Mónica: *“Sentitzen dutenarekiko kontsekuente izateagatik armairutik atera eta bereak egin dituen kasu asko ezagutu ditut, hau da, bizitza hondatu dien betiko ergela atera zaie.”* Mónica ez du zehaztu zein zentzutan honda dezakeen inguruak euren lesbianismoa hitzez adierazi dutenen bizitza. Ez da irudikatzeko zaila. Elkarriketetan zehar, emakumeek mugitzen diren eremu anitzetan euren lesbianismoaren aurrean ikusi dituzten kontrako jarrera ugari aipatu dituzte. Segurtasunari buruzko atalean komentatuko ditugu jarrera horiek.

Ameliak eta Candelak aditzera eman duten datu bitxia nabarmendu nahi dugu: *“Askotan esaten digute ‘esaiozu zure ahizpari hau edo hura’”*. Bai Amelia eta bikotekidea bai Candela eta berea fisikoki oso ezberdinak dira, hortaz, paradoxikoa da, kaletik doazenean edo bidaiatzen dutenean, ahizpak direlakoan nahastea. Emakume lesbianen egon badaudela irudikatu gabe jarraitzen duen gizartean soilik gerta daiteke bi emakume elkarrekin ikusi eta berehala ahizpak direla pentsatzea, lesbianen bikotea ikusezin bihurtuz.

Gainera, bi emakume hauek desgaitasuna eta lesbianismoa bateratzen dituzte. Are lesbiana ikusezinago bihurtzen ditu horrek, hartu-emana egiten duten inguruentzat.

Trataera berdina edukitzeko eskaria ala ezkutuan jarraitzeko aitzakia?

Hainbat urtetan, euren lesbianismoa ez agerrarazteko argudio bat honakoa izan da emakume lesbiana askorentzat: “Heterosexualek esaten ez badute, zer dela eta esan behar dut nik?”. Ikerketa honetan, berriro agertu da argudio hori. Mónica adibidez, honakoa kontatu du: *“Amak esan zidan ez niola inoiz esan emakumeak gustatzen zitzaizkidanik, eta erantzun nion `tira, mutilak gustatzen zaizkidanik ere ez dizut inoiz esan, ezta?’”*. Bestalde, ea inguruan lesbiana bezala agerrarazi al den galdetu zaionean, honela adierazi da Itxaso: *“Ez, ez didate horri buruz galdetu, eta ez dute zertan, ez dut naizena esaten ibili behar, edo gustatzen zaidana. Pertsona heterosexualak ez dira ibiltzen `heterosexuala naiz’ esanez, eta nik zergatik ibili behar dut?”*

Urteen joan etorriarekin, hutsala bilakatu da argudio hori; izan ere, lehen esan bezala, heterosexualek ez dute gizarte heterosexual batean esateko beharizanik izaten. Gainera, “heterosexuala denak ez badu hori dela esaten, zergatik esan behar dut nik lesbiana naizela?” argudioa, gehienetan, ez da gizarteari eskakizun gisa formulatzen, ezkutuan jarraitzeko aitzakia bat gehiago moduan baizik.

Askotan hautematen dugu emakume askok lesbianismoa ezkutatzeke argudio horren azpian babesteko duten joera. Modu horretan, eguneroko hizkeratik desagertzen dira izaera publikoa duten gai pertsonalak; hala nola ezkontzea, bikotekidea edukitzea eta nor den jakitea, seme-alabak edukitzea, bidaidea nor den esatea, hau da, harremana sortzean agerian jartzen diren gaiak. Eta gai horien atzean dago, hain juxtu, euren lesbianismoari buruzko informazioa. Eguneroko bizitzaren kontu asko isilarazten dituzte galdera deserosoak saihestu eta lesbianak direla aditzera ez emateko.

Bizitzako gaiak ez dira eraikitzen dituzten harremanetan sartzen, eta desagertzen ez badira, anbiguotasunez aipatzen dituzte, izendaezinaren eremura eramanez. Ondorioz, ingurukoek ez dute jakiten zeri eutsi, lesbianak beraiek barne.

Dena dela, Mónica eta Itxasoren arrazonamenduek oinarritzko izaten jarraitzen dute; izan ere, gure gizarteak sexu aniztasuna ulertzen eta aitortzen duenean lortuko baita pertsona guztien arteko trataeran berdintasuna egotea, sexu aukera gorabehera. Era berean, gizarte honek heterosexualak ez direnak etengabeko aitortzak egitera behartzen ditu, eta horrekin ere amaituko da.

Amatasunak ikusgarri egiten ditu amak

Silvia Donoso eta Tamsin Wilton-en ustez (Donoso, 2002 y Wilton, 2005), “ama lesbiana izatea” kontraesana da, eta adierazi duten bezala, “emakume lesbianek, emakume gisa, seme-alabak eduki beharko lituzkete, eta, lesbiana gisa, uko egin beharko liekete.” Horrelaxe egon da,

hainbat urtez, amatasunaren eta lesbianismoaren gaineko eztabaida sozialaren egoera. Hein batean gainditutako debatea da, Candelaren hitzak aditzen baditugu: *“Ez dugu geure burua ezkututzen. Izan ere, bi ama gara.”*

Lesbiar amatasuna oso ikusgarria da egun, eta espazio zabalak okupatzen ditu, lesbiana gazte askorentzat eredu izanik. Areago, gizarteak lesbianak irudikatzeko eta agerrarazteko modua ama gisa izaten da. Amatasuna gizarteak emakumeei egokitutako rol tradizionala izanik, gizarteak lesbianismoa errazago onartzeko modu bat da.

Candelak adierazi duen bezala, amatasunak asko agerrarazten ditu emakume lesbianak, baina izate lesbikoaren sexu esperientzia ezkutatzearen truke: *“Horixe da nire autokritika, gure bikotearen gai afektiboa. Guraso heterosexualek topaketetan baino ez diogu elkarri afektua adierazten modu naturalean. Neska-lagunak ginenean, eskutik helduta ibiltzen ginen kaletik, baina jada ezer ez. Horrek pena ematen dit.”*

Lewin-ek esan bezala⁴⁰, amatasunak estatus naturalago edo normalizatuagorako sarbidea ahalbidetzen die lesbiane, beste modu batean eskuratu ezingo luketena. Ama izateak generoaren usteak betetzea adierazten du, eta homosexualitatea/naturaren kontrako ekuazioa gainditzea. Batez ere, gurea bezalako gizartean, amatasuna mitifikatzeaz gain, femeninoa denaren osotasuntzat jotzen jarraitzen baitu amatasuna; emakumearentzako bizimodu osoena. Egiazki, oso nabaria da azken urteetan gizartean gehien hedatu den irudi lesbikoa amatasuna izan dela. Hain da horrela, ezen baieza baitaiteke lesbianismoa sozialki onartzeko bide nagusia lesbianek umeak edukitzeko gaitasuna dela.

Hurrengo hitzetan adierazi da amatasunean oinarritutako lesbianen irudi sozialaren arriskua: *“Maitasuna-ezkontza-amatasuna trinomioa normalizazio gisa adierazteko estrategiaren bitartez, asko kanpoan uzten gaituen imajinario lesbikoa ari dira sortzen komunikabideak”*⁴¹. Emakume anitzak lotzen gaituen zera hori izateari uzteko arriskuan dago lesbianismoa. Lesbiana “normalak” eta besteak banatzeko faktore sozial bihurtzeko amatasuna.

ERANTZUKIZUNA ETA IKUSGARritasun Publikoa

Nola bultza daiteke ikusgarritasuna?

Urte hauetan, asko aurreratu dugu lesbianismoaren onarpen sozialean, baina aurrerapen horren pertzepzioak ez du lesbianen ikusgarritasunaren eskasia ikustea eragotzi behar. Ezta, eskubideen erabilerarako eta ikusgarritasun lesbikoaren bilakaerarako, legalki eta sozialki lortu denaren arteko elkarrekikotasun eza ere.

⁴⁰ Silvia Donosok *La familia lesbica* liburuan izendatu du.

⁴¹ *Lesbianismo a media voz*, www.eldiario.es/pikara/

Asko falta da legalki irabazitakoa lesbianen artean sartzen has dadin, eta ikusgarritasun espazio zabalagoak betetzera anima daitezen. Lesbianak irudi duena baino askoz ikusgarriagoak gara, baina eremu pribatuan, eta ez publikoan. Bi eremuak ez datoz bat, eta horrek eragiten du lesbianek familiarekin edo hurbileko jendearekin agerrarazteko arazorik ez edukitzea, baina, adibide bat aipatzearren, amaren bizilagunek edota herriko lagunek pentsatuko dutenarenganako beldur handia izatea eragiten du.

Ikusgarritasun arazoa dago eremu publikoan, zeinak lesbianismoa eta bere aldarrikapenak agertzeko prest dauden emakumeen gabezia eragiten duen. Hainbat hamarkadetan, beharrezkoa izan zen aldarri hori lesbianak egon badaudela ezagutu zedin.

Lesbianen artean gai horri buruzko eztabaida dago, ekintzaileen artean bereziki. Hortik ondoriozta dezakegu jauzia egin eta zera onartu behar dela: ikusgarritasun lesbikoa ere muga pertsonala gainditzen duen kontu politikoa dela.

Mugimendu feminista: lesbiana gisa bizitzeko eta oharkabean igarotzeko espazio erosoak

Ez da inoiz erraza izan lesbianismoaren ahots publikoa izatea edo lesbianen kolektibo bat ordezkatzeko. Bozeramaileak izan diren emakume guztiek onartzen dituzte euren beldurrak. Matxalenek puntu horri buruz hitz egin du: *“Gatazka pertsonalak eduki nituen publikoki ateratzean, kostatu egin zitzaidan lesbiana bezala publikoki ateratzea. Askotan joan behar izan nuen irratietara feminista gisa hitz egitera. Gero LGTB elkarte batean hasi nintzen lanean, eta lesbiana gisa hasi nintzen publiko aurrean hitz egiten, eta ez da gauza bera. Neure buruarekin nuen erronkarengatik egin nuela aitortu behar dut. Ezin dut hitzez adierazi neukan sentsazioa. Beti egon nintzen ondo gordeta armairu barruan.”*

Ikusgarritasun publikoak norberarekiko duen kostua erakutsi du kontakizun horrek, nahiz eta oso argi ikusi horretarako dagoen beharrazana. Matxalen LGTB elkarte bateko partaide izatera igaro zenean, gehiago inplikatu zen bere dimentsio lesbikoan, eta jende aurrean lesbiana gisa hitz egiteak ekartzen zizkion erronkak egiaztatu zituen. Matxalenek bazeuzkan jada emakumeekin harremanak feminismoaren ahots publikoetako bat zenean, baina inplikatzeko eta esanahi ezberdina dute berarentzat feminista gisa edo lesbiana feminista gisa hitz egiteak. Honakoa komentatu du horri buruz: *“Mugimendu feministan zaudenean gorde egiten zara, ulertzen? Ekainaren 28rako komunikatuak ere egiten genituen, baina Emakumeen Asanbladan, lausoago geratzen da eta.”*

Emakume lesbiana gisa agerrarazteak lanketa pertsonal handia ekarri zion Matxaleni, militantzia feministak ez bezala. Jende aurrean agerrarazita sentitzeak barne gatazka eragin zion, baina ikusgarritasun publikoaren erantzukizuna hartu zuen bere gain Matxalenek: *“Beharrazana ikusten nuelako ireki nintzaion munduari, eta gero eta beharrazan handiagoa ikusten dut.”*

Matxalen erreferentziazko pertsona izan da mugimendu feministaren barnean, eta modu erosoan kudeatu zuen irudi publiko hura. Baina ez zitzaion hain erraza egin komunikabideetan lesbiana gisa publikoki azaltzea. Berak adierazi bezala, erronka pertsonal handia izan zen berarentzat eremu eta zentzu guztietan armairutik ateratzea.

Emakume asko jende aurrean agertzeraz ez ausartzeak hainbat osagai dauzka: alde batetik, publikotasunak izua eragiten du *per se*, bestetik, lesbiana izatea ez da kalitadedun produktua gizarte honetan. Lesbianei ere badagokie kalitate hori ematea, eta bide horretan ez lirateke lotsatu behar.

Ikusgarritasun publikoa ez da kontu lasaia

Emakume eta lesbiana garen heinean, sexualitatea modu pribatu eta diskretuan bizitzen irakatsi digute, hori dela-eta arretarik deitu gabe. Oso kontu pertsonal bihurtzen dugu sexualitatea, eta ez da erraza berau publiko egin eta honakoa esatea: “Sexu harremanak emakumeekin edukitzea gustatzen zait.” Gayek egin beharrik ez duten ariketa da hori, eta, zentzu horretan, ibilbide luzeagoa dute eginda gizonak izateagatik. Hausnarketa hau eginda ere, ezin dugu ahaztu zenbait gizonek publikoki gaytzat agerrarazteagatik ordaindu behar izan dutena.

Gure ustez, nahiz eta lesbianismoaren onarpen soziala ez den emakume lesbianen erantzukizun eksklusiboa, hauek ezin dira isilik geratu. Norberaren gain hartu beharreko erantzukizun zatia dago, jasan daitekeen presio mailaren arabera.

Eztabaidatu beharreko galdera asko daude: mugitzen garen eremuetan gauzak aldatzen laguntzeko derrigortasun moralak al daukate lesbianek? Auto-exijentzia plusa eduki beharko genuke lesbianok, ikus gaitzaten eta gizarteak existitzen garela jakin dezan? Zein maila duen auto-exijentziaz ari gara? Eremu publikoan dauden eta ezagunak diren emakumeei lesbiana agerrarazteko exijitu beharko genieke? Nahikoa da intimitaterako eskubidea aldarrikatzea publikoki ikusgarri ez egiteko?

Matxalenen ustez, begi bistakoa da lesbianen sektore batek publikoki agerrarazteko ahalegina egin beharko lukeela: *“Lesbianak diren politikoak daude eta ez dute esaten. Ez dute hortik gai politikorik egiten, euren bizitza pertsonaltzat hartzen dute. Baina lesbianismoa ez da kontu pertsonal hutsa, eredu ematea da, dimentsio politikoa ematea, badakizulako zer dakarren, diskriminatuta zaudelako, eta hala zaudenez, zure ikusgarritasunetik lagun dezakezu diskriminazio horri aurre egiten. Gustatu ala ez, gai politikoak asko eragiten du. Eta ‘lesbiana naiz’ dioten politikoak edukitzek izugarri lagunduko luke.”*

Gogoeta horretan, lesbiana gehienek lesbiana ez agerrarazteko erabiltzen duten argudioari egin zaio erreferentzia: pribatutasunerako eta intimitaterako eskubideari, hain zuzen ere. Lesbianismoa eremu erabat pribatuaren parte dela uste da oro har eta, ondorioz, ez dela bizitza pribatuaren aldarririk egin behar, ez eta ordezkartzarik norberarentzat hartu behar ere.

Oztopoa da hori, izan ere, lesbiana asko besteenganako erantzule ez sentitzea ikusezintasunaren arrazoietakoa bat da, lesbianak komunitate diren heinean.

Ikusgarritasuna ez da ezartzen, ezta dekretu bidez lortzen ere

Ikusgarritasuna ez da ezartzen, ezta dekretu bidez lortzen ere, baina ez da eskuratuko euren beldurrak apurtuz lesbianismoa publikoki agerraraziko duen emakumerik gabe. Ameliak adierazi duen bezala: *“Egia da, edo unereren batean lesbiana zarela esatera ausartzen zara, edo, agian, ez zaituzte kontuan hartuko, jendeak jakin badakielako baina inork izendatzen ez duelako. Batzuetan, erantzukizuna ere bada.”*

“Homosexuala naizelako nago hemen. Eta, beharbada, ondorio positiboa eragin dezakedalako: beste batzuei lagundu euren bizitza errazagoa eta itxaropentsuagoa izan dadin. Honetan guztian, betebeharrak pertsonala eta giza erantzukizuna daukadala sentitzen dut.”⁴² Ellen Page aktore gazte kanadarrak esan zituen hitz mediatiko horiek giza eskubideak eta homosexualitateari buruzko hitzaldi batean Las Vegasen. Bere burua ukatzeaz nazkatuta zegoen Page, ezkutatzearaz eta gezurrak esateaz.

Pixkanaka-pixkanaka, hainbat eremutako emakume famatuak lesbiana gisa ari dira ikusgarri egiten, eta, Ellen Pagek egin bezala, euren gain hartzen, munduko emakume lesbiana askoren egoera aztertu eta gero, uko egin ezin dioten erantzukizuna. Ukaezina da Pagen adierazpenak oso beharrezkoak direla oraindik ere lesbiana izatea zaila edo ezinezkoa denean emakume askorentzat.

Sarritan, burla publikorako arriskuan jartzen dute euren burua lesbianismoa iragartzen dutenean, Ellen DeGeneresi⁴³ eta Maresmou tenistari duela urte batzuk gertatu bezala. Agerikoa da kontuan hartu beharreko arriskua dela, iragarpenaren osteko egunetan behintzat. Baina emakume horien ausardiak eta esperientziak frogatu dute, urteen poderioz, askeagoak direla eta ahaldunduago daudela.

Errealitateak ezin gaitu lesbianok sufritzen ditugun zapalketen azterketa biktimistak egitera bultzatu. Izan ere, azterketa mota horrek “kexaren kultura” geldiarazlean barreiatu baititu lesbianak. Ezinbestekoa da ez ezkutatzearen, iritzia ematearen, nahi dena eta nora iritsi nahi den esatearen beharrezanaren jakitun egitea. Pribatutasunak eta diskriminazioek ez dute justifikatzen emakume askok euren buruei ezartzen dieten auto-ikusezintasuna.

Elkartasunak jokoan sartu beharko luke, Matxalenen gogoetan ikusten den bezala: *“Bizitza publikoan bazaude, ekarpenak egin behar dituzu, eta bertan ez daudenek ere beste maila batean egin behar dute, euren inguruetan. Baina, gainera, politikatik bizi den jende publikoak publiko egin beharko luke. Elkartasun kontua litzateke.”* Alboratu beharko ez genukeen praktika da elkartasuna.

⁴² EFE Agentzia, 2014ko otsailaren 15ean.

⁴³ www.mujerdehoy.com, 2014ko martxoaren 1ean.

“Guztioi kostatzen zaigu, noski, baina lagun dezakezu”

Eredutzat balio dezaten, lesbianismo barruan erreferente publikoak egon beharko liratekeela sentitzen du Matxalenek. Argi dauka lesbiana izateak dakarren dimentsio publiko eta politikoa. Gainera, honakoa gaineratu du, ederki asmatuz: *“Guztia normalizatzen denean, norberaren bizitza pertsonala osoki berea izango da, baina gizarteak lesbianismoa baztertzeari utzi arte, bizitza politikoa da.”*

Matxalenek iradoki digu ezin dela “bizitza pribatua” aipatu egitekoen zerrenda luzea dagoenean. Manuel Castells-en hitzak gogoratu nahiko genituzke (Castells, 2003): “Kontu pribatua delako, politiko baten edo sindikalista baten edo gizarteko edozein eremutako pertsona publiko baten sexualitatea zein den garrantzitsua ez dela pentsatzen dutenek ez dute ezer ulertzen, ez gayei buruz ez gizarteari buruz. Gayen eta lesbianen aurkako diskriminazio sistematikoa dagoenean, ez da pribatua, publikoa da. Beraz, estigma aldarrikapen bihurtzea, zeinaren alde jarri behar den, ekintza politikoa da.”

Inori ezin zaio uka intimitaterako eskubidea, ezta sexu adierazpenerako eskubidea ere. Ezin bada azken eskubide hori erabili, lehenengoa ere ez. Mundu honetan, lesbiana askok ezin dezakete lesbiana gisa adierazi euren burua, eta etengabe ukatzen zaie euren intimitatea babesteko eskubidea.

Generoa berresleitzeko aldia eta ikusgarritasun lesbikoa

Lehentxeago komentatu den bezala, ikerketa honetan parte hartu duten emakume asko sexua berresleitzeko prozesuan daude, eta, lesbianak diren heinean, euren ikusgarritasunaz ere hitz egin zuten.

Generoa berresleitzeko prozesuan, gorputzak ageri duen anbiguitasunak transexualitatea homosexualitatearekin edota lesbianismoarekin nahastea eragiten du, eta alderantziz. Zaloak esan digu hainbat urtez ezkutatu zuela bere transexualitatea, eta *“jende askok uste zuela lesbiana oso mari-mutila nintzela, ez transexuala nintzenik.”*

Gizarteak lesbianen itxura maskulinoa espero du, izan ere, maneiatzen duen estereotipoari gehien egokitzen zaiona da. Horregatik, askotan jotzen dira lesbianatzat transexual emakume zein gizonak, lesbianak edo gayak izan ala ez izan. Areago, nerabezaroan eta lehen gaztaroan, ohikoa izaten da gizon transexual asko lesbiana maskulinoztzat jotzea, haiek nahiko luketen gizontzat hartzea baino gehiago.

Ikusgarritasun lesbikoa ez da erraza izaten emakume transexualentzat, generoa berresleitzeko garaian daudenean. Horrelaxe gertatzeko hainbat elementu elkartzen dira. Alde batetik,

gizarteak, oraindik ere arrarotzat jotzen du transexualitatea, eta estigma bat (lesbianismoa) gaineratzeak emakumeei egoera zaildu egiten die. Honelaxe adierazi du Zaloak: *“Are gehiago, lesbiana zarela esaten badiezu, ‘malfollá’ hutsa zara, eta sendatuko zaituztela eta gainerako guztia.”* Itxasok, bere aldetik, ez du lesbiana dela esaten “bi baten truke” eskaintzak mesederik egingo ez diola uste duelako.

Segurtasunari buruzko atalean komentatu dugun bezala, emakume horiek kaletik edo garraio publikoan doazenean jasan beharreko begiradak ere hor daude. Itxasok honakoa esan du: *“Jendea begira geratzen zait, ‘zer ari zara! hori piura daramazuna!’ esanez bezala, hala ere, gero eta gutxiagotan gertatzen da. Jendeak mutil ikusten nau, oso polit jantzi arren.”*

Beste alde batetik, kontuan hartu beharra dago estereotipoen arabera mugitzen garela. Horrela, lesbianek emakume gorputza edukitzea da normala bai gizartearentzat bai lesbiana askorentzat. Itxasok ezin hobeto adierazi du polemika hori, bikotekide sexu-afektiboa edukitzea pentsatu duenean: *“Eta ni? Oraintxe bertan, mutilek mutil gaytzat naukate, eta emakumeek mutil oso afeminatutzat. Askotan esaten dut, nola topatuko dut bikotekidea?”* Itxasoren lagunek bikotekide egonkorrak dauzkate eta baten bat ezkondu da jada. Ondorioz, larritu egiten da, noizean behin. Itxasok badaki garai zailean dagoela, baina baita *“nire momentua iritsiko dela”* ere.

ESTEREOTIPO LESBIKOA ETA HORREN TENTSIO SAIHESTEZINAK

Lesbianatzat jotzeko beldurra

Gizartearen aurrean ikusgarri izateko prozesua markatzen duen alderdietako bat da gure gizarteak maneiatzen duen estereotipo lesbikoari dagokion itxura fisikoa. Lesbiar estereotipoa itxura maskulinoa duen emakumearena da funtsean, hau da, galtza eta blusa zabalak jantzen dituen emakumearena, baita zapata zabalak ere, ez da makillatzen eta ile laburra darama.

Lesbianen estereotipo horrek kanpo itxurarekiko gatazkak sorrarazten dizkie emakume lesbiana batzuei; batez ere, itxura maskulinoa duten ala ez, eta estereotipoari ihes egiteko moduak zainduz. Euren bizitzetan, etengabe dutena gogoan. Lesbiana askok egunerokotasunean bizi duten egoera baten berri eman digu Clarak: *“Aurrekoan, labur-labur moztu nuen ilea, kopeta-ilearekin, amonak ikusi ninduen eta lesbiana ematen nuela esan zidan.”*

Candelak onartu egin du bere bikotekidearen itxura maskulinoak garai batez kezkatu zuela: *“Niri emakume bezala gustatzen zitzaidan, femeninoago ikusteko gogo nuen, eta horregatik erosten nion arropa femeninoa, baina ez zuen inoiz jantzen, bera makillatzen ere saiatu izan naiz... Orain ulertzen dut nahi duen bezala jantzi behar duela, beti egin izan duen bezala, besterik gabe.”*

Maskulinitate femeninoa: estigma

Itxura maskulinoa edukitzea eta ustez zure genero femeninoa denari egokitu beharra etengabeko tentsioa izan da eta izaten jarraitzen du, eta, normalean, lesbianak mugitzen garen inguru sozialek eragiten dute. Familiarekin zuen etengabeko gatazka kontatu digu Natik: *“Anderetxoak bezala ibiltzeko beharrian hori, ni beti izan naiz-eta guztiz kontrakoa. Jendeak exijitzen zizuna, koinatak, nebak, ahizpak... etengabe esaten zidaten nolako piura neukan.”*

Emakume lesbiana askok daukate kanpo itxura maskulinoa, sufriarazi egin izan dien kontua hori, harro sentiarazi beharrean. Maskulinitatea gizonen pribilegio eskusiboa den gizartean, emakume maskulinoek lotsaz eta estigmaterekin bizi behar izaten dute euren maskulinitatea.

Lesbiana izan ala ez izan gorabehera, emakume askok esperimentatzen dugu haurtzaroan “marimutil” izendatutako jarrera: zuhaitzetara igoz, neben jostailuekin jolastuz, “agintzaile-mandiak” izanez, mutilak bezala jantziz eta abar. Ohikoa izaten da neskato “marimutilak” egotea eskoletan, eta ez dute alarmarik sortzen; areago, mutil afeminatuak baino hobeto onartzen dira.

Judith Halberstam-en esanetan (Halberstam, 2008), “marimutil” kontzeptua haurtzaroan gertatzen den maskulinitate aldi zabalari esaten zaio. Haurtzaroko aldi horietan, maskulinitate hori autoafirmazio eta independentzia seinaletzat jotzen da. Autoreak nabarmendu du marimutil jarrera haurtzarotik eta nerabezarotik haratago luzatuko den mehatxua dagoenean gertatzen dela gatazka. Neska “marimutilak” nerabezarora iristen direnean, neska horiek emakume guztiek eduki behar duten genero femeninoaren itxurari egokitzeko ahaleginak eta presioak hasten dira. Autorearen ustez: “marimutil irudia emakume bihurtzeko diskurtsoaren barruan baino ezin daiteke onar.”

Kontu interesgarria aipatu du Natik: lesbiana askok “marimutila dirudizu!” bezalako esapideei erantzuteko duten gaitasunik eza. Honakoa esan du: *“Koinatekin sartzen nintzen, ala? Esaten al nien nola zeuden jantzita eta horri buruzko nire iritzia eman? Ez, ez nintzelako ausartzen.”* Jantzera femeninoaren/maskulinoaren baldintza formalak betetzen ez dituztenen kanpo itxura komentatzea, Natik esan bezala, maila altuenean daudenen edo, janzkerari dagokionez, feminitate/maskulinitate estereotipoa betetzen dutenen eskumena da: *“Betikoa gertatzen da, maila baxuenean gaudela, gogoak ematen diena esan ahal dizutela eta erantzuteko ezgaia zara zu.”*

Badirudi urrun dagoela oraindik bakoitzak gogoak ematen diona janzteko arauaren ezarpena. Estetikak garrantzi handia dauka, izan ere, janzteko gustu ona zein txarra epaitu egiten da, eta, era berean, sexualitatea edo generoaren adierazpena juzgatzen. Garrantzitsu bihurtzen dugu generoari dagokion arropa egokia janztea, bestela, kritiken jo puntua izango garelako. Arropa egokiak janzten dituztenek eraso egiteko eta zalantzan jartzeko zilegi direla uste dute.

Lesbiar estereotipoarekin jolastea

Gonak, soinekoak edo arropa estua janztara derrigortzen ditu “marimutilak” emakumearen berezko feminitateari egokitzeak. Ondorioz, itxura maskulinoa haurtzarotik haratago ere mantendu nahi duten emakume lesbiana askok estigma pairatzen dute euren bizitzan zehar.

Marimutila ez emateko gona jantzi beharra, ilea ez moztea, noizean behin makillatzea, hain narras ez egotea, gizon jantzi beharra emakume sentitzen direnean eta alderantziz, lesbiana askoren bizitzetan maiz agertzen diren kontuak dira.

Hainbat modu eta estilotan maneiatzen da feminitatearekiko presio hori. Despistatzeko, lesbianismoa nabaritu ez dadin, eta lanerako janzten duen lan-jantzi urdinak asko maskulinizatzen duela jakitun, Jonek mototsa egiten du. Honelaxe kontatu du: *“Lan horretara sartu eta, gutxi balitz, luma handiagoa jarri didate lan-jantzi horiekin, hori astakeria! Ez zait batere gustatzen, itsusi mortala da. Hor bai neure burua lumarekin ikusten dudala, eta diot: ‘ez didate nabarituko?’, eta mototsak egiten ditut disimulatzeko.”*

Miren bereziki femenino janzten da lesbianismoari buruzko hitzaldiak ematea egokitzen zaionean, eskemak apurtzeko eta despistatzeko helburu garbiarekin: *“Nire lanean “Euskal Gobernuaren lookaz” hitz egiten dugu, eta bileraren bat dugunean, politago janzten gara, emakume ustez heteroak bezala. Orduan, ustez heteroago janzten naiz, alkandorarekin, txaketatxo estuagoarekin, femeninoago. Arraroa dirudien arren, lesbianismoari buruzko hitzaldi edo hitzaldi bat ematera joaten naizen bakoitzean, neskago jartzen naiz, heteroago. Nahita egiten dut, ahalik eta luma txikiena izateko asmoz, zirikatze... Txorakeria bat da, neure buruarekin egiten dudana paktua edo, daukadan lumaren barruan, ahalik eta luma txikiena edukitzea. Estereotipoa hausteko norbaiti balio badio, ba listo.”*

Interesgarria da Itxasoren jarrera lesbiana askok euren kanpo itxurarekin duten etengabeko tentsioari dagokionez. Garrantzitsua da berarentzat aldarrikatzen duen emakumea ikustea kanpotik: *“Legginekin eta Bilbao Basketeko kamisetarekin ibiltzen naiz, luzea denez, maskulinoa baino femeninoagoa den soinekotxoa dirudi eta.”* Itxaso trantsizio eta aldaketa prozesuan dago, gorputza berarentzat nahi duen feminitate ideari egokituz. Emakume lesbianek euren gorputzekin, eta horiek janzteko, orrazteko eta apaintzeko duten borrokaren parte da bera ere.

Antena lesbikoa: “Ez galdetu nola dakidan, badakit”

Lesbiana askok baieztatzen dute badakitela noiz dauden beste lesbiana baten aurrean, galdetu beharrik izan gabe. Antena edo radarra deitzen zaiona da hori, beste lesbianak hautemateko lesbianek duten usaimenari dagokion terminoa.

Emakumeen arteko erakarpena irudikatzen ez dutenei, oro har, magia kontua iruditzen zaie antena lesbikoa. Lesbianek jaiotzetik duten gauza dela uste dute, benetan, behatze prozesuaren produktua denean. Honelaxe deskribatu du Mónica zertan datzan antena: *“Parrandan hortik ateratzen zarenean, badakizu norbait gay den bere adierazpenean oinarrituz, honetaz edo hartaz hitz egiten duen behatuz, bere keinuak... Gero, askotan ikusten dituzu Mazarredon takoiekin eta minigonekin dauden emakumeak, lagunaren atzean dagoen neskari begira egoten direnak gau osoa, ai neska! Armairuko galtzerdien atzean ezkuta zaitezke, baina nabaritu egiten zaizu.”*

Antena lesbikoa konturatzea ahalbidetzen dio lesbianari, zenbait kontu behatuz lortzen duena; gainontzekoek, begien aurrean eduki arren, ikusten ez dituzten kontuak behatuz, alegia. Urteetan zehar, erabilitako hizkerari esker ezagutu izan dute elkar lesbianek, bulegoko denbora libreetako isiltasunengatik, begiradengatik, sartzen ez diren elkarriketengatik, keinuengatik, elkarbanatutako ekintzengatik, literatura gustuengatik, janzkera estiloengatik eta abarengatik.

Antena horrek hainbat kultura eta belaunalditako lesbiana askori ahalbidetzen die mundua ikuspuntu lesbiko batetik interpretatzen. Kolektibo gisa bizirautea ere bermatzen die, baita erabat homofoboak diren testuinguru historikoetan ere.

Euskal luma: “Iparraldekoak bai neska morroskoak zaretela”

Lesbiana emateari lotzen zaion itxura fisikoa da luma, eta beraren bitartez ezagutzen dute lehengo eta oraingo lesbianek elkar. Luma edukitzea estereotipo lesbiko puruenarekin lotzen da.

Kattalinen bikotekideak bera deskribatzen duenean, honakoa komentatzen du: *“Kaletik ibiltzen denean, jendea biratu egiten da neska handia ikusten duelako, eta berari begira geratzen dira, eta erditik kendu”*. Honakoa erantzun dio Kattalinei: *“Horrelakoa naiz, hemengo potolona naiz, ez du besterik. Amona ni bezain handia zen eta nireak baino esku handiagoak zituen.”*

Lesbiar kolektiboan, aspalditik izendatu izan da euskal luma, eta horri buruzko gogoeta egitera bultzatu gaitu Kattalinen komentarioak. Euskal luma delakoa euskal emakume askok duten gorputz estetika baino ez da, zenbait lesbianaren irudi estereotipatuaren antza duena. Hau da, euskal emakume asko izango lirateke lesbianak kanpo itxuragatik balitz. Herrialde honetakoak, antza, ez gara horretaz konturatzen; baina bai beste herrietatik datozenak. Honakoa esan du Marisak euskal emakumeen ezaugarri horiei buruz: *“Etorri nintzenean, atentzio handia eman zidan iparraldeko emakumeak hain morroskoak izateak, ni bezala janzten zinetela ikusteak, polarra, txandala, ile laburra... eta neure buruari esaten nion, haiek bezala janzten banaiz, ez naiz hain arraroa, ez dut hain gizona ematen, eta ondo antzera sentitu nintzen.”*

Euskal emakumeen estetika maskulino horrek beste leku batzuetatik etorritako emakume lesbiana asko sentiarazten ditu eroso. Izan ere, Marisaren antzera, hemen dagoena ikustean,

ez dute kanpo itxura femeninoa jarraitzeko horrenbesteko presiorik sentitzen. Naturaltasunez eta konplizitatez mantentzen dute, euskal emakumeekin batera, euren estilo maskulino eta eroso, baita orrazkera ere.



SEGURTASUNA

SEXU ETA GENERO ANIZTASUNAREN IKUSPEGITIK, “DEBEKATUTAKO HIRIAREN MAPEI” EGINDAKO EKARPENA

Oro har, segurtasuna gizakiek jasotzen eta gozatzen duten ongizate egoera da, eta arrisku gabeziari eta norbaitenganako zein zerbaitenganako konfiantzari dagokio.

Erabiltzen diren segurtasun kontzeptuen artean, herritarren segurtasunari buruz arituko gara; hau da, Estatuak garatu behar duen ekintzari buruz. Horren helburua bizikidetza baketsua, biolentziaren deuseztatzea, espazio publikoen erabilera baketsua eta, oro har, pertsona ororen aurkako erasoak saihestea da (eskubide zibilak dituzten herritarrak diren heinean), horien orientazioa, sexua, generoa, arraza, etnia, erlijioa, klase soziala eta abar gorabehera.

Sexu erasoak pairatzeko beldurragatik, gauez batez ere, haiek beraiek mugitzeko askatasuna mugatzen dute emakumeek, baita hirietako hainbat espaziotz gozatzeko aukera ere. Leku batek segurtasun sentazio handiagoa ala txikiagoa eragin dezake ikusgarritasuna, argiztapena, erraztasunez orientatzeko aukera, etxebizitzak hurbil egotea... bezalako faktoreengatik. Segurtasunik ezaren sentazioak lurraldea eta emakumeen aukerak mugatzen ditu, bizitza herritarra desagerrarazten du eta pertsona asko atxikitzen ditu etxean, beldurraren ondorioz.

Arrazoi horregatik, urte batzuk dira genero ikuspegia hirien Hirigintzan eta Planeamenduan sartu zela. Asmoa emakumeen mugikortasuna, segurtasuna eta askatasuna murrizten duten desberdintasunak ezabatzen joatea da, hiri-eremua okupatzeko orduan.

Estrategia horren barnean kokatzen dira emakumeentzako Debekatutako Hiriaren Mapak. Emakumeen segurtasuna eta askatasun sentazioa handitzea da egitasmo horren helburua, eta munduko hainbat herrialdetan gauzatu dute jada; Indian eta Kanadan, adibidez. Hemen, Euskadin, Plazandreok emakumeen plataforma politikoak Donostiako Debekatutako Hiriaren Mapa argitaratu zuenetik 1996an, euskal herri askok erabili duten tresna izan da, emakumeen parte hartzea bermatzeko hirigintzaren azterketa kritikoan (Galdakao, Hernani 2008an, Laudio 2010ean, Irun eta Bilbo 2011n eta abar). Basauri aitzindaria izan zen, 2002an emakume gazteen ikuspegitik garatu zuenean mapa.

Mapa horiek eskainitako azterketaren arabera, argiztapen eza eta espazioaren diseinua izaten dira emakumeengan segurtasun faltaren sentazioa eragiten duten arrazoi nagusiak. Jende gutxi izaten duten espazioak izaten dira emakumeak gehien saihesten saiatzen diren lekuak, inongo establezimendurik ez edota etxebizitzak urrun dituztenak. Inguruaren eta hiri-altzarien mantenu egokiak eragina izaten dute segurtasun sentazioan.

Emakumeentzako Debekatutako Hiriaren Mapek ez dituzte emakumeen esperientziak eta pertzepzioak jasotzen, sexu orientazioari eta normatiboak ez diren gorputzetan bizitzeari dagokienean. Sexualitatearen eta generoaren arteko bidegurutzeak zenbait praktika eta jarrera zehatz eragiten ditu, eta ondorioak ere ekartzen ditu hiriak eta euren espazio publikoak bizitzeko lesbianek duten moduan.

Askotarikoak dira segurtasuna hautemateko osagaiak, Euskadiko herri eta hirietan bizi diren emakumeak anitzak diren bezainbat. Zerk eragiten du segurtasun handiagoa ala txikiagoa gure ikerketan parte hartu duten emakume lesbianengan, espazio publikoak erabiltzen dituztenean? Euren kontakizunetatik ondoriozta dezakegu estereotipo sexistek eta sistema bitarrak eragiten dituen beldur eta mitoekin dagoela lotuta euren segurtasunaren pertzepzioa.

Ondorengo lerroetan aipatuko ditugu gure ikerketan parte hartu duten emakumeen artean segurtasun handiagoa ala txikiagoa sentitzea eragiten duten elementu batzuk espazio publikoak erabiltzen dituztenean.

Jendeak begiratu egiten du espazio publikoetan

Gure tradizioan, ikusmena da zentzumenen artean pribilegiatuena. Areago, ingurumen urbano modernoetan, funtsean, ikus-izaera dauka bizitzak (Simmel, 1977). Bertan, sailkatzeko zentzua hartzen du ikusmenak, hau da, kanpo itxuragatik sailkatzen ditugu besteak, eta badakigu zein pertsona mota diren. Ikusmena benetako instituzio soziala dela esan liteke: bi pertsonen harreman mota bat eraikitzen dute, elkarri begiratze hutsagatik. Era berean, ezin dezakegu begiratu, begira gaitzaten arriskuan jarri gabe.

Begiratzea eta begiratua izatea ez da kontu neutro edo axolagabea. Botere harremanak adierazten ditugu begiraden bidez; berdintasunezkoak eta bereizkeriazkoak. Sexualitateak izan behar duenaren, edo emakumeek eta gizonek nola agertu behar duten ideien arabera daude bideratuta eta baldintzatuta begiradak. Eta gizarteak maneiatzen ditu ideia horiek. Modu horretan, begiradak jakingurazkoagoak edo gaitzespenezkoagoak izango dira, kuriosoagoak, iraupen gehiagokoak edo gutxiagokoak, behatzen diren pertsonak eskutik helduta doazen emakume bi direnean, edo ahoan ematen badiote elkarri musu, edo behatutako pertsona ezin badaiteke gizontzat ala emakumetzat argi identifika. Generoa berresleitzeko prozesuaren hasieran dauden emakume transexualei gertatzen zaion bezala.

Ikerketa honetan parte hartu duten lesbianak oso kontziente dira jasotzen dituzten begiradez. Kattalinek honelaxe adierazi du: *“Manolotik Manolara. Aldaketena konplexua da, lotsa asko sentitzen dira.”* Duela bi urte amaitu zuen Kattalinek generoa berresleitzeko prozesua, eta gogoan dauzka oraindik kalera janzkera femeninoz atera zeneko lehenengo aldiak. Eta horrek inguruan eragiten zituen begirada luzeak. Kattalini kostatu egin zitzaion behatzen zuten moduak sortzen zion lotsa gaingitzea. Honakoa esan digu horri buruz: *“Begirada luzeak ziren,*

ez zirenak zure garondotik urruntzen, kuriositate hutsa ez ziren begiradak ziren, 'baina nola zoaz!' zioten begiradak."

Euren sexualitateagatik edo generoagatik normatiboki baimendutakoa hausten duten pertsonengan, lotsa edo ahalkea eragiten dute zenbait begiradek. Afera horrek mugatu egiten dituzte pertsona horien nahiak, norbaitek beha ditzakeen espazio publikoetan adierazteko moduari dagokionean. Lesbiana askok, adibidez, mugatu egiten dute beste emakume batzueganako keinu afektiboak publikoki adierazteko gogoa. Askotan hitz egiten da gai horri buruz artikuluetan zein dokumentaletan. Beharbada, gutxiago landu da emakume batzuek sentitzen duten generoarekin, euren ustez, bat datorren arroparekin jantzita kalera ateratzeko duten zailtasuna.

Emakume jantzita ateratzera ausartu aurretik, asko pentsatu behar izan zuela kontatu digu Itxasok: *"Egin dudana baino askoz ere lehenago gustatuko zitzaidakeen kalera emakume jantzita ateratzea, baina burlei nien beldurrak, nire kontu barre egiteari nion beldurrak, geldiarazi egin nau."* Itxaso jakitun da duen gorputz maskulinoa edukita, arropa femeninoekin jantzeak begiradak sortzen dituela, eta oraindik ez dela horiei aurre egiteko gai sentitzen.

Ildo berean, Julia ere kontziente da gustatuko litzaiokeen bezala kalera ateratzeak dakarkion erronkaz. Sentitzen duen genero femeninoko arropak jantzea gustatuko litzaioke, jaiotzetiko hirian ez dagoenean soilik egiten duena, eta bai inork ezagutzen ez duen hirietan dagoenean. Oporretan zela, mediak jantzerara ausartu zenekoa kontatu digu: *"Kontuz nindoan, ez dudana nahi atentzioa ematea da, eta haragi kolorekoak zirenez, antza, gehiago disimulatzen dira eta, ez nuen atentzioa gehiegi eman; behintzat, hori iruditu zitzaidan. Eta oso gustura geratu nintzen, gustatzen zaidan jantzia delako, baina salbuespenezko uneak izaten dira."*

Askotariko arrazoiengatik begiratzen dugu, eta guri begiratzeko arrazoiak eta begiratzen digutela sentitzen dugunean dugun pertzepzioak ez dute zertan bat etorri. Areago, baliteke, askotan, gure beldurrak eta ziurtasun gabeziak proiektatzea begiratzen digutenen begiradetan. Itxasok argi adierazi du puntu hori: *"Askotan, begira geratzen da jendea, eta 'hori piura daukazuna!' pentsatzen dutela nabari zaie. Kontua da, emakume joatea asko saiatu arren, emakume jantzita dagoen mutiltzat hartzen nauela oraindik ere jendeak."* Denborarekin, Itxasoren segurtasun gabezia urrituz joan da, eta emakume jantzita modu errepikatuan atera ahala, gero eta gutxiago axola zaizkio jendearen begiradak: *"Benetan inporta zaidan jendeak onartuta, zer dela eta axola behar didate gainontzeko pertsonak?"*

Nabarmendu nahi dugu begirada publikoen aurrean jartzen direnean lesbiana askok adierazten dituzten beldurrak eta segurtasun gabeziak gizarte heteronormatiboaren ondorio direla. Izan ere, ikusezin bihurtzen du, eta baita ezkutatu ere, normaltzat ezarri duenarekin bat ez datorrena. Horrela, kaleak euren burua lesbiana gisa adierazten duten lesbianeaz hustea eragiten dute; baita benetan jantzi nahi duten bezala jantzen diren transexualez hustea ere. Itxasok eta beste lesbiana askok euren autoestimua eta autokontzeptua indartu behar izan dituzte, kalera lasaitasun erlatiboz atera ahal izateko. Gai hori ukitu du Zaloak, bikote heterosexualen eta lesbianeak osatutakoen arteko alderaketa eginez: *"Honek eragiten du bikote hauek eskutik ez heltzea etxera iritsi arte, eta, gainontzeko bikoteak elkar desiatzen ari diren bitartean, zu ez zaude zure bikotekidearekin elkar desiatzen."*

Bertak berak ere begiratu egiten duela baieztatu du, eta askotariko arrazoiengatik begiratzen du: afektuzko adierazpenak ikusteak ilusionatzen duelako, grazia egiten diolako, eta ez dakielako zein sententzio eragingo duen berak begiratutako pertsonengan: *“Ez naiz erasotua sentitu, jendeak begiratu egiten du, baina normalean ez dit axola izaten, grazia handia egiten didalako, nik ere begiratu egiten dudalako ilusioa egiten didalako bi gaztetxo edo bi pertsona zahar ikusteak, eta ez dakit nola sentituko diren haiek.”* Zenbait begirada sozial jasotzen dituztenentzat, ez da beti erraza izaten begirada eragin duena eraso ala ezustea edo kuriositatea besterik ez den izan jakitea. Emakume lesbiana askoren bizi-ibilbidearen une batzuetan, euren kanpo adierazpenak mugatzen dituen obsesio bihurtzen dira jasotzen dituzten begiradak. Begiradak kudeatzea eta haiekin lasai bizitzea, Bertak egiten duen bezala, esperientziarekin, agertzearekin eta lasaitasun dosi handiarekin ikasten da.

Etengabeko alerta egoera

Espazio publikoak erabiltzean, etengabe egoten dira lesbiana asko alerta egoeran; izan ere, balizko mehatxua sentitzen dute, eta etengabe daudela eraso arriskuan. Ondorioz, eta euren burua babesteko estrategia gisa, erasoaz azkarrago babestu ahal izateko alerta aktibatzen dute, eraso gertatuta ere. Euren burua lesbianatzat ez agerrarazteaz kezkatzen dira, egiten duten mugimendu oro kontrolatzen dute, eta dauden leku zehatzez bezainbat arduratzen dira bertan dauden pertsoez. Helburua ze arrisku hartzeko prest dauden erabakitzea da, afektua erakutsi ala ez erabakitzeke.

Egia esan, une oro egoten da alerta aktibatuta, eraso egon ala ez gorabehera, edozein egoera hautematen delako arriskutsu. María Rodó de Záratek bere ikerketetan egiaztatu duen bezala (Rodó de Zarate, 2013), neska lesbianak beti egoten dira euren burua lesbiana gisa ez erakusteko kezkatuta. *“Larrialdi argiak”* noiz aktibatzen zaizkion azaldu du Andreak: *“Norbaitekin zaudenean, alertan zaude, ea zer gertatzen den gaur, ea gaurkoan nor den.”* Ezinegon eta urduritasun egoera horrek higitze emozional eta pertsonal handia eragiten ditu: *“Gogorra da alertarekin egon behar izatea, emakumearen alerta, lesbianaren alerta, ze beste alerta?”*, kexatu da Arantxa.

Debekatutako Hiriaren Mapen eraikuntza estrategietan, emakumeek seguruago edo ez hain seguru sentitzen diren lekuak aipatzen dituzte. Hirietako auzo edo eremu zehatzak aipatzen dira, segurtasun handiagoaren ala txikiagoaren arabera. Gure ikerketan parte hartu duten emakumeek erosoago eta seguruago sentitzen diren lekuak ere bereizten dituzte. Gaueko aisialdirako espazioak erabiltzeaz, honakoa azaldu du Lorenak: *“Asko ateratzen naiz eta ez naiz ez Galerias-era, ez Mazarredora ez Bilboko antzeko lekuetara joaten. Alde Zaharrera joaten naiz, eta, noizbait, Santa Maria kalean hartzen ditugu ardotxo batzuk.”* Lorena ez da joaten lesbiana gisa seguru sentitzen ez den lekuetara, eta horrek beste emakume bilbotar batzuek segurutzat jotako zenbait lekutara ez joatea dakar; Galerias-era edo Mazarredora, adibidez. Nekanek honakoa nabarmendu du: *“Oinarritzak da seguru sentitzea”*, eta horretarako honakoa berretsi du: *“erosoago gaude Alde Zaharrean, Indautxun baino.”*

Munduko hiri askok dauzkate LGTB kolektiboa batzen den eremu eta auzoak, eta euskal hiriak ez dira salbuespena. Nekane eta Lorena Bilbon seguruen sentitzen diren lekua Alde Zaharra da. Bertan, Bilboko beste auzo batzuen aldean, emakume lesbiana gehiago daude bizitzen, edota bertara joaten dira aisialdian euren egunerokotasunean. Antza denez, hiri bateko leku ezberdinetan dauden emakumeek ez dituzte leku berberak markatzen segurutzat ala ez-segurutzat. Hiri bateko eremuak erosotzat jotzea ere, antza, bertan bizi direnen emakumeen bizi esperientzien aniztasunaren arabera izaten da. Sexu orientazioagatiko edota genero identitateagatiko diskriminazioari buruzko 2013ko ikerketaren arabera (FELTGB, COGAM, 2013), LGTB herritarren sektore batzuek zaurgarritasun maila berezia erakusten dute, eta emakumeak dira gaizkien daudenak.

Begiradak baino zerbait gehiago

Nork nahi duena izateko eta horren arabera adierazteko askatasuna sexu eskubideen zati da (ALDARTE, 2009), eta ezinbesteko baldintza bizitza duin eta kalitatezko batean. Ikusiko dugun bezala, sistematikoki urratzen da eskubide hori. Horretarako, irain eta indarkeriazko jarrera bilduma osoa dago, eta emakume lesbiana gutxi libratzen dira horiek pairatzeaz euren bizitzen uneren batean.

Gayenganako eta lesbianenganako ezinikusiaren arrazoi nagusia genero arauak aldatzen dituztela da, gizon/emakume osagarritasunaren araua hausten dutelako helburuak aukeratzean. Argi ikus daiteke hori gayak eta lesbianak iraintzeko modu nagusia euren maskulinitatea eta feminitatea zalantzan jartzea baita, hurrenez hurren (Coll-Planas, 2010). Lesbianen ustezko feminitate gabeziarekin lotutako irain bilduma zabala daukagu: marimutil, kamioilari, bollera, tortillera eta abar.

Lesbianak kalean ezeroso sentiarazteko moduak askotarikoak dira. Etengabeko begiradak esamesa irrigarri edo iraingarriez laguntzea da horietako bat. Alaznek nazkatuta azaldu du adibide bat: *“Musutxu bat eman neska bati eta entzuten duzu, ‘begira, lesbianak!’ edo, ‘begira, bollerak!’*. Espek honakoa gaineratu du: *“‘Gora askatasun lesbikoa!’ esaten dizute, eta, ezer egin gabe, tabernetako terrazetan ikusten zaituztenean, guztiek begiratzen dute eta, azkenean, haserretu eta erretxindu egiten zara.”*

Bestalde, emakume transexualei egiten zaizkien ahozko erasoek ere konnotazio sexistak dauzkate; oraingoan, bere itxura femeninoa gutxiestera bideratuta. Itxaso “polit” deituaz iraintzen dute, bere ustez femeninoa den kalifikatzailea: *“Bilbon geratu nintzen egun batean, zebra bide bat gurutzatu nuenean, bi mutil kotxetik hasi zitzaizkidan esaten, ‘ze polit zauden’, minduta sentitu nintzen.”*

Mónicak eta bere bikotekide ohiak jatetxe batean erakutsi zuten afektuak kargu hartzea merezi izan zuen. Honakoa kontatu digu Mónica horri buruz: *“Behin, jatetxe batetik bota gintuzten ni eta nire bikotekide ohi, Andoainen. Zirriak egiten ari ginen, eta bezero bat gogaitu egin zen, antza, gu hain ondo egoteagatik, eta gaizki begiratzen hasi zitzaigun eta*

zerbitzariari esan zion 'aizu, nolako lotsa, hau nazka' eta zerbitzariak esan zigun 'lokaletik atera zaitezke, mesedez?', eta guk erantzun 'zergatik egin behar dugu alde? Zer egin dugu?'."

Oraindik ere gertatzen dira emakume lesbianenganako ahozko erasoak aisialdi eremuetan, eta nolabaiteko euskarri soziala edukitzen dute jarrera lesbofoboek. Mónica besterik ere egoera bat kontatu digu, espazio publikoa erabiltzean berari eta bikotekideari gertatutakoa: *"Gau batean, bikotetxo tipikoa pasatu zen gure ondotik, eta tipoa begira geratu zitzaigun eta oihukatu: 'hau nazka!', eta esan nion 'niri ergelek ematen didate nazka, eta hementxe nago zu jasanez', morroiak liskarrean jarraitu zuen 'zoazte buztan bila...' bezalako esaldiekin, eta, halako batean, eskua jaso zuen, ni jotzeko bezala, eta zaplaztekoa eman ziona ni izan nintzen, eta korrika atera ginen. Hain harrituta geratu zen morroia, ez zuen erantzun."*

Umorea, estrategia erabilgarria

Gero eta emakume lesbiana gehiagok defendatzen dituzte euren eskubideak, eta jarrera aktiboa hartzen diskriminazio egoeren aurrean. Baliabide erabilgarria da umorea, Marisak kontatu digun bezala: *"Beti izan naiz eskutik helduta ibiltzekoa, eta musutxuak ematekoa, neska-lagunarekin kaletik ibiltzen naizenean, eta, behin, Kale Nagusitik genbiltzala, mutil batzuk pasatu ziren eta 'tortilleras!' esan ziguten, nire neska biratu egin zen eta erantzun 'zuek bai inbidia, kar kar kar!', eta zur eta lur utzi zituen."* Marisaren neska-lagunak aurpegira egin zien barre erasotzaileei. Emakume lesbianak nola tratatzen gaituzten gorabehera, gu geu gara hori nola hartu erabakitzen dugunok. Horregatik, ahozko erasoen aurrean, autodefentsarako estrategia ona da umorearen bitartezko babesera irakitzea. Irain baten aurrean, gure irribarrerik onena jar dezakegu, eta erasotzailea nola etsitzen den ikusiko dugu, eta nola ematen duen amore, erabat nahasita.

FELGTBek eta COGAMek egindako ikerketaren arabera (FELGTB y COGAM, 2013), lesbiana gehienek ez dituzte jazarpen gertaerak salatzen. Hein batean, ez dituztelako haien eskubideak guztiz ezagutzen; eta, bestetik, instituzioenganako, administrazio publikoenganako, justiziarenganako, poliziarenganako... mesfidantza nagusitzen delako. Izan ere, iraganaren hondarrak dira, sexu eta genero aniztasuna erreprimitzeko balio zutenak. Kontuan hartu beharra dago, halaber, laguntza edota salaketa eskakizunak ikusgarritasuna dakarrela berarekin, eta lesbiana guztiak ez daudela horri aurre egiteko prest.

Zaurgarritasun pertzepzio handiagorako egoerak

Zaurgarritasun pertzepzio handiagoa dagoen zenbait espaziotan, arretaz jokatzeko dute emakume lesbiana batzuek, erantzun ezkor baten beldurrak eraginda. Lorena, gimnasioko aldagelan, biluzik sentitzen da bere erasotzaileak izan litezkeen aurrean: *"Izena eman dut*

gimnasio batean, eta dutxetara aldatzera sartzen zarenean, biratu egiten dira, deseroso sentiarazten ditudala uste dut. Eta, egunen batean, biratu egin zarela edo ukitu egin dituzulako haserretu, eta iskanbila sortzen badute? Ordu zehatz batzuetan ez joaten saiatzen naiz, badakidalako beraien klaseekin egingo dudala topo.” Eta beldar horrek eragin du Lorenak bere ohiturak aldatzea; ordutegia bezalakoak, adibidez.

Aipamen berezia merezi dute emakume transexualek, izan ere, etengabeko zainketa-jarrera eduki behar dute, gorputzaren jarreraren hutsegite bat gertatzen bada ere, edota ahots baxuagoa ateratzea, eta abar. Era berean, gerta litezkeen erasoetara adi egon behar dute, Naiak kontatu digun bezala: *“Lagunengandik banantzean, etxera itzultzean, bakarrik nengoen metroan sakelakoari begira, umemoko koadrilla bat igaro zen eta honakoa oihukatu zidan batek aurpegira: ‘trabeloa zara’, oso urduri jartzen zara, izan ere, bost hiletan lau aldiz iraindu nautela konta dezaket. Askotan ari zara jarrera zaintzen, guztia, ahotsaren nota baxuak behar dutena baino gehiago ez jaistea saihestu behar duzu...”* Adierazi duen bezala, Naiak etengabe zaindu behar du guztia “harrapatu” ez dezaten, bere hitzen arabera.

Generoa berresleitzeko prozesua emakume transexualek bizitzen duten aldirik gogorrenetakoa da, izan ere, gorputza kanon ez femeninoan ez maskulinoan ez egotean, nahasmena eta arbuioa eragiten dute begiratzen dituzten pertsonengan. Antsietate egoera eragiten die horrek, Kattalinek argi eta garbi deskribatu duena: *“Trantsizioa izugarria da, oharkabean igarotzea lortzen duzun arte, lazgarria da, egunetik egunera irabaziz joan behar duzuna.”* Eta, gainera, une kritikoak daude, Naiak esan bezala, *“mutil izena duen dokumentazioa erakutsi behar duzunean.”* Baliabide juridikoen atalean esan dugun bezala, generoa berresleitzeko prozesuan, transek ez kanpo itxurarekin ez eta sentitzen duten generoarekin eman zaien izenarekin bat ez datorren dokumentazioa eraman behar dute.

Euren nerabezaroa eta gaztaroa garai frankistan bizi izan zuten lesbianek bizitza bikoitza edo diskrezioa bezalako baliabideak garatu dituzte, balizko erasoen aurrean defendatzeko. Natik etengabe erasotu dezaketen zerbait bezala bizi du bere lesbianismoa, eta disimuluan oinarritutako autodefentsa estrategia garatuarazi dio horrek: *“Inkontzienteki etengabe zabilta egokitzen, eta zaila da bizitza osoan zehar ikasi duzuna alboratzea, balizko eraso baten aurrean defendatzeko horrenbeste baliabide inkontziente, mesprextutik gaizki sentitzeraino. Beti defentsiban egotearen jarrera oso ondo etortzen da, biziraun egiten duzulako. Baina disimulatzea nago baldintzatuta, diskretua izatera.”*

Egun, zurrun mantentzen du autodefentsa estrategia Natik, nahiz eta sozialki aurrera egin dugun: *“Izan ere, ez duzu txipa aldatzen, zure jokaera baldintzatuta dago, eta orain baldintzatzailea existitzen ez delako aldatuko zara? Ba ez, berdin jokatzen jarraitzen duzu. Eta nire adineko gainontzeko emakumeak, oso diskretuak beraiek, gehienetan ez dira ikusgarri egiten.”* Bizitza osoan zehar eduki duen jarrerak lasai bizitzea galarazten dion zama ekarri dio, bai berari bai bere adineko lesbaneiei, oro har.

Gizon gisa sozializatutako emakumea

Jaiotzetiko genitalen arabera egokitutako generoa dela eta, gizon gisa sozializatzen dituzte emakume transexual asko. Ondorioz, ez daukate sexu erasoak eta eraso sexistak pairatzeko beldurra sartuta; oro har, kaletik ibiltzean emakumeek edukitzen dutena. Hausnarketa horren adibide argia da Itxaso.

Itxasori egindako elkarrizketan, kaletik ibiltzean sentitzen duen segurtasun pertzepzioaz galdetu diogu, eta honakoa erantzun du: *“Beti sentitu izan ditut beldurra eta segurtasun eza. Segurtasunik gabe ibiltzen naiz kaletik, askotan gauez, baina ez gaizki begiratzen didatelako, orokorrean dagoen delikuentzia guztiagatik baizik. Izan ere, ez dago egunkarian lapurketarik ageri ez den egunik, baina ez ni emakumea izateagatik.”* Itxasok ziurtatu egin du beti sentitu izan dela emakume, eta halaxe funtzionatu duela. Hala ere, segurtasun ezaren pertzepzioa sexu erasoekin eta eraso sexistekin lotu ez duenez, argi utzi du, puntu horretan behintzat, eta zorionez, *“ez duela emakumeek bezala funtzionatzen”*. Gainera, jakitun da bere gorputza bizitzen ari den aldaketa feminizatzaileez, eta, horrek ere ez du aldatu segurtasunaren bere pertzepzioa. Honelaxe kontatu digu: *“Gaua zen, eta bakarrik joan behar nuen geltokitik etxeraino, eta beldurra sartzen ari zitzaidan, baina pentsatu nuen urrutitik emakumea nintzela pentsatuko zutela, baina hurbiletik mutila nintzela, eta horregatik ez nindutela bortxatuko. Emakume ikusten banaute, agian segurtasun eza handiagoa sentitzen dut, baina beti izan naiz beldurtia, lehen segurtasunik sentitzen ez zuen mutila nintzen, eta orain segurtasunik sentitzen ez duen emakumea.”*

Hogeita hiru urterekin hasi zen Itxaso bere gorputza feminizatzen. Ordura arte, kanpo itxura maskulinoa eduki zuen familiarentzat, hezkuntza sistemarentzat eta gizarte osoarentzat, orokorrean. Sexu erasorik eta eraso sexistarik ez sufritzea ahalbidetu dio horrek, gizarte honetako emakumeek seguru jasango dituztela diruditenak. Gai honekin lasai eta erlaxatuta bizitzea ahalbidetu dio, ez baitu neskato eta neska nerabe askok, erasoak sufritu aurretik ere, oraindik daukaten alerta eta ardura eduki.

Beste emakume transexual askok bezala, Itxasok ere erakutsi egin digu posible dela sexualki erasotu ditzaketelako beldurrik gabe hazten diren emakumeak egotea, eta eraso horienganako beldurra ez dela zertan izan emakumeak sozializatzeko ezinbesteko elementua. Itxasok frogatu digu gorputz femeninoa edo maskulinoa edukitzea bereizketarako elementua dela, eta honako hau dela erronka: nola egin, gorputza dena delakoa izanda ere, beldurra ez dadin izan emakumeen sozializazioaren eta heziketaren parte.

Proposamena: Esperientziaren Kartografiak

Hiria egituratzeko moduak eragina izaten du lesbianen egoeran; euren denboraren eta bizitzaren antolaketan eta erabilgarritasunean. Hortaz, gakoa da sexu eta genero

aniztasunaren ikuspegitik ekitea hirigintzaren plangintzari, emakume lesbianak berdintasunezko baldintzetan sartu ahal izateko aukerak areagotu daitezten.

Generoa eta sexualitatea faktore erabakigarriak dira jendeak kalean bizi dituen esperientzetarako, eta espazioaren erabilera ikertzeko beharrian handia dago, identitate aniztasuna aintzat hartuta, ukitu homogeneousatzaileak ekiditeko.

Geografia feministei, bidegurutzei eta espaziorako eskubideari buruz lan egiten duen ikertzailea da María Rodó de Zárate (Rodó de Zarate, 2013). Garatu duen metodologia da bere ikerketako alderdi berritzaileetako bat, esperientziaren erliebedun mapak deitutakoa. Mapa horien bidez, dimentsio espazialarekin duten loturaren arabera aztertzen ditu botere harremanak. Espazio publikoak zein pribatuak jorratzen dira, eta pertsonak aipatu espazioak esperientzatzeko moduari begiratzen diote; baita indarkeria eta diskriminazioa bezalako fenomenoak ere. Mapa horiek elkarriketak dituzte oinarri, eta pertsonen eguneroko esperientziak ikertzen dira, lekuekin eta identitateekin duten loturaren arabera. Leku bakoitzak eragiten dituen sentimenduak hartzen dira kontuan, baita askotan joaten diren lekuak ala saihesten direnak ere. Edozein egunetan, pertsona bat hainbat lekutan mugitzen denean, identitate batzuk agerian jartzen dira eta beste batzuk neutralizatu egiten dira.

María Rodó de Zarateren ustez, sexualitatea dago beste edozein identitatearen gainetik, nahiko modu erabakigarrian. Hala eta guztiz ere, beste identitateek ere zehaztu egiten dituzte zapaltzen dituzten lekuen aukeraketak. Adibidez, kultura eta erlijio musulmanaren identitatea beti dago aurrean Fátimarentzat, seguru sentitzen den lekuen aukeraketarako. Leku horietan ez dago gizon arabiarrik, izan ere, kontrolatu egiten dutela sentitzen du. Honelaxe esan digu: *“Arabiar batek ikusteko beldurrez ibiltzen naiz beti, ikusi, epaitu eta zerbait esango ote didan beldurrez. Hau utzi eta arabiarrik ez dagoen lekuren batera joatea ari naiz pentsatzen.”*


Klase sozialak ere erabakitzen ditu aukeraketa horiek. Alderdi horren arabera zehazten da zein lekutara sar daitekeen ala ez; baina kotxea edukitzea ala ez kontuan hartzen da ere bai, hiriaren erdigunean ala hortik kanpo bizitzea, edo giroko taberna mota zehatz batzuetara sartzea. Pertsona batzuek familiarenganako dependentzia mantentzen baldin badute daukate soilik estatus altua, emakume gazteei gertatzen zaien bezala. Eta, lesbianak izanda, arriskuan dago dependentzia hori; izan ere, sostengu ekonomikoa gal dezakete lesbianak direla familiak baldin badaki. Adinaren alderdia ere erabakigarria da LGTB merkatura sartzeko orduan, dependentzia ekonomikoarekin duen loturagatik.

Nolabaiteko identitatea eta klase soziala partekatzen duten taldeen lurralde-hartze prozesuak ere jorratzen ditu, eduki dituzten inplikazioak; adibidez, emakume lesbianen zokoratzea prozesu horietan, gehienbat gizon gayak bizi diren lekuak izateak eragindakoa.

Esperientzien Kartografiekin, bidegurutzei buruzko ikerketak sistematizatzen lagunduko duen tresna sortzea bilatu nahi da. Askotariko identitateekin egiten da lan, elkarrentzako osagarritzat joaz, eta ez da hierarkiarik egiten, ezta identitate batzuei besteei baino ikusgarritasun handiagoa ematen ere. Mapa berean hainbat botere egitura irudikatuta egoteak lagundu egiten du pribilegioa zein zapalketa aintzat hartzen.

Oso iradokitzailea egin zaigu espazio seguruak Esperientziaren Kartografien bidez lantzeko modua, eta kontuan hartu beharreko ekarpena da Debekatutako Hiriaren Mapak egiteko orduan. Bestalde, pribatutzat jotako espazioei buruzko informazioa ere ematen dute Esperientziaren Kartografiek; baita zenbait komunitate edo talde sozial batzen diren espazioei buruzkoa ere. Ikuspegi zabalagoa eta heterogeneoagoa eskain diezaiekete arestian aipatutako mapei. Mapen izenari dagokionez, ikertzaile talde honek uste du ez legokeela sobera izen posibleen inguruan hausnartzea. Izan ere, nolabaiteko zama negatiboa du Debekatutako Hiria kontzeptuak. Horren ordeztu, Irekitako Hiria terminoa proposatzen dugu, garai berriekin eta proposamen inklusiboekin hobeto datorrena.

ONDORIOAK



SARRERA

Behin giza baliabideak aztertu eta gero, ondorioak aurkeztuko ditugu. Horiekin, proiektuan geure buruari egindako oinarritzko galderei erantzun nahi izan diegu, sarreran ere azaldutako galdera horiexei.

Ikerketa honen oinarritzko eta ezinbesteko laburpen gisa gauzatu ditugu ondorioak, eta lanean zehar aurkitu ditugun gakoak nabarmendu nahi izan ditugu. Solasaldi taldeetan eta banakako elkarrizketetan parte hartu duten emakumeek aipatu dituzten alderdietan oinarritu gara; bizi duten errealitatea islatzen duten horietan, hain zuzen ere.

Batetik, ondorio orokorrak aurkeztu ditugu; zeintzuen bidez, ikerketa proiektuaren oinarritzko galderari erantzun diogun: oztopoak aurkitzen al dituzte lesbianek mota guztietako giza baliabideak aukera berdintasunez erabiltzeko orduan, biztanleria orokorrarekin alderatuz gero?

Bestetik, aztertutako giza baliabide bakoitzetik ateratako ondorio multzoak zedarritu ditugu. Horrela, baliabide juridikoen eremuko ondorioak eskaini dira, bai eta osasun eremukoak ere, hezkuntzakoak, laneakoak eta, azkenik, eremu soziokulturalekoak.

ONDORIO OROKORRAK

Oztopoak aurkitzen al dituzte lesbianek mota guztietako giza baliabideak aukera berdintasunez erabiltzeko orduan, biztanleria orokorrarekin alderatuz gero?

1. Horixe zen ikerketa honi ekiteko hasierako galdera. Horri erantzunez, **emakume lesbianek EAEko gainontzeko biztanleek beste erabiltzen dituztela mota guztietako giza baliabideak** ondoriozta dezakegu. Hau da, emakume lesbianek etxebizitza, mediku artapen, hezkuntza edo gertakizun anitzen (mendekotasun edo zahartzaroaren, gaixotasunen, lana galtzearen, lan istripuen...) beharrizanei erantzuten dietela. Horretarako, pertsona guztien bizi kalitateari eta giza ongizateari laguntzeko, gure gizartean abian jartzen diren baliabideak erabiltzen dituzte.
2. Dena dela, **emakume lesbianek eta gainontzeko biztanleek ez dutela giza baliabideen erabilera berdintasun balditzetan egiten ikusi dugu; izan ere, modu ikusezinean egiten baita erabilera hori**. Aukera lesbikoa edota transexualitatea aipatu gabe egiten dela, alegia. Ikusezintasun hori, batetik, baliabideen planteamendu eta funtzionamendu heteronormatiboaren ondorio da. Bestetik, errealitate horren aurrean, emakumeek ikusgarri egiteko duten beldurragatik gertatzen da, edota ikusgarri egiteko beharrianik ez ikusteagatik.
3. **Giza baliabideak, modu heteronormatiboan funtzionatzean, diskriminatzaileak izaten dira, eta ez inklusiboak**. Gainera, ez zaie giza eskubideen erreferentziazko balioetako bati egokitzen: aukera eta trataera berdintasunekoari, hain zuzen ere.
4. Askotan, eta **euren orientazioari ezarritako isiltasuna hausteko xedez, emakume lesbianek, gazteenek batez ere, giza baliabideak artatzen dituztenei kontatzen diete euren lesbianismoa**. Askotariko erantzunekin egiten dute topo; hasi adeitasunezko eta euren bizipen lesbikoei egokitutako trataerarekin, amai baliabideak artatzen dituztenen **deserosotasun adierazpenekin**. Datu hori ez da giza baliabideen funtzionamenduaren egunerokotasunean txertatzen, eta lesbiana erabiltzaileak izaten dira heterosexualaz bestelako sexu aukerak daudela etengabe gogorarazten ibili behar izaten dutenak.

5. LGTB pertsonen berariaz zuzendutako baliabideetan salbu, **mota guztietako zerbitzuek erabiltzen dituzten publizitate eta informazio orokorrerako euskarriek ez dute sexu eta genero aniztasuna barne hartzen.** Ondorioz, emakume lesbianek ez dute euren burua islatuta ikusten, eta baliabideen beraien ezagutza zein erabilera zailtzen du horrek.

6. **Biztanle gutxiko herrietan, jarrera ezberdina erakusten dute herrian bertan jaio ala kanpokoak badira.** Herri batean jaio eta hazi izanak lesbiana agerraraztea eta giza baliabideak halaxe erabiltzea mugatzen du, izan ere, isolamendua edo bazterketa ekar baitezake araua hausteak. Beste leku batzuetan oharkabean igarotzea euren sexualitatea askatasunez bizitzeko mekanismoa da. Hortaz, lesbiana gazte askok hirietara migratzen dute anonimotasun bila. Bestalde, kanpotik etortzeak eta herriak osatzen dituzten harreman familiar eta sozialen partaide ez izateak lesbianismoa argi eta garbi bizitzea ahalbidetzen du.

7. Hiriak atzean utzita baserri inguruera bizitzera joaten diren **emakume nagusiak ahaldundutako lesbianak izaten dira, eta ez diote ikusgarritasunari uko egiten, herri txikietan bizi arren.**

8. **Emakume lesbianen artean, zaugarritasun edota babesgabetasun handiagoko egoerak aurkitu ditugu, giza baliabideak erabiltzeko orduan.** Horrela, lesbiana migratzaileek bertakoek baino deserosotasun handiagoa erakusten dute euren sexu orientazioaz hitz egitean, edota euren burua halaxe adieraztean, baliabideak artatzen dituztenek euren familia eta giza egoerari buruzko informazioa ikertzen dutenean. Lesbiana transexualei dagokienean, transexualitatea modu argian agerrarazi arren, ez dute lesbianismoa gaineratzeko datutzat jotzen. Izan ere, estigma handitu dezakeen datua, edo eremu pribatuari dagokion gaia dela uste dute. Lesbiana nagusiek jarrera eszeptikoagoa eta urrunagoa erakutsi dute, giza baliabideak erabiltzeko eta gozatzeko eskubide osodun hiritarrak izateari buruz. Azkenik, desgaitasuna duten emakumeek erabiltzen dituzten baliabideak kudeatzen dituzten langileek, zailtasunez onartzen dute emakume horiek sexualitate lesbikoa eduki dezaketela.

9. Baliabideak eta emakume lesbianek horiek erabiltzeko moduak alderatuta, ezberdintasuna dagoela ikusi dugu baliabideetara jotzean erakusten duten lasaitasunari, ikusgarritasun mailari eta segurtasun pertsonalari **begiratuta**. Horrela, euren ongizatea eta bizi kalitatea mantentzeko garrantzitsuagotzat hautemandako baliabideetan, hala nola lan eremukoetan, ekonomikoetan edo osasunekoetan, emakume lesbiana gisa adierazteko beldur eta erreparo handiagoak erakutsi dituzte, eta baita askatasun gutxiago ere. Aisialdiari, kulturari edo herritarren parte hartzeari lotutako baliabideetan, berriz, jarrera lasaigoak, ziurragoak eta alaiagoak erakutsi dituzte, euren lesbiar esperientziei egokitutakoak.

10. Segurtasunaren zeharkako aldagaia EAEko **Debekatutako Hiriaren Mapen** azterketarekin lotzean, **emakume lesbianek uste dute, euren sexu eta genero orientazioari dagokionez, ez dituztela euren esperientziak eta pertzepzioak jasotzen**. Egitate horrek eragina izaten du mapa horien emaitzetan, ez baitute lesbianak espazio publikoetan nola moldatzen diren islatzen, ez eta sentitzen duten segurtasun maila jasotzen ere. Ondorioz, begirada publikoaren aurrean jartzean lesbiana askok adierazten dituzten beldur eta ziurgabetasunak gizarte heteronormatiboaren funtzionamenduaren emaitza izaten dira. Izan ere, normaltzat ezarri duenarekin bat ez datorrena ezkututzen duen gizartea baita hori.

EREMU JURIDIKOKO ONDORIOAK

1. Ama diren emakume lesbianek **euren familiei sistemak ahalbidetzen duen babes handiena emateko** erabiltzen dute **ezkontzaren baliabide juridikoa**.
2. Oro har, emakume lesbianek ez dituzte **baliabide juridikoak erabiltzen ez direlako ikusgarri egitera ausartzen**. Lortu diren aurrerapen legalak eta berdintasun formala hor egon arren, emakume lesbianek askotan egiten diote uko euren eskubideak erabiltzeari; hala nola, ezkontzeagatiko edo izatezko bikote egiteagatiko egunak zein amatasunagatiko edo bikotekidearen gaixotasunagatiko baimena hartzeari.
3. 3/2007 araua onartzetik zazpi urte igarota, zeinaren arabera ezkonduko emakume lesbianek legalki zehaztu baitezakete, bien onerako, ezkontzan jaiotako adingabeen seme-alabatasuna, **oraindik ere, artatzen duten langileek legea ezagutu gabe jarraitzen dute zenbait Erregistro Zibiletan, edota informazio okerra eta zehaztugabea ematen diete emakumeei**. Era beran, Erregistro Zibilen artean ez dago irizpide bateraturik legea ezartzeko orduan. Horrek, arestian esandakoarekin batera, emakume lesbianek Justizia Administrazioan trataera diskriminatzailea jasotzea eragiten du.
4. Emakume lesbianek **“intentsitate txikiagokotzat” jotzen dute emakumeen artean gertatzen den indarkeria**. Ondorioz, askotan **ez dute bide legalak jotzen** genero barneko indarkeriak eragindako **gatazkak konpontzera**.
5. 1/2004 Legeak ez ditu emakumeen arteko harreman afektiboak bere gain hartzen. Horrek esan nahi du ezin ditzaketela legeak arautzen eta artikulatzen dituen baliabideak erabil zein beraietatik etekinik atera; **etxebizitza publikoak edo arlo ekonomikokoak, adibidez**. Salbu eta administrazio zehatz baten edo bertako langileren baten jarrera onak baliabide horietarako sarbidea errazten baldin badie. Emakumeen arteko indarkeria dagoela onartzeak ez dakar, inola ere, indarkeria matxista deuseztatzeko sustraiak eta egon behar duten neurriak txikiagotzea. Bi indarkeria horiek ez dute bestea baztertzen.

6. Izen anbiguoei dagokienez, **3/2007 Legea** aurrerapena izan da transexualen eskubideen babeserako; izan ere, sexuaren aipamenaren aldaketa baimentzen du eta, ondorioz, baita izenarena ere. Hala ere, **ez du izen anbiguoak erabiltzen uzten, eta sexuarekin zalantzarik eragin gabe bat etorri behar duten izenak erabiltzea exijitzen du**. Hortaz, hainbat urtez erabili duten izena berriz ere aldatzeko betebeharra dute askok, aldaketa ezkorra berau pertsona horien bizi kalitaterako.

OSASUN EREMUKO ONDORIOAK

1. **Emakume lesbianek osasun eremuko mota guztietako baliabideak erabiltzen dituzte, behar dituztenean,** eta gehiago jotzen dute osasun publikora, pribatura baino. Nagusiek gehiago erabiltzen dituzte baliabide pribatuak; mediku aseguruak edo medikuntza alternatiboak, adibidez.
2. **Emakume lesbianek erabiltzen dituzten osasun baliabideen artean, ginekologia da polemika gehien eragiten dituen eremuetako bat. Izan ere, batez ere ugalketari begira zuzentzen zaie emakumeei.** Ondorioz, azterketa ginekologikoetan, antisorgailuei buruzko galderak entzuteari etsitzen diote emakumeek, eta heterosexualak direlakoan, baita beste kontu batzuk entzuteari ere. Arrazoi horiengatik, mediku tratamenduetatik urruntzen dira, muturreko larrialdietan salbu. Askotan, adinak aurrera egin duenean hasten dira ginekologia zerbitzuak erabiltzen, edota amak izan nahi dutenean, eta baliabide pribatuetara jotzen dute gehienbat, mediku aseguru edo medikuntza alternatiboetara, adibidez.
3. **Zitologia ez zaie Osakidetzako ginekologia kontsultatik igarotzen diren emakume lesbiana guztiei egiten.** Izan ere, sexu harremanak emakumeekin dauzkaten emakumeek ez dutela zenbait patologia hartzeko arriskurik uste baita, praktika heterosexualak dituztenek har ditzaketenak. Modu arbitrarioan egiten dute azterketa hori, lesbiana gazteenen artean bereziki. Kontu horrek zuzenean eragiten du emakume lesbianek gainontzeko emakumeek ez bezala erabiltzea baliabide horiek; hau da, ez dituzte berdintasun baldintzetan erabiltzen (osasun azterketak, detekzio goiztiarra egiteko frogak, prebentzio frogak...).
4. **Lesbianek ez dituzte laguntza bidezko ugalketarako baliabide publikoak erabiltzen haurdun geratzeko.** Hazi gabeziak, adinaren irizpide zorrotzak, bikotekidea ez aitoritzeak, trataera ez oso beroak eta abarrek eragiten dute lesbiana gehienek osasun pribatura jotzea laguntza bidezko ugalketarako prozesua egitera. **Haurdunaldia jarraitzeko eta erditzeko baino ez dute osasun publikora jotzen emakume lesbianek.** Orokorrean, trataera ez-diskriminatzailea jasotzen dute, eta berdintasunez tratatzen dituzte bi amak osasun artapen horretan.

5. **14/2006 Legearen 2013ko erreformak betoa jarri die lesbiana bikoteentzako eta bakarrik dauden emakumeentzako laguntza bidezko ugalketarako tratamenduei, osasun publikoan (gizon batek eta emakume batek osatutako bikoteei baino ez die eskainiko). Osasun pribatura jotzeko baliabiderik ez duten lesbianeiei amatasunerako sarbidea galarazten die horrek.** Baliabide ekonomiko nahikoak dituztenek soilik jo dezakete hain garestiak diren ugalkortasun kliniketara. Eskubidea izatetik, pribilegio izatera igaro da laguntza bidezko ugalketa.
6. **3/2007 Legeak eskatzen du Osakidetzak zein edozein klinika pribatuk emandako egiaztagiria, laguntza bidezko ugalketa erabili dela ziurtatzen duena, haurrak inskribitu ahal izateko. Baldintza hori oso diskriminatzailea da bikote heterosexualekin alderatuta, horiei ez baitzaie antzeko baldintzarik ezartzen seme-alabak inskribatzeko.** Gainera, emakume lesbianak amak izateko beste edozein modu, Osakidetzan edo klinika pribatuetan egindako laguntza bidezko ugalketa ez den beste edozein modu, kanpo geratzen da.
7. **Ez dituzte emakume lesbianak kontuan hartzen GIB-HIESaren ikerketa epidemiologikoetan, ez eta prebentzio kanpainetan ere.** Ondorioz, eta ez dutenez euren burua GIB-HIESa hartzeko arrisku egoeran dauden emakumetzat jotzen, ez dute uste gainerako SBGak harrapatzeko arriskuan daudunik. Horren ondorioz, orokorrean, ez dituzte prebentzio neurriak hartzen sexu harremanetan.
8. **Emakume lesbianak estigmatizatutako kolektibo baten parte dira. Beraz, eta osasun mentalekin loututako gatazkak konpontzeko, sexu eta genero aniztasunarekiko estigma sozialak eragindako ondorio psikologikoak ezagutzen dituzten langileak behar dira osasun mentaleko zerbitzuetan.**
9. **Askotan, emakume lesbianek ez dute sentitu euren identitateetan ulertu dituztenik, edo ez dira ikusgarri egitera ausartu, laguntza psikiatriko edo psikologikorako zerbitzu publiko zein pribatuetan.**
10. **Generoa berresleitzeko prozesuan dauden lesbiana transexualek euren bizi kalitatea hobetu dela sentitzen dute, osasun baliabide horri esker.** Hala ere, **zalantzan jarri dituzte baliabide horren zenbait alderdi:**
 - a. **Azterketa psikiatrikoa egiteko modua.** Bertan, gaixo mentalak balira bezala tratatzen dituztela sentitzen dute, izugarri epaitzen dituztela, eta ez dutela euren bizitzen gainean erabakitzeke botererik. Horren ondorioa da “onespen erabilgarriarekin” hurbiltzea Unitatera; hau da, eurengandik espero dena esaten eta egiten dute hormonazio eta ebakuntza mediku

prozesuak hastea ahalbidetuko dien diagnostiko psikiatrikoa lortzeko itxaropenez.

- b. Bizitza Errealaren Froga egiteko exigentziak sistema bitarraren hegemonian daude oinarrituta. Ondorioz, ez zaizkie askotariko adierazpen eta genero identitateei egokitzen,** eta genero rol estereotipatu, heterosexista eta partziala betetzera derrigortzen dituzte. Gure ustez, Gurutzetako Genero Unitateak genero rolen oso ikusmolde zorrotz eta itxiarekin egiten du Bizitza Errealaren Froga, eta ez ditu gizonen eta emakumeen arteko berdintasun politiketan gertatutako aurrerapenak ezartzen. Horien arabera, ez baitaie genero rol bereiziturik egokitu behar gizon eta emakumeei.

- 11. Gurutzetako Genero Unitateko zerbitzuen zerrendan, ez dira ez amatasuna ez laguntza bidezko ugalketa kontuan hartzen.** Ondorioz, ez dira generoa berresleitu duten emakumeen ugalketa eskubideak errespetatzen.

EREMU EKONOMIKOKO ONDORIOAK

1. **Emakume lesbianak ez dira Euskadiko gainerako herritarrengandik bereizten, baliabide ekonomikoetarako sarbideari dagokionez.** Horixe da parte hartu duten emakumeek ondoen ezagutzen duten eremua.
2. **Emakume lesbianek ez dute uste tratu ona ematen zaienik baliabide ekonomikoak erabiltzean.** Instituzioen trataera eta jarrera paternalista hautematen dute baliabide ekonomikoen kudeaketan. Izan ere, baliabideon erabilera hurbilago hautematen dute karitate ideietatik, eskubide ikuspegitik baino. Hau da, baliabide ekonomikoak herritarren eskubide direlako ideietatik urrun daude.
3. **Baliabide ekonomikoak aurkako eremutzat hautematen dituzte emakumeek, eta funtzionamendu eskasa dutela uste dute.** Ados daude, eta nabarmendu egin dute trataera eskasak ez duela sexu orientazioarekin zerikusirik. Trataera ez oso adeitsua, are intrusiboa, agerian jartzen da DBE (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) bezalako laguntzak eskatzera instituzioetara jotzen dutenean; zeinak, egun, baldintza zorrotzegiak ezartzen dituen laguntza mantentzeko orduan.
4. **Desgaitasuna duten emakumeek, euren desgaitasunagatik baliabide ekonomiko nahikoak dituztenek, euren autonomiarako eta ahalduzko pertsonalerako erabiltzen dituzte laguntza horiek.** Izan ere, euren independentzia eta bizi kalitatea indartzeko baliagarriak baitira jasotzen dituzten laguntza ekonomikoak.
5. **Krisiaren ondorioz baliabide ekonomikoak txikiagotu zaizkien klase ertaineko emakume nagusiak kolektibo zaurgarrien parte izatera igaro dira.** Ez dute ondo bizi laguntza ekonomikoak eskatu behar izatea, ez baitute euren burua laguntza behar duten pertsonen rolaekin identifikatzen. Ondorioz, ez daude laguntza sistemaren eskakizunetara ohituta.
6. **Laguntza eta baliabide ekonomikoen sare publikoa egotea ez da emakume lesbiana migratzaileak EAera etortzeko arrazoia,** eta euren autonomia eta autoaskatasuna aldarrikatzen dituzte giza integrazioarako bitarteko gisa, aipatu laguntzetara jo beharrik gabe.

HEZKUNTZA EREMUKO ONDORIOAK

1. **Esan dezakegu gaurko hezkuntza sistemak gure gizartean egon diren aurrerapen legal eta sozial handiak kontuan hartzen dituela, sexu eta genero aniztasunaren aitortzari dagokionez.** Aldaketa handiak gertatu dira, ikastetxeak ez dira lehen zirena, ezta curriculum ere, eta irakasleak sexu aniztasunari buruzko formakuntza jasotzen hasi dira. Dena dela, hezkuntza sistemak ez du segurtasun sentazio nahikoa transmititzen, hala ikasleek nola irakasleek euren sexu orientazioaz edo genero identitateaz argi eta garbi hitz egin dezaten.
2. **Hezkuntza eremu formalaz gain, interneta eta komunikabideak bezalako bestelako baliabideak daude ikasleen sozializaziorako.** Informazio eta sozializazio aukera asko zabaldu dituzte baliabide horiek, eta LGTB gazteei ikastetxeetan diren bezalakoak agerrarazteko aukera gehiago ahalbidetu dizkiete.
3. **Euskal hezkuntza sistemako irakasleek trebetasun sozialak erabiltzeko zailtasunak dituztela ikusi da, eta ikasleen sexu orientazioaren inguruko gatazkak eta egoerak kudeatzeko baliabide gutxi dituztela,** ikasleak euren nahiak eta aukerak argiago adierazten hasten direnean. Ondorioz, gai horri lotutako gatazkak sortzen direnean, irakasleak ez dira oraindik ere horietaz arduratzen, izan ere, jorrazteko zailak diren gatazkatzat jotzen dituzte.
4. **Ikastetxean ezagutzen ez diren, edo esku hartzen asmatu ez diren bullying lesbofobikoaren kasuak gertatzen dira oraindik ere.** Baina, zalantzarik gabe, ikastetxeek jada ez dute beste alde batera begiratzen ikasleen arteko tratu txarren berri izaten dutenean, eta esku hartzeko beharrezko bitartekoak daukate, ekintzarako protokoloak, adibidez.
5. **Irakasle lesbianek isilpean gordetzen dute euren sexu orientazioa, eta mehatxutzat jotzen dute ikasleak euren lesbianismoaz enteratzea.** Hortaz, irakasle lesbianak ez dira ez eredu ez euskarri euren laguntza behar lezaketen ikasle nerabe lesbianentzat. Gabezia horren ondorio berehalakoa, kontakizun eta esperientzia pertsonalen galera da, zeintzuek balio handia eduki lezaketen ikasle horientzat erreferentzia gisa, irakasleek ikasleentzat duten esanahiagatik.

6. **Ikasgeletan erabiltzen diren material didaktikoek, oro har, ez dituzte sexu aniztasuna eta genero identitatea barne hartzen.** Gainera, eskoletan erabiltzen diren dokumentazio eta mota guztietako inprimakiek ez dituzte, oraindik ere, askotariko familia ereduak jasotzen. Familia homoparentaletan bizi diren haurrei ondoeza eragiten die horrek, eta ez dira barne sentitzen.
7. **Euskal unibertsitatearen eremua espazio konplexua dela ikusi dugu, heteronormatiboa izateari utzi gabe,** lehen aldiz ikusgarri egin ahal izateko espazio hurbil eta solidarioak eskaintzen dizkiena emakumeei. Baita sexu aukera eta genero identitatea adieraztekoak ere.
8. Lehen Hezkuntzako testuinguruan gertatu den praktika on bat ikusi dugu. **Generoa berresleitzeko prozesuan dagoen emakume batek aipatu prozesuan gertatzen diren aldaketez argi eta garbi hitz egitea erabaki du, eta aldaketa horiek hezkuntza komunitatean ondo hartu direla ikusi du.** Bai lehen hezkuntzako ikasleen aldetik, bai euren familien aldetik. Imitatu eta zabaldu beharreko praktika dela uste dugu.
9. **Lesbianek oso positiboki baloratu dituzte helduentzako hezkuntza baliabideak, euren esperientzei buruz hitz egiteko askatasun handiagoa sentitu dutelako.** Lesbianismoaz hitz egiten da, feminismoaz, eta, ondorioz, egokiagoa iruditzen zaie curriculumaren ildoak. Helduentzako Hezkuntza eta Jabekuntza Eskolak nabarmendu dira horien artean.

LAN EREMUKO ONDORIOAK

- 1.** **Sektore publikoan lan egiten duten emakume lesbianek sektore pribatuan ari direnek baino modu irekiagoan bizi dute haien sexu orientazioa.**
- 2.** **Krisi eta ezegonkortasun garaia dugun honetan, aurkakotasunezko ingurune bihurtzen da lan eremua eta beldurra handitu egiten da, ahultasun handiagoa dutun horiengan batez ere.** Horrek, lanean emakume lesbianek sexu orientazioa ez agertzea eragiten du.
- 3.** **Desgaitasuna duten langileekin lan egiten duten izaera sozialeko enpresek ez dute sexu aniztasuna eta genero identitatea lantzen.** Enpresa hauetan, gizon eta emakumeen berdintasuna errespetatzen ez duten jarrerak emateaz gain, diskriminazio eta homofobia jarrera argiak gertatzen dira.
- 4.** **Pertsona transexualek zuzenean heltzen diote haien genero identitatearen gaiari, ezkutatu ezin den kontua da eta.** Hala ere, ez da gauza bera gertatzen bere sexu orientazioarekin eta ez dira emakume lesbiana moduan agertzen estigmatizazio handiagoari aurre egin behar ez izateko.
- 5.** **Lan mota funtsezko kontua da trantsizio prozesuan. Genero berresleitze prozesuan dauden emakumeak zailtasun handiagoak dituzte norberaren konturako lanak egiten dituztenean besteren konturako lanean ari direnean baino.** Besteren konturako lanean aritzeak segurtasun juridiko handiagoa ematen du edozein motatako diskriminazioaren aurrean. Hori dela eta, emakume asko lana aldatzen saiatzen dira berresleitze prozesua hasi baino lehen, segurtasun eta lasaitasun handiagoz egingo duten itxaropenean.
- 6.** **Lan eremuan emakume transexualekiko diskriminazioa lanpostuko funtzioen bitartez egiten da, modu ez zuzenean: lanpostua aldatuta, beheagoko mailako edo emakumeei edo gizonei egotzi izan zaizkien lanak eginarazita eta lanean gora egiteko modua zailduta.**

EREMU SOZIOKULTURALEKO ONDORIOAK

1. Eremu soziokulturaleko baliabideak dira emakume lesbianek beste lesbianekin elkartzeko eta harremanak sortzeko gehien erabiltzen dituztenak. **Bereziki kirola izan da sozializazio sareak eraikitzeke gehien baloratu dutenetako bat.**
2. Komunikabideen, lesbianen txaten, LGTB elkarteen edo “giro” lesbikoaren bitartez **erreferentzia positiboak edukitzea emakumeek euren lesbianismoa hobeto bizitzea errazten** duten baliabide soziokulturalak dira.
3. **Emakume lesbianek osatutako kuadrilla eta lagunak edukitzea sozializaziorako eta autoafirmaziorako baliabide garrantzitsuak dira.** Berdinen arteko edo erreferentziazko talde horiek “beste lesbianekin lesbiana gisa moldatzen” ikasteko ezinbesteko eremu bihurtzen dira. Areago, lagun lesbianen sarerik eraikitzea lortzen ez duten lesbianek nahitaezko zerbait falta zaiela sentitzen dute. Interneten erabilera eta kirola sare hori sortzeko baliabide bereziki baliotsuak dira.
4. **Nahasmendu mentala duten emakume lesbianek berau ere txertatzen dute euren bizitzetan. Sozializaziorako baliabideak bilatzen dituzte; sarritan, sozializazio dinamika mantentzeko zailtasun gehiago eduki arren.** Nahasmendu mentala dutenenganako estigma sozialak, lesbianen kolektiboan ere badenak, isolamendu soziala areagotzen du.
5. **Lesbiana migratzaile askok lesbianen elkarteak bilatzen dituzte harrera herrietan; hau da, sexu aukerari lotutako gaiak lehenesten dituzte, kulturalen aldean.** Beharbada, jatorrizko herrialdean ase gabeko presazko beharrianari erantzuteko. Era berean, jatorrizko komunitateekin harremantzeko mesfidati ageri dira, lesbiana izateagatik arbuiazen dituztela sentitzen dute eta.
6. **Internetek harremanak sortzeko moduen aldaketa ekarri du berarekin, eta elkartzeko espazio birtuala ahalbidetu du.** Jatorri anitzetako eta mota guztietako emakume lesbianen arteko harremanak erraztu ditu, eta ikusgarri egitea eskatzen ez duen inguru seguruan elkar ezagutzea ahalbidetu. Baita aurkako balizko inguruetan euren burua arriskuan ez jartzea ere. Sare sozialen erabilera, adinaren arabera baina, pertsona motaren eta teknologiarekiko gustuaren arabera da gehiago.

7. Pertsona nagusiei zuzendutako baliabide sozialak erabateko heteronormatibitatetik pentsatuta daude. Horregatik, lesbiana batzuei ez zaizkie espazio horiek bereziki erakargarri suertatzen. Euren beharrizanetara egokitzen ez direla pentsatzen dute, eta askatasunez adieraztea galarazten zaiela eskainitako inguruetan: IMSERSOko bidaietan, Adinekon, egoitzetan, eguneko zentroetan eta elkarteetan.

HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK



SARRERA

Gizarte baliabideen politika publikoak egiten eta garatzen laguntzea zen ikerketa proiektu honen helburuetako bat, bai eta gizarte ikusgarritasun maila handitzea ere, emakume lesbianen bizi kalitatea hobetze aldera. Xede horrekin osatu ditugu ikerketa-taldekideok hobekuntza proposamenak eta gomendioak.

Hobetzeko proposamenak eta aholkuak ondorioetarako baliatutako diseinua erabiliz idatzi ditugu: modu orokorrean daude batzuk idatzita, ikusgarritasuna eta segurtasuna zeharkako aldagaiak kontuan hartuz hain zuzen ere eta, ondoren, aztertutako gizarte baliabide bakoitzerako hobekuntza proposamenak eta gomendioak aletu ditugu.

HOBETUNTZA PROPOSAMEN ETA GOMENDIO OROKORRAK

1. Ikerketa honetako ondorioak kontuan hartuta, eta sexu orientazioarekin lotuta dauden gaiak eremu pribatutik atera daitezzen, **gizarte baliabideak kudeatzen dituzten enpresei sexu orientazioaren aldagaia gizarteratzeko eskatzen diegu, kontuan izaten diren aldagaien artean (adina, egoera zibila, generoa, jatorria, ikasketak...) beste bat izan dadin baliabideen erabiltzaileei datuak eta informazioa eskatzen zaienean.** Helburua baliabideetan sexu orientazio guztiak normaltzen joatea da, gizarte baliabideak erabiltzen dituztenean emakume lesbianak ez daitezzen estigmak eta isiltasunak inguratuta egon.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari **beharrezko neurriak hartzeko** deia egiten diogu, euskal administrazioetako langileek eta, batez ere, herritarrekin harremana duten langileek **sexu orientazioari eta genero identitateari buruzko trebakuntza egokia** izan dezaten, errespetua eta berdintasuna oinarri izango duen trataera eskaintzea helburu.
3. Garrantzitsua da jauzi kualitatiboa egin eta **alderdi politikoen agendan politika eta gizarte dimentsioa izango duen gaia izatea lesbianen ikusgarritasuna.** Horretarako, gai honi buruzko barne eztabaidak egitea proposatzen diegu alderdi politikoei eta, ondoren, proposamen publiko eta sozialak gauzatzea.
4. Etorkizuneko Berdintasun Planetan **sexu eta genero aniztasuna ardatzetako bat izatea proposatzen diogu Emakunderi,** eta ondokoak bezalako gaiak lan ditzan eskatzen diogu: emakumeek haien gorputzekiko duten autonomia, lesbianen ikusgarritasuna eta emakume lesbianen ahalduntzea.
5. Beharrezkoa da Berdintasun Planetako **eduki eta ekintzetan emakume lesbianen beharrianak txertatzea.** Udalek, Foru Aldundiek edota Eusko Jaurlaritzak proposatutako Planetan edo Unibertsitateek ikertutako lanetan kontuan hartu behar dira **emakume lesbianen beharrianak.**

- 6.** Herrietako administrazioei eta Eudeli eskatzen diogu **sexu aniztasuna eta genero identitatea integratzeko Hiri Debekatuen Mapa** berriak egiterako orduan, emakume lesbianen segurtasun beharrak ere aseta gera daitezen. Mapa horiek egiteko Esperientziaren Kartografia delako filosofia baliatzea proposatzen dugu, guneko seguruak jorratzeko modua iradokitzailea baita eta kontuan hartzeko ekarpena dela uste baitugu. Era berean, honezkero osatuta dauden mapak berrikustea proposatzen dugu aurretik aipatutako dimentsioa kontuan izan dezaten. Mapen izendatzeari dagokionez, Hiri Debekatua izenak kutsu negatiboa duela uste dugu eta beste aukera batzuk aztertzeko hausnarketa egitea proposatzen dugu. Hiri Irekia izena inklusio proposamen berriekin bat etorri litzatekeela uste dugu.

EREMU JURIDIKOA HOBETZEKO PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK

1. Genero Barneko Indarkeriari dagokionez, **euren bikotekideek eragindako indarkeriaren biktima lesbiane**i, biktima egoeran daudenez, **baliabideetarako sarbidea aitortzeko eta emateko konpromisoa hartzea gomendatzen diegu euskal administrazio publikoei**. Baita gainontzeko emakumeen baldintza berberetan egin dezatela ere.
2. Emakume lesbien **arteko** harremanen barruko **indarkeriaren errealitatea ezagutzeko ikerketak egitea** proposatzen dugu.
3. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioari gomendatzen diogu Justizia Ministerioari eta Erregistroen eta Notaritzen Zuzendaritza Orokorrari proposa diezaiela **laguntza bidezko ugalketari buruzko 14/2006 Legeko 7. artikuluan eskatzen diren baldintzak ezartzeko irizpide bateratua burutu dezatela Erregistro Zibiletan**.
4. Beharrezkoa da **Justizia Administrazioko (Epaitegietako eta Erregistro Zibiletako) langileei** sexu orientazioari eta genero identitateari buruzko **formakuntza** zehatz eta espezializatua ematea, eta horretarako **beharrezkoak diren neurriak** sustatzea, berdintasunezko trataera eskain dezaten; baita informazio zuzen, egoki eta egiazkoa ere.
5. **3/2007 Legearen aldaketa** gomendatzen dugu, honako alderdi hauetan:
 - a. Aipatu legeak eskatzen dituen baldintzak (adin nagusikoa izatea, tratamendu hormonalean bi urtez egotea eta “genero disforia” diagnostikoa edukitzea) ezabatzeari buruz Amnistia Internazionalak 2014ko otsailean egindako txostena aintzat hartuz, alderdi politikoei txosten horren edukiak euren gain hartzea proposatzen diegu, eta beharrezkoak diren ekintza politikoak bultzatzea 3/2007 Legea alda dadin, aipatutako baldintzak ezabatzeari dagokionean.
 - b. Ildo berean, “sexuari dagokionez, okerra eragin dezaketen” izenen debekua ezabatzea eskatzen dugu, 3/2007 Legearen Azken Xedapenetatik Bigarrenean ezarritakoa.

- 6.** Garrantzitsua da pertsonen izena zehazteko **eskumena duten organismoei**, hala nola Euskaltzaindiari, **honako gomendioa luzatzea Emakundek: pertsonen izenak generoa argi eta garbi egokitzeko tresnatzat erabiltzeari buruz hausnartzeko eztabaida-guneak sortzea**; bai eta izen bakoitzari genero zehatza egozteko derrigortasunari buruz hausnartzekoak ere.

OSASUN EREMUA HOBETZEKO PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK

- 1.** Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari gomendatzen diogu laguntza bidezko ugalketarako tratamenduen artapena bermatzen jarrai diezaiela emakume lesbianeiei, Euskal Gobernuak Osasun Sailburuordetzak ziurtatu duen bezala.
- 2.** Ildo berean, emakume transexualentzako amatasuna eta laguntza bidezko ugalketa Osakidetzako zerbitzuen zerrendan egon beharko liratekeela uste dugu. Horrela, Gurutzetako Ospitaleko Genero Unitatean generoa berresleitu duten emakumeen ugalketa eskubideak bermatuko lirateke.
- 3.** Beharrezkoa da, laguntza bidezko ugalketari dagokionean, baliabide publikoak sustatzea eta handitzea, pribatuaren aldean. Amatasunaren merkantilizazioa, eta baliabide horietara sartzeko orduan, erosteko ahalmena dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa amaituko litzateke horrela.
- 4.** Osakidetzari eta osasunaren eremuan lan egiten duten erakundeei gomendatzen diegu, SBGen prebentziorako sentsibilizazio eta informazio kanpainetan, emakumeen arteko sexu praktiken eta horien balizko arriskuen erreferentzia esplizituak txertatzeko.
- 5.** Osakidetzari gomendatzen diogu ginekologia eremuko langileei proposa diezaiela emakume guztiei egiteko zitologiak, sexu orientazioa gorabehera, trataera berdintasuna berma dadin.
- 6.** Osakidetzari gomendatzen diogu emakume lesbianeiei zuzendutako kanpainak egin ditzala, adin goiztiarretan ere artapen ginekologikora joatea sustatzeko.
- 7.** Euskadiko Osasun Zerbitzuari gomendatzen diogu SBGek emakume lesbianengan duten inpaktua gehiago ikertzeko, bai eta horien jarraipen epidemiologikoa eta dibulgazioa egiteko ere, EEBB eta Kanada bezalako herrialdeetan egiten den bezala.
- 8.** Gurutzetako Genero Unitateari gomendatzen diogu genero rol estereotipatu, partzial eta heterosexistak ez ezartzeko, generoa berresleitzeko prozesurako diagnostikoaren zati den Bizitza Errealaren Froga egitean. Baita horiek gizonen eta emakumeen arteko berdintasun balioekin bat etor daitezela ere, gizartean dagoen emakumeen aniztasunarekin batera.

9. Gurutzetako Genero Unitateari gomendatzen diogu **emakume transexualek egiten duten generoa berresleitzeko prozesua testuinguruan kokatuta egin dezala, eta emakume transexualekin beraiekin adostuta**. Egoera sozial, ekonomiko, laboral eta familiarak hartu behar dira, beraz, kontuan.
10. Gurutzetako Genero Unitateari gomendatzen diogu erabiltzaileei **hautazko prozesu terapeutikoa izateko aukera eman diezaieला, edozein fase** psikiatriko, hormonal eta kirurgikotan.

EREMU EKONOMIKOA HOBETZEKO PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK

1. Euskadiko Autonomia Erkidegoko administraziooko datuak ez datozenean artatzen ari diren erabiltzailearen kanpo itxurarekin bat, **administraziooko langileei gomendatzen diegu erabiltzailea arta dezaten nahi duen generoa har dezatela kontuan.**
2. **Administrazio publikoetako eta erakundeetako langileei genero identitateari buruzko formakuntza egokia** jasotzea proposatzen diegu.
3. **Laguntza ekonomikoen kudeaketaren arduradun diren administrazioei (LANBIDEn) gomendatzen diegu ez dezatela gehiegikeriaz jokatu DBEa (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) emateko eta mantentzeko exijitutako baldintzak ezartzean.** Batez ere, laguntza ekonomikoaren helburuaren gehiegizko fiskalizazioari, eta aipatu laguntza eman diezaieketen kontzeptuen irizpide bateratuen gabeziari dagokienean. Irizpideak adostu eta beteratu behar dira, baldintzak betetzen diren ala ez baloratzeko.

HEZKUNTZA EREMUA HOBETZEKO PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK

- 1. Euskal Gobernuko Hezkuntza Sailari gomendatzen diogu sexu aniztasuna eta genero identitatea txertatzeari zuzendutako sentsibilizazio eta informazio ekintzak sustatzea unibertsitate zentroetan.** Batez ere, lesbianen, gayen, transexualen eta bisexualen giza eskubideekin lotutako egunetan: apirilaren 26an, ikusgarritasun lesbikoaren egunean; maiatzaren 17an, homofobiaren, lesbofobiaren eta transfobiaren kontrako egunean; ekainaren 28an, sexu askatasunen egunean eta abenduaren 10ean, giza eskubideen nazioarteko egunean.
- 2. Beharrezkoa da ikastetxeetan ikasle eta irakasle guztientzako espazio seguru eta inklusiboak sortzea.** Horretarako, sexu aniztasuna eta genero identitatea txertatzeari zuzendutako ekintzak abiatu behar dira, ikastetxeetan dauden baliabide materialak erabiliz (web orriak, estekak, albisteak, gertaerak, filmografiak, bibliografiak) eta foroak, jardunaldiak eta abarrak antolatuta.
- 3. Garrantzitsua da hezkuntza komunitateari bullying lesbofobikoa egoki detektatzeko eta deuseztatzeko baliabide nahikoak ematea.** Bullying homofobikoari buruzko ikerketetan, neska gazteei eragiten dieten bullyinga jorratzea gomendatzen dugu, berau osatzen duten ezaugarriak ezagutu eta horiei nola eragiten dieten ikusteko.
- 4. Hezkuntza komunitatearen formakuntza hobetzea** proposatzen dugu, **bai eta baliabide nahikoak ematea**, sexu aniztasunari eta genero identitateari lotutako gatazken **kudeaketa ona eta jorratze eraginkorra ahalbidetzeko trebetasun sozialak ikasteari dagokionean.**
- 5. Eskoletan erabiltzen diren dokumentazioak eta inprimakiak berrikustea** gomendatzen dugu, ikasleak bizitzen ari diren familia aniztasunari egokitu ditzaten.
- 6. Irakaskuntzako euskal sindikatuei sentsibilizazio kanpainak egitea proposatzen diegu;** baita, heziketa-egutegietan eta bestelako ekintza sindikaletan, sexu aniztasunarekin eta genero identitatearekin lotutako gaiak txertatzea ere. **Helburua irakasle lesbianak seguruago eta lagunduago sentitzea da, ikasgeletan ikusgarri egitea erabakitzen badute.**
- 7. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako hezkidetza programetan, erakunde publikoek zein pribatuek diseinatutakoetan, sexu orientazio eta genero identitatearen ikuspegia txertatzea** gomendatzen dugu.

LAN EREMUA HOBETZEKO PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK

1. **CONFEBASKi Euskal enpresarioen artean sentsibilizazio kanpainak egitea proposatzen diogu.** Helburua, emakume lesbianak ez diskriminatzea da, ez kontratatzerako orduan, ez lana mantentzerakoan ezta lan baldintzak hobetzeko aukera izaterakoan ere.
2. **Izaera sozialeko enpresei dei egiten diegu sexu aniztasuna eta genero identitatea lan dezaten.** Besteak beste, ondoko ekintzak proposatzen ditugu:
 - a. Enpresetako organigrama osatzen duten pertsona guztiak formatu.
 - b. Kontratatzerakoan berdintasuna bultzatu, sexu orientazioa eta genero identitatea alde batera utzita.
 - c. Lesbianismoa eta transexualitatea ikusgarria izan dadin kanpaina zehatzak bultzatu lantokietan.
 - d. Enpresetako hitzarmenetan sexu aniztasuna eta genero identitatea sartu.
3. Aurreko aholkuarekin lotuta, **erakunde eta entitate publikoek izaera sozialeko enpresei dirulaguntzak, finantzaketa edo errekonozimendurik ez ematea eskatzen dugu**, baldin eta hauek ez badituzte sexu aniztasuna eta genero identitatea haien helburu modura txertatzen eta alor honetan jarduera onak azalerazten ez badituzte.
4. **Sindikatuak sexu aniztasuna eta genero identitatea ekintza sindikaleko politiketan txertatzea aholkatzen diegu.** Emakume lesbianen lan eskubideak ziurtatu behar dituzte, lesbianen ikusgarritasuna bultzatu eta mobbing homofobikoa saihestu. Baliabideak ugari izan daitezke: jardunaldiak, protokoloak, materiala sortu, ordezkari sindikalak trebatu, eta abar.

EREMU SOZIOKULTURALA HOBETZEKO PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK

1. Aniztasun funtzionalaren eremuko elkarte eta erakundeei gomendatzen diegu **sexu aniztasuna eta genero identitatea barne hartuta kudea ditzatela askotariko baliabideak**, emakume lesbianek integratuta senti dezaten euren orientazioa.
2. Inmigratio eremuko elkarteei gomendatzen diegu emakumeen askatasunari eta autonomiari buruzko **sentsibilizazioa areagotzeko programak eta ekintzak** garatzen jarrai dezatela, lesbianismoa barne.
3. Beharrezkoa da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gainean lan egiten duten erakundeek **emakume lesbanei zuzendutako erreferentziazko eta sozializatorako taldeak** sustatzea.
4. Emakumeen elkarteei proposatzen diegu, egiten dituzten ekintzen artean, emakume lesbianen **ikusgarritasuna eta emakumeen sexu autonomiaren debatea** susta ditzatela.
5. Pertsona nagusiei zuzendutako **baliabideen publizitate euskarrietan**, hala nola egoitzak, eguneko zentroak, nagusien elkartek, kultura eta aisialdi ekintzak... **sexu aniztasuna eta genero identitatea esplizituki isla dezatela** gomendatzen dugu, emakume lesbiana erabiltzaileek euren burua islatuta ikus dezaten horietan.
6. Pertsona nagusiei zuzendutako baliabideak kudeatzen dituzten erakundeei gomendatzen diegu beharrezkoak diren neurriak hartzeko, **emakume nagusiekin harremanetan dauden langileek sexu orientazioari eta genero identitateari buruzko formakuntza eduki dezaten**. Trataera begirunetsu eta inklusiboa eskaintzea da helburua.

AZKEN HITZAK

EMPAR PINEDA




Denbora luzea neraman kafetegian, ate ondoko mahaian. Bat-batean, bi neska sartu ziren, eztabaida sutsuan ari ziren. Nire ondoko mahaian eseri ziren. Ez dituzte hamabost urte baino gehiago, pentsatu nuen begirik kentzen ez niela. Bolloak direla diotsut, ziur baieztatzen zuen haietako batek. Ez dakit zergatik diozun hori, ez ditugu ia ezagutzen, erantzun zion besteak pixka bat gogaituta. Itsu zaude edo zer! Bota zion lehenengoak. Batzuetan tentela dirudizu, begiratzea besterik ez dago! Horiek bolloak direla agerikoa da, erdi itsu hori. Ados, ni itsua naiz eta zu sasijakintsu hutsa. Baina, esadazu, zer uste duzu pentsatzen duela jendeak kalean ikusten gaituenean batere ezkutuan ibili gabe? Ba bollera bikotea garela, neska.

Pentsakor gelditu nintzen haien naturaltasuna ikusita. Antzematen zen ez zitzaizela axola edonork haien eztabaida sutsua entzutea. Haien jariora eredu ona zen. Denbora tarte luze batean nire oroitzapenek bidaia luzea egin zuten, haiek bezain gazte nintzen garaira arteko bidea. Garai hartan, lesbiana hitza ezagutu ere ez genuen egiten. Gurea beste neska batenganako sakoneko laguntasuna, samurtasuna, maitasuna eta desioa zen, baina ez genuen jakiten nola izendatu. Eta nolabaiteko ezinegona izaten genuen batere femeninoa ez zen neskari gutxiespenez marimutil esaten ziotenean. Gure sentimenduak klandestinitatean bizi genituen, isiltasuna estalki. Ikusezintasunak inguratzen gintuen. Gutako askok urteak behar izan genituen gure sentimenduei izena jartzeko.

Radar antzeko bat garatu genuen gure artean elkarri antzemateko. “Ulertzen dutenak” izenarekin bataiatu genituen geure buruak. Urliak ulertzen du, ez duzu uste? Gure hizkera, aldiberean, gure buruak babesteko modua zen. Bat-batean, errealitatera itzuli behar izan nuen *“nora zoazte, maritxuak?”* zalapartatsu batekin, inongo lotsarik gabe esandakoarekin. Une berean, atetik gertu zeuden eta joatekotan ziren bi mutiletako batek, ozen erantzun zion, “piperropiltxoak, zuek bezala, bollo, maritxu, bi eta transen bilerara Harrotasunaren eguneko manifa prestatzera. Aurten apurtzailea izango da, ikusiko duzue.” Batzuek harritu gabe egin zieten so eta gehienek berera jarraitu zuten. Ni, ordea, ikaragarri harritu ninduen. Sentimendu kontrajarriak piztu ztzaizkidan egia esan. Alde batetik nolabaiteko deserosotasuna sentitu nuen lotsarik gabeko sexu eta identitate adierazpen harro haien aurrean. Bestetik, ezinezko neritzon bizitzen ari nintzena bizitzeari eta gozatzeari: sexu anztasunaren adierazpena, han, jendaurrean, egoerarik normalenean.

Empar Pineda

BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA



ALLUÉ, MARTA. “El sexo también existe: discapacidad y sexualidad”, Guasch, O. eta Viñuales, O., Sexualidades. Diversidad y control social. Bellaterra, 2003.

BARROSO, MARÍA DE LA O ETA CASTRO, NELLY JULIA. Estado de bienestar y crisis económica: una revisión bibliográfica. Huelvako Unibertsitatea, 2010.

BROT BORD. “Mercantilización y asimilación de la disidencia sexual”, Solá, M. eta Urko, E. (bil.), Transfeminismos: Epistemes, fricciones y flujos. Txalaparta, 2013.

CALIFIA, PAT. El don de Safo. El libro de la sexualidad lesbiana. Talasa, 1998.

CARRASCO, CRISTINA ETA AGENJO, ASTRID. [La economía feminista es un pensamiento de ruptura total](#). 2013.

CASTELLS, MANUEL. “Sobre el derecho de amar sin carné de identidad”, Petit, J., 25 años más. Una perspectiva sobre el pasado, el presente y futuro del movimiento de gays, lesbianas, bisexuales y transexuales. Icaria, 2003.

COLL-PLANAS, GERARD. La voluntad y el deseo. La construcción social del género y la sexualidad: el caso de lesbianas, gays y trans. Egales, 2010.

COLL-PLANAS, GERARD. “El circo de los horrores”, Platero, R. (arg.), Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada. Bellaterra, 2012.

COLL-PLANAS, GERARD. Dibujando el género. Egales, 2013.

CHASE, CHERYL. “Hermafroditas con actitud: cartografiando la emergencia del activismo político intersexual”, Romero, C., García, S. eta Bargueiras, C. (arg.), El eje del mal es heterosexual. Traficantes de sueños, 2005.

DONOSO, SILVIA. “La familia lésbica”, Herdt, G.y Koff, B., Gestión familiar de la homosexualidad. Bellaterra, 2002.

EPSTEIN, ROB ETA FRIEDMAN, JEFFREY. *El celuloide oculto* Dokumentala. EEBB, 1995.

ETXENIKE, LUISA. Lesbianas universales. *Emakunde* aldizkaria, 2008ko iraila.

FALCO, KRISTINE L. Psychotherapy with lesbian clients. Brunner/Mazel, 1991.

FANTOVA, FERNANDO. Sistemas públicos de servicios sociales, nuevos derechos, nuevas respuestas. GGEEen Koaderno 49, Pedro Arrupe GGEEen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, 2008.

FAUSTO-STERLING, ANNE. Cuerpos Sexuados. Melusina, 1993.

FERNÁNDEZ, SANDRA. Derechos sanitarios desde el reconocimiento de la diversidad. Alternativas a la violencia de la psiquiatrización de las identidades trans, Missé, M. eta Coll-Planas, G., El género desordenado. (arg.). Egales, 2010.

GALOFRÉ, GUILLEM, GENERELO, JESÚS ETA PICHARDO, JOSE IGNACIO (koord.). [Sexualidades minoritarias. Voces desde la exclusión](#). COGAM, 2008.

GARAZABAL, CRISTINA. "Transexualidades, identidades y feminismos", Missé, M. eta Coll-Planas, G. (arg.), El género desordenado. Egales, 2010.

GAYLE, RUBIN, "Reflexionando sobre el sexo: notas para una teoría radical de la sexualidad", Vance, C. (bil.), Placer y peligro. Explorando la sexualidad femenina. Revolución, 1989.

GENERELO, JESÚS ETA PICHARDO, JOSE IGNACIO (koord.). [Homofobia en el Sistema Educativo](#). COGAM, 2006.

GIMENO, BEATRIZ. Primeras caricias. La tempestad, 2002.

GIMENO, BEATRIZ. Historia y análisis político del lesbianismo. La liberación de una generación. Gedisa, 2006.

GIMENO, BEATRIZ. [El semiarmario de Elena Amaya](#). 2012.

GIMENO, BEATRIZ. [Violencia que no es de género](#). 2013.

GÓMEZ, ANA B. Adolescentes gays y lesbianas en riesgo: aspectos psicosociales. Orientaciones 8.zk., 2004ko bigarren seihiilekoa.

HALBERSTAM, JUDITH. Masculinidad femenina. Egales, 2008.

HERDT, GILBERT ETA KOFF, BRUCE. Gestión familiar de la homosexualidad. Bellaterra, 2002.

JULIANO, DOLORES. Excluidas y marginales. Cátedra, 2004.

LORDE, AUDRE. La hermana, la extranjera. Horas y horas, 2003.

MARTIN SANCHEZ, MARIA, El Derecho constitucional al matrimonio homosexual en España, 2008.

MARTXUETA, AITOR. [Eskoletan bullying homofoboari aurre hartzeko giltzarriak](#). 2013.

MATEOS, MAITE. [Sin género de excusas](#), HIKA aldizkaria, 2004

MEJÍA, NORMA. Transgenerismos. Una experiencia transexual desde la perspectiva antropológica. Bellaterra, 2006.

MISSÉ, MIQUEL. Transexualidades. Otras miradas posibles. Egales, 2013.

MUJICA, INMACULADA. [Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi](#). GGEE Bilduma, Ararteko, 2007.

MUJICA, INMACULADA. [Mujeres migrantes lesbianas](#). Aldarte, 2011.

MUJICA, INMACULADA. [Informe sobre situación de la diversidad afectivo-sexual en la educación secundaria](#). Aldarte, 2011.

MUJICA, INMACULADA. "Inmigración e impacto de la crisis." [Anuario de la inmigración en el País Vasco. Población inmigrante y diversidad afectivo sexual](#). Eusko Jaurlaritza eta EHU, 2013.

MOMOTIO, ANDREA. De la invisibilidad a la irreverencia: Lesbianismo en televisión, tesi-lana. Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra. EHU, 2013.

NIETO, J. ANTONIO. "Transhomosexualidad. Sobre pluralidad de personas, términos y actos", Orientaciones 3. zk. Fundación Triángulo, 2002.

MCNAIR, RUTH. [Risks and prevention of sexually transmissible infections among women who have sex with women](#). Sexual Health, 2005.

OLAORTUA E., VILLAR, A. [Gay, lesbiana eta transexual imigranteak: zenbait gogoeta haiei harrera ona egiteko](#). Aldarte, 2009.

P. OROZCO, AMAIA. [De vidas vivibles y producción imposible](#). 2012.

P. OROZCO, AMAIA. [Deberíamos plantearnos qué idea de vida merece la pena ser vivida de manera colectiva y democrática](#). 2013.

PAREDERO, IGNACIO. [Nupcialidad de parejas del mismo sexo: Igualdad legal sin igualdad social](#). 2013.

PÉREZ, KIM. "Las personas variantes de género en la educación transexualidades adolescencias y educación miradas multidisciplinares", Moreno, O. eta Puche, L. Cabezas (arg.). Transexualidades, adolescencia y educación: miradas multidisciplinares. Egales, 2013.

PÉREZ, BERTA. Homosexualidad: secreto de familia. El manejo del secreto en familias con algún miembro homosexual. Egales, 2006.

PICHARDO, JOSÉ IGNACIO. "Migraciones y opción sexual", Guasch, O. eta Viñuales, O., Sexualidades. Diversidad y control social. Bellaterra, 2003.

PLATERO, RAQUEL (LUCAS). [Estrategias de afrontamiento frente al acoso escolar: una mirada sobre las chicas masculinas](#).

PLATERO, RAQUEL (LUCAS). "Las lesbianas en los medios de comunicación: madres, folklóricas y masculinas", Platero, R. (koord.), Lesbianas, discursos y representaciones. Melusina, 2008.

PLATERO, RAQUEL (LUCAS). "La interseccionalidad como herramienta de estudio de la sexualidad", Platero, R. (arg.), Intersecciones: cuerpos y sexualidad en la encrucijada. Bellaterra, 2012.

PLATERO, RAQUEL (LUCAS). "Críticas al capacitismo heteronormativo: Queer crips", Solá M. eta Urko E (bil.), Transfeminismos: Epistemes, fricciones y flujos. Txalaparta, 2013.

POMBO, IÑIGO. Gizarteratuz 39. 2013ko azaro-abendua.

QUILES, JENNIFER. Más que amigas. Plaza y Janés, 2002.

RICH, ADRIENNE. "Heterosexualidad obligatoria y existencia lesbiana", Nosotras que nos queremos tanto 3.zk. Colectivo de Feministas Lesbianas de Madrid, 1985eko azaroa.

RODÓ DE ZÁRATE, MARÍA. [Cartografías de la experiencia](#). Centro Latinoamericano en Sexualidad y Derechos Humanos, CLAM, 2013.

ROS ZARAGOZA, PATRICIA. [La inclusión de la diversidad afectivo-sexual y los nuevos modelos familiares en el ámbito educativo](#). Fórum Recerca 17, Errioxako Unibertsitatea, 2012.

SALDIVIA, LAURA. [Reexaminado la Construcción Binaria de la Sexualidad](#). 2007.

SIMONIS, ANGIE. "[Lesbofilia: asignatura pendiente del feminismo español](#)", Vigara, A. (koord.), De igualdad y diferencias: diez estudios de género. Huerga & Fierro, 2009.

TOMÉ, AMPARO. "Luces y sombras en el camino hacia una escuela coeducativa", González, A. eta Lomas, C. (koord.), Mujer y Educación. Educar para la igualdad, educar en la diferencia. Graó, 2001.

HE. Voces de mujeres en la diversidad sexual. 2. Liburua, inkesta. Aldarte, 2008.

HE. Género binario y experiencia de las personas transexuales y transgénero. Revista Norte Buru Osasuneko Aldizkaria. XI.alea 45.zk., 2013ko otsaila.

HE. Adiós al crecimiento. El viejo topo, 2013.

HE. [Vivir sin miedo: La protección del asilo frente a la persecución por motivos de género](#). CEAR-Euskadi, 2013.

VILLAR, AMPARO. [El lesbianismo en el movimiento feminista y los colectivos de lesbianas](#). Aldarte, 2005.

VIÑUALES, OLGA. Identidades lésbicas. Bellaterra, 2006.

WESTON, KATH. Las familias que elegimos. Bellaterra, 2003.

WILTON, TAMSIN. (Des)orientación sexual: género, sexo, deseo y automodelación. Bellaterra, 2005.

Erakundeak eta elkarteak:

ALDARTE. [Sexu aniztasuna eta giza eskubideak: gayak, lesbianak, transexualak eta giza-eskubideak](#). Aldarte, 2009.

ALDARTE. [Harreman lesbiko eta homosexualen baitako tratu onen alde](#). 2012.

ALDARTE. [Ez gara erotu badakigu zer nahi dugun](#). Aldarte, 2009.

[BERDINDU](#). Sexu- eta genero-aniztasunari buruz informazioa eta arreta emateko zerbitzua.

ARARTEKO. [Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin, txostena](#). Ararteko, 2009.

ARARTEKO. [Giza eskubideak krisi ekonomikoko garaietan egiten diren politika publikoen berme gisa](#). Ararteko, 2012.

ARARTEKO. [Eusko Legebiltzarrarentzako urteko Txostena, 2013](#). Ararteko, 2014.

CEAR-Euskadi. [Genero-arrozoien gaineko jazarpena: testuinguru globaletik tokiko konpromisora, Txostena](#). 2009.

COGAM. [Estudio Homofobia en las Aulas 2013](#).

EMAKUNDE. [Berdintasunerako VI. Plana 2014-2017](#)

EMAKUNDE. [EAEko nerabeak: Hurbilketa ahalduztetik abiatuta](#), 2009.

FELGTB eta GUIRIGAY. [Estudio: Concepciones, actitudes y comportamientos respecto a la homofobia en el ámbito laboral de Coslada. 2003](#).

FELGTB. [Salud sexual, VIH y otras ITS en mujeres lesbianas, bisexuales y otras mujeres que tienen sexo con mujeres \(MSM\)](#). Txostena, 2012.

FELGTB eta COGAM. [Estudio sobre discriminación por orientación sexual y/o identidad de género en España](#). 2013.

EUSKO JAURLARITZA. [Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta bete-beharrei buruzko dekretua aplikatzeko gida](#). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 2009.

EUSKO JAURLARITZA. [Ikastetxeetan berdinaren arteko tratatu txarrak gertatzen direnean jarduteko gida](#), 2011.

EUSKO JAURLARITZA. [Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa 2012-2016](#).

EUSKO JAURLARITZA. [EAEko immigrazioari buruzko 2013ko urtekaria](#). Ikuspegiak, 2014ko martxoko Urtekaria eta 2013ko barometroa.

ILGA. Informe [La salud de las lesbianas y mujeres bisexuales](#). 2007.

INJUVE/CIS. [Sondeo de opinión Jóvenes y diversidad sexual](#). INJUVE/CIS, 2009.

IVEI-ISEI. [Maltrato entre iguales en educación primaria y ESO](#). EUSKO JAURLARITZA, 2012.

Bloque alternativo de revolución sexual. [Concepto de heteronormatividad](#).

International Lesbian, Gay, Bisexual, Trans and Intersex Association: www.ilga.org

[Manifiesto de la Marcha por la Dignidad 22-M](#)

www.aldarte.org

www.emakunde.euskadi.net

www.ararteko.net

www.bizkaia.net

www.lanbide.net

www.justizia.net


www.osakidetza.euskadi.es

www.argilan-esk.org

www.dosmanzanas.com

www.cascaraamarga.es

ERANSKINAK



I. ERANSKINA

ELKARRIZKETATUTAKO EMAKUMEEN KOADROA

Amelia	50 urte ditu, Bilbon (Bizkaia) bizi da bikotekidearekin eta izena emana dute erregistroan. Unibertsitate ikasketak ditu eta soldata bat jasotzen du bere desgaitasun fisikoagatik. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere zaletasun nagusiak zinema, ikastaroak egitea eta kirola dira. Feminista eta oso bizia da.
Candela	46 urte ditu eta herri txiki batean bizi da (Bizkaia). Ezkonduta dago, bikotekidearekin eta bi seme-alabekin bizi da. Bigarren hezkuntzako ikasketak ditu eta soldata bat jasotzen du bere desgaitasun fisikoagatik. Katolikoa da, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere jarduera nagusiak irakurtzea eta ikastea dira. Oso emakume alaia da.
Jone	39 urte ditu eta Bilbon (Bizkaia) bizi da. Ezkongabea da eta bere bikotearekin bizi da. Bigarren hezkuntzako ikasketak ditu eta baita desgaitasun fisikoa ere. Bere diru sarrerak: izaera sozialeko empresa batean lan egiten du eta pentsioa jasotzen du. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere jarduerak antzerkia, telebista ikustea, irakurtzea eta bidaiak egitea dira.
Mónica	21 urte ditu, Bilbon (Bizkaia) bizi da eta Alakantekoa da jatorriz. Ezkongabea da eta lagun batzuekin etxebizitza partekatzen du. Unibertsitate ikasketak egiten ari da, besteentzako lanean ari da orduka. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere jarduera nagusiak kirola, irakurketa eta antzerkia dira. Konpromiso handia du kontu sozialetan.
Clara	16 urte ditu eta herri batean (Bizkaia) bizi da. Ezkongabea da, bigarren hezkuntzako ikasketak ditu eta familiaren etxean bizi da, beste erlijio bat jarraitzen du, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere jarduera nagusia argazkilaritza da. Guztietan gazteena da.
Cecilia	61 urte ditu eta herri txiki batean bizi da (Bizkaia). Bakarrik bizi da. Lehen mailako ikasketak ditu. Langabezian dago eta ez du laguntzarik jasotzen. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere pasioa zinema da.
Nati	65 urte ditu eta herri txiki batean bizi da (Gipuzkoa). Bikotekidearekin bizi da. Unibertsitate ikasketak ditu. Norbere konturako lan egiten du lanaldi partzialean. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere zaletasunak margotzea, kirola eta euskara dira. Ekintzaile feminista da.

Marisa	46 urte ditu, Bilbon (Bizkaia) bizi da, jatorri kolonbiarra du eta hemengo nazionalitatea dauka. Goi mailako unibertsitate ikasketak ditu. Ezkontuta dago eta bikotekidearekin bizi da. Besteentzako lan egiten du baina ez dauka lan egonkorrik. Katolikoa da, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere zaletasun nagusiak musika eta zinema dira. Abesbatzak zuzentzen ditu.
Filo	35 urte ditu, herri batean bizi da (Bizkaia) eta Perukoa da. Bigarren hezkuntzako ikasketak ditu. Bikotekidearekin bizi da. Norbere konturako lan egiten du tarteka, ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere jarduera nagusia kirola da.
Kattalin	44 urte ditu eta herri batean (Bizkaia) bizi da. Dibortziatua dago, bikotekidearekin bizi da eta alaba bat dauka. Bigarren hezkuntzako ikasketak ditu. Diru sarrerak: prestazio publikoa eta lanaldi partzialeko lana. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere jarduera nagusiak zinema, irakurketa eta bidaiak dira. Batukada feminista bateko partaidea da. Gurutzetako Unitatean genero birresleitzea amaitu du.
Naia	31 urte ditu, Bilbon (Bizkaia) bizi da. Ezkongabea da, bakarrik bizi da. Bigarren hezkuntzako ikasketak ditu. Lanaldi osoan ari da besteentzat lanean. Agnostikoa da, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere jarduera nagusiak kirola, irakurketa eta zinema dira. Gurutzetako Unitatean generoa birresleitzeko prozesua hasi du.
Alazne	24 urte ditu, Bilbon (Bizkaia) bizi da, goi mailako unibertsitate ikasketak ditu. Ezkongabea da eta bikotekidearekin bizi da. Norberaren konturako egiten du lan. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere jarduera nagusiak kirola eta zinema dira. Ekintzaile lesbiana-feminista da.
Zalao	49 urte ditu eta Gasteizen (Araba) bizi da. Ezkongabea da eta bakarrik bizi da. Bigarren hezkuntzako ikasketak ditu. Sektore publikoan egiten du lan, lanaldi osoan. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere jarduera nagusia irakurtzea da. Ekintzaile ekologista da, desazkundearen aldekoa. Emakume transgenero gisa definitzen du bere burua.
Arantxa	54 urte ditu, Bilbon (Bizkaia) bizi da eta kolonbiar jatorria du. Goi mailako unibertsitate ikasketak ditu. Langabezi-saria jasotzen du. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Zinema du zaletasun. Ekintzaile feminista da.
Espe	32 urte ditu, herri batean (Bizkaia) bizi da eta Bolivia du jatorri. Bigarren hezkuntzako ikasketak ditu. Dibortziatua dago, amarekin bizi da eta adoptatutako semea dauka. Besteentzako egiten du lan lanaldi partzialean. Katolikoa da, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere jarduera nagusia kirola da.

Nekane	44 urte ditu, Bilbon (Bizkaia) bizi da. Unibertsitate ikasketak ditu. Dibortziatua dago, seme-alabekin bizi da. Lanaldi osoan lan egiten du sektore publikoan. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen duen hizkuntza euskara da. Bere jarduera nagusiak zinema, irakurtzea eta bidaiatzea dira. Politika eta feminismoa pasioz bizi ditu.
Miren	55 urte ditu, Gasteizen (Araba) bizi da. Goi mailako unibertsitate ikasketak ditu. Ezkonduta dago, amarekin bizi da. Lanaldi osoan lan egiten du sektore publikoan. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere jarduera nagusiak zinema, irakurtzea, bidaiatze eta ikastea dira. LGTB eskubideen aldeko ekintzailea da.
Lorena	39 urte ditu eta herri batean (Bizkaia) bizi da. Bigarren hezkuntzako ikasketak ditu. Ezkongabea da. Bere konturako lan egiten du lanaldi osoan. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere jarduera nagusia kirola da. LGTB ekintzailea da.
Berta	45 urte ditu, herri handi batean (Bizkaia) bizi da. Unibertsitate ikasketak ditu. Dibortziatua dago, bikotekidearekin bizi da eta alaba bat dauka aurreko harreman heterosexualaren ondorio. Lanaldi osoan lan egiten du sektore publikoan. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen dituen hizkuntzak euskara eta gaztelania dira. Bere zaletasunak zinema, kirola, mendia eta bidaiak dira.
Itxaso	24 urte ditu, herri handi batean (Bizkaia) bizi da eta unibertsitate ikasketak egiten ari da. Ezkongabea da eta familiarekin bizi da. Lanaldi partzialean egiten du lan. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen dituen hizkuntzak euskara eta gaztelania dira. Bere zaletasunak zinema, antzerkia eta kirola dira. Bilbao Basketen jarraitzailea da. Gurutzetako Unitatean generoa birresleitzeko prozesua hasi du.
Julia	68 urte ditu eta Bilbon (Bizkaia) bizi da. Unibertsitate ikasketak ditu. Ezkonduta dago eta bikotekidearekin bizi da. Bestelako baliabide ekonomikoak ditu. Katolikoa da eta gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelera da. Bere jarduera nagusiak irakurketa eta bidaiak dira. Athleticen jarraitzailea da. Inguruko inork ez dauka bere transexualitatearen berri.
Matxalen	62 urte ditu eta Donostian (Gipuzkoa) bizi da. Bakarrik bizi da, unibertsitate ikasketak ditu eta ez du erlijiorik jarraitzen. Desgaitasuna dauka eta diru-laguntza jasotzen du. Gehien erabiltzen duen hizkuntza euskara da. Bere jarduera nagusiak zinema, irakurketa eta hizkuntza ikastaroak dira. Ekintzaile lesbiana eta feminista da.
Fátima	37 urte ditu eta herri handi batean (Bizkaia) bizi da. Herrialde arabiarra du jatorri. Unibertsitate ikasketak ditu. Ezkongabea da eta bikotekidearekin bizi da. Oinarrizko errenta jasotzen du. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere zaletasunak zinema, irakurtzea eta kirola

	dira. Feminista da.
Paula	46 urte ditu eta Gasteizen (Araba) bizi da. Unibertsitate ikasketak ditu. Ezkonduta dago eta bikotekidearekin bizi da. Lanaldi osoan lan egiten du sektore publikoan. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere jarduera nagusiak kirola eta zinema dira. Lorazaina lanbidez eta animalien maitale.
Marisol	44 urte ditu eta herri batean (Bizkaia) bizi da. Bigarren hezkuntzako ikasketak ditu. Ezkongabea da. Desgaitasuna dauka eta prestazioa jasotzen du. Lanaldi osoan lan egiten du sektore publikoan. Ez du erlijiorik jarraitzen, gehien erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da. Bere jarduera nagusia informatika ikastaroak dira. Athleticen jarraitzailea da.

II. ERANSKINA

SOLASALDI TALDEETARAKO ETA ELKARRIZKETETARAKO GIDOIA

Emakunde Bekaren inguruko azalpena ("diskriminazio anitzak", orokorrean esanda).

Grabatzeko eta irudiak hartzeko azalpena eman eta baimena eskatu.

Banakako galdetegiari erantzun.

"Baliabide" hitzekin ulertzen duguna orokorrean azaldu (blokeak).

Partaideek ezagutzen dituzten baliabideak eta erabiltzen dituztenak azaltzeko lehen ideia.

Eskema oinarri hartuta ateratako ideiak multzoka taldekatzen dira eta multzo bakoitzeko galderak lantzen ditugu.

GAIKAKO MULTZOAK:

- Ekonomikoa
- Ikasketak/lana
- Osasuna
- parte-hartze soziala
- kultura-aisialdia
- beste baliabide sozialak: juridikoak, etxebizitza,...

Ekonomikoa: Izaera publikoko prestazioak, kotizaziopekoak eta kotizazio gabeak (langabezia-saria, langabezia-sorospena, oinarritzko errenta, alokairurako edo familiarentzako laguntzak, hezkuntza eremuko laguntza ekonomikoak, bekak eta ekintzaileentzako laguntzak, lan jardunaren hasiera (LAN Ekintza), babes ofizialeko etxebizitzak, alokairu soziala.

Zer baliabide erabiltzen dituzu?

Denek ezagutzen dituzue aipatutako baliabideak? Nola ezagutu dituzue? Zeintzuk erabili dituzue?

Erraza zaizu baliabide horiek lortzea?

Lana/ikasketak: hanbat zentro: Lanbide, Bagabiltza, lan-munduan txertatzeko erakundeak, ikasketa zentroak, formazioa; sektore publikoa edo pribatua aukeratzea eta orientazioan/diskriminazioan eragin ote duen... (ikusgarritasunaren gaia, lan egonkortasuna...)

Zer baliabide erabiltzen dituzu?

Denek ezagutzen dituzue aipatutako baliabideak? Nola ezagutu dituzue? Zeintzuk erabili dituzue?

Erraza zaizu baliabide horiek lortzea?

Osasuna: Lehen mailako osasun asistentzia (orokorra eta espezialitateak: psikiatria, ginekologia, intseminazioa, toxikomaniak...), osasun publikoa-pribatua, osasun publikoa-pribatua; beste baliabideak (medikuntza naturala/alternatiboa?), GIBerako baliabideak, modulu psikosozialak, unitate zehatzak (Generoaren Unitatea). Ama lesbianak (amatasunaren gaiaren, publiko eta pribatuaren arteko ezberdintasuna), STG, gaixotasun tropikalak... ortopediak.

Zer baliabide erabiltzen dituzu?

Denek ezagutzen dituzue aipatutako baliabideak? Nola ezagutu dituzue? Zeintzuk erabili dituzue?

Erraza zaizu baliabide horiek lortzea?

Parte-hartze soziala: Sindikatuak, elkarteak, auzo elkarteak, emakume elkarteak eta elkarte feministak, LGTB arretarako erakundeak, GKE (boluntarioria...), LGTB jardunaldietara joatea, elkarte profesionalak, kiroltakoak, erlijiosoak, sareak (Facebook, txatak...).

Zer baliabide erabiltzen dituzu?

Denek ezagutzen dituzue aipatutako baliabideak? Nola ezagutu dituzue? Zeintzuk erabili dituzue?

Erraza zaizu baliabide horiek lortzea?

Kultura/aisialdia: abesbatzak, klubak, kirol azpiegiturak, udaletako formazio tailerrak, liburutegiak, zinema, antzerkia, museoak, ikuskizunak (jaialdiak, kontzertuak, ospakizunak), giroko tabernak, LGTB aisialdi gertakariak,

Zer baliabide erabiltzen dituzu?

Denek ezagutzen dituzue aipatutako baliabideak? Nola ezagutu dituzue? Zeintzuk erabili dituzue?

Erraza zaizu baliabide horiek lortzea?

Beste gizarte baliabideak: juridikoak (bikotea eta ezkontza eta horien ondoriozkoak), larrialdi sozialak (aterpetxeak, babeserako etxebizitzak), egokitutako zerbitzuak (garraioa...), irisgarritasuna, GKEen koordinakundeak, migratutako laguntzako elkarteak, persona helduak eta gazteak.

Zer baliabide erabiltzen dituzu?

Denek ezagutzen dituzue aipatutako baliabideak? Nola ezagutu dituzue? Zeintzuk erabili dituzue?

Erraza zaizu baliabide horiek lortzea?

III. ERANSKINA

ZEHARKAKO GAIEN GIDOIA

Ikusgarritasuna eta segurtasuna gai guztietan sartu beharreko alderdiak dira.

Ikusgarritasuna, erraztasunak, zailtasunak, oztopoak, tratu ona, tratu txarra, lortutako abantailak.

Baliabide bat erabiltzen duzunean, ikusgarritasuna presente dago?

Kasu eta baliabide guztietan, edo batzuetan bakarrik, zeintzutan? Zer arrazoiengatik?

Zein da erabilitako irizpidea batzuetan bakarrik ikusgarri izateko?

Ondo tratatua ikusi duzu zure burua baliabideak erabili dituzunean? Egon al da egoerarik zure burua gaizki tratatua sentitu duzuna? "Tratu onaren" adibiderik?

Erabileran ze abantaila lortu duzula uste duzu?

Baliabideak erabiltzean emakume lesbiana izateagatik zailtasunik/oztoporik izan duzu?

Beste pertsonarengan jarrera aldaketarik antzeman duzu lesbiana zarela esan ondoren? Zertan antzeman diozu, zertan aldatu da jarrera hori?

Ezagutzen duzun baliabideren bat ez duzu erabiltzen zure sexu orientazioa ez erakusteko edo sexu bereko pertsona batekin bizi zarelako?

Zeintzuk dira ez erabiltzeko arrazoiak? Ikusgarri ez izateko? Beste arrazoirik?

Baliabideen iragarkietan, jasotako informazioan, inprimakietan, alderdi formal-informaletan, zugana zuzentzeko moduan zure burua barruan/kanpoan sentitu duzu? Aldez aurretik ezarritako tratamendu heteronormatiboa eta heterosexuala antzeman duzu?

Segurtasuna:

Eratorik jasan duzu inoiz: fisikoa, hitzekoa edo bestelakoa? (familia barnean, ezezagun batek, bikoteak, lanean, kalean, beste eremu eta toki batean).

Seguru eta eroso sentitu zara erabilitako baliabideetan?

Zentzuetan bai eta zeintzuetan ez? Zein egoera zehatzeetan/bizipenetan ez zara seguru sentitu?

Zeintzuk izan dira seguru eta eroso ez sentitzeko arrazoiak?

Zer gauzak eragin dute eroso/ezeroso sentitzea?

Arropa, osagarri, makillaje... zehatzak erabiltzeari utzi diozu beldurragatik?

Hainbat leku edo toki publikoetara joateari utzi diozu bertan seguru sentitzen ez zarelako?

Zerbait gehiago egiteari utzi diozu seguru sentitzen ez zarelako? Badago seguruago (kaleetan, orokorrean) sentiarazten zaituen egoerarik?

IV. ERANSKINA

BALIABIDEEN ZERRENDA

BLOKE EKONOMIKOA

- ✿ Ardurapean seme-alabak dituzten familiei emandako laguntza ekonomikoa (Eusko Jaurlaritza)
- ✿ Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei emandako laguntza ekonomikoa (Eusko Jaurlaritza)
- ✿ Gizarte-larrialdiko laguntzak (www.bilbao.net)
- ✿ Inklusiorako laguntzak: www.bilbao.net
- ✿ Oinarrizko Errenta eta alargun pentsioaren osagarria.
- ✿ Ordaindutakoaren arabeko prestazioa (www.sepe.es)
- ✿ Langabezia-sorospena
- ✿ Gizarteratzeko errenta aktiboa (www.sepe.es), gizarteratzeko zailtasunak dituzten taldeentzat.
- ✿ Ikasleentzako diru laguntzak: matrikula, mugikortasuna: EHU
- ✿ Etxebizitza: Udalen etxebizitzak eta Etxebide (arabide orokorreko zein bereziko babes-ofizialeko etxebizitzak). Bizigune programa; alokairu sozialeko etxebizitzak, etxebizitzagatik prestazio osagarria; etxebizitza egokitze diru-laguntza (desgaitasuna duten pertsonak, EJRen laguntza, etxegoki, etxebizitza autonomia izateko sustapen-laguntza)
- ✿ Bilbao LanEkintza: ekintzaile txikientzako laguntzak, mikroenpresak: www.bilbao.net
 - Elkartean: Euskal Herrian desgaitasuna duten pertsonentzako baliabide gida.
- ✿ Gazteak: gazteentzako beka deialdia.
- ✿ Desgaitasuna aitortzea – Gizatek: edozein motatako desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta promozioa (472. orrialdea). Desgaitasuna duten pertsonentzako oportunitateko programa (499. orrialdea).
- ✿ Adinekoentzako laguntzak: http://www.imsero.es/InterPresent1/groups/imsero/documents/binario/33012_gpr_estaciones.pdf

LANA

- ✿ Lanerako Eskualdetako Sustapena: Behargintza zentroak (www.bizkaia.net).
- ✿ Gazteen enplegua: Garapena (www.bizkaia.net).

- ✿ Enpresak sortu eta martxan jartzeko laguntzak (gastuak) www.bizkaia.net
- ✿ Hezkuntza: Lanbide Heziketako zentro integralak.
- ✿ Ikaslan (Bizkaiko lanbide heziketa).
- ✿ Bagabiltza
- ✿ Lanbide
- ✿ Bilbao Ekintza
- ✿ Etengabeko prestakuntzarako Euskal Erakundea: Hobetuz
- ✿ Gizartelan (Eusko Jaurlaritza) Lana eta lan harremanak
- ✿ Peñascal prestakuntza zentroa.
- ✿ Langile elkarteak: Bizkaiko etxeko langileak.
- ✿ Gazteaukera (Euskadiko gazteriaren ataria: lana).
- ✿ Caritas: lan-munduan txertatzeko programak.
- ✿ Immigrazioaren alorrean lanean ari diren elkarteak lana bilatzeko programak garatuz.
- ✿ Desgaitasuna duten pertsonentzako lan informazioa eta orientazioa: Fekoor, beste batzuk.

OSASUNA

- ✿ Osasun sare publikoa.
- ✿ Klinika pribatuak / kontsultategi pribatuak: ginekologia.
- ✿ Sexu osasunerako zentroak: arreta psikosozialeko moduluak.
- ✿ GIB baliabideak: Hiesaren aurkako borrokarako elkarteak.
- ✿ Gurutzetako Generoaren Unitatea.
- ✿ GKEek emandako osasun arreta: Munduko medikuak, beste batzuk.
- ✿ Desgaitasuna duten pertsonentzat espezializatutako zentroak.

PARTE-HARTZE SOZIALA

- ✿ Elkarteak eta GKEak: boluntarioritza.
- ✿ Immigrazio alorreko elkarteak eta koordinakundeak.
- ✿ Desgaitasunaren eremuko elkartetan parte-hartzea.
- ✿ Elkarte eta talde erlijiosoak-immigraziokoak: Ellacuria zentroa eta beste batzuk.
- ✿ Parte-hartze politikoa.
- ✿ Sindikatuetan parte-hartzea.
- ✿ LGTB elkarteetan parte-hartzea.

- ✿ Auzo elkarteetan, herriko taldeetan parte hartzea.
- ✿ Beste elkarte batzuetan parte-hartzea: Guraso elkarteak, beste batzuk.
- ✿ Koletiboak: feministak, ekologistak, beste batzuk.
- ✿ Aisialdiko elkarteak eta taldeak.
- ✿ Kirol elkarteak: mendia, futbol taldeak.
- ✿ Kultura alorreko elkarteak eta taldeak: abesbatzak, dantza taldeak, orkestrak...
- ✿ Giza eskubideekin lotutako elkarteak eta fundazioak.
- ✿ Oporraldietarako programak: Adineko, Imsero. Besteak.
- ✿ Kultura, kirol, turismo eta aisialdi izaerako programak.
- ✿ Degaitasuna duten pertsonentzako baliabideen gida eta beste batzuk.
- ✿ Erretiratu taldeak, etxe eskualdekoak, feriak.
- ✿ Helduentzako Hezkuntza zentro iraunkorrak.
- ✿ EHUKo Esperientzia gelak.
- ✿ Museo sarea.

V. ERANSKINA

DATU-FITXA

2013ko EMAKUNDE BEKA. EMAKUME LESBIANEN KONTRAKO DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA ETA BALIABIDE SOZIOKULTURALAK ETA EKONOMIKOAK ERABILTZEKO DITUEN ONDORIOAK

Izena (nahi baduzu ez idatzi, isilpekoa izango da):

Ze lurraldetan bizi zara?

- Araba
- Bizkaia
- Gipuzkoa

Ze herritan bizi zara?.....

Zein da zure jatorria?

- EAE
- Beste erkidego bat
- Beste herrialde batzuk:

Zein da zure adina?

Zein da zure egoera legala egun?

1. Ezkongabea
2. Banatua
3. Dibortziatua
4. Alarguna
5. Izatezko bikote emakume batekin
6. Izatezko bikote gizon batekin
7. Emakume batekin ezkondua
8. Gizon batekin ezkondua
9. Beste egoera batzuk, zehaztu zein:

Amaituta duzun ikasketa maila zehaztu

1. Homologatutako ikasketarik gabe
2. Lehen mailako ikasketak (eskola-graduatu) / DBHko graduatua
3. Erdi mailako Lanbide Heziketa / LH1
4. Batxillergoa, LH2, UBI, Goi mailako Lanbide Heziketa
5. Unibertsitateko diplomatura / tekniko
6. Lizentziatura
7. Graduondokoa / Masterra

Erljio hauetakoren bat jarraitzen duzu?

1. katolikoa
2. protestantea
3. musulmana
4. ekialdeko erlijioak edota gurtzak
5. beste erlijio edo gurtzak
6. batere ez

Ze hizkuntza erabiltzen duzu gehiago egunero?

1. Euskara
2. Gaztelania
3. Euskara-Gaztelania
4. Besteak

Gaur egun, zein da zure egoera ekonomikoa?

1. Ikaslea
2. Lanpetuta ordaindutako lanean
3. Langabezian
4. Pentsioduna/Erretiratua
5. Oinarrizko errentaren jasotzailea

Zein da zure diru-sarrera iturria:

- Lan egonkorak emandakoa
- Lan ez-egonkor, noizbehinkako, aldi baterakoak emandakoa.
- Prestazio publikoa.
- Ondasun pertsonala - familiak emandako diru-kopurua.
- Beste diru iturri batzuk: osabidezko pentsioa, ezkutuko ekonomia
- besteak...

Ze lan harreman mota daukazu?

1. Besteentzat lan egiten dut
 - 1.1 Sektore publikoan
 - 1.2 Sektore pribatuan
2. Norbere konturako.
3. Ezkutuko lan jarduna: besteentzat kontraturik gabe, legeztatu gabeko norberarentzako, ez legeztatu.

Ze lan jardun mota daukazu?

1. Lanaldi osoa
2. Lanaldi partziala
3. Besterik:

Gaur egun ondokoekin bizi zara:

1. Nire ama/aita
2. Nire bikotekidea
3. Nire seme-alabak
4. Nire bikotekidea eta seme-alabak
5. Anai-arreba(k)
6. Beste senitarteko batzuk
7. Beste pertsona batzuk
8. Bakarrik bizi naiz
9. Lagun pertsonala(k)
10. Bizilagunak
11. Beste batzuk

Nire familia-nukleoa ondokoek osatzen dute:

- gurasoek (ama eta ama, aita eta aita, ama eta aita)
- aitak
- amak
- anai-arrebek: anai-arreba 1, 2 anai-arreba. 3 anai-arreba, 3 anai-arreba baino gehiago.
- Beste pertsona batzuek: aiton-amonak, osaba-izebak...

Seme-alabarik daukazu?

1. Bai (zehaztu kopurua):
2. Ez

Nola edo zer metodo erabilia izan dituzu seme-alabak?

- 1 Intseminazio bitartez
- 2 Adopzio bitartez
- 3 Harreman heterosexualaren bitartez
- 4 Beste bat:.....

Aisialdiko eta kulturako jarduerarik egiten duzu?:

- Zinema-TB
- Antzerkia
- Bidaia
- Besteak: zehaztu zeintzuk
- Irakurketa
- Kirola
- Ikastaroak: argazkilaritza, margolaritza...